

Jakintza-arloa: Soziologia

# Diaspora identitateak

## Gazte narratibak Argentinako Euskal Etxean

Egilea: OIHANE GARCIA SANTIAGO

Urtea: 2011

Zuzendaria: MIKEL ARRIAGA LANDETA

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8438-386-4

## Hitzaurrea

Argentinara estreinako aldiz abiatu nintzenean ezin aurreikusi esperientzia aberasgarri bezain intentsu horiek Doktore Tesiaren markoan burututako ikerketa aurkeztera ekarriko nindutenik.

Zorizko gertaerak medio, bertako euskal diasporan murgiltzeko aukera izan nuen orduan, besteak beste. Zalantza gabe, Argentinan urte latza bezain oparoa izan zen 2001. urtea, bai jendarteko sektore zabal batean, - “kazeroladak”, piketeak eta lantokien gestio forma berriak nonahi agertu baitziren-, bai Gizarte Zientzietan -pizkunde hura ikertzen ari zirenei esker bereziki-, bai maila pertsonalean ere.

Argentinan proiektu berri bat gauzatzeko motibazioak eta identitatearen inguruko hausnarketa egiteko nahiak bidelagun, ikerketa pixkanaka definitzen hasi eta lan esparrua gazteen diaspora identitatean kokatu nuen, Argentinako Euskal Etxeetan parte hartzen duten gazteekin jorratuko nuen.

Diaspora identitateak eskainiko zidan nazio, klase, genero eta belaunaldi baldintza konkretuetatik identitateen inguruko hausnarketa sakona bezain zabala egiteko parada. Gainera, Argentinarra izatea “beste nonbaitekoa” izatearekin identifikatu da luzez, diaspora identitateetara hurbiltzeko garrantzitsua zena. Iraganeko diaspora horietan baino, hauen bigentzia aldarrikatu eta gaur egungo diasporaren zentzuen gainean arreta deitu nahi nuen, halere.

Zentzu horretan, egungo Argentinako Euskal Etxeak identitate eraketak ahalbideratzeko marko propioak eskaini ez ezik, diaspora ikerketetan gutxi batzuetan jorratzen den asoziazionismo fenomenoaren hausnartzeko gonbiteak izango ziren.

Azkenik, norberaren esperientzia intentsu horietatik abiatuz, belaunaldi artekotasunetik eratorritako enpatia tartean, eta euskal diasporako gazteen inguruko tratamendurik ez zegoen heinean, ikerketa honen bitartez hutsune esanguratsua bete eta diasporako gazteen identitateen inguruko ekarpen espezifikoak egin nahi nuen.

Lanean hasi nintzen egun beretik gaur arte ikerketaren fruituak zabaltzearen beharra argia izan da. Tesiker egitasmoaren baitan, modu irekian eta atsegin handiz, diaspora identitate eta gazte narratibetan jakin-mina duen orori eskura uzten diogu Doktore Tesia bere osotasunean.

Oihane Garcia Santiago  
Euskal Herrian, 2012. urteko martxoaren 11ean

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA  
SOZIOLOGIA 2 SAILA



eman ta zabal zazu

DEPARTAMENTO DE SOCIOLOGÍA 2  
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

# **Diaspora identitateak**

## **Gazte narratibak Argentinako Euskal Etxean**

**OIHANE GARCIA SANTIAGO**k aurkeztutako memoria,  
**MIKEL ARRIAGA LANDETA**ren zuzendaritzapean,  
Soziologian Doktore Gradua eskuratzeko

LEIOA 2011

# Aurkibidea

<b>Ikerketa planteamendua</b>	<b>5</b>
1. Sar hitza	6
2. Diaspora identitatearen inguruneak	15
2.1. Diasporak. Abiapuntuko definizio baten bila	15
2.1.1. Dispersioaren diaspora. Jatorrietara bueltatzeko gonbitea	15
2.1.2. Komunitate transnazionalak. Estatuaren mugetatik barrena	19
2.1.3. Interkonexio sareak. Subjektu berriaren agerraldia	22
2.1.4. Diaspora komunitateak kokatzea. Diaspora orientabideen beharrak	26
2.2. Gazte identitateak eta belaunaldien arazoa diasporatan	32
2.2.1. Belaunaldien patua. Asimilazio eta hibridazioaren lerro zuzenak	33
2.2.2. Gazte belaunaldiak diasporan. Zenbait gako	38
3. Euskal diaspora Argentinan	44
3.1. Desplazamendu eta enplazamendu testuinguruak	44
3.1.1. Diasporak bidean	44
3.1.2. Diasporak argentinan narrazioetan. Apartekotasun argentinarrak	48
3.1.3. Argentinako euskal diaspora. Kolektibitatearen partikularitasunak	53
3.2. Diaspora komunitate antolatutakoak: Euskal Etxeak	56
3.2.1. Diaspora plegatuz. Zentro espazial, sinboliko, instituzionalak	57
3.2.2. Diaspora zentroak desplegatuz. Zentro eta indar korrelazio berriak	61
3.2.3. Diaspora komunitate sareak. Argentinako Euskal Etxeen tipologia bat	63
3.3. Argentinako Euskal Etxeko gazteak. Lehenengo hurbilketa	69

<b>Gazte narratibak Argentinako Euskal Etxean</b>	<b>74</b>
4. Ibilerak. Diasporan identitateak eratzen	75
4.1. Hastapenak	75
4.2. Urratsez urrats. Euskal munduan kokatzen	82
4.2.1. Euskal dantzak eta dantza taldeak	88
4.2.2. Euskara eta euskara taldeak	93
4.3. Aurrera. Identitate noranzkoak definitzen	98
4.3.1. Diasporako gazte ibiltariak: erreferenteen adibidea eta adibide ez horren atipikoak	104
5. Norabideak. Identitatearen artikulazioak diasporan	113
5.1. Memoria kolektiboak: oroitzapen eta ahaztura gidak	113
5.1.1. Gerra ondoko ilobak	121
5.1.2. “Ez-ondorengoak”. Euskal oinordekotzarik ez duen gaztea	128
5.2. Egungo Argentinaren inguruneak...	133
5.2.1. ... eta euskal diasporako gazteak egungo Argentinan	140
5.3. Bihar, Euskal Herria	149
5.4. Joan etorriko bideak. “Hemen bizitzea”	156
6. Etxeak. Diaspora identitate luzapenak	164
6.1. Topaguneak	164
6.2. Komunitate erreferentziak, pertenezia lekuak	175
6.3. Hamaika etxe. Diaspora komunitate sareak	180
6.4. Etxetik at. Jada ez dauden gazteak	187
<b>Ondorioak</b>	<b>201</b>
<b>Ikerketa narratibak. Lanaren nondik norakoak</b>	<b>221</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>251</b>

## **Mapa eta taulen aurkibidea:**

1. mapa. Argentinako euskal diaspora komunitate aitortuen kokapena, eskualdearen arabera (2006)	65
1. taula. Diaspora komunitateen sorrera urtea, kokapenaren arabera (2006)	66
2. taula. Euskal Etxeen tipologia bat: zentro aitzindariak, erdibidekoak eta berriak	69
3. taula. Banakako eta biko elkarrizketak. Parte hartze aktiboa duten gazteek	236
4. taula. Banakako eta biko elkarrizketak. Parte hartze pasiboa duten gazteek	237
5. taula. Banakako eta biko elkarrizketak. Parte hartzerik ez duten gazteek	238
6. taula. Elkarrizketa taldeak	240
7. taula. Diaspora erreferenteekin elkarrizketak	241
8. taula. Behaketa partehartzailea diaspora ekimenetan	242

# **IKERKETA PLANTEAMENDUA**

## 1. SAR HITZA

---

Ikerketa honen lan esparrua da **gazteen diaspora identitatea**, Argentinako Euskal Etxeetan parte hartzen duten 16-30 urte bitarteko gazteekin jorratuko duguna.

Aipatu ikerketa eremua mugatzerako garaian zerikusi handia izango dute esperientzia pertsonalek. Izan ere, Argentinan bizitako urteak, ustekabeak, Euskal Etxeekin topo egitera eta Argentinako diaspora zentro zabal eta ez antolatua ezagutzera eraman ninduen. Orduan suertatutako lehen hurbilketa horietatik ikerketa definitzen hasi eta berehala, gainera, diaspora identitateen inguruko azterketa burutzeko Argentinako euskal diasporak duen berebiziko interesa argituko da:

Argentinako euskal diaspora erreferentzia handikoa da mundu mailako euskal diasporaren baitan. Argentinan finkatutako euskal diasporaren desplazamenduak izan dira masiboak, dibertsifikatuak eta etengabeak eta, gainera, Argentinan kokatzen dira mundu mailan egun erregistratutako Euskal Etxe gehienak. Diaspora komunitate antolatu horiek Argentinako euskal diasporaren parte inportante bat osatzen dute, baina ez dira bakarrak. Horietatik kanpo bada inongo antolakuntzarik ez duen diaspora inportantea, eta bada bestelako antolaketa formak dituen euskal diaspora edo hemendik at kokatzen diren diasporako zenbait komunitate, Nafar Etxeak kasu. Identitatea eratzeko marko propioak ahalbidetzeagatik, eta diaspora barruan nahiz kanpoan oraindik ere erreferentzialtasun handia izateagatik, ikerketa honetan Euskal Etxeetan zentratuko gara.

Argentinan diaspora kolektibitateek badute aparteko erreferentzialtasuna gainera; argentinaren Estatuaren eraikuntzan, argentinaren jendartearen osakeran eta argentinaren identitatea eratzean europar migratzaileei protagonismo berezia eman baitzaie. Diasporan nahiz argentinaren identitatean berebiziko eragina izan du, bestalde,



azken hiru hamarkadetan Argentinako krisi ekonomiko, politiko eta sozial sakonak, krisi horrek modu esanguratsuan gazteria kolpatu duelarik. Gaztea, bilakaera orokor horren baitan, aldaketa fisiologiko, kognitibo eta emozional azkarrak bizi dituen momentuan dago, eta horrek identitateari are gehiago eragingo dio. Horregatik guztiagatik, Argentinako Euskal Etxeetako gaurko gazteak hartu nahi izan ditugu ikerketa honen protagonista nagusitzat.

Horrela, bada, orientabide edo zertzelada txiki horietatik abiatuz, ikerketa esparru zabalaren orokortasunari heldu eta diaspora identitatearen hausnarketa zabala egiteari ekingo diogu, ikerketa-ibilbide honetan nazio, klase, belaunaldi eta genero ikuspegitik bide edo lan ildo anitzak uztartu nahirik.

## ***IKERKETAREN HELBURUAK***

Argentinako Euskal Etxeetan parte hartzen duten 16-30 urte bitarteko gazteen eskutik, ikerketa honen helburu nagusia da **gazteen diaspora identitate dinamikak ezagutzea**. Zehazki:

Lehena, *diasporako gazteen identitate eraketak ezagutzea*: egungo Argentinan gazte identitateak diasporan eratzeko moduak aztertzea; gazteek euskalduntasuna diasporan esperimendatzeko aldaerak aztertzea; espresuki, Euskal Etxeek gazteen identitateak eratzeko eskaintzen dituzten markoak identifikatu eta horiei ematen zaizkien esanahiak hausnartzea.

Bigarrena, *diasporako gazteen identitate artikulazioak ezagutzea*: gazte eta diaspora identitateak artikulatzeko moduak aztertzea; identitate argentinarra eta euskal identitatearen arteko egokitzapenak aztertzea; espresuki, Euskal Etxeek gazteen identitate artikulazioetan duten eraginaz hausnartzea, identitate artikulazioak baimentzen edo oztopatzen dituzten identifikatzea.

Hirugarrena, *gazteen diaspora identitatearen zentzuak ezagutzea*. Diasporako gazteen identitate esanahiei buruz gogoeta zabala egitea; espresuki, Euskal Etxearen baitan nahiz Euskal Etxetik haratago diaspora identitatearen mugak eta luzapenak identifikatzea.

Lan hipotesiari dagokionez, ohiko hipotesi-formulaziorik ez dela erabili esan beharra dago. Helburua ez da izan ikerketa lanaren hastapenean ezarritako presupuesto edo aurreiritzi jakin batzuen balioa edo balio eza konprobatzea, baizik eta gazteen diaspora identitateen konplexutasunari modu ireki batean heltzea eta, bide horretatik, diaspora identitateen zabalkundean sakontzea. Baldin eta ikerketak gidatu duen uste orokorra formulatu behar bada, hauxe litzateke: *badirela modu edo baldintza konkretuak diasporak eta gazteak munduan kokatzeko eta mundua esperimentatzeko, eta gaur egungo Argentinan Euskal Etxeek gazteei mundua modu espezifikoko eta bereizgarrian esperimentatzeko aukerak eskaintzen dizkietela.*

## **METODOLOGIA ETA TEKNIKAK DIASPORAKO GAZTE NARRATIBAK**

Diasporan eta bereziki Euskal Etxean gazteak dituen esperientzia anitzen berreraiketa esanguratsua burutu nahi dugu. Narratiba hor sortuko da, hain zuzen ere, munduan gazteak dituen esperientziak eta esperientzia horiek kontatzeko ahaleginetan (White, 1992). Esperientzia kontaketa nahiz esperientziak espresatzeko eta transmititzeko moduei helduko die narratibak. Lehenak bizipen, jarduera eta diskurtsoen zentzuei erreparatuko die; bigarrenak, berriz, gazteak kontakizunean kokatzeko aldaerei.

Bizi-ibilbidearen momentu berezi batean kokatuta dago gaztea. Esan liteke ezen, batetik osotasuna, koherentzia edo jarraipen ilusioak, eta bestetik, gabeziak, dudak edo hausturak bete-betean agertuko direla. Identitatearen norakoak argitzeko une erabakigarria izaten da hau; *hemen* eta *orain* ingurua, harremanak nahiz gorputza esperimentatzeko, eta *etorkizuneko* ibilbide ezberdinak imajinatzeke une erabakigarria. Bizi-ibilbidea hasi berria den unean, –eta iraganak muga gutxi inposatzen dituenean–, etorkizunari buruz galdetzeak berebiziko garrantzia du; bizi-horizontean kokatzean, orainaren egoeraren berri emango du gazteak.

Diasporako gazteen esperientziak *denbora eta espazio anitzetan* igaroko dira: etorkizunean proiektatutako bizipenak ez ezik, gazteak berak edo beste batek iraganean eta orainean izandako esperientziak ere bai; Euskal Etxetik kanpo zein diaspora

komunitate barruan, Argentinan eta Euskal Herrian, auzoan edo bizitokian, edo beste espazio eta denbora esanguratsu batzuetan iragaten diren esperientziak plazaratu beharko ditu diasporako gazte narratiba batek.

Aipatu esperientzien heterogeneotasuna gertaeren kontaketa hutsala edo anekdoten segida soila bihurtu ez dadin, **esangura duen ordenazioa arriskatu** beharko da: narrazioa sortuko da esperientzien hastapena, bilakaera eta itxiera hipotetikoaren aukeraketa eginez; narrazioaren bidez zentzua hartuko du, era berean, bizi-traiektoriak (Arfuch, 1996)

Bizi-ibilbidean gazteak baditu kokapen espezifiko jakin batzuk. Adina, klase soziala, adskripzio nazionala eta genero baldintzen arabera, bizitzan zein gizartean posizio ezberdinak okupatu eta bertan esku hartuko du, neurri handiago edo txikiago batean inguruan eraginez. Oro har, inguru soziala esperimentatuz gazteak jakintza praktikoa lortu eta horren inguruko informazio klabea ematen du. Edonola ere, ez dagokigu jarduera, iritzi edo egiteko hauek epaitu eta egiazkoak edo faltsuak diren baloratzea. Egiten dutenetik harago, horien esanahietan sakontzera eta *jardueren, jarreren eta elkarrekintzen esanahiak* testuinguruan kokatu, ordenatu eta zentzua ematera jo beharko dugu.

Esperientzia guztien artean norberak bizi izandakoak garrantzi berezia dute, are gehiago gazteak bizitza auto-esperimentatzeari ekiten dion garaian. Bizipen eta anekdota batzuk gailendu eta horiek hartuko dute garrantzia, garrantzitsuak izan daitezkeen beste asko alboratu eta transmitituko ez diren bitartean. Batean zein bestean gaztearen, diasporaren eta beste subjektu askoren singularitasunak islatuko dira; batzuk aipatzeagatik, goranzko migratzailea, gazte edo euskal argentinarrak edo Euskal Etxeetako kideak. Narratibak *protagonista anitzak* ditu, ibilbidean agertu eta desagertzen diren bide lagunak. Batzuetan gazteak berak hartuko du hitza eta bere iritzia plazaratu; beste batzuetan, ordea, diskurtso jakin bat sostengatu eta garatu dezake. *Nork eta nondik zer kontatzen duen*, esaten dena eta esaten ez denaren gainean arreta deitu behar da; betiere momentu ezberdinetan narrazioan agertuz doazen protagonista nagusien presentziak eta ausentziak argituz.

Narrazioetan esperientzia kontatzeko, hitza hartzeko eta entzunak izateko aukera dauka gazteak; diasporak esan beharrekoa azaltzeko espazioa, historia ofizialak edo ahanzturak isildutakoak agertzeko beta. Narrazioak badu funtzio komunikatiboa, interpretazio edo zentzu berriei irekia dago. Horregatik, gazteek **esperientziak espresatzeko eta transmititzeko moduei** erreparatu behar zaie; kontakizunean kokatzeko erabiltzen diren aldaerei so egin, hots, narrazioaren adierazkortasuna antzeman (tonua, azentua eta erritmoak; lapsusak, isiluneak eta barreak), proben detektorea, bilaketa obsesiboa, aparatu metodikoa eten (Arfuch, 2002)

Horrek ez du esan nahi ikerketak diseinu metodologiko zorrotza ez duenik. Narratibaren arrakasta esanahien errebelazioan, segidaren koherentzian edo gertaeren esanguran datza, “agertzen den koherentzia, osotasuna eta itxiera soilik izan daiteke imajinen gordailua” (White, 1992, 39). Esperientzien osotasun esanguratsu bat eraiki behar da; eta ez erregistro edo kronologia bat berreraiki. Narrazioari heldu behar zaio, nola eta *trama bat agertuz*: esperientziak, errepresentazioak eta jarduerak ordenatu, sailkatu eta elkarren artean lotuz; denbora, espazioa eta protagonista nagusiak identifikatuz, ildo eroalea jarraitu.

Diasporako gazte narratibak eraikitzeke ikerketan zehar burututako 35 sakoneko elkarrizketa eta lau talde-elkarrizketetara jo dugu. Halaber, narratibak osatzeko garrantzitsuak izan dira oso ikerketa ibilbidean izandako parte-hartzetik eratorriko interpretazioak zein gogoetak, baita diasporako hamahiru erreferenteekin solasaldietan agertutako zenbait zantzu ere.

Lagina gauzatzeko orduan Argentina zabalean dauden diaspora kokapen eremu esanguratsuak eta tokian tokiko Euskal Etxeen ezaugarriak kontuan izan ditugu. Orotara, Argentinako hamabost Euskal Etxe ezagutu ditugu, hamahiru zuzenean eta bi zeharka. Elkarrizketa gonbitea luzatzeko irizpide nagusia izan da horietan gazteak zer parte hartze duen: parte hartze aktiboa duten gazteekin elkartu gara, dantza, euskara eta txikien irakasle eta gazte erreferenteekin batik bat; parte hartze pasiboagoa duten dantzari eta euskara ikasleekin solasaldiak izan ditugu; eta, azkenik, jada parte hartzen ez duten gazteen esperientzietara ere hurbildu gara. Lagina osatzeko, parte hartze motaz gain, sexu eta adin tarteen oreka ere kontuan izan dira.

**Banakako zein biko elkarrizketa sakonen** bidez gazteak esperientzia eta bizipen horiek garatu direneko testuinguruen berri emango du. Bizi-ibilbidea berreraikitzen lagundu dugu; gertaera, egoera eta elkarrekintza garrantzitsuenak azaltzea; familia eta goranzkoen esperientziak kontatzea; etorkizuneko planak eta perspektibak esplikatzea.

Solasaldi guztietan Argentinako egoera, argentinarr gazteriaren eta diasporaren inguruko gogoetak presente egon dira. Horietan sakontzearen **talde elkarrizketak** eratu ditugu. Horiez gain, eztabaidagai izan ditugu, besteak beste, Euskal Etxeetan egiten diren ekimenak, parte hartzeko trabak edo hobetze aldera plazaratu daitezkeen proposamenak.

Halaber, Euskal Etxeek antolatutako hainbat ekimen sozial, politiko eta kulturaletan parte hartzeaz gain, gazteekin denbora libre eta aisialdi espazio anitzak konpartitu dira, elkarrenganako ezagupen eta gertuko ikuspegi zehatz eta osatu baten bila. Topaketak orientatzeko **behaketa parte-hartzailea** teknikaz baliatu gara.

Gazte esperientzia guztien arteko konparazioak burutuz, informazioa eta material anitzak ordenatuz, *narratiba osatu bakarra eratu* nahi izan dugu. Hau da, gazteen esperientziak gurutzatu ditugu, esperientzia anitz horiek ahots anitzez kontatuak izan daitezzen.

## ***IKERKETAREN AURKEZPENA***

Lehen atalean **ikerketaren planteamendu orokorra** aurkeztuko dugu. Lanaren zertzelada nagusiak jorratu ondoren, bigarren kapituluaren ikerketa-esparru nagusia den diasporako gazteen identitatearen inguruko gogoeta teorikoa burutuko dugu. Diaspora, gazte eta identitatearen ikuspegi teoriko ezberdinetara jo dugu diaspora identitatearen irakurketa orokorra egiteaz gain, gazteak zein diasporak birkontzeptualizatu eta zenbait orientabide analitiko eskaintzeko.

Proposatutako definizio eta orientabideetatik abiatuz, hirugarren kapituluaren euskal diasporak Argentinan dituen partikularitasunak plazaratuko ditugu, hautatutako

testuen eta bigarren mailako iturrietako datuak ustiatuz eta interpretatuz (txostenak, estatistikak, erregistro ofizialak, araudiak), eta behaketa partehartzaileak ahalbideratutako interpretazio pertsonalen bidez. Argentinako euskal diasporaren inguruak perfilatzeaz gain, tartea egingo dugu bertan parte hartzen duten gazteen soslai orokorra eskaintzeko, eta proposatutako definizioetan sakontzeko.

Bigarren atalean Argentinako Euskal Etxeetan parte hartzen duten gazteen esperientziak aurkeztuko ditugu. Elkarrizketa eta talde elkarrizketen analisisen bidez, **gazte narratiba** bat ardaztuz joango gara: Euskal Etxean gazteak izan duen hastapenekin hasi; identitateari eragin dion bizipen multzoen bilakaera trazatu; eta esperientziaren amaiera hipotetiko bat gerturatu, hau da, Euskal Etxetik kanpo izan ditzaketen esperientzien esanahi berriei atea ireki. Horretarako diferenteak baina elkarren artean osagarriak diren hiru narratiba aurkeztuko ditugu.

Lehen narratiban Euskal Etxean sartu zeneko lehen egun hartatik, ezagutza eta konpetentzia bereizgarriak hartuz joan da gaztea (4. kapitulua). Eszenatoki, denbora eta protagonista definituak agertuko dira horretan: beste gazte eta erreferenteekin batera, gazteak orainaldian Euskal Etxe barruan bizi dituen esperientziak. Ibilbidea ez ezik, ibiltzeko modu ezberdinei ere erreparatu nahi diegu, hots, identitate ibileraren erritmoei: inguru berrian kokatzeko gazteak jarraitutako etapak, etapa bakoitzean egindako urratsak, eta urrats bakoitzean emandako aurrera eta atzera pausuak.

Bigarren narratibak denbora eta espazio anitz hartuko ditu: urruneko iraganetik hasi, egungo Argentinan gazteek dituzten gabeziak zein potentzialtasunak planteatzeko, etorkizunean zer bide irekitzen diren azaldu, hiru eszenatoki nagusien baitan (Argentinan, Euskal Herrian eta gazteen egungo bizitokietan). Narratiba horretan protagonistetako batzuk dira arbaso migratzaileak eta familia, argentinarrak gazteria eta euskal gazteria. Bideak ez ezik, bosgarren kapituluan gazteek trazatutako norabideetan sakonduko dugu, hots, bidean agertu zaizkien bidegurutzeak, aurrerabideak eta bidaia-lagunak, momentu ezberdinetan gazteek hartutako norakoak, munduan kokatzeko erabilitako gidak.

Hirugarren narratibak Euskal Etxeko espazioa okupatzen hasten denetik, espazioa zentzuz bete eta bere egin eta etxetik alde-egite posiblea planteatu arteko tartea

hartuko du (6. kapitulua). Eszenatoki nagusia Euskal Etxea eta bere inguruak dira (bizitokia, herria, diaspora), horietan gazteak orainean dituen esperientziak eta etorkizunera begira dituen itzarobideak bilduz. Etxearen zentzu berriak eraiki nahian, Euskal Etxeen errepresentazio eta etxearen ideia-aren luzapenetan kokatuko gara.

Halaber, esperientzia kontatzeko modu bakarra ez dagoenez, eta narratibaren protagonista nagusia den gaztearen bizipenak elkarren artean ezberdinak direlako, diasporako gazteen lau perfil ezagutzeko tarte ere hartuko dugu: gazte erreferenteak, gerra ondoko ilobak, euskal arbasorik ez duen gaztea; eta jada Euskal Etxeetan parte hartzen ez duen diaspora kide ohia.

Bigarren atal hau prestatzeko elkarrizketen zati testual esanguratsuenak hartu ditugu, gazteek beraiek euren esperientziak konta ditzaten; izan ere, hitzen, espresioen bizitasuna, indarra, gogoeta-uneak eta afektuak transmititzeko modurik egokiena hori izan baitaiteke. Aukeratutako zitarekin batera elkarrizketatu bakoitzaren zenbait erreferentzia agertuko dira, hala nola, adina, parte hartze mota eta bizitokia. Gazteak identifikagarriak izan ez daitezzen, izen-abizenak asmatutakoak dira, betiere deituren adierak eta aldaera ortografikoak errespetatuz. Gainera, elkarrizketatuek aipatzen dituzten leku, pertsona eta bestelako datuak testutik kendu edo aldatu dira behar-beharrezkoa suertatu denean.

Ikerketa planteamenduaren eta gazte narratiben aurkezpen zabala egin ondoren bi atalen **ondorio nagusiak** aurkeztuko ditugu, kontrako ariketa burutuz: narratiba txikiagoen bidez tramak berreraiki, eta bestelako hastapen, bilakaera eta itxiera hipotetikoak trazatu.

Ikerketa honen helmugak ez ezik, ikerketa prozesuaren ibilbideen berri ere eman nahi dugu, hau da, **ikerketaren nondik norakoak** aurkeztu. *Ikertzaile narratiba* horietan –nolabait deitzearren– Argentinako euskal diasporako gazteei egokitutako gogoeta metodologiko zabalagoa burutu, ikerketa tekniken argibide gehiago eskaini eta elkarrizketatuen profil orokorra ezagutzera eman dugu.

Bukatzeko, lan hau egiteko erabilitako **erreferentzia bibliografiko nagusiak** aipatuko ditugu, beharrezkoa izan diren kasu guztietan lehen edizio urtea eta erabilia izan den argitalpen urtea zehaztuz.

## **ESKER ONAK**

Tesi zuzendaria izan den Mikel Arriaga irakasleari, Soziologia ikasketen aurrenengo urteetan soziologian murgiltzeko aparteko gonbiteak bide luze honetan ekiteko zerikusi handia izan duena, eta ikerketa-lan honen hastapenetan bere lanen ekarpen teorikoekin ikerketa hornitu; orientabide praktiko eta kritikoeekin ikerketa bilakaera gidatu; eta amaiera-arte begirada abegikorra izan duena.

Ikerketa honetan parte hartze zuzena izan duzuen guztiei. Aipamen berezia Joseba Butron irakaslearentzat, zeinak euskarako testua orraztu eta ulerterrazagoa bihurtu duen. Eskerrik beroenak Argentinako euskal diasporako gazteei, euren prestutasuna, interesa eta arretak ikerlana gauzatzea posible egin dutelako.

Ikerketa honetan zeharka parte hartu duzuen guztiei. Ama eta aitari, horren garrantzitsuak jo dituzuen baldintza-materialak probesteaz gain, bizi-ibilbidean bereziki garrantzitsua den baldintza-gabeko konfiantza erakusteagatik. Babesa eta animoa eman, nahiz ikerlanarekiko ulertezintasunak adierazi eta etengabe presionatu duzuen lagun eta kide guztiei, une zoriontsu eta latzenetan distraitzeagatik, eta distraitzen ez uzteagatik. Aipamen berezia Guillermo Paniaguari, identitate deskubrimendu askoren bidelagun izandakoari, ikerketa-bidaian afektuak, ezagutzak eta era askotako jardunak konpartitu izanagatik.

Identitate eraketa prozesuetan, gaueko ordu txikietan eta goizeko lehen orduetan ikerketa erritmoa markatu eta sarri askotan ikerketa norantzak argitu izan dituzten guztiei. Hitz zehatzaren bila abiatzen doan Laboa edo Silvioren doinu hauskorrari, edota aurrera jarraitzeko indar nahiko transmititzen duen Su ta gar edo Zitarrosaren erritmo azkar eta sakonei, beste askoren artean.



## **2. DIASPORA IDENTITATEAREN INGURUNEAK**

---

### **2.1. Diasporak. Abiapuntuko definizio baten bila**

Diasporen inguruan plazaratu daitekeen definiziorik sinpleena hauxe litzateke: diasporak noizbait desplazatu eta nonbait kokatu diren komunitateak dira.

Dispertsioa, migrazioa edo mugimendua hari eroalea izanik, ikuspegi teoriko ezberdinek diaspora esperientzia konkrituak hartuko dituzte adibide, eta horietan gertatzen diren harreman sozialen zentzuak zehaztu, elkarbizitzarako ereduak proposatu, diaspora kidearen inguruak perfilatu eta horren gabezi edo potentzialtasunak islatuko dituzte.

Dispertsioaren diaspora, komunitate transnazionalak eta interkonexio sareak dira diaspora ulertzeko hiru ikuspegi ezberdin. Hala ere, diasporaren definizio tradizionalaren ezaugarriak diren dispertsioa eta bizipen traumatikoen gainean sortutako diasporan sakonduko dute hirurek, guztietan zentro-periferia harremanak ardatz nagusi gisa agertuz. Halaber, desplazamenduetan azentua jarritz, aipagarria da diaspora kokalekuek ez dutela behar beste arreta jaso.

Zentzu horretan, desplazamendu eta kokapen aldaerei erreparatuta hainbat diaspora sortu eta existitzen direlako, eta desplazamendu mota guztiek diaspora sortzen ez dutelako, diasporen definizio bat arriskatu behar dugu. Atal honetan eremu anitzetan lekutuak dauden komunitateak ezaugarritu, analitikoki mugatu eta kontzeptualki kokatzea dugu helburu.

#### **2.1.1. Dispertsioaren diaspora. Jatorrietara bueltatzeko gonbitea**

Diasporen ezaugarriak identifikatzeko orduan *diaspora judutarraren* esperientzia eredu izan da. Sakabanaketa bortxatuaren ideiak diaspora ezaugarrituko du

geroztik. Jatorria aldarrikatzeko erabiliko da diaspora, Herri Hautatuaren destinoa baita, diotenez, Agindutako Lurrera inoiz bueltatzea, alegia, ustez galdutako lur sakratua noizbait berreskuratzea. Jatorrizko herriak zentraltasun osoa hartuko du diasporaren definizio tradizionallean, honako honetan laburbiltzen denez:

(1) The experience of dispersal and collective suffering constitute the key starting points in the definition of the classic diasporas (...) (2) The relationship between a diaspora and its host societies was generally a trouble one. (3) A diaspora evidenced a sense of community that transcends national frontiers. (4) A diaspora actively participated in the promotion of a return movement (although all certainly would or could not return) and the constitution or reconstitution of a national home (Cohen, 1997, 123)

Definizioari jarraiki **dispertsioa** litzateke diasporaren berezko lehen ezaugarria. Sakabanaketa bildurik dagoen multzoa desegitea eta hor-hemenka banatzea baldin bada, diasporaren dispertsioak zera adieraziko du: iraganean lurralde mugatu jakin batean bateratuta bizi zen komunitatea banatu egiten dela orain, bertako kideak jatorrizko herria uzten dutenean. Zorigaitzeko arrazoi bat nahiko izaten da *komunitatea bat-batean hautsi* eta *atzeraezinezko prozesua* abiarazteko: ziurtasunez beteriko jatorritik zalantzazko destinora eraman eta egokitze prozesu batek erabateko asimilazioa ekartzea.

Espazioak berebiziko garrantzia du definizioaren lehen zati honetan, diasporari urrun dagoen lurralde bat egokituko zaiolarik. Sorterria erreferentzia puntu nagusia izango da, eta bigarren maila batean kokatuko dira diasporaren herri hartzaile berriak. Diaspora *zentro-periferia logikan* kokatuta dago; urrutiko jatorrizko herria zentro espazial eta sinboliko nagusia litzateke eta diaspora, berriz, zentro horren periferian dagoen komunitatea. Haren eragin zuzena jasoko luke diasporak, modu pasibo batean zentroarekiko artikulatuz. Diaspora jatorriaren gatibu da, zentro-periferiaren arteko *harremanak hierarkiakoak* eta, beraz, erabatekoak direlako.

Zentroarekin lotura indartsuak eta jarraituak ezinbestekoak dira diaspora sortu, elikatu eta mantentzeko. Horregatik, jatorrizko herritik datozkion identitate elementuak eskuragarri izan beharko ditu, eta globalizazioak jatorrizko identitatea sendotu eta diasporaren indarra areagotu besterik ez luke egingo. Komunikazio eta garraio teknologiak lagun, birtualki bada ere zentroarekin konektatua egon edota jatorrira egiten

diren bidaiak eta sorterritik datozen migrazio fluxu berriek diaspora indartuko dutela uste da (Toticagüena, 2003).

Diasporaren sorburuan dagoen komunitatearen dispersioa modu traumatikoan gertatzen dela esaten da –sakabanaketa hitzak konnotazio hori izan ohi du gainera–. **Migrazio traumatikoaren** ideia litzateke, hain zuzen ere, diasporen bigarren elementurik garrantzitsuena, diasporako bizipenetan eragin zuzena duena. Jaioterritik banatzeak, oro har, atsekabea, frustrazioa eta bakardadea omen dakartza gehienetan. Diaspora esperientzia arrakastatsu batek, ordea, berarekin ekar ditzake muga nazionalak gainditzen dituen identitate indartsua, konfiantza sare globala eta ezagutzarekiko pasioa (Cohen, 1997)

Esperientzia traumatikoa edo arrakastatsua izan, definizioaren bigarren zatian denborak hartzen du garrantzia. Denbora luze baten poderioz sakabanatutako komunitatea talde-kontzientzia hartuz doalarik, herri hartzailean bizitzeko trabak handitu eta jatorrizko herrialdearekiko loturak sendotuko dira. Halaber, dispersioa erbeste, zigor eta exodo esperientzia traumatikoekin harremanetan egoteagatik, diasporen potentzialtasun guztiak baliogabetzen dira, hots, diasporak gara ditzakeen berezko praktika eta errepresentazio anitzak, ezberdinak eta antagonikoak lekuz kanpo geratzen dira (Clifford, 1999). Diasporak jatorrizko identitatea irmoki mantendu beharko du; zentroarekiko leialtasun irmoa eta konpromiso hautsezina agertu beharko ditu. Herriminak eta saminak diasporan presente dirauten artean, diaspora identitatea *nahi eta ezinaren artean* kokatuko da.

Bide horretatik diaspora galdutako lurraldea aldarrikatzeko prest egongo da. Lur sakratuak zentraltasun osoa duenean, euren existentzia prekariora eta isolatua babesteko modu bakarra izango litzateke etxera bueltatzeko mugimendua promozionatzea (Cohen, 1997). Bestela ere, herri hartzailean bizi dituen tentsioak jatorrirra bueltatzeko aukerekin neutralizatzen dira. Edozein garaitako **erromesen antzera, galdutako lurraldera itzultzea** ezinbestekoa zaio diasporako kideari; haientzat “egia beste toki batean dago; benetako lekua beti dago urrun denboran eta espazioan. Edozein tokitan dagoela, ez dago egon behar den edo amesten duen tokian” (Bauman, 2003, 43). Galtzear dagoen lurra edo identitatea berreskuratzeko jatorri sakratura itzuli beharko da ezinbestean.

Jatorrizko herrira egiten diren erromesaldiak eternitatearen lurraldera egiten diren itzulerak izango lirateke; esentziak bere baitan mantentzen dituen lurralde mitikoa zein idilikoa. Identitate-erromesaldia horretan datza: ibilbide markatua jarraitzea, galdutakoa berraurkitu, ezagunaren eremuetan sakontzea edota egiazko “fede ekintza” burutzea (Oiarzabal de Cuadra, 2005); esperientzia autentikoen bila, askotan imajinatu duena noizbait konprobatzearen esperoan, erromesak han topatuko ditu errealizazio pertsonalerako iturburu bakarrak.

Dolu batean bizi den diasporak ezingo du hemen eta orain etxerik eraiki. Komunitateak **etxe bakarra** izango du eta etxe horrek jarraituko du izaten urrutiko lurralde galdua. Hemen atsekabez bizi denean, *iraganak* erreferentzia eta zentzuen armazoi edo karkasak eskainiko ditu gainera. Bestela ere, hemen dagoena *han* dagoenaren bidez eraikiko du, alegia, iraganean urrun utzitakoaren bidez.

Jatorrietara bueltatzeko gonbitea prestu da; diasporarentzat ez dago berez beste alternatibarik. Sorterriko identitatea autentikoa litzateke; diasporaren identitatea, berriz, jatorrizko identitatearen luzapena edo kopia hutsa. Jatorrizko herriaren eta bere diasporaren **identitatea bakarra, uniforme eta aldaezina** baldin bada, “identitatearen jabe izan eta identitatea froga daitekeen zerbait –entitate edo objektu bat– bihurtzen da” (Gilroy, 1987, 308). Identitatea “eduki” edo “ez eduki” daitekeen zerbait bada, “identitatea tragikoa edo epikoa izango da (gainerakoetan, baita identitate agoniatsua ere), identitatea edonola babestu nahi dutenentzat” (Martínez de Albeniz, 2005, 595).

Jatorrizko herria eta bere diasporaren *identitatea estatikoa* litzateke, denbora eta espazioaren eraginetatik at. Identitate-esentzia babestu eta egonkor mantentzea helburu, –denboran iraun eta betierekoa izan dadin–, guztiz zorrotzak eta guztiz baztertzailak diren elementuen gainean eraikiko da diaspora identitatea, esaterako, arraza, odola edo leinua. Diaspora kidea beharrezkoak dituen elementuak identifikatu, esleitu eta jatorrizkoekin konparatuko da, zertarako eta diaspora identitatearen baliozkotasuna edo baliozkotasun eza, –autentikotasun edo gabetasunak–, konprobatzeko.

Identitatea *zero-batuketa* ikusmoldeari egokitzen zaio: elementu jakin batzuk eduki ala ez; komunitatearen barruan edo kanpoan egon. Identitateak ezingo dira batu; ezinbestean diasporak sorterriaren edo herri hartzailearen identitatearen jabe behar du

izan. Azken kasu honetan, *asimilatu* eta jatorrizko elementuak herri hartzailearen identitate-elementuekin *ordezkatu* beharko ditu, hau da, jatorrizko identitatea “hustu” identitate berri batekin “betetzeko”. Alderantziz, diasporak jatorrizko identitate-elementuei eutsiko balio, –“purutasuna” gorde, herri hartzailean “ez pozoindu”, aberri galdua berreskuratzeko bidean egongo litzateke. Izan ere, herri hartzaileetan *kultura-gordetegiaren* funtzioa bete dezanean, orduan mehatxupearan dagoen jatorriarekiko diasporak badu misio askatzaile bat: diasporak babestutako identitatea sorterriaren salbaziorako giltza bihurtu eta Agindutako Lurra berreskuratu.

### 2.1.2. Komunitate transnazionalak. Estatu mugetatik barrena

Komunitate transnazionala jatorrizko herriarekin nahiz herri hartzailearekin lotura esanguratsuak mantentzen dituen komunitatea da. Sakabanaketa traumatikoaren oroitzapena indarrean duen eta herri hartzailetik haratago elkartasunera deitu duen diaspora, hori komunitate transnazional espezifikoak litzateke (Faist, 2001). Diasporak zein komunitate transnazionalak sortu, funtzionatu eta mantentzeko nahikoak izango dira, alde batetik, errepresentazio kolektibo eta errepertorio sinboliko amankomunak izatea eta, beste alde batetik, jatorrizko herriarekiko lotura sinbolikoak mantentzea.

Ikuspegi transnazionalak jatorrizko herria eta herri hartzailearen arteko loturak eta bi norabidetako harremanak hartuko ditu aintzat, egungo *hego-mendebalde migrazioak* aztergai izanik batik bat –Mexikotik Estatu Batuetara edo Turkiatik Alemaniara adibidez–. Zehazki, migratzaileak mugetatik barrena bi Estatu edo gehiagotan nola eragiten duen neurtu nahi da:

We define “transnationalism” as the processes by which immigrants forge and sustain multi-stranded social relations that link together their societies of origin and settlement. We call these processes transnationalism to emphasize that many immigrants today build social fields that cross geographic, cultural, and political borders (...) An essential element of transnationalism is the multiplicity of involvements that transmigrants’ sustain in both home and host societies (Basch, Glick Schiller & Blanc-Szanton, 1994, 7)

Definizioari jarraiki, migratzaileak sortutako prozesu eta praktika ekonomiko, politiko eta soziokulturalak **bi herriei lotuta** egongo dira: jatorrizkoa eta hartzailea. Are gehiago, aipatu prozesu eta praktikak bi Estatu-nazioen logiken eraginak dituzte eta hauen arabera arautuak dira, migratzaileak kostata saihestuko baititu Estatuak bere horretan mantentzen dituzten muga eta kontrol geografiko, kultural eta politikoak.

Oztopoak oztopo, migratzaileak Estatuaren mugetatik zehar mugitzea lortuko du, bi herrietan eragina izanik, biak eraldatuz. Bi Estatuaren sistema legal eta erregulatzaileren artean negoziatu ahala kanpo sozial transnazionalan integratuz doa. Honetan, Estatuak eta bertako instituzioak ez ezik, parte hartuko dute baita migratzaileek eta beraien familiak, komunitate transnazionalak, harreman sareak edo instituzioak.

Harreman sarea handitzen bada ere, *zentro-periferia ardatza* bere baitan mantenduko da, ardatz berean kokatuta dauden bi zentroak erreferentzia puntu nagusiak izanik. Zentro bakoitzaren erreferentzialtasuna, ordea, aldakorra da. Batzuetan jatorrizko herrian dituzten eraginak neurtzen dira, periferiako herrien garapenerako konfiantzako iturria bihurtu direnaren ustean. Besteetan botere-zentro instituzional, sinboliko, espazial handietan migrazioak produzitzen dituen onurak aztertuko dira. Hainbat eremu eta kide jokoz kanpo geratuko dira bietan, –Estaturik gabeko nazioen diasporak adibidez–, Estatuaren analisi-unitate hartu eta prozesu zein praktika sozialak Estatuaren muga politiko eta geografikoetara mugatzen diren artean behintzat.

Estatu-nazioak hegemonia kapitalista globalaren baitan kokatuta daudela eta, beraz, horien arteko *harremanak asimetrikoak* direla aditzera emango da. Hau da, guztiek ez dute joko bera karta berdintsuenekin jokatu. Horregatik bada ere, migratzaile transnazionalak (jarduera transnazionalak burutzen dituen migratzaile tipo espezifikoak) jatorrizko eta destinozko herriei enpoderamendu zein mendekotasuna garatuko ditu. Halere, mahai joko transnazionalan potentzial handiko **jokalaria** da transmigratzailea: bi herriak harremanetan jarri eta harreman transnazional zuzenik ez dutenei eragiteko gaitasuna ere badu; jarduera transnazionalen sorrera eta mantenua bere gaitasun, eskumen eta abileziaren esku dago. Joko honetan garrantzitsuena zera da: Estatuaren erregulazioen arabera jokaldia trebetasunez jokatzeko gaitasuna, Estatuaren mugetatik barrena posizioak irabaztea.

Migratzailea ez da isolaturik bizi eta bere esperientzia ez da jada ezintasunaren gainean eraikiko, besteak beste, ez duelako asimilaziora daraman jokaldia karta bakar batera arriskatuko. Transmigratzaileak partida askotan hartuko du parte eta **bizitza duala** izango du; jatorrizko herriaren eta herri hartzailearen bizitza sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalean *aldi berean parte hartu* eta “muga nazional gaindiko jarduera erregularrak, atzerrian duten euren eguneroko bizitzaren parte bat izango da” (Portes *et al.*, 2006, 12). Jarduera transnazional iraunkorrak burutuko ditu, jatorriarekiko dituen betebeharrak eta atxiki zaizkion leialtasun eta konpromisoak handiak izanik, baina inola ere ez bakarrik.

Herri batean bizi eta jatorrizko herria oso presente du migratzaileak. Jaioterriarekin maizko kontaktuak mantenduz, garraio eta komunikazio teknologia berriak baliaturik eta Estatuen mugak zeharkatuz, behin-betiko edo aldi baterako jaioterrira itzul daiteke. Horrek ez du esan nahi kokapen bakarra duenik. Migratzaileak bi herrietan **bi etxe** izango ditu, bietan eragina izan eta bietan presente egongo delarik. *Orain, hemen eta han* burutuko ditu jarduera transnazionalak, inmigrazio-emigrazio testuinguru eta esperientzien artean *kulunkatuko* delarik.

Identitate transnazionala **identitate duala, irekia eta aldakorra** da, *beste identitate bat-batzearen* eragiketaren fruitua. Diaspora jatorrizko herriaren parte izaten jarraituko du eta herri-hartzailearen identitate-elementuak gehitzeko kapaza den identitatea unean-uneko egoeraren arabera negoziatu eta transformatuko da.

Identitate-elementuak irekiagoak dira, integratzaileagoak. Hizkuntza jakitea, erlijio batekiko bokazioa, praktika sozio-kulturalen jarraipena, hiritartasun bikoitza izatea eta oro har, sasi-zorrotzak diren elementu zein praktikak besterik ez ditu behar mahai-jokoan esertzeko. Halaber, komunitate jakin batean egoteko modu konkretu batzuk erakustea nahikoa du kanpo sozialean edozein momentutan sartzeko, honetan praktika ikusgarrietan oinarritutako pertenezia eta izateko forma konkretuak garatuko dituelarik (Levitt & Glick Schiller, 2004). Diasporak aukera batzuk prest dituela esan daiteke: kanpo sozialean sartu eta irten, komunitatean integratu eta kanpoan egon, testuinguruan asimilatu eta ekarpenak egin, menekotasuna eta enpoderamendua garatu. Bitartean, diasporari hobekien egokitzen zaion funtzioa *enbaxada kulturalarena* da, eta

ez da falta *Gobernuz Kanpoko Erakundearen* funtzioak bereganatzea proposatzen duenik (Irigoyen, 1999).

Identitatea duala eta konpromisozkoa litzateke, hots, bi Estatu-nazioekin izaten diren konpromiso, leialtasun eta harreman praktikoen gainean eraikitako identitatea. Horrela, diasporak ez du soilik jatorrizko herriaren identitatea garatu beharrik; ez eta “inongoa ez izatearen” hautu negatiboa hartu. Bi herrien parte izan eta *hangoa zein hemengoa* izango da diaspora, konjuntzio honek lotura ez-hierarkikoak adierazten dituelarik (Toticagüena, 2003). Hala ere, diasporaren pertenezia, konpromisoa edota elkartasun forma iraunkor eta egonkor horiek bi Estaturen eremuei mugatuak egongo dira oraindik ere.

### 2.1.3. Interkonexio sareak. Subjektu berriaren agerraldia

Garraio eta komunikazio teknologia berriak, mugimendu fisiko eta birtualak, subjektu berri baten sorrera ahalbideratu eta elikatzeaz gain, kultura jakin bat lurralde jakin bati atxiki egoteari utzi dio. Horixe da ikuspegi postmoderno eta postkolonialistan diasporaren abiapuntu nagusienetakoa. Kultur-interkonexioetan azentua jarriz, eta diaspora esperientziak ezagutza-tresna egokitzat hartuz, kolonia garaiko *diaspora beltza* moduko adibideak berreskuratuko dira.

A diaspora is a network of people, scattered in a process of non-voluntary displacement, usually created by violence or under threat of violence or death. Diaspora consciousness highlights the tensions between common bonds created by shared origins and other ties arising from the process of dispersal and the obligation to remember a life prior to flight or kidnap (Gilroy, 1987, 328)

Diaspora oinaze historia baten produktua da. Gerrak, esklabutzak eta, oro har, sakabanaketa eta mugimendu desesperatuak bere baitan ditu; beldurra bere kontzientzian erreproduzitzen da. Aitzitik, diasporak transformazioak sufritzen ditu etengabe, historikoa den edozer bezala. Diaspora **jende-sare** bat litzateke egun, dispertsioak hor-hemenka sakabanaturik eta konexiorik gabe uzitakoa konektatuta baitago orain. Egitura rizomatikoak (Martínez de Albeniz, 2005), ondoko harreman ez-



zentralak (Clifford, 1999), konexio transnazionalak (Hannerz, 1998), bektoreak (Hall, 1990) edo intersekzio puntu anitzez osatutako sareek (Gilroy, 1987) ordezkaturiko dituzte mugaz zeharkaturiko lurralde hertsia.

Zentro-periferiak baino, *periferiak* eta *periferien bazterrei* so egiten zaie; marjinala eta periferikoa zena zentroan kokaturiko da. Horretarako distantziak baliogabetu behar dira, eremuak gerturatu, harremanen zentzuak aldatu. Muga egonkorak dituen mosaikoa izan beharrean, elkarrekintza eta elkartrukeen bidez kultur antolaketari eragiten dion paisai irekia litzateke mundua egun (Hannerz, 1998). Beraz, muga politikoek eta ozeano zabalek noizbait sakabanatutako herriak jatorrizko herriekin gero eta muga-harreman gehiago izanen dituztela uste da (Clifford, 1999). Estatu-egituren kontrol koerzitiboak, –muga politiko, ekonomiko, sozial zein kulturalak–, edota lurralde mugatu propioa aldarrikatzen duen nazionalismo mugimenduen indarrak gutxiesten dira, diasporak jendearen eta lurraldearen arteko harremanak eraldaturiko dituelakoan. Herri edo komunitateen artekotasuna baino, segun eta norabide anitzeko elkarrekin kontuan hartzen diren, horiek subjektuan zentratuta egongo dira. Gizabanakoa ardatz nagusia da, interakzio sozial ororen unitate minimoa.

Hibridoarekin bizi den diaspora identitatea subjektuaren pentsamendu eta zentzuei eragiten diela, irekiera kritikoa baimentzen duela, kreatio-ahalmenari eta espresio aberastasunari dagokiola, adieraziko da. Diasporak bizi izandako trauma ukalezina bada ere, honetatik ikasterik ba omen dago. Esklaboak garatutako afekzio eta intimitateak medio, jaioterriarekiko lotura afektiboen eta dispersioaren ondorioz sortutako loturen arteko tentsioak tartean, esklabutzaren trauma negoziatu eta jatorriaren alienazioarekiko hausturak sortuz... kultura eragin eta presio berriei ireki egingo litzateke ezinbestean. Gainera, memoria eta oroitzapenetan jatorria bizirik izanik, diferentziak produzitu eta ahalbideratuko ditu.

Diaspora kidearen potentzialtasunak muturrera eramaten dira. Subjektua zentroan jarri eta bere izaera erreflexiboa gailendu behar da, subjektuaren gaitasunaren araberakoa baita eskura duen kultur-aniztasuna norberearen gurrietara moldatzea. Esperientzia kulturalen esanahiak manipulatzeko gaitasun pertsonala garatuko du, nola eta **mugimendu fisiko edo birtualen** bidez.

Aparteko trebezia honek ez du inplikatu lotura, betekizun edo leialtasun berririk. Bestearekin konprometitzeko borondatea izan dezake, –kulturekiko iaioa dela erakutsi dezakeen bezala–, baina kosmopolita tipo eta negozio gizonen antzera, subjektu berriak ere “kultura bat hartu dezake baina ez da kultura horren menpe jarriko. Irteera atea non dagoen uneoro daki” (Hannerz, 1998). Halaber, kompetentzia den kulturatik desbinkulatzea erabaki dezake. Oro har, “munduko hiritarra izatea” edo “inongoa ez izatearen” hautu positiboan sakontzeko aukerak ikustaraziko lirateke.

Mugimenduaren estrategiak *funtsik gabeko kontaktu esporadikoak* gailentzea dakar, iraganeko **ibiltari, arlote eta turistaren** esperientziak garaikideen bizi-estiloari egokituko zaizkielarik (Bauman, 2003). Subjektuak inguruan sortzen duen eragina txikia izango da, ibiltariak *jarrera kontenplazailea* baitu. Jatorrira bueltatzeko gonbitea luzatu zaion erromesa ez bezala, arloteak ez dauka destino zehatzik eta leku bakoitza *geldiune iragankorra* da berarentzat. Arlotea bezala turista leku guztietan dago; baina turistak badauka destinorik eta horietan ongi etorria da; esperientzia berriak eta bizipen estetikoak izateko segurtasun berme guztiekin mugitzen da turista, edozein ezustekoren aurrean betiere etxera bueltatzeko atak zabalik dituela. Halere, “bizitza ihesaldi turistiko luzea bihurtzen denean (...) gero eta zailagoa da ibilitako lekuen artean etxea zein den jakitea” (Bauman, 2003, 60), etxea non dagoen esatea.

Subjektu berriak **ez dauka etxe egonkorrik**. Etengabe mugitzen denarentzat ez dago abiatze punturik, helmugak baizik: leku batean egonda hurrengo geltokia du helburu. Etxerik egotekotan, hauxe fantasmagorikoa izango da (Morley, 2005): urrun zegoena etxeko espazioa inbaditu eta auzokidea baino ezagunagoa bihurtzen da, problematikoa zena segurtasunaren espazio tradizionalan sartuz. Isolatuta zeuden eremuak interkonektatuta egotearen ondorioz, jatorri galduaren presentzia edozein kultura eta identitatearen parte bihurtu den honetan, diaspora ezingo da “aitaren etxera” itzuli.

Diaspora subjektu honen **identitatea aldakorra, ahula eta estrategikoa** da. *Hemen eta han, oraina eta iraganaren* arteko tentsioak diaspora identitateak etengabe produzitzen eta birproduzitzera darama (Hall, 1990); diaspora identitateak iraganarekin jarraikortasun eta antzekotasuna du, eta etorkizunean proiektatzen da. Hortaz,

identitatea eraikitze prozesuan egongo da beti eta ez du inoiz ere ez osotasunik lortuko. Unean-uneke egoera aldakorretan kokatzearen beharra duen subjektuaren identitatea estrategiko da, gainerakoetan *identitate eskizofrenikoa* ere izan daitekeelarik.

Identitatea *batu-nahi beste* ikusmoldeari egokitzen zaio, diferentzia gestionatzeko subjektuak dituen *aparteko gaitasun-abileziak soilik mugatua*, subjektua bera diferentzien kreatzailea delarik. Diasporak identitate anitzak, nahastuak, hibridoak agertzeko potentzialtasuna izango luke; munduan izateko eta egoteko modu autentiko eta libre, diferentea (Azcona, 2002). Baina mugikortasun askatasunaren eta teknologia berrien paradigma desiragarriek erraz asko itsuarazi eta geldiarazi dezakete identitateak aukeratzeko eta alboratzeko botere singularrak dituen horri. Jarrera erreflexiboa beharrean bere buruari ederresteko joera besterik ez garatzea suertatu daiteke orduan. Hau da, *azaleko jarrera estetiko* erakustea, identitate mimetiko-performatiboa jostea, kultur sareen hariak behinik behin desjosiz. Aipatutakoaren harira, egungo mundua ulertzeko diasporari neurritz gaindiko potentzialtasuna atxiki zaion arren –esaterako, gatazka egoera batean kultura mediatzailearen papera betetzea– diasporak inolako funtziorik ez izatea ere aurreikusten da. Azken hauen artean, aurrezko aurreko interakzio arinak soilik behar dituen *flashmod* edo “multzo arina”, zeinak zentzurik gabeko ekintzak burutu ostean berriro ere dispertsatuko diren (Martínez de Albeniz, 2005)

Diaspora identitate eta interkonexio sareak ahulak direla esan daiteke. Are gehiago, identitate estatikoak *identitate estetikoari* paso eman diola eta bien artean ezberdintasun gutxi dagoela. Diaspora beltza adibidetzat hartuko da beste behin, primitibotasunaren glamurrak publikoa seduzitzen duenean desiragarria zaion figura magikoa lortzeko autentikotasunaren aura manufakturatua, purifikatu, sinplifikatu, nazionalizatu eta berezitu behar dela esateko (Gilroy, 1987). Industria kulturalen eskuetan erori dira malguak ziren kultur-espresio tradizioen *performers*-ak, zeinak kultur-erosotasunaren zirkuluan sartuko diren, erreflexibotasun eta ezagutzaren eremutik gero eta urrunago, *menekotasunaren* eremutik gero eta gertuago.

### 2.1.4. Diaspora komunitateak kokatzea. Diaspora orientabideen beharrak

Diaspora definizioen gaineko azterketa burutu ondoren, ikuspegi ezberdinetan topatu ditugun hutsune eta muga kontzeptual zein analitikoak gainditu eta diasporen definizio zabalagoa proposatzea dugu helburu. Horretarako behar-beharrezkoa izango da diasporak bir-kontzeptualizatzea, desplazamenduen esanahiak mugatzea, eta etxearen zentzu berriak eraikitzea.

Horrela bada, diasporen lehen ezaugarria dispertsioa, migrazioa edo mugimendua baino, diasporak **desplazamenduetan sortu eta zentzua hartzen** duela azpimarratzea dagokigu. Erreferentzia-zentro jakin batzuen existentzia ukatzen ez baditu ere, desplazamenduak ez dira puntu geografiko konkretu batetik beste puntu geografiko jakin batera egiten diren lekualdatzeak (zentrotik periferiara, periferiatik zentrora, Estatu batetik bestera), ez eta subjektuak espazio hutsalean egiten duen mugimendu soila. Diasporak sortzen dituen desplazamenduak *leku anitzetara* ematen dira, elkarren artean *distantzia esanguratsua* duten inguruetara hain zuzen ere.

Leku aldaketa sakonak distantziak handitu ohi ditu gainera, distantzia sinboliko-espaziala ez ezik, distantzia soziala eta denborazkoak ere badirelako: desplazamenduak burutzeko beharrezkoak diren medioak eta espazioa zeharkatzeko ezinbestekoa den denbora, distantziak esanguratuko ditu. Zentzu horretan, garraio eta komunikazio teknologiek distantzia hauek behar beste murrizteko gai ote diren galdetu beharra dago, hau da, distantzia sozial eta sinbolikoak handitzea besterik lortuko ez duten. Edonola ere, komunikazioak, fantasia eta debozio sentimenduak denbora zein espazioa gainditu, abstrakziorako gaitasuna handitu eta distantzia geografiko-emozionalak une batez murrizten dituztenaren sentsazioa eman dezakete, kasu hauetan distantzia emozionala distantzia fisikoa baino mingarriagoa izaten dela (Simmel, 1908). Zentzu batean zein bestean gero eta hurbilago daudela iruditu arren, diasporak *distantzia badela pertzibituko du* izendatzen duen horrekiko.

Edonon dagoela ere diasporak oso presente ditu desplazamenduak. Norberak bizi edo beste batzuek transmititutako desplazamendu horietan zentzua hartuko du diasporak, diaspora leku anitzetara desplazatu den aldetik, beste eremu

esanguratsuekiko lotura amankomuna aditzera ematen duten neurrian. *Desplazamenduen oroitzapena* lurralde erreal edo sinbolikoaren ingurukoa izaten da, diasporak zentzua hartzeko lurralde jakin baten beharrik ez badu ere: “desplazamendu, sufrimendu, adaptazio edo erresistentzia historia jatorri espezifiko bat bezain garrantzitsua izan daiteke” (Clifford, 1999, 306).

Diaspora ezin da, hortaz, lurralde konkretu edo zentro espezifiko bakar batetik definitu. Eta, gainera, ezin du muga politiko-geografikorik eduki. Muga definituak dituen eremu bakar batean balego, diasporak beste izen bat beharko luke izan (dela tribu, dela ghetto, dela Estatu). Diaspora eremu esanguratsu anitzetara desplazatu eta **eremu esanguratsu anitzetan modu iraunkor batean kokatzen** da. Noizbait heldu eta nonbait geratuko da; ez da etengabe desplazatzen ari. Eta kokaleku anitzetan lekutzea izango da, hain zuzen ere, diasporaren bigarren ezaugarri garrantzitsua.

*Etxera itzultzea ezinezkoa da.* Aipatu bezala, diasporako kide guztiak jatorrizko herrira bueltatuko balira eta diaspora eremu konkretu batean bilduko balitz, diaspora bera desagertu egingo litzateke edo beste zerbait bihurtu. Batzuetan ez dago sikiera bueltatzeko aukerarik: gehienentzat Estatuaren muga politiko, ekonomiko, kultural eta geografikoek indartsuegiak izaten jarraitzen dute. Beste batzuetan, –distantzia emozionala gainditu ezin denean bereziki–, Aitaren Etxera bueltatzea agian ez du merezi: “buelatzeko desioa (ber)piztuko duen “jatorri galduak” edota iraganeko garaiekiko nostalgia, segurtasun osotasun irudikorra eskaini dezake” (Hall, 1990, 236). Dena den, etxetik kanpo izandako esperientzia eta bizipen multzoa dela-eta, etxea halabeharrez aldatu da. Hara definitiboki bueltatu nahi duenak laster konprobatuko du iragan hori orainaldian berrezartzea ezinezkoa dela (Schutz, 2003)

Diasporaren etxea ez da iraganean urruti geratu den etxe hura izango, ezta orainean eskuragarri izan dezakeen bigarren etxe alternatibo hori. Galdu, desfiguratu edo eskura ez duen denbora-espazio baten gabezia ito beharrez; tentsio oro kanalizatzeko, falta edo herrimina lausotu eta bizitzari aurre egiteko bada ere, **kokatu den eremuetan etxe berriak eraikiko ditu** diasporak. Euskarri berri hauetan eratuko dira, hain zuzen ere, diaspora komunitateak edo diaspora zentroak.

Etxe kolektiboak eraikitzean erreferentzia-zentroaren kokapena desplazatu egiten da, zentro espazial, sinboliko eta instituzionalak diaspora komunitateen baitan kokatzen hasteko. *Hemen eta orain, iragan zein etorkizuneko* planak, esperantzak, antsietateak konpartitu eta elkarrekin egon; jardun kolektiboetan aritu, praktika bereizgarriak sortu edo diaspora diskurtso propioa osatu; eskubide eta betebeharren multzoa diaspora komunitateetan definitu-birdefinituko dira. Hauekin batera, harremanen zentzuak desplazatzen dira. Diaspora komunitatea erabat edo partzialki arautzen, preskribitzen eta baimentzeko gaitasuna duen instituzioa izanik, tentsioak, asimetriak, hierarkikoak zein berdintasunezko harremanak komunitatearen baitan kokatzen hasiko dira.

Diaspora komunitateen arteko harremanen, elkartruke eta elkarreaginaren bidez **diaspora komunitate-sarea** osatuko da, alegia, diaspora zentro anitzek osatutako diaspora. Prozesua ez da lineala eta litekeena da hastapenetan elkartzeko modu informalak soilik nagusitzea. Diaspora antolatzen den honetan, eraketa informaloagoak izatetik (jai edo ospakizun esporadikoak, lan eta lagun koadrilen elkarketak, adibidez), eraketa formalagoak eraikitzea (elkartek, klubak eta egoitza erlijiosoak kasu), enplazatua den eremu lokaletik eskualde, Estatu, nazio edo mundu mailako egitura konplexuagoak finkatzera hel daiteke (federazioak, fundazioak, instituzioak eta abar). Aipatu diasporaren azken ezaugarria diasporaren hedatzeko gaitasunaren arabera izango da; ez da guztietan izanenik. Bestera ere, diaspora komunitate sare indartsuak aditzera emango du diasporak *hamaika-eta-bat etxe* izan ditzakeela; alegia, modu iraunkorrean kokatu den tokietan diaspora komunitateak sortutako adina etxe, erreferentzia zentro aunitz, agortezinak.

Aurreko planteamenduak aintzat hartuz, diasporaren definizio dinamiko eta zabalagoa horrela formulatu daiteke:

- Diasporak leku esanguratsu eta anitzetara egiten diren desplazamenduetan sortu eta zentzua hartzen du; desplazamenduak betiere eremu ezberdinetan modu egonkor eta iraunkor batean kokatzeak inplikatzeko duelarik.
- Diaspora-komunitate formal zein informalak eratuz joango dira (zentro espazial, sinboliko, instituzionalak), zeinak praktika bereizgarriak eta diskurtso propioak garatzeagatik ezberdinduko diren.

- Diaspora-komunitateen, diaspora taldeen eta diaspora kideen arteko harreman eta truke politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen bidez antolaketa maila osatuagoak eta konplexuagoak sortuko dira, diaspora komunitate-sarea osatuz.

Diasporak termino hauetan definitzeak ondorio batzuk dakartza. Besteak beste, honako xehetasun, orientabide eta irizpide analitikoak finkatzen ditu:

Lehenik eta behin, diasporak *desplazamendu-enplazamendu logikan* jartzea, hots, diaspora deszentratu eta birzentratzearen beharra. Eremu anitz esanguratsuetara desplazatu eta lekutzen den aldetik, **diasporaren eremu multi-lokalak** hartuko ditugu aztergai, hau da, maila lokalean dauden diaspora zentroek osatutako eremu esanguratsua.

Maila lokalean kokatuta egon arren, diaspora zentroak eremu lokaletik haratago doaz. Funtsean, *supra-lokalak* eta *translokalak* dira. Diasporak ez dira, –noizbait holakoak izan badira behintzat–, enklabe batean giltzapetuta bizi eta bestelako ohitura eta tradizioei hertsiki lotuta dauden komunitate homogeenak, itxiak eta buruaskiak. Diasporak *inguruarekin interaktuatzen* du, maila eta esparru anitzetan *bizitza sozialaren parte har* dezake, inguruan eta ingurukoaren artean *eraginak produzitu*. Hortaz, lurralde erreal edo sinboliko batekin eta bertako eragileekin sortutako elkarreragin eta elkartrukeak ez ezik (bi norabideetako ardatza), kokatu den inguruko gainontzeko eragileekin (talde, kolektibo, mugimendu sozial eta politiko, administrazioa, beste diaspora komunitate eta abarrekin) eta beste eremuetan kokatuta dauden diaspora bereko komunitateekin dituen hartu-emanak aintzat hartuko dira.

Diaspora eremu multilokala zabala da eta mugatzeko zailtasun handiak egon daitezke. Desplazamendu/enplazamendu eremua ez da izaten ezaugarri berdintsuak biltzen dituen espazio homogeenoa; askotan ez zaio zonalde administratibo, politiko, ekonomiko, sozio-demografiko bati egokituko (probintzia, eskualde edo Estatu bati). Diaspora eremua diaspora zentroen harreman eta elkarrekintza-sozialen espazioa da; denboran jarraipena duten tokian tokiko ezaugarri propioak dituen eremu esanguratsua, beste eremu askorekin distantzia espazial, sozial, fisiko, emozional, sinbolikoa izango duena.

Diaspora eremua zabalaz ari garela, **diaspora komunitatearen eremua** ordezkazina dela aipatzea. Potentzialtasun handikoa, diaspora elkarte formal zein informalak berebiziko arreta bereganatu beharko dute, diaspora asoziazionismoaren baitan. Garrantzitsuenak aipatzearen, diaspora komunitate barruan eta inguruan sortzen diren harremanen eta loturen zentzuak; erreferentzia eta esperientzia anitzak; praktika bereizgarriak, jarduera translokalak, memoria kolektiboak eta diskurtso propioak; eta diaspora komunitatearen antolaketa formei erreparatu beharko zaie.

Hirugarrenik, eta **diasporako kideei** dagokionez, diaspora komunitatearen parte den oro, nahiz diaspora zentro antolatutik kanpo egon baina diaspora identitatea edo pertenezia kontzientzia eratzen duen oro, diaspora kide kontsideratuko dugula, ohiko mugatzaileetatik haratago: arraza, odola, leinua, jatorri espezifikoak edo praktika bereizgarrien konpetentzia zehatzak. Halaber, diaspora kidea izateko ez duela zertan desplazatu beharrik (migratzaile edo transmigratzailea izan), eta ez dugula diaspora kidea kontsideratuko aldi-baterako mugitzen diren ikasle eta langileak, edo inoiz lekutzen ez diren nomada subjektuak.

Bueltatzeko esperoan egon edo beste herri batean bizitzeko nahiak adierazi arren, diaspora kidea *geratzeko etorri da*. **Arrotzaren** moduan, diaspora kidea ere biharko etorkin potentziala izan daiteke eta horrek inguruarekin dituen harremanak baldintzatuko ditu. Inguruaren parte izanda ere, arrotza izaten jarraituko du ingurukoentzat; konfiantza eta leialtasun eza sortzen jarraituko du (Schutz, 2003). Diferentzia larrutik biziko du.

Nonbaiten *egon* eta nonbaitekoa *izateko* nahia adierazi dezake. Inguruarekin errekonoiztu eta bertan etxean bezala sentitu, tokiaren parte sentitu eta parte izan. Baina lekutu den *eremuarekiko diferentzia biziko* du. Ezin eremuan guztiz integratu eta ezin guztiz asimilatu; ezin guztiz barruan eta ezin guztiz kanpoan egon. Diaspora komunitateak asimilatu ezin daitezkeen komunitate bereizgarriak izango dira halaberrez:

Batetik, diaspora komunitateak bereizgarriak izango dira desplazamenduen oroitzapena eta beste eremuekiko lotura *orain* eta *hemen* indartsua izaten jarraitzen duten artean (Clifford, 1999). Batzuetan diaspora bizi den herriaren narratibatik guztiz



kanpo egongo da: nazio-eraikuntza prozesuetan “beti berandu” heltzen denez, historia komun horretan ez du tokirik izango. Heldu berria den arrotza bezalaxe, orainaldia eta etorkizuna konpartitzeko disposizioa izan dezake, “baina egoera guztietan iraganaren esperientziatik bazterturik dago. Bat egiten duen taldearen ikuspuntutik, bera historia gabeko pertsona da” (Schutz, 1974, 100). Besteetan, diasporak narratiba nazionalaren protagonista nagusiak direnean –Argentinako arrazen arragoa edo Estatu Batuetako Melting Pot kasu–, bere jatorri atzerritarra inplizituki mantendu beharra dago. Bietan, diaspora identitateak *memoria kolektibo eta kontzientzia propioak* inplikatzeko ditu, baita *leialtasun, elkartasun eta konpromiso anitzak* garatzeko aukerak ere.

Bestetik, diaspora komunitateak bereizgarriak dira erreferentzia zentro bakar batera egokitu ezin daitezkeelako. Eta gainera, diasporak leku anitzetan kokatu diren komunitate-zentro bereizgarri anitzek osatuko dituzte. Aitzitik, diaspora kide, diasporako komunitate edo diaspora komunitate-sare guztiek ez dutela produkzio, bereganatze eta zirkulazio gaitasun bera izango azpimarratzekoa da. Espresio guztiek zirkuitu komertzialetara sarbiderik ez dutela gogoratzea besterik ez dago. Honekin batera, Estatu egituretan oinarritutako nazioarteko antolaketa dela-eta, ezin Estatuen potentzialtasuna eta ahalmenak alde batera utzi. Zentro-periferia harremanen baitan arreta berezia eskaini beharko zaie, horrenbestez, *diasporen produkzio, bereganatze eta zirkulazio formei*, are gehiago Estaturik gabeko nazioen diasporetan.

Horiek lirateke diaspora identitatearen ingurune garrantzitsuenetakoak. Modu honetan definitzen doan identitatea ez da elementu edo praktika transnazional, estatiko edo estetikoaren definituko. Iragana, orainaldia eta etorkizunaren narratibekin batera, desplazamendu, enplazamendu eta komunitate narratibetan **diaspora identitatea dinamika konkretu batzuen baitan eratuz** joango da. Presentzia, memoria, jarraikortasuna, identifikazio, konpromisoarekin batera, ausentzia, ahaztura, desinteresa, desidentifikazioan edota ez jarraikortasuna ere diaspora identitatearen ingurunearen parte dira.

## 2.2. Gazte identitateak eta belaunaldien arazoa diasporetan

Belaunaldien arazoa “berehalako orainaldiaren fenomenoaren transformazio azkarra xehetasun osoz ulertzeko” (Mannheim, 1987, 204) behar-beharrezko gidatzat har daiteke. Eta belaunaldiaren arazoa diasporetan lantzeak ahalbideratuko du, hain zuzen ere, transformazio azkar horren sarbide bikoitza uztartzea: bata, desplazamendu esperientziak inguruan sortuko dituen aldaketak eta bestea, belaunaldi aldaketak ekarriko duen egoera berria. Biek ala biek diaspora bilakaeran eragin eta diaspora identitatearen noranzkoen berri emango dutelakoan gaude.

Belaunaldi eta diasporen bilakaerak, gizarte aldaketak eta identitatea ulertzeko modu diferenteak, bide beretik doaz. Horrela, gizarte homogeneoa lortzeko bidean lerro zuzenaren teoria asimilazio prozesuetara mugatua bazegoen ere, teoria honek gizarte heterogeneoa helburu duen mestizaiaren idealak ere esplikatuko dituela ikusiko dugu. Biek ibilbide zuzen ezberdin bi markatuko dituzte, azkenean bilakaera bakarra irudikatzen: identitate irmotik identitate bikoitzera daramana eta azken honetatik identitate forma ahulduetara daraman bidea marraztu. Zentzu horretan, gazteekin maiz konfunditzen den hirugarren belaunaldia deritzona horren erakusletzat hartua izango da. Are gehiago, denboraren poderioz ahultzen den identitateak bat egingo du adinaren arabera definitzen diren egungo gazte belaunaldien identitatearen forma estereotipatuekin.

Lerro zuzeneko teorien aurrean diaspora belaunaldien arazoa gazte belaunaldien eskutik aztertzea proposatuko dugu, berriro ere azterketa eremu nagusia diaspora komunitateen baitan kokatuz. Ondorio nagusien artean, ez dagoela diasporen bilakaera trazatzeko modu bakar bat. Bai ordea zenbait gako aurkezteko parada, nola eta bizitzan zein gizartean okupatzen diren posizioen aldaerei erreparatuz, hots, diasporako gaztearen bizi-luzapena eta luzapen soziala definituz.

Guzti horretarako, atal honetan behar beharrezkoa izango da lerro zuzeneko teoria ezberdinen ildo nagusiak mahai gaineratzea eta hauetan topatu ditugun muga kontzeptual eta analitikoak gainditzea; gazteak, gazteria eta belaunaldiak bir-kontzeptualizatzea; eta diasporako gazteen aldaera anitzetan zentratzea.

### 2.2.1. Belaunaldien patua. Asimilazio eta hibridazio lerro zuzenak

Gizarte bilakaeraren lerro zuzen bat irudikatuz gero, belaunaldi aldaketak erabateko asimilazioa edo fusioa (arrazen arragoa kasu) ekarri dezake, alegia, homogenea den gizartea. Migrazio teoria klasikoen esanetan, lerro zuzeneko asimilazioa migratzailea heldu bezain pronto hasi eta belaunaldien joan-etorriekin azkartuko da. Ikuspegi honetatik, identitate, belaunaldi edo kultura gorputz errota litzateke: jaio, hazi eta hil egiten den zerbait. Alderantziz, kultura edo sareen transkulturalitatea azpimarratuz gero, hibridismoa desplazamenduekin hasi eta belaunaldiz belaunaldi finkatuko litzateke, mestizaia, multikulturalismoa edo kosmopolitismoa atzerazina izan arte.

Asimilazioa edota hibridismoa lortzeko belaunaldi bat baino gehiago behar izaten da. Belaunaldi bakoitzaren patua aldeztatik definitua legoke, eta denborak esango du bere gainean eraikitako itzaropenak bete dituenentz. **Denboraren determinazioaren pean**, gizartearen eta diasporaren bilakaera lineala ez ezik, bizi-ibilbideen lerro zuzenak seinalatuko dira, hein batean, noranzko jarraitu eta desbideratu ezinak.

Diaspora belaunaldi guztientzat abiapuntua bera izango da: dispersioa, mugimendua, migrazioa. Momentu edo gertaera konkretu horiek diaspora belaunaldi ezberdinak definituko dituztelarik, diaspora identitatea *etorkin baldintzapean* oinarrituko da. Migratzaileak eta euren ondorengoak kategoria berean kokatuko dira, desplazamendu esperientziarik izan edo ez izan, haxe kontsideratuko da behin-betiko atributu garrantzitsuena (García, 2003). Hortaz, teoria hauen arabera, ondorengo belaunaldien identitatea etorkin identitatearen luzapena izango da.

Diaspora belaunaldiak *elkarren artean artikulaturik* agertuko dira, segida haustezin baten irudi modura. Pitzadurarik ez horietan, eta egotekotan, belaunaldien arteko gatazka bailitzan aurkeztuko da. Aipatu jarraikortasuna ziurtatzeko familia-harremanetan enfasia jarri eta transmisio mota batzuk gailenduko dira, *goitik beherako transmisioak*, nagusietatik txikienetara, migratzaileetatik ondorengoetara. Belaunaldi

bakoitzak gizartean posizio jakin bat okupatu eta identitatea modu diferentean biziko duelakoan, hiru belaunaldi aztertu eta definitu dira: migratzaileek lehen belaunaldia osatuko dute, hauen seme-alabek bigarrena eta migratzaileen ilobek, azkenik, hirugarren belaunaldia.

Lehen belaunaldiaren identitatea *migratzaileak berak bizitakoaren* bidez eraiki da. Batzuetan jatorrizko herriaren identitatearen luzapena besterik ez da izango; besteetan ordea, desplazamendu ondorengo esperientzia multzoak gestionatzeko gaitasunetik eratorrikoa. Oro har, lehen belaunaldiak adaptazioaren gatazka bere zainetan biziko duela esan daiteke, ohiko erreferentziatik at (gertu dagoena, bihotz barrenekoa dena), testuinguru berrian identitate-galderak erantzunik ez dutenean (Terrén, 2007)

Asimilazioaren lehen saiakerak martxan jarri badira ere, identitatearen asimilazio edo transnazionalismo prozesuak, zein asimilazio edo hibridazio prozesuak, bateragarriak dira. Modu estrategiko batean akulturazioa eta asimilazioari borondate onez ekin diezaioke migratzaileak (Gans,1992), integrazio ekonomiko, sozial eta kulturala lortzeko bidean. Atzean utzitakoaren *ahaztura erlatibo* baten gainean bizitza berri bati ekiteko asmoa du. Inguruko artean bere egiteko eta pentsamenduak mesfidantza sortzen dutelako, jatorrizko kultura mantentzearen beharrezatik salbuetsia izan da (Hansen, 1966). Baina, era berean, jatorriari uko egiten dionak inguruko artean zalantza gehiago piztu ditzakeelako, identitate posizioak aldatzeko zailtasunak ebaluatuko dira, hala nola, adaptazio prozesu batean murgiltzeko nagusiegia ez ote den, frustrazioa besterik ekarriko ez duen prozesuan abiatzeak merezi ote duen, inadaptazioa gainditzeko denbora eta ahalegin gehiegi inbertituko ez ote diren, eta abar.

Migratzailea portatzen duen identitatearen etorkizunaren garantia bada, borondatez kontra edo gogo onez, **identitatea mantendu eta transmititzea** izango da lehen belaunaldiaren patua. Horretarako zenbait betebeharrak sozial atxiki zaizkio, sorterrian geratu direnen itxaropenak ez defraudatzea eta herria abandonatzearen ondorioz sortutako obligazio moralak tartean. Heldu berria den migratzailea atzean geratu direnak laguntzeko prestutasuna adierazi behar duela uste da, nahiz eta gutxiengo batek jarduera transnazionalak burutuko dituen (Portes, 2005). Etorkinak bizitoki

berrian elkarte berriak sortu beharko ditu identitateari errazago eutsi diezaion, identitateari eustea herri hartzailearen irekiera begira mesedegarri suertatu daitekeelarik.

Bigarren belaunaldiaren etorrerarekin egoera nabarmen aldatuko da. Migratzailearen seme-alabak emantzipatzen hasten direnean bereziki, belaunaldien arteko haustura eman daitekeela aditzera emango da. Migratzaileen ondorengoan adaptazioa etxean biziraun eta kalean antzematen dutenaren artean kokatuko da (Terrén, 2007); eskolan eta kalean oso atzerritarrak kontsideratzen diren bitartean, etxekoentzat oso bertakoak izango dira seme-alabak. Oro har, bizitoki berrian bereganatutako sinbolo eta bertan dituen bizipen eta familia memoria inbentzioen arteko *esperientzia interferituak* (Devoto, 2003) izango dituzte hauek.

Dela mestizaiaren ondorioz gizartea multikulturalismoari ireki zaiola, dela asimilazioak lehen emaitzak lortu dituela, bigarren belaunaldiak *ez dio gurasoen identitateari zertan eutsirik*. Migratzaileen ondorengoak bertan jaio eta bertan sozializatu dira; goranzkoen herriarekin harremanak guztiz eten edo noizbehinkako harremanak izan ditzakete; hauen artean exogamia handiagoa, hezkuntza maila altuagoa eta egoera sozio-ekonomikoa hobea izatea espero dira; litekeena da belaunaldi berri horrek desplazamendu berriak edo itzulera mugimenduak promozionatzea. Adierazle horiek aplikatuz gero, bata zein bestea, asimilazio edota hibridazio prozesuak, ezinbestean azkartuko lirateke.

Bigarren belaunaldiaren arazoa **identitatearen erreprodukzioaren arazoa** da. Edo beste era batera esateko, seme-alabek migratzaileen ba ote duten gogorik eta gaitasunik identitatearen elementu definitzaileak erreproduzitzeko. Oro har, ondorengoak bidegurutze batean kokatuta daude, eta bidea diferentea izango da gazteak duen baliabidei erreparatuta. Bidegurutze horretan nolatan bizi, bigarren belaunaldiaren beste arazo bat izango da.

Batzuen aburuz, bizitokian erresidentzia zenbat eta egonkorragoa izan eta bertan zenbat eta erosoago sentitu (segurtasuna), zenbat eta hezkuntza maila altuagoa (informazioa) eta sare sozial zabalagoak eduki, orduan eta baliabide gehiago jarduera transnazionalak burutzeko (Portes, 2005, Portes *et al.*, 2006). Multikulturalismoaren bide zuzena jarraiki, bigarren belaunaldiarekin batera bi herrien parte eta bi kulturen

artean bizitzeko aukerak parez pare ireki dira; bitartean, transmigratzailearen egitekoei esker, jaioterriak ere forma multikulturalak hartuko ditu.

Beste batzuen arabera, migratzailearen seme-alabak jaio direneko dualismo arraro hura errefuxiatzea gerta daiteke. Azken hauek jaioterrian guztiz integratzeko asmoa izango dute, horretarako gurasoen bizi estiloaren kontra egin eta *guztia ahaztu* behar bada ere. Etxean gordetako baztertu edo atzerritar jatorriaren arrasto oro galtzeko borondatea dute, esaterako, arrotza zaien hizkuntza, erlijio gatazkatsua, familia ohiturak, haurtzaroko oroitzapenak eta abar. Diaspora komunitatearen liderraren ikuspuntutik, ezerk ere ez du eskusatuko “bigarren belaunaldiaren traizioa” (Hansen, 1966, 257).

Hirugarren belaunaldiarekin batera erabateko asimilazioa edota mestizaia ziurtatuta legoke. Lehen bidea hartuz gero migratzaileen identitatea guztiz galduko litzateke eta gizarte homogenea tinkatu. Bigarren bidea hartuz gero, identitate kultural itxuraldatua edo transfiguratua praktikatzeko erronka berriak agertuko dira, alegia, dagoeneko hibridoa den kultura artetik hirugarren belaunaldiak aukeratzen dituen elementuez osatutako identitatea. Horrela, migratzaileen ondorengo belaunaldien *identitatea erreflexiboagoa* izango dela uste da, bilaketa eta bereganatze prozesu boluntarioen fruitua, norberak disfrutatzeko hartua eta moldatua den identitate indibidual positiboa alegia (Totoricagüena, 2003). Halaber, kontutan hartu ohi da asimilatuak izan direnen artean arbasoen kultura zaharra berreskuratzeko saiakerak gertatu daitezkeela, hots, asimilazioa atzeratu eta belaunaldi asimilatu batek utzitakoa ondorengoek berreskuratzea, akulturazio prozesuetan eten bat sortuz (Gans, 1992). Pertenentzia, singularitasuna edo errekonozimenduaren bila, hirugarren belaunaldiak aitona-amonen identitateari heltzeko nahia izan dezake, eta lehen eta bigarren belaunaldiek lortu ezin izan dutena lortuko lukete hauek.

Etorkinen ilobak gizartean guztiz integratuta daude. Ez dute gutxiagotasuna sentitzeko arrazoirik, *beraien esperientziak ez dauka zapore garratzik*: han jaio dira, berdin hitz egiten dute, besteen aberastasun adina dute. Badakite lortutako oparotasuna guztien lorpena dela, badute harro sentitzeko motiborik eta, beraz, badaukate goranzkoak nortzuk ziren eta zergatik etorri ote ziren jakiteko nahirik. Belaunaldi honen esperientzia amankomuna martxan da, *jakin-minak* familiaren jatorriak eta euren

herriaren historia eta kultura arakatzera eramango dituelarik (Hansen,1966). Ilobek *gogoratu nahi dute* euren gurasoek ahaztu nahi izan dutena.

Hirugarren belaunaldiaren patua **goranzkoen identitatearen destinoa argitzea** da: goranzkoen “identitate zaharrak” guztiz alboratu eta asimilazioa edo akulturazioa guztiz gauzatzea; edota nagusien identitatea birdeskubritu eta bereganatzea, adibidez, goranzkoen altxorra berreskuratu eta aurrera segi, aitona-amonen duintasuna berrezarri, migratzaileek historian egindako ekarpenekin aberastu eta euren herriaren bilakaera inklusibo baten alde aritu.

Batean zein bestean, lehen belaunaldiak noizbait eratutako etxeak, migrazio esperientziaren oroitzapen arrastoek eta migratzaileen kultura zaharren abstrakzio sinbolikoek eratutako pertenezia sentimendua gordetzen dituzten diaspora zentroak bihurtuko dira. Hau da, erritualki edo jai-giroan identitatea “dramatizatzeko” edo “identitate baten gaineko performance” egiteko eremu sozial espezifikokoak, non sozializazio prozesuaren aztarnak ikustarazi daitezkeen (Irazuzta, 2001, 102). Diaspora komunitatetik haratago, migratzaile belaunaldi ezberdinak *eremu pribatuan* (familia-etxean, gorputzean) eta *denbora librean* (kontsumo denboran bereziki) garatuko diren jardunetara mugatuko dira –eta horrenbestez, beste leialtasun edo identitateekin konfliktorik izan gabe mantendu ahal izango dute (Gans, 1994). Diaspora etxeak beharrezkoak ez direla ondorioztatu daiteke. Ideia honen sintesia litzateke adierazpen kategoriko hau: “baskideek zentroak behar zituzten lehen, zentroak kideak behar dituzte egun” (Irigoyen, 1999, 85)

*Diaspora identitatea ahultzen* doa eta litekeena da denboraren poderioz bereizgarritasuna galtzea, betiere lerro zuzenen teorien arabera. Ordura arte talde-kontzientzia indartsua mantendu duen diaspora ere desgastatu eta sentimendua sustantziaren gainetik gailenduko da. Familia-tradiziori lotutako harrotasuna erakusteko joera izango dute ondorengoek baina hori “oroitzapen izoztuta” eta “idealizatua” (Douglass, 1997) besterik ez da. Nahiz eta jatorrizko herriarekin gero eta kontaktu gehiago izan, ondorengoan artean *identitate artifiziala* sumatzen dela esango da, eguneroko elementu eta “azaleko” elementuetara mugatutako identitatea, hala nola,

irudi eta sinbolo, izen eta errezetategi, kirol praktika bat, ezaugarri heredatua, eta abar (Iriani, 1999)

Identitatea ulertzeko modu horiek, oro har, gazteen irudi estereotipatu hegemonikoarekin bat egiten du. Gaztaroa kontsideratu ohi da, –haurtzaroa eta nerabezaroa bezalaxe–, arduragabetasun denbora, askatasuna eta intentsitateduna, zorientasun sinplekoa, nahi adina denbora libre edukitzearena (Lasén, 2000). Konpromiso eta ardurak gazteriaren eremutik kanpo geratu ohi dira. Horren ordez, gazteek –azkenik– beraiantzat zerbait gehiago topatu dutela esango da, helduen artean beldurra produzitu dezakeena; gizarte auto-errealizatu baten baitan, dibertimendu, kontsumoa, obligazioen uxatzea eta baloreen gatazka plazaratuko da, guztien artetik lasaitasuna, denbora libre, konpromiso autodeterminatua edota abentura grina birbaloratu eta nabarmenduz (Beck, 1999)

Bitartean, ezer gutxi esan daiteke laugarren edo bosgarren belaunaldien inguruan. Izan ere, lerro zuzena hirugarren belaunaldiarekin agortu ohi da, belaunaldiak **adinaren arabera** definitzearen ondorioz. Aitona-amona migratzaile zaharrak, guraso helduak eta gazte edo nerabe ilobak kate baten mailaketa, hasiera eta bukaera, ordezkaturiko dute. Ikuspegi hertsiki batetik, belaunaldien zenbaketa hutsak familia endogamikoei bakarrik egokitzen zaie, hain zuzen ere, herri beretik migratutako bi kidek osatutako familia endogamikoei. Belaunaldien segida ez zaio egokituko ondorengotza ezberdinak ez ezik, ondorengotza gradu ezberdinak izan ditzakeen gazte bati adibidez. Edo goranzko migratzaileak ez duen diaspora kideari. Zentzu horietan guztietan, diaspora kide guztiak noizbait etorkinak izan direnen ondorengoak ez direla aipatzea, ondorengo guztiak gazteak ez direla; gazte guztiak gazteak kontsideratu ezin diren bezalaxe, jarraian ikusiko dugunez.

### 2.2.2. Gazte belaunaldiak diasporan. Zenbait gako

Tokian tokiko diaspora komunitate batean parte hartu eta urte berdintsuenetan jaiotako diaspora kideek bizipen espezifiko batzuk konpartitzeko aukera izango dute. Egoera komun baten aurrean esperientziak konpartituko dituzten aldetik, pentsamendu,



jarrera eta sentimendu konkretu batzuk adierazi dezakete (Mannheim, 1987). Diaspora kide bakoitzaren familia jatorritik eta ondorengotza gradutik haratago, diasporaren barruan existitzen den belaunaldi bakoitzak interes, orientabide eta jarrera batzuk konpartituko ditu. Beraz, **diasporako gazte belaunaldiak** ezaugarrituko dituzte pentsatzeko, sentitzeko eta egiteko espezifikoak; pertzepzio, harreman eta komunikatzeko forma desberdinak; aurreko belaunaldi eta etortzekoak diren belaunaldien artetik diferenteak izan daitezkeenak.

Belaunaldi guztien artean gazte belaunaldiek badute interes berezia. Gaztaroan garapen emozional eta kognitiboa pil-pilean egoteaz gain –ziklo bio-sozialen baitan, sozializazio prozesu bertikalak–, esperimentatzen hasi den errealitatean esku-hartu eta beste gazteekin batera destino amankomun bat irudikatzen hasi daiteke –ziklo sozio-historikoen baitan, sozializazio prozesu horizontalak– (Arriaga, 1998). Aipatu sozializazio prozesuek ez dute etenik; bizitza osoan zehar ematen dira, gaztaroan modu intentsuago eta definitzaileago batean eman badaitezke ere.

Izan ere, gaztaroa ez da epe historiko ez gizarte guztietan existitzen, eta horrenbestez, ez da zertan presente egonik diaspora komunitate orotan. Bizi-ibilbidean agertzen doazen etapa diferenteak (haurtzaroa, nerabezaroa, gaztaroa, helduaroa, zahartzaroa) sozialki eraikitzen dira, adin-soziala eta adin-biologikoaren arteko harremanetan, kanpo bakoitzak zahartze arau espezifikoak izango dituelarik (Bourdieu, 1990). Hau da, aro bakoitzari esanahi, zentzu eta funtzio jakin batzuk atxiki egingo zaizkio; gaztaroaren definizio sozialak belaunaldien arteko harremanetan berebiziko eragina izango du.

Presente dagoen lekuetan, gainera, gazteria ez da kategoria analitiko uniforme: jendartean zenbat eta ezberdintasun sozial gehiago egon kategoria honen baitan, orduan eta diferentzia gehiago emango dira. Zentzu horretan, gazteriaren definizio sozialak bere barne hartu ohi ditu *gaztea ez den gazteria* (gazteriaren zeinu kultural hegemonikoak barneratu eta bizi-luzapenik ez duen heldua) eta alboratzen ditu *gazteria- ez den gaztea* (bizi-luzapena duten arren, luzapen sozialik ez duen herri sektoreetako gazteak) (Margulis, 2000). Beraz, *gazte-gazteria* (luzapen soziala eta bizi-luzapena duen gaztea) gazteriaren barruan topatzen dugun kategoria zehatza da, gaztetasun prozesuetan

dominazio kulturalaren ordezkari legitimotzat kontsideratuak izan direnak, bere barne heterogenotasuna kontuan hartu gabe.

Horrenbestez, gazteria baldintza sozial eta kultural desberdin bezala jo eta horrela mugatu daiteke:

Condición que se articula social y culturalmente en función de la edad –como crédito energético y moratoria vital–, o como distancia frente a la muerte –con la generación a la que se pertenece– en tanto memoria social incorporada –experiencia de vida diferencial–, con la clase social de origen –como moratoria social o período de retardo–, con el género –según las urgencias temporales que pesan sobre el varón o la mujer–, y con la ubicación en la familia –que es el marco institucional en el que todas las otras variables se articulan (Margulis & Urresti, 2000, 29)

Definizioa jarraiki, adina/bizi-luzapena, belaunaldia/memoria soziala, klase soziala/luzapen-soziala, generoa eta familiaren araberakoa da gazteria. Diasporako gazte belaunaldien identitatearen inguruneak perfilatuko dituzte *nazio, klase, genero eta belaunaldi identitate baldintzek*, eta ez soilik etorkin-familiaren baldintzapean. Definizioan adierazten ez den bezala, gaztea emantzipatzen hasten den unetik, familiaren jatorri sozial eta gaztearen klase soziala ezberdinak izan daitezkeela eta beste adierazleak baldintzatzen dituela kontuan hartu behar da.

Gaztea izateak **luzapen soziala** izatea inplikatzeko du, hau da, gizarte jakin batzuek gazte batzuei prestakuntza tekniko-kualifikatua jasotzeko eskaini dieten denbora tarte legitimoa izatea. Prorroga soziala dela-eta, behinik behin helduen ardurak atzeratzeko aukera izango du, funtsean, familia osatu eta ekonomiko sostengatu. Honek arduragabetasun probisionalek ezaugarritzen duten erdibidean kokatu du, “ez ume, ez heldu” (Bourdieu, 1990, 165). Ardura sozialak urte goiztiarreen bere gain hartuko dituen herri-sektoreetako gazteak bere burua gazte moduan pentsatzeko eta gaztetasuna bizitzeko aukerak faltan izango ditu. Beste era batera esateko, *gazteria ez den gazteak* langile, langabe, etxeko-andre edo ama bezala pentsatuko du bere burua, eta ez gazte bezala.

Hezkuntza sisteman sarbidea izateak ez du gaztearen luzapen soziala bermatuko, are gutxiago herri-sektoreetako gazteak masiboki eskolatzen diren gizarteetan.

Diferentzia beste zerbaitetan datza, alegia, luzapen soziala duen gazteak *espazio eta denbora anitzetan* sarbidea izateko aukeran edo aukera faltan.

Gazte-gazteriak aisialdirako baimenduriko denbora izango du, hots, ohiko jardueretatik aldentzeko, dibertitzeko, kontsumorako eta “denbora galtzeko denbora”; baita sententzioak esperimentatu eta konpartitzeko, hazteko eta hezteko behar beste denbora sozial legitimoa ere. Guzti horretarako elkarkoitasun espazio anitzak eskura izango ditu: familia, kalea eta lagun-taldea ez ezik (sozializazio eremu arruntak, baita *gazteria ez den gazteen* artean ere), industria kulturala, teknologia berriak eta mass-mediak (gazteria salerosteko paradigma desiragarria duena, eta aldi berean gazteen artean erreferentziak eskaintzen dituen), ikastetxeak (bigarren hezkuntza eta unibertsitatea batez ere) eta aisialdi eremu anitzak, batzuk aipatzeagatik.

Diaspora komunitatea belaunaldi ezberdinek sozializatzeko eta elkarkoitasunerako duten beste espazio esanguratsu bat izango da. Zentro sinboliko, espazial eta instituzional moduan, konpetentzia berriak garatu eta ingurua antzemateko, interpretatzeko eta sailkatzeko orientabide berriak eskuratu ditzake hemen. Inguruan kokatzeko modu bat eskainiko zaio; eta diaspora bera gazteak munduan kokatzeko izango duen modu bat izango da. Bizitzan, gizartean eta diasporan okupatzen diren tokiak definitu eta erreferentziak hartuko ditu hemen.

Diaspora komunitateetan eta bizitza sozialean duen parte-hartzetik gazteak informazio eta baliabide hutsuneak bete, leialtasun berriak zein fidelak eraiki, bidelagun berriekin batera ikasi eta osatugabea zena osatzen saiatzeko eskumenak izango ditu. Belaunaldi eraketa martxan da, noiz eta gazte-gazteriarentzat gaztaroa etapa intentsua izaten denean, *esperientzia erabakigarria*.

Gazte-gazteriarentzat *bizitza auto-esperimentatzeko eta identitatea finkatzeko* garaia da gaztaroa. Txikitan barneratutako egiak eta ordura arte zalantzan jarri ez dena zalantzan jarri; nagusien irakaspenetatik baino, norberak bizitako esperientzietatik orientabide interpretatzaile eta espresibo berriak eskuratzeko garaia hain zuzen ere (Mannheim, 1987). Garrantzitsuena zera da: familia migrazio esperientziak baino, gazteak berak bizi dituen esperientziak gailentzeko aukerak izango ditu. Horrela, –eta ez beste edonola–, gazte belaunaldia bere bidea egiten has daiteke.

Luzapen soziala izan ala ez izan, **gazteak bizi- luzapena** du. Bizi-kapital handia izanagatik (bizitzeko urteak, urteak bizitzeko), hilezkortasuna, segurtasuna eta ezin zaurituzko sentazioa izan dezakete (Margulis & Urresti, 2000). Hau da, orainaldia gozatzeko parada, abentura grina.

Badira gazte izan eta gazte sentitu ezin daitezkeenak, ordea. Bizitza ibilbidea irekia eta aukeraz betea duen gazte-gazteri emakumeak, biologikoki amak izateko eta sozialki familia osatzeko denbora mugatuagoa izaten dute. Herri sektoreei dagokionez, baldin eta erreferentziazko iraganik, orainaldirako itxaropenik eta etorkizunerako perspektibak faltan baditu, bizitza zikloa estadiorik gabeko lerro zuzena besterik ez da izango (Kuasñosky & Szulik, 1997). Horrek ez du esan nahi *gaztea ez den gazteriak* identitatea eratzeke biderik ez duenik. Bazterketa sozialak zeharkaturiko egunerokoan baliteke jarrera defentsiboak indartzea, espektatiba sozialen galerak eta proiektu politikoen porrotak anomia eta rupturak ezaugarritutako praktikak sortu ditzakeelarik, baita diskurtso eta errepresentazio propioak, bizirauteko estrategiak, gazte azpi-kultura baten sorrera edo espazio zein denbora ezberdinduen eraikuntza, eta abar (Wortman, 1991). Finean, gazte hauek bestelako balore, unibertso, errepresentazio, interes edo kontsumo kulturalak garatu ditzaketela arreta deitu nahi da.

Bizi-luzapenarekin batera luzapen- soziala duen gazteak soilik mundua *orain* eta *hemen* esperimintatu eta deskubritzeko aukera izango du, eta mundua bera esperientzia eta bizipen berriei irekitako mundu berri bezala aurkeztuko zaio. Gaztetasuna bete-betean biziko dute hauek. Gazte-gazteriarentzat orainaldiak garrantzia hartzen du iraganaren aurrean, iraganak murrizketa gutxi baitu hasi berri den bizitza ibilbide oparoan. Etorkizuna eraikitzeke, imajinatzeke edo pentsatzeko tresnak izango baditu ere, etorkizuna ez da zertan ardura izan behar, urruti dagoen zerbait bezala antzeman dezakeelako.

Iragana, orainaldia eta etorkizuna imajinatzeke, zentzua emateke eta bereganatzeko arteko tentsioa sor daiteke ondorioz. Diasporako belaunaldiek desplazamenduak gogorarazteke indar adina izan behar dute, ahaztura, asimilazio saiakera eta urrutiratze prozesuen bidez memoria ezabatzeko prozesuei aurre egiteko

(Clifford, 1999). Baina diasporako memoria kolektiboak –gogoratzea eta ahaztearena inplikatzeko dituenak– ezin ditu gazte belaunaldi berrien bideak moztu.

Memoria aldetik aurreko belaunaldiarekin desberdintasunak zein antzekotasunak sortuko dira, zeinak bizi luzapen eta luzapen sozialaren araberakoak izango diren. Halaber, elkarren artean bata besteari atzetik segida bati erantzuten dion belaunaldi mailaketa beharrez, diaspora komunitate eta diaspora komunitate sareetan ematen den *belaunaldi artekotasunean* azentua jartzea dakar. Zehazki, diaspora komunitateko belaunaldi bakoitzaren baitan eta belaunaldi artean sortutako harremanak; eta diaspora komunitate sareetan belaunaldi berdintsuko kideekin zein garaikideekin sortutako harremanak, loturak, enpatiak eta nola ez, *norabide anitzeko transmisioak*.

Diasporako belaunaldi gazteak eskura izango du goranzkoek eta ondorengoek biziko duten beste diaspora bat. Baina ez dago diasporaren bilakaera bakarraz tratatzeko modurik. Belaunaldien arazoa diasporatan aztertzeak kontuan hartuko dira diaspora komunitate ezberdinen bilakaerak, zeinak tokian tokiko komunitateek bizi duten transformazio sozial, politiko, ekonomiko, kultural orokorraren baitan kokatzen diren. Zentzu horretan, euskal diasporak Argentinan bizitzeko transformazioetan zentratzea eta bilakaeraren apartekotasunak xehetasunez aztertzea egokituko zaigu ondoren.

## **3. EUSKAL DIASPORA ARGENTINAN**

---

### **3.1. Desplazamendu-enplazamendu testuinguruak**

Diasporak eremu geografiko esanguratsu eta anitzetara egiten diren desplazamenduetan sortu eta zentzua hartzen du; desplazamenduak betiere eremu ezberdinetan modu egonkor edota iraunkor batean kokatzeak inplikatzeko duelarik. Horixe litzateke diasporaren lehen ezaugarria, proposatutako definizioaren arabera.

Hortik abiatuta Argentinako euskal diasporaren desplazamendu eta enplazamendu testuinguru orokorrari erreparatuko diogu, beste eremu esanguratsu batzuetan kokatuta dagoen euskal diasporarekiko nahiz Argentinan dauden beste kolektibitateekiko dauzkan partikularitasunak adieraziz. Argentinako euskal diasporaren adibidea hartuta diasporaren definizioan sakontzeko tartea ere izango dugu.

Aipatu bi lanak burutzeko diasporak inguratzen duen zenbait mito berreraiki eta deseraikitzeari ekingo diogu. Egiazkoak edo fikziozkoak, guztiz zorrotzak edo fabulosoak izan, mitoaren garrantzia egungo testuingurua esplikatzeke eta interpretatzeko duten gaitasunaren arabera izango da. Euskal diaspora eta argentinarraren jendartearen sorrera eta bilakaerari dagozkion mito arrakastatsuek aztertzerako goaz ondoren, horrela mitoak desmitifikatu eta narratibak berriz mitifikatzen direnaren jakitun.

#### **3.1.1. Diasporak bidean**

Euskal Herriko historian zein orainean etengabekoak izan diren arren, euskal diasporaren sorreran eta bilakaeran desplazamenduak ez dira nolana hikoak izan. Distantzia fisikoa, soziala, sinbolikoa zein emozionala ibiltzea garrantzitsua izan da, eta

da. Ezbairik gabe Amerika Kontinente zabala har dezakegu euskal diasporaren iturburu nagusitzat, hots, *desplazamendu kolektibo eta iraunkorren kokagune* garrantzitsua.

**Amerikar mitoaren** arrakasta bi eremuren arteko distantzia esanguratsuetan oinarrituko da. Lur Aginduaren irudia indartuko da, goranzko mugikortasun sozialaren mitoaren baitan. Hauen arabera txirotasuna eta aberastasunaren arteko distantziak murrizteko Amerikak eskainitako perspektibak erakarriko dituzte euskal etorkinak, eurengan migratzeko eutsi ezinezko erakarpina eraginez (Azcona, 1992).

“Mundu Berrian” migratzaileak lortutako oparotasun itzelaren testigantzak, hau da, euskal herri gehienetan errotutako migrazio tradizioaren kontzientziaren jarraikortasunak batetik (Douglass & Bilbao, 1986); eta Amerika eta Euskal Herriko historian faktore ekonomiko, politiko, sozial, demografiko eta ekologiko zehatzek produzitzen dituzten erakarpen-kanporaketa indarrak bestetik (Azcona 1992, Azcona *et al* 1992), “euskal exodoa” esplikatzeko erabiliko dira. Horrela, bada, XIX. mendeko euskal migrazioak interpretatzeko zerrenda luzean agertuko dira, –agerizko konexio barik, askotan– familia sareen babesa, gerrak probokaturiko kanporaketa bortitzak, etorkinak erreklutatze “ganchoen” abilezia, zerbitzu militarrei desertzioa, maiorazkoaren edo landa eremuetako oinordekotza bakarreko sistemaren oztopoak, gosea edo hondamendi naturalak, eta etorkina beraren abentura grina.

Ikuspegi horretatik, oro har, arrazoi bakar batek edo faktore anitzen konbinazioak momentu puntual batean komunitatearen bat-bateko migrazio mugimenduak esplikatu lituzke. Are gehiago, ordutik euskal diasporaren sailkapen zorrotza eraikiko dela esan daiteke. Izan ere, epe konkretu bati migratzeko arrazoi nagusi bat eta migratzaile tipo bat dagokioko, zehazki, euskal diaspora komertzial edo koloniala, XIX. mendeko euskal langile diaspora, eta XX. mendeko atzerriratuen euskal diaspora (Toticagüena, 2003). Euskal diaspora tipo bakoitza euskal herritarren desplazamenduetan hasi, korrante garrantzitsuetan osatu eta migrazioaren bukaerarekin agortuko dira. Diasporaren muga espazial eta tenporalak zorrozki markatuz lortuko dira, besteak beste, diaspora testuinguru orokorretik atera eta neurritz gain partikularizatzea.

Kontrara, euskal diasporaren, –eta beste diaspora askoren–, sorrera eta bilakaera momentu historiko konkretu batean garatzen doan eta egun indarrean dagoen mundu

mailako sistema sozioekonomiko eta soziopolitiko konkretu bati dagokiola sostengatuko dugu. Desplazamendu masiboak ulertzeko beharrezkotzat jotzen dugu **sistema kapitalistaren bilakaeran zentratzea**, eta espresuki, zentro-periferia arteko harreman asimetrikoetan sakondu, ez baina migrazio fenomenoak *pull-push* ereduaren edo erakarpen-kanporaketa indarren bitartez esplikatzeke, zeinak migrazio fenomenoak auto-erregulatzen den merkatua denaren uste antzuarri helduko dion; bai, ordea, sistema kapitalistak herrialde edo eremu ezberdin askoren harremanak baldintzatu eta desplazamendu masiboetarako baldintzak ahalbideratuko dituelako, Argentinako edo Euskal Herriko adibide konkretuetan ikusiko dugunez.

Berriki aipatu bezala, desplazamendu masiboak kapitalismo industrialaren garapenarekin batera hasiko dira, kapitalismoak fase honetan beharrezkoak dituen industrializazio eta Estatu modernoaren garapenarekin batera alegia. Arlo sozial, politiko eta ekonomikoan produzituko diren transformazio azkarrak ezinbestean laburbiltzearen, guztien artetik azpimagarriak dira *produkzio forma berrien sorrera*, soldatapeko lana, lurren ustiapena eta nukleo urbano eta industrialen gorakadak eragingo dituenak; *gizarte egitura berrien sorrera*, Estatuaren eraikuntza, klase sozialen arabera egituratutako gizartea, elite eta burgesia nazionalen sendotzearekin lotuta dagoena; eta *mugikortasunaren paradigmaren oinarriak finkatzea*, komunikazio eta garraioen “iraultzari” lotutakoak, kapitala, jendea eta mezuen mugimenduak erraztuko dituenak.

Euskal Herrian transformazio azkar horiek frantziar eta espainiar Estatuaren eraketaren bidetik produzituko dira. Bi Estatuaren eraikuntza bortitzak ekarriko du, hain zuzen ere, gerra aldi edo anexio inposatuak, kontrol militarrek, derrigorrezko soldaduzka, herri-lurren desjabetzeak eta sistema propioa eraikitzeke zailtasunak, zeinak migratzeke baldintzak determinatuko dituzten, besteak beste. Izan ere, produkzio medioen galera ez da soilik lurren desjabetzea, lur-ustia perako zergak pagatzeko obligazioan edo maiorazko sistemaren debekuarekin etorriko. Kapitalismo industrialak produkzio eta esplotazio forma berriak ekarriko ditu, soldatapeko lana eta lan baldintza gogorak langileriarri zuzenduko zaizkiolarik, produkzioaren etekin ekonomiko-politikoak talde txiki zein boteretsu baten eskuetan pilatuko den bitartean. Hain justu,



Estatu-egiturak kontrolatuko dituen industria eta finantza oligarkia horren parte haustezina kontsideratu daiteke Hego Euskal Herriko aipatu oligarkia (Beltza, 1976). Horren parte ez direnean, sektore horiek Estatuei lerrokatuko zaizkie, gero eta etekin gehiago bilatu nahian, merkatuaren hedapenari begira. Euskal diasporaren sorrera eta luzapena hor kokatuko dugu: *bi estatu zentralisten mendekotasunean garatuko den sistema kapitalistan*, zentro-periferia harremanetan zentroranzko joerak hartuko dituena.

Argentinan transformazio azkar horiek *periferiako menpeko kapitalismo garapenaren* bidetik etorriko dira. Janari-eskaera, lehengaien beharra eta finantza-kapitala politiken hedapenak Europan, Argentina litoraleko lur jabe handien lur emankorren produkzioa martxan jarriko du (Margulis, 1977). Produkzio harreman kapitalistak lehen sektorean garatuko dira hasiera batean, nekazaritza eta abeltzaintzan espresuki. Gainera, produkzio medioen jabeek, hots, tokian tokiko lurjabe kapitalistek kanpoko kapital eta teknologia inbertsioekin dituzten aliantzak, menpekotasunaren lehen oinarriak finkatuko dituzte. Era berean, lurren desjabetzea eta ustiapen intentsiboa Estatua indartu ahala lortuko dira, orduko desplazamendu-enplazamendu masiboak elitearen nahiari erantzungo dion plan orokorraren baitan kokatuz. Horrela, desplazamendu masiboak baino lehen milioi bat biztanle inguru baziren, 1856-1930 bitartean Argentinara sei milioi eta erdi migratzaile heldu zirela uste da, hauetako erdia egungo Italiatik joandakoak (Germani, 1974).

Esan bezala, sistema kapitalistak herrialdeen arteko harremanak baldintzatu nahiz desplazamendu masiboetarako baldintzak sortuko ditu. Zentzu horretan, *desplazamenduak intentsifikatzen* direla eta europar migratzaile guztiak Argentinan ez direla kokatuko argitu beharra dago. Hauetako batzuk desplazamendu zirkularrak izan zitezkeen (joan-etorrikoak, aldi baterako lanerako “enara migrazioak”), baina gehienek ibilbide anitzak hartuko dituzte: barne migrazioak (landa-hiri artekoak), bigarren migrazioak (Argentina-Uruguay; Argentina-Estatu Batuak) eta Euskal Herrirantz egiten diren desplazamenduak (Douglass & Bilbao, 1986) euskal diaspora ezaugarrituko dute, nahiz eta migrazio horiek kuantifikatzeko modurik ez izan.

Merkatuaren hedapenarekin eta egitura berrien indartzearekin batera *desplazamenduak dibertsifikatu* egingo dira gainera. Honen harira, euskal diaspora **best**

**eremu nagusitan kokatua** dagoela aipatzea: 1) Estatu Batuetako mendebaldean; egungo Kalifornia, Idaho eta Nevada Estatuetan, batez ere; 2) Argentina zentro-ekialdean, Buenos Aires probintzian bereziki; 3) Uruguayko kostaldea eta Montevideo hiriburuan (Douglass& Bilbao, 1986); 4) Australia hego-ekialdean; eta 5) Europako zenbait hiri garrantzitsuetan, besteak beste, Bartzelonan eta Bruselan. Azken honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Delegazioan enplegatu eta Europar Batasuneko funtzionarioek osatutako eurokraten diaspora genuke (Totoricagüena, 2003), sistema kapitalistak fase honetan beharrezkoak dituen egitura berrien sendotzearekin lotura zuzena duena.

Eremu esanguratsu hauetan euskal diasporak izan duen bilakaera diferentea izan da, halaberharrez. Ez dagokigu tokian tokiko eragina aztertzea. Bai, ordea, zera azpimarratu behar da: diasporak sortu eta zentzua ematen dien desplazamenduak ez direla inondik inora agortu; alderantziz, desplazamendu-enplazamenduak intentsifikatu eta dibertsifikatu egin dira. Argentinan *desplazamenduen luzapena* suertatuko da gainera. Batetik, kapitalismoak Argentinan berriki eragindako krisiek desplazamenduen ideiak berpiztuko dituelako gazte belaunaldien artean batez ere. Bestetik, europar migratzailea nazio eraikuntzaren protagonista nagusizat jo delako Argentinan, euskal kolektibitatea diaspora horietako bat izanik. Batak besteak esplikatzeko du; diasporak argentinarraren mitoen parte bihurtuz, desplazamenduak memoria kolektiboan lekutzen baitoaz.

### **3.1.2. Diasporak argentinarraren narrazioetan. Apartekotasun argentinarrak**

Argentinarraren Estatuaren, argentinarraren identitatearen eta argentinarraren apartekotasun mitoen sorreraren atarian gaude. Kolonia garaiko egitura zaharrak ordezkatu, gizarte berri bat eraiki eta produkzio forma modernoak garatzea helburu, desplazamenduei funtzio eraldatzailea atxiki zaie eta migratzaileak agente aktibo gisa agertuko dira.

Europar migratzailea nazio-eraikuntzaren protagonista nagusia izango da, alegia, Argentinara ordena eta garapena eramango dituen agente zibilizatzailea. Etorrinek

inguruan produzituko dituzten eraginak paregabeak izango direlakoan, *migrazio masiboak bultzatzearen alde bi argudio nagusi* plazaratuko ditu Argentinako eliteak (Devoto, 2003). Lehen, Europako herrialde garatuenetako migrazioen beharra, guztietatik europar-iparraldeko etorkinak aldaketaren agente nagusienak izanik, ikasi, kopiatu edo imitatu beharreko ohitura, ordena eta diziiplina jarrera berriak ezarriko dituztelakoan. Bigarrena, etorkin-laborariak aldaketaren protagonista nagusitzat hartuko ditu, landu gabeko argentinarrak lurralde zabala eta atxiki zaizkion antolaketa forma sozial eta politiko atzerakoiak nekazaritzaren bidez ezabatuko direlakoan, besteak beste, bakardadea, isolamendua, elkarkotasun falta; tokian tokiko buruzagien boterea eta jatorrizko herrien antolakuntza formak.

Migrazio masiboen bidez gizarte berria planifikatu nahi da, “Europako zibilizazio ereduak” inportatu eta populazioaren osaera bestelakotu. Argentinarraren herriaren “izaera nazionala” aldatu, gizarte argentinarra “europartu”, “arrazen berriraketa” produzitu, “Europa fisikoki Amerikara eraman” ... orduko espresio bideei gain-begirada azkarra nahiko da elitearen esperantzak eta intentzioak ezagutzeko. **Argentinarraren jendartearen “europartasuna”** izango da, hain zuzen ere, argentinarraren apartekotasunaren lehen mitoa: “sustraiak beste nonbait” dituen europar jatorriko gizarte gehiengodun zuriaren singularitasuna, Amerika-indigenarekin alderatuz gero.

Europar migratzaileek lurra jendetu dezaten lurra despopulatu beharko da lehendabizi. Pampa eta Patagoniaren domeinua eskuratzeko Maputxe herriaren kontrako sarraskiak eta desplazamendu bortxatuak adibidez, ez dute parekorik eduki. Estatuak konkistatutako lur-eremu emankor horietan migratzaileen asentamenduak ezarriko dira. Argentinarraren Estatuko mugak zabaltzen doaz, migrazio masiboek zentro-mendebaldera eta hego-mendebalderantz jo ahala.

Martxa horretan lehen desfaseak agertuko dira, migrazio masiboekin batera eremu horien antolaketa, kultura eta produkzio formak aldatuko baitira. Ez dagokigu zentro-periferia harreman horietan migrazioek eragin ditzaketen onurak edota kalteak neurtzea. Bai aldiz migrazioari estuki lotuta dauden eskualdeen arteko desoreken inguruan arreta deitzea. Horrela, bada, Argentinaren kasuan **europar migrazioen hiru**

**kokapen eremu esanguratsu** ezberdinduko ditugu, iturri ezberdinetan oinarrituz (Devoto, 2003; Germani, 1974; Azcona, 1992).

Lehena, *Buenos Aires Hiria*. Migrazio masiboen garaian Argentinara heldutako migratzaileen erdiak hemen hartuko du kokaleku. Hiriak forma kosmopolitak hartuko dituela esango da. Buenos Aireseko portu handia, gainera, esportazio-inportazioen ate nagusia bihurtuko da, Argentinako hiriburua elkartrukeen gune pribilegiatua eta industria nahiz kulturaren zentroa nagusi gisa finkatuz.

Bigarrena, *litorala*: Buenos Aires, Santa Fe eta Entre Rios probintziak. Lehen migrazio mugimenduak hor kokatuko dira, eremu honen transformazio ekonomikoa azkarra izanik, epe laburrean zentro ekonomiko eta politiko garrantzitsuak bihurtuz. 1869ko erroldan migratzaileak populazioaren %13-25 osatuko dute; litoraleko gizartearen ezaugarria “pluralismo soziala” litzateke.

Hirugarrena, *zentroa*: La Pampa, Cordoba eta Mendoza probintziak. Migratzaileak mendebalderantz jotzen duten honetan, 1914ko erroldan populazioaren %20-29 osatuko dute, desplazamendu masiboen enplazamendu azkarraren adierazle argia dena.

Hiru eremu hauen arteko ezberdintasunak handiak dira. Gainontzeko probintzia, eskualde eta eremuekiko bilakaera ezberdindua are handiagoa. Hori gutxi balitz, migrazio masiboek bigarren desfase inportantea ekarriko dute, alegia, **hiri eta landa guneen arteko desoreka**.

Europako etorkin gutxi batzuk lortuko dute luraren jabetza. Lurrak bizitza instituzionalean parte-hartze aktiboa dutenen latifundisten eskuetan jarraituko du. Beste askok errentapean lortuko dute lurra lantzea; gehienek hirietan kokatu edo beste herri batzuetara migratuko dute. Landa-eremu anitzetan migratzaileen arteko ezberdintasunak baino, kriollo eta migratzaileen arteko diferentziak indartsuagoak direla pentsatzekoa da; Estatu-politiken presentzia eskasagoa da hemen, migratzaileen arteko harreman-sareak handiagoak, akulturalizazio geldoagoa (Devoto, 2003).

Hiriak zentro ekonomiko, politiko, kultural garrantzitsuak bihurtuko dira, aipatu hiru eremuetako hirien garrantzia handiagoa izango delarik. Ezbairik gabe, migrazio

masiboa hirigintza eta proletarizazioaren azkarrarekin estuki harremanetan dago, eta prozesu honetan, klase berri bat agertuko da: hiri burgesia.

Desplazamendu masiboen bidez lortu nahi da nekazaritza, abeltzaintza eta industrian produkzio forma modernoak garatzea, sektore hauek indartzeko lan-indarra etorkinen eskutik etorriko delarik (Germani, 1974). “Agente zibilizatzaileak” ez ezik, kanpo eta barne komertzioaren zabalkuntzan, Estatuaren jardueren gorakadan eta industriaren transformazioan, sektore hasiberri horietan guztietan, migratzaileak garapenerako agente aktibo nagusi gisa agertuko dira beste behin ere.

Azken honi dagokionez, prozesu horretan eratu eta elkarren osagarriak diren apartekotasun argentinarren beste bi mito aipatu beharrea gaude. Lehena, Argentinaren modernizazio azkarra lotutako irudiak, hala nola, “**argentinarr aberastasun neurrigabea**” eta “argentinarr oparotasunaren etorkizuna”, Argentinarekiko leialtasuna bermatzeko aparteko garrantzia izango duena (Devoto, 2003). Bigarrena, komertzio eta industrian enplegatutako hiri langileria berria eta goranzko mugikortasun soziala biziko duen **klase ertain zabalaren sorrera eta handitzea** (Swampa, 2005), Hegoamerikar testuinguruan beste argentinarr apartekotasun bat kontsideratuko dena, klase-diferentzia eta desberdintasun sozial sakonengatik markatutako kontinente batean.

Laburbilduz, migratzailea bertute handikoa kontsideratuko da, Argentinara onura sozial, ekonomiko, politiko eta arrazazko onura paregabeak eramango dituen. Neurri berean, nekazal eta abeltzaintza esperientzien amaierak, industriaren krisiak eta gatazka sozialaren igoerak migrazioaren inguruko pertzepzioak aldatuko ditu. Migrazioaren eragin negatiboak neurtuko dira orduan. Eliteak alarmak piztuko ditu, migratzaileen igoera sozialak beraien biziraupena arriskuan jarri dezakeelakoan. Langile-elkarte eta mugimendu anarkista eta sozialisten indarrak kexa gehiago sortuko ditu. Etorkina mehatxu sozial eta iraultzaile arriskutsutzat jo ez ezik, diaspora kolektibo garrantzitsuen mehatxua ebaluatuko da. Guztien artean italiar kolektibitatea da aipagarri, oso talde ugaria, integratzeko jarrera gutxikoa, instituzio indartsuetan antolatua eta kaleetan presentzia politiko handikoa (Devoto, 2003)

Kanpora begira Argentinak Lur Aginduaren irudia galdu du eta gainera, Estatu dependiente bezain ahul modura sendotuko da nazioartean ematen diren harreman

asimetrikoen ondorioz. Barrura begira, aitzitik, Estatua indartu dela esan daiteke, eta aipatutakoaren adierazle, lurralde integrazioa gauzatu eta eremu gehiagotara heltzearena. Oraingoan Estatu mekanismoak martxan jarri eta inguruak migratzaileengan izan beharko du eragina, alegia, *Argentinak migratzaileak eraberritu behar* ditu (Devoto, 2003). Elitearen ustez, etorkinak eta euren seme-alabak nazionalizatu eta zibilizatu behar dira, nola eta hezkuntza publikoa, unibertsala eta derrigorrezkoaren, soldaduzkaren eta parte hartze politikoaren bidez. Hiruetatik eskolak izango du pisu gehien: jarrera, ohitura eta nazio-atxikimendua emozionalak garatzeko haurtzarora momenturik egokiena izanik, seme-alabek eskolan duten sozializazioaren bitartez gurasoengana errazago heltzea espero da (Irazuzta, 2001).

**Identitate argentinarr bateratzailea** eratzeko orduan kohesio-elementuei erreparatu eta andamiaje sinbolikoa definituko da. Horretarako, gaztelania hartu eta erlijio neutraltasuna bermatuko da; nazio-tradizioaren epopeiak eta pertsonaiak berreskuratu (“aberriaren aita fundatzaileak”) eta aberri egunen ospakizunak arautuko dira (independentzia eguna, maiatzaren 25a...); bandera, armari eta intsignien erabilpena zabalduko da (Irazuzta, 2001). Argentinarr herri kultura edo folkloerari dagokionez, *gauchoaren tradizioan* mantenduko da neurri handi batean, hau da, apartekotasun argentinarr berri bat proposatuko da Amerikaz beste kultur ezberdintasun bat markatuz (Svampa, 2005)

Argentinarr gizartearen irudia horretan jarraituko du; europarr jatorriko gizartea, kulturalki, sozialki eta erlijiosoki heterogeneoa, homogeneotasunaren handi baten baitan. Mitoaren erakuntzan eta aplikazioan ordea, zenbait bazterketa produzitu dira. Jatorrizko herriak, populazio beltza eta Bolivia, Paraguay eta Uruguayko mugamigrazioak nazio-eraikuntzaren mito fundatzailetik kanpo geratu dira, gauchoaren eta kriolloaren protagonismoa aldatzeko den bitartean. Horrela bada, nazio-eraikuntzan eta gizarte berri baten eraikuntzan europarr migratzaileak dira protagonista nagusiak, nahiz eta horien artean diferentziak handiak egon, italiar edo espainol (galegoa) kolektibitateen garrantzia zalantza bakoa delarik. Argentinako euskal diasporan zentratuko gara gu, zeinak aparteko ezaugarriak bilduko dituen, nolabaiteko erreferentzialtasuna aldarrikatu nahian, apika.

### 3.1.3. Argentinako euskal diaspora. Kolektibitatearen partikularitasunak

Argentinan finkatuko den euskal diasporak **desplazamendu eta enplazamendu masibo, dibertsifikatu eta etengabe** du sorburu. Masiboa, Uruguay eta Argentinan kokatuko baita XIX. mendeko euskal migrazio gehiena. Etengabea, geroztik intentsitate baxu edo handiarekin bada ere, mugimenduak etengabeak izan direlako. Dibertsifikatuak, Argentina zabalean eremu esanguratsuetan lekutuko direlako.

Hori dela eta, Argentinako euskal diaspora erreferentzia handikoa da euskal diasporaren artean. Baina ez da horrelakorik Argentinako beste kolektibitateekin alderatuta. Halere, nahiz eta migrazio masiboaren baitan kopuru txikia bete (italiar eta galiziar diasporak migrazioaren gehiengoa osatuko dute) Argentinako euskal diasporaren leku inportantea izango du, kolektiboari atxiki zaizkion aparteko ezaugarriak medio.

Kolektibitatearen aparteko lehen ezaugarria litzateke **kolektibo ezberdindu** gisa agertuko dela hasieratik, bai nazio bai klase ikuspegitik. Europar migrazio masibo garaiak baino lehen han daude, Irlandarrekin batera litoraleko sektore produktiboan eragin handia izanik (Douglass & Bilbao, 1986). Lan-esku eta populatzaile eskasia dagoen momentu batean heldu omen dira, eta jarduera gogorrak burutzeaz gain, urruneko lur-eremu marjinal, isolatu eta gutxi populatuetan hartuko dute kokaleku.

Horra hor Argentinako euskal kolektibitatearen apartekotasunaren lehen mitoa: lehen momentutik *kontzientzia propioa duen taldea*, ekintza kolektiboak garatzeko gaitasuna duena; talde identitatea garatuko duena, lan munduan bereziki elkartasun handia erakutsiko duena; talde trinkoa, tradizio kulturalak babesteko ardura izango duena, eta mantenduko dituen (Azcona et al., 1992).

Kolektibitatearen iraunkortasunak eta barne kohesioak *eragin handiko kolektibotzat* hartua izatera darama. Garrantzi handiagoa duena da mito fundatzaile batek diaspora inguratuko duela, alegia, Buenos Aires probintziako herri askoren sorreran presente egon eta instituzioetan parte hartuko dutela. Honekin batera, *kolektibo*

*arrakastatsua*ren mitoa indartuko da, hots, lehenago heldu eta lehenago lurren jabetza lortzeko aukera izanik, abeltzaintzazko orientazioa dela-eta, bertako elite lurjabeekin harremanak estutuko ditu (Iriani, 1999). Zentzu horretan, lur-jabe handi eta merkatari ospetsu bakar batzuk pribilegio postuak okupatuko dituzten arren, gauza jakina da euskal elitearen esperientzia arrakastatsu batek diasporaren historian orri gehiago beteko dituela.

Kolektiboaren iraunkortasuna eta familia-migrazio diferituak (sendiak migratzaileari heltzea, migrazio jarraituak produzituz) *egoeraren inguruko ezagutza zabala* bazutela aditzera ematen du. Baina migrazio-sarea migratzailearen kartzela ere bihur daiteke. Hau da, familiaren babesak egitura sendoa baino kolektiboaren ahultasuna agerian utz dezake, esaterako, eskura duten informazio iturrien mugak edo aurrera egiteko errekurtsio faltak (Devoto, 2003). Era berean, kolektiboaren itxiera edo kontaktuak, kohesioaren eta integrazioaren berri ematen du.

Azken zentzu horretan, migrazio kateetan migratzailea kate-maila bihurtzen denean, datozen migratzaileen kontaktu bideragarriak bihurtzen direnean, diasporaren barne kohesioak beste abantaila batzuk eskainiko ditu. Hain justu, Argentinako Estatuak ez duela horien ardurarik hartu behar, diasporak etorkin berriei babes eta segurtasuna eskainiko dizkielakoan.

Migrazio masiboen garaietan euskal kolektibitatea **kolektibo desiratua** dela dirudi, elitearen kolonizazio asmoak euskal kolektibitatearen nekazal estereotipori egokituko baitzaio (Azcona, 1992; Devoto, 2003). Lan esku abilak eta onarpen positiboa izateaz gain, euskal kolektibitatearen zintzotasuna, bizitza osasuntsua, indarra, seriotasuna, tratu ona, hitza betetzea, diziplina, eta abar, goraipatuko dira. Halaber, lankortasuna erakusteagatik, ogibide konkretuetan jarduteagatik, autoritatearekiko errespetua izateagatik, Argentinari ustez ezin hobeto datorkion “moralak” badutela uste da.

Argentinako elitea ipar-europako herrialde garatueneren migrazio masiboen aldekoa izanda ere, euskal migrazioaren alde agertuko dira. Horren adibide, 1880ko hamarkadaren bukaeran Burdeosetik dauden 23 agente edo “ganchoak”, Rio de la Platara euskal migrazioa bultzatzeko ardura eskusiboa izango dutenak (Azcona, 1992). Bestera



ere, presidentzia diskurtsoetan, bidaiarien oroitzapenetan, manifestazio artistikoetan edo memoria kolektiboan, ereduak euskal migratzailearen irudia zabalduko da (Iriani, 1999). Euskal kolektiboaren izen ona, Argentinan egindako aparteko ekarpenak edo iraun handiko inpaktu positiboaren ideiak kolektibitatearen apartekotasunak markatuko ditu.

Migrazio masiboen garaietan ere, kolektibitateak bere ezberdintasunari eutsiko omen dio. Oraindik ere Europan hainbat Estatu eraiki ez diren honetan, migratzaile askok italiarra, espainola edo frantsesa direla Argentinan bertan deskubrituko dutela pentsatzekoa da, beste etorkinen aurrean identifikatu eta definitzearen beharrak tartean. Euskaldunak, zentzu horretan, “enblematikoak” omen dira: koherentzia identitate handia, endogamia-indize altuak eta elkarkoitasun segmentatuek, kolektiboa ezaugarrituko dute (Devoto, 2003). “Euskaldunak euskaldunak direla” –eta ez beste zerbait–, Argentinan zehar ere hedatuko dela esan daiteke.

Euskal kolektiboa, halaber, **ez da mehatxu kolektiboa** izango, ez Estatuaren eraketarako ezta merkatuaren funtzionamendurako. Euskal kolektibitatea kontserbadore eta erlijiosotzat hartua da, langile finak eta garapenerako mesedegarriak. Gernikaren suntsipena, apaizen fusilamenduak eta euskal gobernuaren propagandak elkartasuna bultzatu eta ideologikoki mehatxua ez den kolektiboa gisa aurkeztuko da argentinarraren intelektual eta politikoen artean. Horrela, bada, eliteak migrazio ateak ixten hasiko denean, europar “subertsioen” etorreraren temati, salbuespena egin eta 1941-1946 bitartean Comite Pro-inmigracion vasca komitearen bidez gerra ondoko 1.400 euskal emigratu helduko dira (Azcona et al, 1992). Hauetako asko medikuak, abokatuak, irakasleak dira, hots, Argentinak garai honetan beharrezko dituen profesionalak.

Exiliatuena ez da, bederen, euskal herritarrek Argentinara burututako azken desplazamendua. Esan bezala, desplazamendu kolektibo eta iraunkorrek ezaugarrituko du Argentinako euskal diaspora. Azken urteetan bidaiari, turista, ikasle, enpresa eta enpresari helduko dira, argentinarraren ustezko apartekotasunak pizten duen erakargarritasuna edo merkatu hedapenerako aukerak direla. Hauetako gehienak ez dira diaspora kide, baina inportantea da oso euren presentziak diasporan izan dezakeen isla. Argentinako euskal diasporaren erreferentzialtasunaren bestelako adibideak, Eusko

Jaurlaritzaren delegazioak ezarrerek edo aldiro-aldiro Nafar Gobernuak egiten dituen bisitak, bertako diasporak pizten duen interesaren seinale. Diaspora erreferentzialtasun nagusiena, ordea, Euskal Etxeena izango da.

### **3.2. Diaspora komunitate antolatuak: Euskal Etxeak**

Lehen migrazioekin batera elkarte-bizitza intentsua sortu, hedatu eta formalizatu egingo da Argentinako hiriguneetan, libreki antolatzeko eta libreki espresatzeko aukerak direla (Devoto, 2003). Argentinan finkatuko diren diaspora gehienek praktika komuna izango direnak, Buenos Airesen hasi eta barnealderantz zabalduko dira Elkarren Sorospen Elkartek deritzotenak, zeinak osasun-estaldura, ehorzketak eta elkarkoitasunerako guneak eskainiko dituzten.

Kolektibitateak diaspora komunitateetan antolatzen hasiko dira, eta tokian tokiko Euskal Etxeen sorrerak guztiz eraldatuko du diaspora. Kaleko espazio publiko zabala zentro antolatu eta hein batean itxietara mugituko da; harreman interperpersonalak elkarbizitza forma antolatuetan espresatzen hasiko da; bizitza komunitarioa erregulatzen eta bateratzen da; praktikak eta harremanak arautzen dira. Finean, diaspora nukleoak egitura formal eta konplexuagoak osatzen doaz.

2006 urtean 158 Euskal Etxe erregistratuko dira, horietatik 73 (%46,2a) Argentinan. Datu adierazgarria, diaspora komunitateen heterogenotasunaren adierazle, nonbait. Aitzitik, badago diaspora bilakaeran amankomuneko bi mugimendu inportante bereizterik. Bata, diaspora zentratuz joan dela, hots, zentro sozial, espazial eta instituzionaletan “plegatzen” dela. Bestea, zentro anitzek osatutako diaspora hedatzen edo “desplegatzen” hasiko direla, elkar-harreman eta elkartrukeak handitu ahala. Argentinako Euskal Etxeen ezaugarri orokorrak eta bilakaera amankomuna trazatuz, zentroen tipologia bat eraiki eta proposatutako diaspora definizioan sakontzen jarraitzeko tarte hartuko dugu ondoren.

### 3.2.1. Diaspora plegatuz. Zentro espazial, sinboliko, instituzionalak

Hastapenetan elkartzeko *azpiegitura minimoa* eta *modu informalak* ditu diasporak. Tabernak eta ostatuak izango dira, bereziki, diaspora ez-antolatuaren nukleo nagusiak, zeinak funtzio ezberdin anitz beteko dituzten. Zentro hauei buruz esango da lotarako eta atsedenaldirako lekuak ez ezik, enplegu bulego eta bikotea ezagutu eta ezkontzetarako guneak zirela; euskara, euskal kanta, jota eta musa –eta, oro har, euskal kutsua zerion oro– dibertsio nagusiak zirela; hauekin batera, zenbait auzo eta lantokitan euskaldunek frontoiak eraikiko zituztela (Douglass & Bilbao, 1986). Hitz bitan, familiartea, lagun edo lan-koadrilek bai elkarkotasunean bai egunerokoan bai lan harremanetan eragina duten sare sozial dentsuak osatuko dituzte, kolektibitatearen euskarri sendoak izan daitezkeenak, baina oraindik ere modu informalean funtzionatuko dutenak.

Aipatu diaspora nukleo informalak ez ezik, lehen migrazio garaietan orden erlijiosoak bideratu eta euskal kolektibitatearen eskola batzuk sortuko dira Buenos Aires, Santa Fe eta Rosario hirietan. Euskal diasporaren elitearen kasuan, Sociedad de Socorros Mutua Española (1857), Hospital Francés (1858) eta Hospital Español (1874) organismoetan kargu garrantzitsuak izango dituzte, lehen Euskal Etxea sortu aurretik (Azcona et al., 1992), Buenos Airesen, 1877. urtean.

Diaspora nukleo informalak bezala, Euskal Etxeak maila lokalean kokatuta dauden **zentro espazialak** dira, baina azken hauek elkartzeko *azpiegitura finko edo iraunkorra* edukitzeagatik ezaugarrituko dira. Diaspora gune informalak bezala, familia eta lan harremanak bere baitan hartzen ditu, baina Euskal Etxeak familia eremutik edota lantokitik haratago diaspora kideak topatu dezakeen etxe kolektiboak dira, elkartzeko *modu formalagoak* garatuko dituenak.

Euskal Etxeen sorrerekin batera *diaspora zentratuz* doa, hots, espazio fisiko konkretuetara mugitzen hasiko da. Espazioan kokatzean diaspora komunitateak *biraketa-ardatz* (Simmel, 1908) moduan funtzionatuko duela esan daiteke. Eliza katolikoak arima finkoen apaiza eta kapera bat jartzen dueneko adibidea gogora ekarri, diaspora komunitatea elizaren moduko funtzionamendua hartuko du. Biek ala biek indar

zentripetuak (zentrorantz bultzatzen duen indarra) eta indar zentrifugoak (zentrotik hedatzen den indarra) dituzte, kide berriak hurbiltzeko eta kolektibitatea zentroaren inguruan pilatzeko gai direnak. Harremanetan jartzeko eta bat egiteko espazio konkretu bat izanik, lehen isolaturik zeuden indar apurrak handitu eta amankomunean jartzeaz gain, pertenezia kontzientzia piztuko dute isolamenduaren ondorioz kontzientzia lozuten artean ere. Zentro edo ardatz hauek sortzeko bertan kide batzuk egotea nahikoa izaten da, indarraren arabera gero eta kide edo jarraitzaile “fededun” gehiago lotuz.

Euskal Etxea harremanetarako ardatz nagusia bihurtzen doa, diaspora kideen arteko interakzio sozialerako espazio konpartituaren gune bilakatuz. Egunerokoa konpartituz eta aurrez aurreko harreman iraunkorrak izanik, kideen artean enpatiak eta bat egitearekin, pertenezia kontzientzia piztu eta diaspora subjektu kolektiboa eratuz joango litzateke. Etxeak identitatea espresatzeko marko bat eskaintzen badu, hauetan parte hartzeak eragin dezake diaspora kideak identitatea definitu edo identitatean sakontzea, identitatea deskubritu edo birdeskubritze prozesuetan sartzea, identitateaz jabetu edo kontzientzia hartzea.

Hortaz, euskalduntasuna adierazi eta bizitzeko **zentro sinboliko** garrantzitsuak bihurtuko dira. Gainera, Argentinako Euskal Etxeak *zentro kondentsatuak* dira, diaspora komunitatearen egiteko gehienak espazio mugatu horretan garatuko baitira; beste diaspora batzuek eskolak, ospitaleak, klubak eta abar sortuko dituzte.

Barrura begira, zentro bakar batetik bideratuko dira jarduerak eta eztabaidak, esperientzia migratzailearen ganean eraikitako memoria kolektiboak, edota oinarritzko zerbitzuak, hala nola, asistentzia, laguntza eta babesa; aholkuak eta era askotako informazioa; dibertimendua, hezkuntza eta zerbitzu erlijiosoak. Adibide bat jartzeagatik, gerra karlista eta foruak galtzearen ondorioz sortutako Buenos Aireseko Laurak Bat Euskal Etxearen lehen helburuak aipagai. Argentinako lehen Euskal Etxearen xedea izango da, foruen abolizioa salatzeke ekitaldia urtero antolatzea; ahaztura ekidin eta euskal kulturari eutsi; laguntza premia duten euskaldunak lagundu eta Euskal Herriko zein Argentinako lurralde suntsituetara emariak eraman; euskal eta argentinarraren pertsona ospetsuak omendu (Douglass & Bilbao, 1986)

Kanpora begira, Euskal Herria eta Argentina arteko harreman eta trukeen zentro pribilegiatu gisa agertuko dira.

Diaspora komunitatearen sare dentsuak hedatu eta ikusgarriagoak bihurtzen dira. Eremu lokalean kokatuta egon arren, *maila lokaletik haratago* eragina izateko gaitasuna erakutsiko dute. Izan ere, diaspora zentroa indartu ahala errazago izan ei zaio errekonozimendua, legitimazioa eta ingurukoen konfiantza lortzea.

Euskal Etxearen barruan nahiz maila supra-lokalean diaspora zentroak bizitza komunitarioa erregulatu eta, pixkanaka, espazio gehiagotan sartuko da. Batetik, eskubide eta betebeharrak arautzea emango da, estatutuak, arautegiak, erregistroen bidez. Bestetik, zentrotik komunitateko praktikak gainbegiratu eta diskurtsoa orientatzen hasiko da, diasporaren praktika eta errepresentazioen uniformetasunaren bidean. Aipatu bi zentzuetan Euskal Etxeak **zentro instituzionalak** dira eta beraien eragina, esan bezala, maila guztietan sumatuko da, bai zentro barruan bai zentroen arteko harremanetan bai kolektibitateetik kanpoko harremanetan:

Euskal Etxe barruan kolektibitateetako sektore ertain eta altuek sektore baxuekiko kontrola indartuko dute, hein batean, diaspora komunitateetik kanpo beraien eragina luzatzeko, harreman sozialak lan-harremanen arlora eramateko, zerbitzu-sareak edo asistentziatzko zerbitzuak diaspora nukleotik enpresa arlora eramateko (Devoto & Fernandez, 1990). Horretarako nazio-identitatea indartzea beharrezkoa izango zaio Euskal Etxeko eliteari, nola eta borondatezko asoziazionismoa sustatuz (Azcona et al., 1992)

Halaber, Euskal Etxeko presidente edo Zuzendaritza Batzordeko kide izateak prestigio soziala eskaintzen duenean, hau da, kontsulatuaren agintariekin harremanak eduki edo ekitaldi publikoetan presentzia izateko aukerak dituenen, argentinar elite politiko-ekonomikoen aurrean euren posizioa indartzerik badutenean, kontuan hartu beharko litzateke prestigio sozialak euren arrakasta ekonomikoaren osagarria izaten dela (Devoto, 2003). Finean, azpimarratu beharrezkoa zera da, kolektibitateen zentroak loturak sendotzeko, negozioak egiteko eta iritzi politikoak zabaltzeko guneak ere badirela, nahiz eta eliteak lortutako etekin zein status sozialak diaspora komunitatearen indarraren araberakoa den, hain zuzen ere, diaspora barruan zentroak duen indarra edo

eskualdean diaspora komunitateak duen erreferentzialtasunaren arabera. Askotan, zentro historiko bakar batzuetan dauden familia erreferentzial batzuei mugatua egon ohi da gainera.

Euskal Etxe bakoitzaren eragin-indarretik haratago, Argentinako euskal diaspora gehientsuena zentroen inguruan antolatuko da. Beste era batera adierazteko, *zentroen inguruan “plegatzen”* doa. Horrela, zentro espazial, zentro sinboliko eta zentro instituzional gisa finkatuz, etxe berriak eraikiz, zentro-periferia logika kokatu beharrean, *han* baino (urrutiko lurraldea batzuentzat, lurralde galdua besteentzat), **diaspora hemen kokatzen hasiko** da. Hemen bizitzeak ordea, inguruko artean konfiantza ezak produzitu ditzazke. Izan ere, klase-identitate eta nazio-identitate bati “plegatzen” zaion bitartean, Argentinako eragile arras ezberdinek diaspora komunitateekiko kritika bikoitza plazaratuko dute:

Batetik, ezkerreko mugimendutik datorren kritika. Zentroko buruek (talde burua, komunitate ospetsuen komunitateek) kolektibitateko langilea kontrolatuz gero, klase-elkartean, erresistentzia edo sindikatuen eraketa oztopatuko litzateke (Devoto, 2003), baldin eta zentroek klase-diferentzia erreproduzitu eta identitate nazionalak klase-identitatea gainditzen badu.

Bestetik, argentinarrak Estatutik datozen kritikak, kolektibitateek argentinarren argentinartzea oztopatu dezaketelakoan. Zentzu horretan, diaspora indartsu eta antolatuenen asistentzia-sistema enpresa pribatuen konpetentzia bihurtuko dira XX. mende hasieran (Devoto & Fernandez, 1990); baita eskolak eta osasun zentro pribatuak argentinarrak Estatutik (Bargnam, 1992). Asistentzia zerbitzuak, identitate markoak, endogamia-patroiak mantendu edota gaztelania ez zen beste hizkuntza hitz egiteak, kezka sortuko du elitearen artean (Irazusta, 2001)

Estatua indartu ahala Argentinako eliteak pixkanaka hartuko ditu hezkuntza eta osasun zerbitzuen ardurak. Hori dela eta eremuak bereiztuko direla esan daiteke. Batetik, Estatuak bere kasara maneiatuko dituen zerbitzua eta parte hartze politiko zein ekonomikoa. Bestetik, zentroetan zokorazitako argentinarrak gizartearen dibertsitate sozial, kultural eta erlijiosoa. Argentinako diaspora komunitateak gero eta funtzio

gutxiago izango dituzte; zentroen eragina ahulduz doaz. Honekin batera, litekeena da errekonozimendu, legitimazio edo prestigioa lortzeko aukerak murriztea.

Edonola ere, kontuan hartu beharko litzateke Euskal Etxeek ez dituztela hasieratik diaspora kide guztiak bere baitan bildu. Litekeena da gehiengo batek zentroan inoiz parte hartu ez izana, **zentrotik at** egotea. Euskal Etxean parte hartzen dutenen artean ere, gutxi batzuek parte hartze aktiboa izango dute eta beste askok noizbehinkako parte hartzea izango dute. Ohikoa da kide asko urtean behin festa edo dantzaldietara joatea, edo astean bitan diren euskara eta dantza klaseetara.

Gainera, kanporatzeak konstanteak izan dira. Klase soziala, ideologia, genero eta jatorria bazterketa zein kohesio baldintzak dira. Euskal jatorrikoak, euskal nazionalistak-abertzaleak, gizonezkoak (Zuzendaritza Batzordeetan bereziki) eta mugikortasun sozial handiko klase ertaina zein altua finkatuko da bertan. Horren adibide, Buenos Aireseko Laurak Bat-etik irten eta 1895ean sortutako Centro Vasco francés eta Centro Navarro, nazionalismoa euskal diaspora gehien banantzen duen faktorea dela sostengatzera daramana (Douglass, 1997). Euskal-identitate nazionala eta klase-jatorria dira, aitzitik, kolektiboa gehien elkartu edo kohesionatu ditzakeenak. Edonola ere, zentroa plegatzearen beste bi erakusletzat jo behar dira.

### **3.2.2. Diaspora zentroak desplegatuz. Zentro eta indar korrelazio berriak**

Diaspora Euskal Etxeetan antolatuko direla ikusi berri dugu, hots, zentro espazial, sinboliko eta instituzionaletan “plegatzen” hasiko direla. Argentinako euskal diasporaren zentroranzko mugimendu hauetan, beste bira bat suertatuko da: Euskal Etxeen arteko harreman-sareen eta elkartrukeen bidez zentroak “desplegatzen” hasiko dira.

Federazioaren sorrera horren adibidea da. Euzko Argentinazko Bazkun Alkartasuna - Federación de Entidades Vasco-Argentinas (EABA- FEVA) 1954an urtean sortuko da ondoko helburuekin (Muguerza, 1999): euskal-erakunde eta euskal-argentinazko erakunde sozial, kultura, aberkoiak edo mutualista gehienak bildu eta erakunde gehiagoren sorrera

sustatu diaspora zentrorik existitzen ez den herrietan; euskara landu, haren irakaskuntza eta difusioaren alde eginez; jarduera kultural, sozial eta mutualisten alde egin; euskal eta euskal-argentinarren indarren batasuna, Euskal Herriaren inguruko ezagutza zabaldu eta Euskal Herria eta Argentinaren eskubideak goratu eta defendatu.

FEVAk euskalduntasunaren eta diasporaren egitekoak zehaztuko ditu, euskal nazionalismoaren edo abertzaletasunaren alde lerrokatuz. Diasporaren erakundetzea bultzatuko du, diaspora komunitateak zabalduz eta promozionatuz. Argentinari legez bideratuz, Euskal Herria zein Argentina erreferentzia zentro nagusiak izanik, euskal eta euskal-argentinari arteko distantziak markatuz.

1980az geroztik beste agente bi sartuko dira eszenatokian: Eusko Jaurlaritza eta neurri txikiago batean, Nafar Gobernua. Euskal Herriari administrazioak indartu ahala diasporan izango duten eragina handiagotuko da. Harremanak erakundetu ez ezik, harremanak bertikalizatu eta harremanen noranzkoak definituko dira. Dependentsia politiko eta ekonomikoa areagotuz, diaspora zentroen funtzionamendua eta bizitza komunitarioan eraginak izango dituzte ezinbestean.

1994. urtean Eusko Jaurlaritzak diasporarekin harremanak arautuko ditu, honako helburuak lortzeko asmoz:

- a) euskal gizatalde eta etxeak sendotzen laguntzea, horien barne-lotura eta elkarte-ekintzen eraginkortasuna bultzatuta, b) euskal gizatalde eta etxeen eta Euskal Herriaren arteko harremanei eustea eta bultzatzea, c) Euskadiko benetako egoera euskal gizataldeei ezagutaraztea, euskal kultura eta ekonomia zabaltzeko, bultzatzeko eta garatzeko ekintzak sustatuz, d) bere baitan euskal gizataldeak dauzkaten herrialdeekin eta bertako erakundeekin eta gizarte-eragileekin harremanak izateko bideak jartzea, e) araubideak eta aurrekontuak emandako aukerak kontutan izanik, Euskal Autonomi Elkartetik kanpo bizi diren euskaldunak laguntza eta babesa ematea, f) eta, oro har, Euskal Autonomi Elkarteko lurraldetik kanpo bizi diren euskaldunek eta hemengo herri-agintariak elkarren berri izateko bideak bultzatzea (8/1994 legea, lehen atala)

Euskal Etxeak bete dituzten funtzioak bere gain hartuko ditu Eusko Jaurlaritzak. *Zentro espazial erreferentzial bat* bihurtuko da, zentroen arteko harremanak sustatuz eta administrazioarekin eta euskal gizartearekin harremanak areagotuz, eta zenbait programa bideratuz, Euskal Herrirantz eta Gaztemundu kasu, “diaspora Euskal Herrira eramán” nahiko balu bezala. Halaber, espazio fisikoaren mantenuari begira,



administrazioaren diru-laguntzak Euskal Etxeen azpiegitura mantendu eta hobetzera bideratuko dira. Jaurlaritzaren beste zenbait programa *zentro sinbolikoak* sakontze aldera egin dira: informazioa igorri eta aholkularitza emango du, Euskal Herriko historia, geografia, kultura edo hizkuntzari dagokionean; jarduerak arautu, bultzatu eta finantzatuko ditu; eta egoera larrian dauden bazkideak lagunduko ditu. *Zentro instituzional* gisa, Euskal Etxeko bazkideek Jaurlaritzaren programa, misio eta ordezkartzan parte har dezaten; diaspora kide direnen eskubide eta zerbitzuak aitortu eta zehaztu; Euskal Autonomi Erkidegotik diasporara instituzioek diseinatu, arautu eta bultzatutako programak izanik, zentro instituzionala indartzen da.

Administrazioaren presentzia areagotu nahi bada ere, Euskal Etxeek badute oraindik erreferentzialtasun handia. Euskal Etxeak dira Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioen artean harremanak bideratzeko bide nagusia; administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuak Euskal Etxeen bitartez bideratuko dira.

Era berean, programa hauen bidez **diaspora indartzeko baldintzak areagotu** nahi dira. Euskal Etxeko kideen arteko harremanak sustatzen dira, diaspora komunitate errealitate anitzak zein diaspora kideen arteko elkar-ezagutza ahalbideratuz. Diaspora komunitate arteko zein Eusko Jaurlaritzarekiko harreman instituzionalak indartzen dira, truke politiko, ekonomiko, sozial edo kulturalak eman daitezen. Diaspora komunitateen harreman eta trukeak sustatuz lortu daiteke harremanetarako guneak sortzea, zeinak zentro geografiko zehatzik behar ez duen, diaspora sarea eratzen joango litzatekeelarik.

### **3.2.3. Diaspora komunitate sareak. Argentinako Euskal Etxeen tipologia bat**

2006. urteko Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etxeen erregistro ofizialean 73 zentro errolatuta daude Argentinan, Ipar Euskal Herrikoa kontsideratua izan den zentro bakarra barne (Centro vasco-francés, Buenos Aires Hirian). Nafarroako Gobernuak bost Nafar Etxe eta Federazio bat errekonozitzen ditu. Urte berean FEVAk 109 Euskal Etxe zerrendatuko ditu, federazioan duten statusaren arabera: 58 zentro aktibo, 13 zentro atxiki, 25 zentro postulatu eta azkenik, eratzen edo berraktibazio prozesuan dauden 13

zentro. Hauetako batzuek ez dute Jaurlaritzaren aitorpenik, ez espazio fisikorik, ez izenik.

Euskal Etxe eta federazioaz gain, azken urteetan beste egitura batzuk sortuko dira: Fundazioak, Institutuak eta Delegazioak. Diasporaren kontaktuez baliatuz, egitura berri hauek Euskal Autonomi Erkidegoko eta Argentinako enpresen arteko industria-harremanak nahiz komertzio-harremanak sortzea dute helburu, non eta euskal diasporak estatus sozial altua eta ekonomikoki eragina duen tokietan (Totoricagüena, 2003), non eta kanpoko inbertsioei atea irekitzen dieten herrietan, 2001eko krisiaren ondorengo Argentinak bereziki erakargarria izango zaielarik.

Euskal diaspora komunitateen tipologia garatzeko orduan Euskal Etxeak soilik hartuko ditugu aintzat, beste elkarteek bestelako funtzioei eta egituraketei erantzuten baitiete.


Mapari erreparatuta diasporako zentro gehienak **Buenos Aires probintzian** daudela ikus daiteke, hain zuzen ere, 63tik 39 Euskal Etxe. Zentzu horretan, diaspora komunitate antolatu hauek euskal migrazio tendentziei egokitzen zaiela aipatzea:

Lehen migrazio garaian litoraleko probintzietan kokatuko dira euskal migratzaileak, gerora zentro-mendebalderantz barrena joanda, migrazio masiboen korrontearekin batera (horiz markatutako eremua). Eremu honetan biztanleria dentsuagoa eta herrien kontzentrazioa handiagoa da, herrien arteko distantzia geografikoak txikiagoak izanik. Horrenbestez, Euskal Etxeen kontzentrazioa handiagoa da hemen, eta euren arteko harremanak, gertukoagoak.

Patagonia aldean, aldiz, (morez markatutako eremua), biztanle dentsitate baxuko zonaldea, zentroak itsasaldean kokatzen dira.

Azkenik, euskal desplazamendu- enplazamenduak eskasagoak izan diren iparralde zonaldean, bi zentro besterik ez daude (urdinez markatutako eremua).

# 1. mapa. Argentinako euskal diaspora komunitate aitortuen kokapena, eskualdearen arabera (2006)



**ESKUALDEAK**

- Metropolia
- Pampa
- Ipar-ekialde, Ipar-mendebaldea
- Cuyo
- Patagonia

- Metropolia: Buenos Aires Hiria (CF) eta Gran Buenos (GBA)**
1. Centro Laurak Bat (CF)
  2. Centro Vasco Francés (CF)
  3. Euskaltzaleak - Eusketxe (CF)
  4. Centro Navarro (CF)
  5. Centro Vasco "Toki Eder" (José C Paz, GBA)
  6. Centro Vasco Denat Bat de Lomas de Zamora (GBA)
  7. Centro Vasco "Gure Eusko Tokia" (Moreno, GBA)
- Buenos Aires probintzia**
8. Euskaldunak Denat Bat S.S.M. (Arrecifes)
  9. Centro Vasco Euskal Odola de Ayacucho (Ayacucho)
  10. Centro Basko Azuleño "Gure Txokoa" (Azul)
  11. Unión Vasca Sociedad S.M. (Bahía Blanca)
  12. Centro Vasco Balcarce'ko Euskaldunak (Balcarce)
  13. Danat Bat Centro Vasco Argentino de Bolívar (Bolívar)
  14. Centro Navarro - (Bolívar)
  15. Centro Vasco Argentino "Danak Aniak" (Bragado)
  16. Centro Vasco Euskalduna (Carlos Casares)
  17. Centro Vasco Denak Bat Cañuelas (Cañuelas)
  18. Centro Vasco "Guillermo Larregui" (Chacabuco)
  19. Centro Vasco Argentino Zingirako Euskaldunak (Chascomus)
  20. Centro Vasco - Argentino Beti Aurrera (Chivilcoy)
  21. Asociación Centro Vasco "Eusko Biltzar" (Coronel Pringles)
  22. Centro Vasco "Eusko Aterpea" (General Rodríguez)
  23. Centro Vasco "Villegas'ko Euskaldunak" (General Villegas)
  24. Centro Vasco "Arbola Bat" (Junín)
  25. Centro Vasco "Eusko Etxea" (La Plata)
  26. Centro Vasco Argentino "Lagunen Etxea" (Laprida)
  27. Centro Vasco "Ongi Etorri" (Magdalena)
  28. Centro Vasco Anaitasuna (Maipú)
  29. Centro Vasco Denat Bat de Mar del Plata (Mar del Plata)
  30. Centro Navarro (Mar del Plata)
  31. Centro Basko Argentino "Eusko Etxea" de Necochea (Necochea)
  32. Centro Basko Argentino Gure Etxe Maitea (Olavarría)
  33. Centro Basko "Etxe Alai" (Pehuajó)
  34. Centro Basko Lagun Onak (Pergamino)
  35. Centro vasco Itxaropena de Saladillo (Saladillo)
  36. Centro Vasco "Eusko - Deya" de Salliqueló (Salliqueló)
  37. Centro Vasco Euskal Etxea San Nicolás (S. Nicolás de los Arroyos)
  38. Centro Vasco de Suipacha Gure Txokoa (Suipacha)
  39. Centro Vasco Argentino "Gure Etxea" (Tandil)
  40. Centro Basko Euskal Sustraiak (Treunque Lauquen)
  41. Gure Etxea - Casa de la Cultura Vasca (Treunque Lauquen)
  42. Centro Vasco "Hiru Erreka" (Tres arroyos)
- Besteak probintziak Pampan:**
43. Asociación Centro Rincón Vasco "Euzko Txokoa" (General Acha, La Pampa)
  44. Asociación Unión Vasca Euzko Alkartasuna (Macachín, La Pampa)
  45. Centro Vasco "Zelaiko Euskal Etxea" (Santa Rosa, La Pampa)
  46. Centro Vasco Argentino "Gure Txokoa" (Córdoba, Córdoba)
  47. Centro Vasco "Gure Ametza" (Río Cuarto, Córdoba)
  48. Centro Vasco "Euzko Etxea" (Villa María, Córdoba)
  49. Centro Vasco Zazpirak - Bat (Rosario, Santa Fé)
  50. Centro Navarro (Rosario, Santa Fé)
  51. Centro Vasco Argentino Gure Etxea (Santa Fe, Santa Fé)
  52. Colectividad Vasca de Concordia (Concordia, Entre Ríos)
  53. Asociación Vasca Argentina Urrundik (Paraná, Entre Ríos)
  54. Centro Vasco "Ibai Guren" (Paraná, Entre Ríos)
- Iparraldea**
55. Centro Vasco del Chaco "Kotoiaren Lurra" (Chaco, Chaco)
  56. Centro Vasco "Denat Bat" de Jujuy (S. Salvador de Jujuy, Jujuy)
- Cuyo:**
57. Centro "Eusko Etxea" de san Juan (San Juan, San Juan)
  58. Centro Vasco "Euskal Etxea" (Villa Mercedes, San Luis)
  59. Centro Atuel'ko Euskotarrak (General Alvear, Mendoza)
  60. Centro Vasco Denat Bat de Mendoza Mendoza)
  61. Centro Navarro (Mendoza, Mendoza)
- Patagonia:**
62. Centro Vasco del Comahue "Zazpirak Bat" (Cipolletti, Río Negro)
  63. Centro Vasco "Gure Etxea" (General Roca, Río Negro)
  64. Centro Vasco Ibaiko Euskaldunak (Río Colorado, Río Negro)
  65. Centro Basko Mendi'ko Euzko Etxea (S.C. de Bariloche, Río Negro)
  66. Centro Vasco Beti aurrera Aberri Etxea de Patagones y Viedma (Viedma, Chubut)
  67. Asociación Euskal Etxea de Socorros Mutuos (C. Rivadavia, Chubut)
  68. Centro Vasco del Noreste del Chubut (Trelew, Chubut)

Iturria: Eusko Jaurlaritz eta Nafar Gobernuak (2006). Norberak Egina

Argentinan migrazio masiboak hirigintzaren gorakada eta urbanizazio azkarra eragingo ditu. Era berean, barne migrazioak landa eremutik hirira egiten diren desplazamenduak hartuko dituzte. Oro har, **asoziazionismo fenomeno urbanoa** dela esan dezakegu, industrializazio eta aisialdirako forma berriei estuki lotuak (Elias & Dunning, 1992), eta tendentzia horri jarraiki, diasporako zentro gehienak hirigunetan edo hiri garrantzitsuetan kokatuko direla aintzat hartuko da.

Azkenik, euskal diasporaren asoziazionismo fenomeno **ez da migratzaileen arteko asoziazionismo fenomeno**. Lehenik eta behin, diaspora kide gehientsuenak Argentinan jaio direlako. Eta, bigarrenik, are garrantzitsuagoa den zerbait: Euskal Etxe gehienak 1980 urteaz geroztik sortuak direlako, ondorengo taulan ikus daitekeen moduan. Zentzu horretan, litekeena da aurreko urteetan zentro gehiago existitu izana; Euskal Etxe horien birfundazioa eman denean, azken birsorrera data kontuan hartu dugu.

#### 1. taula. Diaspora komunitateen sorrera urtea, kokapenaren arabera (2006)

	Buenos Aires Hiria	Buenos Aires Probintzia	Beste probintziak	Guztira
<b>1877-1939</b>	4	2	2	8
<b>1940-1979</b>	1	12	7	20
<b>1980-2006</b>	3	19	15	37
<b>Aitortutako besteak *</b>	8	2	3	13
<b>Aitorpenik gabe</b>	2	24	10	36
<b>Guztira</b>	18	59	37	114

\*Federazioak, Institutuak, Elkarreak, Klubak, Batzordeak Nafar Etxeak  
Iturriak: Eusko Jaurlaritza erregistroa (2006), Nafarroako Gobernu Forala erregistroa (2006), FEVAko buletina (2006). Norberak egina

Aurreko lerroetan jorratutako orientazioak aintzat hartuz, Argentinako Euskal Etxeen tipologia garatzeko orduan diaspora komunitateen sorrera, bilakaera eta egungo funtzionamenduari erreparatuko diogu.

Lehen zentroak, **Euskal Etxe aitzindari edo historikoak** deritzotenak, 1877-1939 urte bitartean sortuko dira. Euskal etorkinek sortutako zentroak izango dira, guztiak hiri garrantzitsuetan eraikiak, alegia, Argentinako zentro administratibo, politiko, ekonomiko, kultural zein turistiko garrantzitsuetan.

Guztiek azpiegitura indartsua izango dute –eta horregatik, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren finantziario gehiena xurgatzen dute. Horregatik, baita, Argentinako beste Euskal Etxeen erreferente dira neurri handi batean. Euren arteko harremanak eta trukeak handiak izaten dira, eta beste zentro txikiagoekin harremanak berriz, asimetriatikoak. Euskal Etxe aitzindarietan daude “familia historikoak” deituko ditugunak.

Halaber, Euskal Etxe historikoen izenei erreparatzea beharrezkoa da, lehen zentro hauek Euskal Herriarekiko izandako lotura aditzera ematen dute-eta: Laurak Bat (Buenos Aires Hiria), Zazpiak Bat (Rosario), Union Baska (Bahia Blanca), Centro Vasco-francés (Buenos Aires Hiria) eta Denak Bat (Mar de Plata)

Bigarren fase batean **erdibideko Euskal Etxeak** ditugu, 1940-1979 urte bitartean sortutakoak. Epe honetan, eta bereziki 40ko hamarkadan euskal exiliatuak helduko dira Argentinara. Hauekin batera Euskal Etxeen “urrezkoa aroa” izango dela esaten da: euskal kulturaren eferbeszentzia eta gorakadak izango ditu musika jardunaldiak, konferentziak, antzerkia, euskararen sustapena, jarduera politikoak eta argialetxeen sorrera (Azcona et al., 1992). Hego Euskal Herrian frankismoak debekatutako sinboloak publikoan espresatzeko aukerak tartean, etorkizunean gordetzeko “ardurak” dituztela esango da (Jimeno, 2003).

Euskal Etxeak agitazio politikorako zentro bihurtuko dira. Bazkideak gehituko dituzte, jarduera bete-betea izango dute. Kontzientzia nazionalista suspertzeko espazioak izango dira diaspora etxeak, hauen artean ere zenbait bereizketa produzituko direlarik: Nafar Etxearen zatiketa gertatuko da, batzuk Nafar Elkarte Errepublikarra sortuko dute, Nafar Etxea frankistatzat hartuz; beste batzuk Laurak Bat Euskal Etxean sartuko dira. Bien bitartean, EAJ-PNVren sektoreak bilduko dituen Laurak Bat zentroaren barruan zatiketak sortuko dira, Eusko-Txokoa zentroan ezker-abertzalearen inguruko kideak, euskal errepublikarrak, sozialistak, komunistak eta ANV-EAE kideak bilduko direlarik (Azcona et al., 1992)

Euskal Etxe historikoen indarberritzea ez ezik, epe honetan zentro berriak sortuko dira, gehienak Buenos Aires Hiritik kanpo, Buenos Aires probintziaren barruan. Interesgarria da berriro ere izenei erreparatzea, diaspora arteko loturak eta argentinarrak kokapena azpimarratzen baitira horietan: Danak Bat Centro Vasco Argentino de Bolivar; Centro Vasco Argentino Zingirako Euskaldunak (Chascomús); Lagun Onak (Pergamino); Centro Basko Etxe Alai (Pehuajó); Centro Vasco Argentino Gure Etxea (Tandil); edo Centro Basko Argentino Gure Etxe Maitea (Olavarría); erreferentzia batzuk aipatzeagatik.

**Euskal Etxe berrienak** 1980.az geroztik sortuak dira. Zentroen hazkundera eta hedapena handia izango da garai honetan. Esplikazio posibleen artean, Autonomia Estatutua edo Gernikako Estatutuak (1979, urria) emandako bultzada, eta honekin batera, diru-laguntzetara heltzeko aukerak (hori da hauetara heltzeko bide bakarra), nahiz eta hori zentroen sorreraren arrazoi bakarra ez izan, gehienek diru-laguntza gutxiago jasotzen baitute, zentroa sortzeko eta funtzionamenduan jartzeko ez-nahikoa gehienetan. Beste esplikazioen artean, Argentinarekiko leialtasun kontuak, hots, Malvinaseko gerra galtzearen ondorioz (1982, apirila-ekaina), identitate argentinarrak eragindako lotsa sentimenduak eta identitate berragerpena mundu mailan (Totoricaguena, 2003). Ez daukagu fenomeno hau esplikatzeko modu egokirik, baina litekeena da hauetako asko zatiketa baten ondorioz sortuak izatea (Paranako Urrundik Euskal Etxea esaterako), kanporatuak izateagatik beste zentro bat sortu izana (Buenos Aires Hiriko Eusketxe-Euskaltzaleak- Ekinek sortutakoa, Laurak Batetik bidaliak izan ostean) eta beste batzuk berreraiki edo birsortuak izateak (Raucheko eta Mendozako Euskal Etxeak kasu)

Zentro berriak izan arren, hauetako batzuk badute alde aurretik ekipamendu eta bidea eginda. Azken urteetan indartsu agertu dira gainera. Arrakastaren gako posibleen artean, parte hartze altuagoa izate eta tokian tokiko jendartera ireki izana. Euren izenetan ere irekiera bat aditzera ematen da, euskarazko adierak bizitokia aipatzerako orduan, adibidez: Centro Basko Beti Aurrera Aberri Etxea de Patagonia (Viedma), Centro Vasco Ibaiko Euskaldunak (Río Colorado), Centro Basko del Chaco Kotoiaren

Lurra (Chaco), Centro Vasco Zelaiko Euskal Etxea (Santa Rosa), edo Centro Vasco Hiru Erreka (Tres Arroyos)...

Kokapena eta sorrera urteari erreparatuta, nahiz diaspora komunitateen bilakaera ikusirik, hiru Euskal Etxe mota definitu ditzakegu, ikerketa honetan bisitatutako Euskal Etxeak tipologia honen baitan biltzen ditugularik:

## 2. taula. Euskal Etxeen tipologia bat: zentro aitzindariak, erdibidekoak eta berriak

	<b>Aitzindariak</b>	<b>Erdibidekoak</b>	<b>Berriak</b>
<b>Kokapena</b>	1940 baino lehen sortuak. Buenos Aires probintziako hiri politiko-administratibo nagusietan	1940-1980 epean sortuak. Tamaina txiki eta ertaineko herrietan, gehienak Buenos Aires probintzian	1980az geroztik sortuak. Argentinako barnealdean eta Buenos Airesen
<b>Egitura</b>	Azpiegitura eta zuzendaritza batzorde indartsuak, hierarkikoak. Familia historikoak bildu eta subentzio gehienak jaso. Beste zentrozen artean erreferentzialak	Azpiegitura indartsua kostata mantendu, bazkide eta diru-iturri faltak tartean. Zuzendaritza Batzordea erabaki gune inportantea baina ez determinantea	Euskal Etxeen bereizketatik sortuak edo birsortuak. Batzuk ez dute azpiegitararik Gizartera irekiak. Parte-hartze aktibo eta dinamikoa bultzatzen dute.
<b>Aukeratutako</b>	<i>Laurak Bat</i> , Buenos Aires Hiria <i>Euzko Etxea</i> , La Plata, Buenos Aires <i>Unión Baska</i> , Bahía Blanca, Buenos Aires <i>Centro Basko-Argentino Euzko Etxea</i> (Necochea, Buenos Aires) <i>Zazpirak Bat</i> (Rosario)	<i>Ibai Guren</i> , Paraná, Entre Ríos <i>Sociedad de Socorros Mutuos Arrecifes</i> , Buenos Aires <i>Lagun Onak</i> , Pergamino, Buenos Aires <i>Euzko Alkartasuna</i> , Macachín, La Pampa	<i>Urrundik</i> , Paraná, Entre Ríos <i>Eusketxe-euskaltzaleak</i> , Buenos Aires Hiria <i>Gure Txokoa</i> , Rauch, Buenos Aires <i>Toki Eder</i> , José C. Paz, Buenos Aires Hiria <i>Denak Bat</i> , Mendoza

Norberak egina

### 3.3. Argentinako Euskal Etxeko gazteak. Lehenengo hurbilketa

Ikerketa honen protagonista nagusiak 2006ko azaroa eta 2007ko apirila bitartean Euskal Etxeetan parte hartu duten **16-30 urte bitarteko neska-mutilak** dira. Gazte

hauek Argentinan jaio dira 1976-1991 urte bitartean, hain justu, azken hamarkadetako argentinarrak jendartean berebiziko garrantzia izango duten bi momentu esanguratsuren artean: azken diktadura militarren hasieran (1976-1983) eta Carlos Menem presidentearen agintaldiaren (1989-1999) lehen urteetan. Azken hiru hamarkadei gainbegiratu azkarra egitea proposatzen dugu ondoren, egungo Argentinako Euskal Etxeko gazteak testuinguru berri honetan non kokatuko diren ezagutu eta gazteen profil orokorraren inguruneak mahai-gaineratzeko asmoz. Horrela, argentinarrak nahiz diaspora mitoen egokitzapena egiteko azken parada egiteko tarte hartuko dugu.

Migrazio masiboen garaietan menpeko sistema kapitalistaren oinarriak jartzen hasiko badira, diktadurak sistemaren oinarriak sendotuko ditu eredu neoliberalak ezartzeko pausu zehatzak emanez, hala nola, zor pribatuaren estatazioa bultzatu eta kanpo zorra handituz; talde ekonomiko handien artikulazioa eta enpresa transnazionalen etorrera baimenduz; aurkari politikoak desagerraraziz eta hauekin batera, gizarte berri bat eraikitzeko alternatibak porrot egin duenaren ustea zabalduz. Porrota bera termino hauetan uler daiteke: herri mugimenduek artikulatutako harreman sozialen suntsiketa, gizartearen disziplinamendu edo “domestikatu dagoen gizartearekin” zerikusia handia duen harreman berriak ezartzeko (Izaguirre, 1994). Diktadura garaiak eta ondoren zabaldutako demokratizazio prozesuak sistema kapitalistaren berregituraketa prozesutzat jo badaitezke, ezaguna da Carlos Menem presidenteari azken kolpea emango duela, hau da, eredu neoliberallean zutabe politiko-ekonomikoak bururaino eramango dituela.

Gaur egungo Euskal Etxeko gazte gehienak jendartean diferentzia sakonak emango diren hamarkada hauetan sozializatzen hasiko dira, aipatu desberdintasun sozialak gazteriaren artean ere hedatuko direlarik. Gaztea ez den gazteriaren kolektiboa zabalduko da, gaztea den gazteriak bere burua gazte bezala definitu eta pentsatzeko aukerak handituko dituen bitartean, hezkuntza sarbidearen eta kontsumo gaitasunaren hedapenari esker, neurri handi batean.

Euskal Etxeko gazteak **klase ertain zabal** horretan koka daitezke, hau da, bizi-luzapena izateaz gain, luzapen soziala duten *gazte-gazteria kategoriaren baitan*. Eta horrela adieraziko dute eurek ere. Gutxi gorabeherako datu batzuk plazaratu daitezke



esandakoa adibidez adierazteko: lautik hiruk klase ertainen kokatzen dute euren burua, maila sozioekonomikoa altua edo ertaina dela (%85) eta etxean bizi duten egoera sozioekonomikoa ona edo oso ona dela (%69) esango dute. Halaber, diferentzia horien pertzepzioa badutela esan daiteke, euren egoerarekin alderatuz gero Argentinako egoera txarra dela (%78) eta Argentinako gazteen egoera erdipurdikoa dela (%54) adieraziko baitute (Emakume Abertzale Batza, 2004)

Iturri berdintsuen arabera, Euskal Etxeko gazte askok ikasketa unibertsitarioak dituzte dagoeneko, hain zuzen ere, %44a. Bigarren hezkuntzan daudenen artean, gehienek goi mailako ikasketak burutzeko intentzioa agertuko dute gainera. Horrela bada, azpimarragarria da Euskal Etxeko gazteak gazte prestatuak direla, profesionalak; abokatuak, medikuak, ingeniariak edo irakasleak. Argentinako klase ertainaren ezaugarria da etorkin jatorria duen hiri klase ertaina izatea, hezia, dinamikoa eta modernizatzailea; era berean, Argentinako klase ertainak ezaugarrituko du jasotako hezkuntza maila ertainak eta altuak; hezkuntza da, hain zuzen ere, goranzko mugikortasun soziala eta distintzioa ahalbideratuko dituen (Svampa, 2005).

Halere, 2001. urteko krisiak klase ertain zabala ere kolpatuko du. Hezkuntza sistemaren kaskartzea, kontsumo gaitasunaren murrizketa, beheranzko mugikortasun soziala eta gero eta mugikortasun espazial mugatuagoa pairatuko dute, besteak beste. Politika neoliberalen esanahi eta helburuak batetik, eta diktadura osteko demokratizazio esperantzak bestetik, lurrundu eta paisai beldurgarria agertuko da: pobrezia, indigentzia eta bazterketa soziala jota dagoen kontinentea; ingurugiro erasotua eta neurri batean suntsitua; gizarte urratua eta deskonposizio prozesu azkarrean; gero eta dependienteagoa, zaurgarriagoa eta extranjerizatua den ekonomia; abstentzioak indarra hartuko duen hauteskundeetara mugatutako demokrazia politikoa eta azkenik, –zerrenda amaiezina bada ere–, korrupzioak jota dauden Estatuak (Boron, 2008).

Argentinak “hegoamerikar destino tragikoa” berraurkituko duela esango da, horretaz jabetzeak era askotako aldaketak produzituko dituelarik. Argentinarekiko leialtasuna “Argentinaren etorkizun oparoa” mitoan oinarritzen denean, –eta errealitateak beste zerbait adierazten duenean–, identitateen arteko tentsio halabeharrez berrireki eta migratzeko erabakiaren inguruko eztabaida birpiztuko dela pentsatzekoa da

(Devoto, 2003). Era berean, europar jatorrien birdeskubrimendu saiakerak izango dira, hau da, familia historien aztarnak arakatzea beren biografiaren parte inportantea argitu egiten duenaren konbentzimendu nahasiari jarraiki.

Idea hau berretsiko duen aurrekaririk badago. Zentro-periferien arteko harreman asimetrikoen baitan, 90eko hamarkadako krisiak jota, argentinarrak askok migratuko dute. Hauetako asko lehengo etorkinen ondorengoak dira, zeinak ordura arte ezkutatu edo gordetako identitatearen berraktibazioa eta honen balizko manipulazioa martxan jarriko duten (Bargman et al, 1992), adibidez, Europako atak irekiko dizkien europar hiritartasunaren bilatzearena, europar kontsulatuaren aurrean pilatutako jende ilara amaigabea sortuko duena, garaiko paisaiaren postal tipiko bihurtuko dena, 2001ean gertatu bezala.

Desplazamenduaren ideia berpiztu ez ezik, diaspora komunitatean parte hartzeko interesa ere ager daiteke. Hemen aurkituko ditu –eta ez beste inon–, euskal mundua kolektiboki esperimentatzeko gune inportanteak. Kaleko segurtasun ezaren pertzepzioaren aurrean, zentro espazialeko segurtasuna eta aurrez aurreko gertuko harremanak. Eta azkenik, zentro instituzionalean aurkitu ditzake, kaosa eta desantolakuntzaren artetik, ordena zein kontrola, harreman formal zein erakundetuak.

Honen harira, zenbait datu interesgarri plazaratu ditzakegu, diasporak inguratutako zenbait mito desmitifikatzen lagundu dezaketena, nonbait.

Euskal Etxeetan parte hartzen duten gazteen **gehiengoak euskal oinordekotza du, baina beste askok ez** (%12, gutxi gorabehera). Euskal oinordekotza dutenen artean, aita eta amaren partetik dutela (%27), diaspora komunitateetan oraindik ere endogamia altua denaren erakusle, gutxi batzuk aita edo ama euskal herritarra duten arren (%9). Gehiengoa etorkinen iloba (%33) edo birbiloba eta herenilobak dira (%54), eta ez du bigarren hiritartasunik (%80) ezta horrelakorik lortzeko intentziorik (Emakume Abertzale Batza, 2004). Azkenik, Euskal Etxeetan jaio eta hezi direnaren uste orokorrari erantzunez, –euskalduntasuna alde aurretik edo txiki-txikitatik portatzen den baldintza edo atributu balitz–, diaspora komunitateetan parte hartzen duten gazteen ia erdiak (%44) 13 urte edo gehiago zituenetik parte hartzen dutela aipatzea.

Ikusiko dugunez, gazte askok ustez horren zorrotzak diren biografiako gutxi gorabeherako datu adierazgarri hauek euren kasara moldatu ahal izango dituzte. Garrantzitsuena zera da: hastapen anitzak, ibilbide desberdinak, kontrako destinoak eta horizonte irekiak jarraian aurkeztuko ditugun gazte narratibak orientatuko dituztela. Horrela, bada, gazteak hitza hartu eta bizitzan, gizartean eta Euskal Etxean okupatzen dituen posizio aldakorretatik diaspora zabalean nahiz Euskal Etxeko espazio hertsian izandako *aparteko esperientzia bat* izan daitekeena kontatzera dator.

**GAZTE NARRATIBAK**  
**ARGENTINAKO EUSKAL ETXEAN**

## 4. IBILERA IDENTITATEAK DIASPORAN ERATZEN

---

### 4.1. Hastapenak

Abiapuntua Euskal Etxean hasiko den egunean jarriz, gazteak diasporan dituen *esperientzia anitzen berreraiketa esanguratsua* hasiera goaz.

Biak ala biak solasaldian negoziatuko dira, narratiba eta biografia baten hasiera, bilakaera eta amaiera hipotetikoak ez baitira koherente eta zorrozki alde aurretik eraikiak; haurtzaroan hasi eta zahartzaroan bukatzen den lerro zuzena; bizi-estadioen arteko bereizketa argiak biltzen dituen eskarmentuen segida ordenatua. Alderantziz, bizitza baten kontakizuna moldagarria da, eta hizketaldian bizipen batzuk transmititu eta beste asko isiltzeaz gain, elkarriketaren joanean agertuz doaz anekdota eta oroitzapen solteak, denbora eta leku anitzen joan-etorriak, inguruko presentzia eta ausentziak.

Berreraiketa esanguratsua egiteko aipatutako horiei guztiak jorratu eta zentzua eman nahian ibiliko gara gu, nola eta *tramaren bidez*. Hau da, “hasiera eta bilakaera, kausalitateak eta zoriak, pertsonaiak, ekintzak, lehen eta bigarren mailako eszenatokiak, iluminazio eta ahazturen aukeraketen bidez eta, noski, narratzailearen ahotsaren ainguraketaren bidez” (Arfuch, 2002, 213)

Gazte narratibak jorratzeko badira kontuan hartzeko beste zenbait ohar ere. Lehen, kontakizuneko protagonista nagusia gaztea bera izaten dela, parekoen taldearekin batera, lagun presentziak beste pertsonaien garrantzia gutxiestera daramana askotan. Orainaldiaren iluminazioak, halaber, gazte esperientzietan esanguratsuak diren denbora eta espazioak itzalpean utz ditzake. Oro har, haurtzaroa eta nerabezaroa gertu dauden arren, iraganak muga gutxi inposatuko ditu hasi berri den bizitza auto-esperimentatu oparoan; zahartzaroa urrun senti daiteke, nahiz eta etorkizuna

pentsatzeko baliabideak izan. Azkenik, orainaldiko gazte anekdota koloretsuek narratiba xehetasunez josi baina trama ikuskatzea oztopatu ohi dute.

Biziki esperimentatzen duen orainetik hitza hartuko du gazteak, Euskal Etxean hasteko modu bik ibilerak markatuko dituzten bitartean, hots, esperientzia bilakaerak eta bizipenen esangurak. Narratiba batzuk hasiberriaren magia gaindiko esperientziei dagozkie; besteak, berriz, txikitatik bizi diren tradizio-esperientziei lotutakoak.

Zentzu horretan, hastapenak jatorri galduetan kokatu baino, diasporako gazte gehientsuenentzat Euskal Etxean hasitako esperientzia **gertaera kausal, magiko eta zorizkoekin** harremanetan egongo dela esatea, adibidez, dantza taldean parte hartzeko gonbitea, festa edo ospakizun batera laguntzeko eskaera edo “destinoaren seinaleak” direla-eta: noizbait euskaraz entzun eta arreta deitu dion abesti bat, espero ez den laneko deia jasotzea, euskara klaseetara animatzen duen unibertsitatean agertutako kartela...

Gaztea bera Euskal Etxean ezustean hasiko dela, horretan jarriko du enfasia. Askotan ez du zentroan murgiltzeko erabaki sendorik hartu, ez eta jarraitzeko intentzio argirik. Aurreikusi ezin daitekeen esperientzia honen bilakaera hastapena bezain singularra izaten da, esperientziaren apartekotasunaren seinale, nonbait.

Hasiberriak euskal munduaren inguruan ezer gutxi daki gainera, inguruan Euskal Etxea existitzen denik ere ez, eta are gutxiago Argentinan euskal diaspora badela. Egoera berriaren aurrean bihozkada propioari jarraitu beharko dio. Orain umoretsu eta xehetasun osoz gogora ekartzen da Euskal Etxera aurrengo aldiz sartu zen egun seinالاتu hartako eszenak, pertsonaiak, giroa, beldur, lotsa eta urduritasun sentsazioak...

¡Ay! ¡Mucho miedo! (ríe). Yo no conocía a nadie, estaba mi vecina como nexo ahí que me ayudaba (ríe) Y bueno, vine para probar, una cosa nueva, a bailar. Y ese día no habían venido muchos chicos, estaban todos con sus pasitos, todos así, todos de mi edad. Ya la música me gustó de entrada, ¿viste cuando te lleva? Y nada, empecé con el baile y después bueno, te va llevando más a hacerte parte del Centro Vasco, ¡pero ese día! lo tengo como si fuera...Y nada, bueno, ¡acá estoy! (ríe) (Gloria Frondizi, 18, dantzari, Pergamino)

Garrantzitsua da oso heldu berriak taldean duen harrera, lehen egun horietan bereziki lagun baten euskarria beharrezkoa izaten delarik. Oraindik ere gaztea dependentzia posizioan dago eta gaztaroan zein nerabezaroan horren garrantzitsuak diren afinitateko loturak eraikitzea funtsezkoa izango da (Koheslan, 2006)

Presentziak ezaugarritzen duen gertutasuna bide izanik, egoera komun konkretu batzuk konpartitzen hasiko da beste gazte-nerabeekin batera. Lagun berriekin elkarrekin esperimentatuz, *menpekotasun jarreratik elkarkoitasunera* igaroko da.

Arrancar en el Centro Vasco arranqué... acá a la vuelta del Centro Vasco vivía un amigo mío que venía a bailar. Un día que justo él se tenía que venir a ensayar, viernes a la noche, agarré y dije ‘bueno, no vas a faltar por mí, vamos los dos’. Y vine, y la verdad que...viste, o sea... el grupo era entretenido, se notaba que los chicos se divertían mucho, las chicas eran simpáticas, una cosa tan natural y tan todo, que empezás a venir porque te empezás a tratar con todos. Y ahí quedé. Arranqué ahí ese día y nunca más dejé de venir. Ese día fue hace once años y medio (Emmanuel Pérez, 22, dantza irakasle, Bahía Blanca)

Oro har, harrera ona duen diaspora kideak dena imajina dezake harrigarria, esperimentagarria.

Erreferentzia gutxi besapean, giroa alai bada Euskal Etxean sentsazio berri eta intentsu asko esperimentatu ditzakeela sumatu dezake. Eta horrelakoxea izaten da, hain zuzen ere, sartu berri den lagunari hurbiltzen zaion mundua: harmonikoa bezain eferbeszentea, serioa bezain ludikoa. Hauetan ez dira instituzioen jarraibideak espresuki agertuko, eta diaspora komunitatearen kodeak eta egitekoak pixkanaka azaltzen joango zaizkio. Heldu-berria estimuluz gaindiko munduetan joango da murgiltzen, alegia, harremanak, musika, kolore, usain eta ikuskizunaz gaindiko munduetan.

Horregatik, urtean zehar egiten diren ospakizunak (San Fermin, San Ignacio...) eta urte bukaerako jaiak jende berria hurbiltzeko aukera paregabeak dira. Euskal Etxeak kide potentzialak bilatu eta gonbidapenak luzatuko ditu, bereziki euskal ondorengotza duten familien artean.

Mi papá jugaba al mus y me pidió venir para una fiesta. Era hiper alegre, estaba la canción esa (tararea la melodía), yo me los quedaba mirando cómo bailaban. Me parecían muy unidos y gente muy abierta, porque aparecí de la nada ese día acá, y todos se presentaban y me comentaban cómo era el tema y yo me prendí. De chiquitita siempre había escuchado el apellido Larra era vasco. Mi papá me lo había dicho. Me interesa. Es más, creo que si no sabés bien de dónde venís no creo que tengas mucho para dónde ir (Daniela Larra, 24, euskara ikasle, Mendoza)

Familiaren eskutik hurbiltzen den nerabeak Euskal Etxea existitzen dela badaki, eta euskal munduaren inguruko erreferentzia ezagunak nahiz zirriborrotsuak baditu:

noizbait sendiari entzundako kantak, objektu erreferentzial batzuk, abizenak eskaintzen dizkion familia-jatorriaren zenbait pista edo informazio apurrak... Aldez aurretik interesa ager dezake, baina Euskal Etxean agertu arte ez du interes horretan sakondu.

Gurasoek ez dute aktiboki parte hartzen, –ez behintzat seme-alabek ohiko parte hartzea duten arte–, eta gazteak familia-nukleotik at beste sendi baten eskutik hurbildu ei da kasu hauetan. Maite den sendiaren galera, bereziki sentitua den amamaren heriotza kasu (euskalduntasunaren eramailea eta igorlea familian), zentroaren bidez goranzkoekin lokarria estutzea helburu, edo *ausentzia iraunkorretik harreman sinbolikoa* eraikitzeke asmoz, apika.

Horrela, bada, txikitan hasi eta segituan joateari utzi ziotenen artean, nahiz Euskal Etxean bere esperientzia gauzatzeko modurik oraindik izan ez dutenen artean, egoera prest dagoenean, orduan bueltatuko dira. Hau da, falta zitzaion bultzada definitiboa jaso dezanean, orduan hasiko da parte hartzen, ibiltzen.

Txikitan ni eta nire sendiak joaten ginen desfile batzuetara. Viedman ez genuen ezer euskalduna izateko, Euskal Etxea orain dela hamar urte (sortu zen). Ez genuen dantzatzen ez zegoelako irakaslerik. Bakarrik ibiltzen ginen kaletan euskaldun bezala jantzita, hori zen euskalduna izatea, hori zen Euskal Etxe bat. Eta bueno, etorri nintzen hona eta Unión Vascarekin topatu nintzen, eta hemen, gauza asko egiteko, euskalduna izateko aurkitu nituen. Hamazazpi urtekin hasi nintzen dantzatzen, y bueno, fue como “La Identidad”, “La cultura” (...)

A mi me pasó, en el 99, vine una vez con mi hermana. No conocía, nadie me daba bola (nadie me hacía caso). Allá en Viedma nos conocemos todos, todos familia. Otro año vine con una amiga y me daba vergüenza, y no me animé. Y el tercer año, en el 2001, se tuvo que fallecer mi abuela para que yo diga ‘bueno, lo voy a hacer’. Fue el empujo que necesitaba, no sólo por mí, sino para sentirme con ella, por mi abuelo que me contó mi abuela... (...) y bueno, ahí fue cuando empezamos. Era bastante duro venir acá sola. Un grupo muy armado, un entorno chiquitito, y el que no tenía un abuelo que jugaba a carta y el padre a la paleta y... es como una gran familia, entonces era difícil (Luz Barrena, 26, euskara irakasle, Bahía Blanca)

Gazteak inizatiba hartu eta interes propioa gailentzen du. Oraingoan hastapen *boluntarioan* jarriko da enfasia, neurri batean kontzientea, bilatua, desiratua. Berak, –eta beste norbaitek–, bilatu, arakatu, topatu eta deskubritu du denbora luzez gordeta bailitzan egon den altxorra, identitatea, kultura. Berak, –eta ez beste inork–, topatuko duela Euskal Etxea, ilusio horri eutsiko dio.



Pista jarraitzen da, Euskal Etxean egiten diren jarduerak zehatz-mehatz zeintzuk diren jakin gabe, atearen atzean zer eta nor dagoen jakin gabe. Ordura arte bildutako erreferentzia zirriborrotsuak ordenatzen hasiko da. Zentzua bilatuko die.

Lehen egun hura biltzen dituen zenbait klitxe eta estereotipo, kasu honetan Laurak Bat Euskal Etxeko atea ireki eta onartuak izango ote diren inguruko beldurrak, lotsak, kideen euskarriak, orain laguna den orduko ezezagunarekin izandako tratua, gogora ekartzen ditu.

En el 2002 fue cuando me acerqué, con la idea de estudiar euskara, y bueno, acá estoy, ya van a ser cinco años y pico. Justo un par de años antes lo había descubierto -que no tenía ni idea de que existía-, por Sociedad Alcohólica, que tocaba un tema (una canción) en euskara. Entré en Internet, busqué la letra, descubrí lo que era, averigüé, y encontré este lugar que lo enseñaban y me anoté. Me quedé muy intrigado con esa canción. ‘¿Qué es esto?’ ‘¿cómo puede ser tan distinto al castellano?’ ‘tengo que encontrar un lugar, donde den, debe haber’.

Me acuerdo el primer día que entré, que fui con mi novia que me acompañó, porque estaba medio así, le decía, ‘che, vení que no sé cómo es esto’, ‘a ver si llego y me dicen algo’ (risas) ‘me piden un carné o me piden documento, yo les voy a decir que mis abuelos eran vascos’. Y para colmo estaba Pacho, que es un amigo ya, pero en ese momento... llegué y le dije: ‘¿qué tal?, vengo a anotarme en las clases de euskara’, todo así tímido, y me dice ‘sí’. (Pensé) ‘¡uy! ¡qué terrible vasco!. ¡Ah! Porque mi viejo (mi padre) y mi abuela se la pasan diciendo ‘¡qué cabezadura el vasco!’’. Entonces me anoté, me fue bien. (Gerardo Pino, 25, euskara irakasle, CF)

Ate horren atzean badira euren bizitza –labur– osoa Euskal Etxean egon diren gazteak, **familia-tradizioa jarraiki** txiki txikitatik zentroan murgildurik daudenak, urte goiztiarretan diasporaren kode nahiz jarraibideak barneratu eta zentroaren zirrikitu oro nahiz funtzionamenduaren inguruko ezagutza zabala dutenak.

Gaztearen sendiak aspalditik parte hartzeaz gain, –askok eta askok Argentinara heldu ziren momentu beretik–, instituzioetan karguren bat edo beste izan dute. Instituzio horiek gainera ez dira nolanhikoak, Argentinako euskal diasporaren barruan erreferentziazkoak diren gutxi batzuk baizik: Buenos Aireseko Laurak Bat, La Plata, Bahía Blanca, Mar del Plata eta Rosarioko Euskal Etxeak. Hemen topatuko ditugun familia tradizionalak, -diaspora antolatua zentro historiko egituratu eta hein batean itxi hauean biltzen diren “betiko” familiak edo familia “tipikoak”-, status jakina izan ohi dute; zalantzagabekoa, prestigiozkoa, urragaitza.

Mi familia es típica de acá del Centro Vasco, los Belaustegui, muchas generaciones. Mi abuelo son cinco hermanos y los cinco venían acá, y sus hijos venían acá y los hijos de los hijos venían acá y acá nos juntamos siempre. Podíamos decir que vine de nenito, en brazos con mi mamá y mi papá, me traían, todos mis tíos, abuelos, tío-abuelos, era alcalde (presidente) de acá del Centro Vasco. Son pocas familias acá en el Centro Vasco, son muy amigas, viajábamos juntos, se entran a juntar..., estamos todos en el Centro Vasco, somos como medio primos, un invento así que a veces nos juntamos para una fiesta, sin ser familia, pero Navidad todos juntos también y así pasa (Sebastián Belaustegui, 26, erreferente, Rosario)

Familien arteko loturak hertsia Euskal Etxeko *familia giroa* goraiatzera darama. Aldiz, familia instituzioa zentzu zorrotzean ulertu beharrean, urteetan harremanak mantentzearen ondorioz sortzen diren loturen aurrean geundeke, Euskal Etxetik kanpo luzatzen direnak eta beste zentro historikoetako familiak inplikatzeko dituenak. Halere, bizitza komunitarioan sortutako bizi-lotura hertsia komunitatearen praktika endogamikoak erreproduzitzea ahalbidetuko du, eta azken honek familia estirpea nabarmendu.

Aipatu historikotasunak, halaber, *loturaren berezitasuna* mahai gaineratzea darama, hots, Euskal Etxearekiko lehen mailako lotura zuzenak nagusitzea, aipatu loturak zalantzan ez jartzea eta, azkenik, datozen belaunaldiekin loturaren jarraipena lehenestea.

Diasporako gazte hauek behin eta berriz horrela aditzera emango duten bezala, –afektibotasuna lau haizetara zabaltzeko edo sentipenak exajeratzeko aukerarik galdu gabe–, nola Euskal Etxean hasiko diren lehen pausuak ematen, nola Euskal Etxean jaio diren, nola Euskal Etxera gurasoen besapean helduko diren...

Familia eta zentroaren bizitzek bat egiten dute, familia eta Euskal Etxearen historia zein egunerokotasunak ezin deslotu arte. Era berean, gaztearen ibilbidea aldeztetik markatua dagoela ematen du, zentroarekin halabeharrez konfunditu arte.

Gazteak ez du parte hartzeko erabakirik hartu baina hori eurentzat gutxienekoa da, familia-tradizio jarraitzeko intentzio argiak baititu.

—Empezamos a venir desde el día que nacimos. Cuando mi padre vino a la Argentina su primera casa fue el Centro Vasco. Mis abuelos fueron caseros del Centro Vasco, y bueno, mi padre se crió acá, fue su casa verdaderamente. Después bueno, a medida de ir recorriendo Centros Vascos, y viajar, por medio de la pelota, de la danza, del mus, de lo que fuere, conoce a mi madre que es del Centro Vasco de Necochea. Se casan y nos fueron teniendo a nosotros y por supuesto que al Centro Vasco ellos venían todos los días y todos y cada uno de los hermanos, desde que empezamos a caminar, mi mamá nos traía a bailar, así que bailamos desde que dábamos los primeros pasos.

—Y ahora tenemos otra generación más, nuestra sobrina Irati, que empezó a caminar, y ya empezó a venir para empezar a bailar.

(Iker eta Josu Alava, 25-22, gazte erreferenteak, La Plata)

Euskal munduan txikitatik murgilduta dira hortaz, guraso zein aitona-amonak euskal kutsua etxean presente egoteko iturri garrantzitsuak izan direlarik.

Eta zentzu horretan, jakina denez, etxean bizitakoari “gustu naturala” dario. Gazteak legitimoa kontsideratuko den kulturaren bereganatze-aztarnak ezabatuko ditu (Bourdieu, 1979, 65), “berez” edo “jaiotzez” daukatelakoan eta ondorioz, naturaltasun osoz edo solturaz praktikatuko dutelakoan, Euskal Etxean parte hartzen duten gazte asko ez bezala, euskal mundura heldu berriak direnak bereziki.

Beste modu batean esateko, diasporako familia historikoek bizitza osoan probatu duenak bakarrik eduki dezakeenaren uste irmoari helduko diote, hau da, bizitza osoan presente egon diren baztertu ezinezko hamaika espresio eta estimulu (doinuak, tonuak, usainak, zaporeak, ikusitakoak,...), gutxi batzuk frogatu dezaketen distintzioaren markaren eramale-igorle zuzenak direlakoan.

Hasi nintzen konturatzeke, o sea, jaio eta hamentxe. Nire aita bizkaitarra zan eta aman gurasok gipuzkoarrak o sea que beraixek hamen ezagutu ziren eta bere seme-alabak hona etorri ginan, ta bueno, horregatik txikitatik hona, beti egon nintzen hamentxe, sartute. Neretzako da nire bigarren etxea (...)

Con el idioma mantenés un montón, todo. Mantenemos la cocina, por supuesto. En mi casa se comió siempre bien, se le da mucha importancia al buen comer, al buscar un buen producto, trabajarlo, la salsa euskaldun, han estado siempre en casa metidas. Y muchas veces cuando trato sacar lo mejor de mi en un plato y alguien me dice que es como lo que comió en casa de su abuela, a mi me llena de orgullo. Yo sé que cada cocinero tenemos nuestro librito, pero hay cierto sabor que lo tiene sólo el que lo probó toda la vida (Iratze Arregui, 28, dantzari ohia, Rosario)

## 4.2. Urratsez urrats. Euskal munduan kokatzen

Euskal Etxean izandako esperientzia kontatzen hasi orduko gazteak egungo parte hartzera egiten du salto berehala, bertan egiten dituen jarduera guztien artean euskal jarduera “tipiko” edo “tradizionaletan” zentratuz, esaterako, euskaran, euskal dantza, pilota, musika edo sukaldaritzan.

Komunitatearen jarduera ideosinkratiko propioak kontsideratzen direnak, –komunitateari mugatuak diren jarduerak, hein batean–, espazio konkretu batean gauzatuko dira: diaspora komunitateetan. Hemen hasiko da kompetentzia berrien multzoa *mailaka barneratzen* diaspora komunitateko kidea; nondik eta hemendik hasiko da, aldi berean, *pixkanaka kanporatzen*.

Hasiberria denarentzat nahiz txikitatik parte hartzen duenarentzat, diaspora komunitatean sozializazioak eta ikasketa prozesu kolektiboak martxan dirau. Zentzu horretan, esperientzia hastapenaren azkartasunarekin alderatuz gero, identitate eraketa prozesuaren erritmoa motela izango da, zerotik hasi behar denaren bezalakoxea, pausuz pausu, urratsez urrats.

En el canal vasco no entiendo nada y me gustaría entenderlo. A la mañana hay unos bichitos, tipo muppets (como los teleñeco). Es un programa para chicos (para niños), ahí entiendo bastante. Y es lo único que entiendo porque habla todo pausado (risas). Entonces siento, como persona vasca, que parezco una nena de dos años que está aprendiendo a hablar (Daniela Larra, 24, euskara ikasle, Mendoza)

Ordura arte erabat edota partzialki ezezaguna edo nahaspilatsua zena; hitz, mezu edota irudi solteen multzoa ordenatzen, ulertzen eta bere hartzen hasiko da. Beste era batera esateko, **euskal mundua (des)kodifikatzen eta euskal munduan kulturatzeari** ekingo dio.

Bere hartzeko prozesuan martxan jarritako praktiken eta dinamiken bidez hori bera aditzera eman nahi da: diaspora kideak *jarrera aktiboa* hartuko duela; jarduera pasibo eta kontenplatiboen artetik, eraginik gabeko jardueren artetik, *parte-hartze zuzena eta inplikazioa* bilatuko dela.

Halaber, bere hartzeko prozesuan *praktika kolektiboek* berebiziko garrantzia hartuko dute. Non eta diaspora komunitatean arituko da, diasporako beste kideekin

batera, konpetentzia berriak bereganatzen. Momentu batzuetan prozesu horizontalak nagusituko dira, adin berekoekin batera elkarrekin ikasi eta irakasten denean. Beste momentu batzuetan ordea, prozesu bertikalak gertatuko dira, transmisioa irakasle edo erreferentearen ezagutza, interesa eta aurretiko jarreraren arabera izango delarik.

Aipagarriena zera da: identitate eraketa prozesu horietan *jardunak, ezagutzak eta afektuak konbinatzen* joango direla.

Horrela, era askotako joko eta jolasen bidez euskal mundua modu aktiboan esperimentatuko dezake, modu kolektiboan praktikatu eta konpartituz talde barruko konplizitateak areagotu eta talde kohesioa indartuko direlarik. Jolasen bitartez adibidez ikasketa prozesu informalak martxan jarriko dira, espontaneoak, dibertigarriak, inprobisatuak, askeak...

Siempre, cada vez que bailábamos, siempre hacíamos algunas canciones con euskera para tratar de estar más relacionado. Y la gente te ensañaba así, lo básico, te encontrás con un vasco y decís: ‘kaixo, zer moduz?’ ‘oso ondo, eta zu?’, o así. Los juegos como el veo-veo o el ikusi-makusi y alguna que otra canción (...)  
Ibas a baile vasco a relajarte, a jugar. Porque cuando eras chiquito, sí, te enseñaban a bailar pero a la vez te integraban como grupo, y te ayudaban, no sé, a salir de otro lado, de la escuela, a divertirnos. Aprendí a bailar, a hablar un poco, te reías, cantaba... son todos chicos (todos jóvenes) que hoy en día vos lo ves y somos todos del mismo grupo, que quedan para toda la vida (Tamara Iturriaga, 19, dantzari ohia, Macachín)

... jokoan bitartez ikasketa formalagoak hartuko dituen bitartean, arautuak, serioak, sistematikoak, gidatuak.

El Txiki Eguna es una fiesta que se hace todos los años, que se hacen juegos típicos del País Vasco –las mazorcas, las carreras de sacos, la sokatira...–. Los adaptan al lugar que hay acá y las reglas, se les enseñan los juegos y se hace una competencia acá dentro, con los chicos de acá, y la idea era que los chicos traigan amigos de afuera y que se involucren. Se sirvió una comida y como cierre los chicos (jóvenes) que sabían bailar bailaron y los de afuera se integraron al baile, estuvo muy lindo, se hacían bailes fáciles, zazpi dantza (zazpi jauzi)... Entonces acá lo que se intentó hacer es adaptarlo y hacerlo más general (Pedro Larra, 20, dantzari ohia, CF)

Hasiera batean behintzat heldu berriek jardun erraz, labur, oinarrizkoak eta “gutziz euskaldunetan” jardutea ezinbestekoa dela ematen du. Denboraren poderioz, ordea, jardun, ezagutza eta afektuetan sakondu ahala, diaspora komunitatearen gero eta

orientabide espresibo eta interpretatzaileagoak bereganatuz, inguruarekin harremanetan egoteko modu konkretu batzuk garatu ahal izango ditu.

Ume, nerabe, gazte, eta oro har, Euskal Etxera heldu berri den laguna **euskal munduan kokapen zehatza** hartuko du pixkanaka. Are gehiago, posizio berriak ere mailaka hartuko dituela esan daiteke, maila ezberdinetan zabaltzen den munduaren inguruneak definitzen joango direlarik.

Lehenik eta behin, Euskal Etxean bertan kokatuko da. Baina espazio honetan kokatu ez ezik, litekeena da zentroa harreman eta komunitatearen esanahien kokapen geografiko pribilegiatua bihurtzea eta zentroarekiko pertenezia handitzea.

Lehen momentu honetan Euskal Etxea euskal munduaren ardatz nagusi gisa agertzeko orduan, esan beharra dago mekanismo guztien artetik Euskal Etxetik barna egiten diren bisitak zentzu espazialaz jabetzeko baliagarriak eta oso arrakastatsuak izaten direla, dantza irakasle gazte honek argitzera ematen duen bezalaxe.

Los txikis no bailan mucho, San Petrike o Ipurdidantza como se le dice acá, Zazpi-jauzi modificado, que eso bueno, ya de por sí, les costaba, se cansan mucho. Ellos querían jugar. Ahora de a poquito les vamos metiendo juegos tipo mancha, que nos enseñaron en Gaztemundu, pero con un poquito de euskera, o números, tirando la pelota, ‘bat, bi, hiru’ aunque sea para que vayan incorporando, que se interesen... bailes así que pudimos traer, te renovás un poco.

Pero vienen a los ensayos para ir escuchando la música, que se hagan el traje, que vayan a las fiestas. También viene la de euskera y les decimos ‘Cris va a venir a jugar con nosotros’. Dimos una vuelta por el Centro Vasco y ellos iban anotando en un cuaderno cómo se dice restorán, cómo se dice baño, cómo se dice... Eso se nos ocurrió para ir metiendo ya palabras y más cosas, que puedan encontrar el significado y darse cuenta (Dolores Belaustegui, 22, dantza irakasle, Rosario)

Euskal Etxean kokatzen ari direla, mundu honen inguruneak zabaltzen joango dira. Bigarren maila batean, Euskal Etxetik euskal mundura bere osotasunean daraman bidea, eta espezifikoki, Euskal Herrira daraman bidea erraztuko du irakasle gazteak.

Oro har, mundu osatua bezain espezifikoa, gertukoa zein ezezaguna, eskura jarriko da. Gainera, Euskal Etxean burutzen diren hainbat eta hainbat jarduera eta egiteko sintesi hori lor dezakete, jarduera bakar baten bitartez kultura, geografia, historia edo nazio baten muga sinbolikoak zirriborratzen baitira.

Partea osotasunarekin lotuko du. Hangoa eta hemengoa, urrunekoa eta gertukoa zehaztu ez ezik, mailaketa egin eta harremanetan jartzen edo zentzua bilatzen ere saiatuko da Euskal Etxean ikasitakoarekin, nagusien kontakizunetan entzundakoarekin, han eta hemen Argentinan erreproduzitzen diren irudiekin, eta abar.

Antes de venir aquí mucho no sabía. Conocía el idioma por oírlo en el Canal Vasco, pero no de entenderlo mucho. Me ponía a escuchar, a ver. A veces daban programas, documentales, de zonas rurales,... Yo sabía de los vascos que eran gente de campo, que trabajaban mucho, y que usaban la txapela (risas). Y nada, yo lo relacionaba mucho porque acá en la Argentina hay mucha gente de campo que se viste así también. Yo lo veía también parecido a lo que se veía acá. Aparte acá en la Argentina como que hay una... una colectividad muy grande. Conocía el vasco francés porque mi tío jugaba a la paleta y también iba a comer al restaurant. Practicaba paleta, un deporte aeróbico. En muchos lugares hay frontones (...)

Y siempre se oía hablar de alguien que le decían ‘el vasco’, que es muy común. Acá los lecheros le decían, la mayoría eran vascos. Eso es lo que más o menos tenía entendido. Capaz que las provincias bien los nombres, eso no, no tenía bien. Yo lo conocía en su momento como el País Vasco-francés y vasco-español, que le decían. No estaba muy al tanto de eso. Yo capaz que me preguntaban el apellido, y yo decía ‘vasco francés’ porque no sabía que se llamaba “iparralde”. También veía medio difícil acceder a esa información. No era algo que pudiera encontrar en libros que yo tuviera en mi casa,... y no tenía computadora (ordenador), o sea que no sabía mucho... Lo veía como algo medio lejano (Miguel Echepare, 22, euskara ikasle, CF)

Baliteke programa instituzionalak, aparatu legitimizatzaileak, kode hegemonikoak, funtzioak eta egiteko forma konkretu batzuk oraindik ez ikustaratzeara. Bai, ordea, diaspora komunitateak egokitzat hartuko dituen orientabide eta espresibideak.

Gazteak orientabide eta espresibide hauek ikasiko ditu; izendatzeko espresio zuzenak erabiliko ditu; kanpo semantikoak zabaldu, euskararen nozio minimoak eta hiztegi espezifikoak bereganatzen hasiko da. Komunitatearen kodifikazio bereizgarrien jabe egingo da, gero eta diskurtso argiagoa garatuz gainera. Euskal Herriaren inguruan mintzatzen denean ere, ñabardurak agertuko dira: Euskal Herria, Euskadi, Iparralde, Hegoalde adierak erabiltzea, vasco-español edo vasco-español erabilerak hiztegitik kanporatzea, herrialdeak izendatzean, eta abar. Halaber, Euskal Herriko historia, migrazio esperientziak eta Argentinan euskal kolektibitateak izandako presentziaren inguruko informazioak jasoko ditu besteak beste, oso modu espezifiko eta esplizitu batean gehienetan, Euskal Etxeak bideratutako programa eta tailerren bidez batez ere.

Baina diaspora komunitatean eta Euskal Herrian kokatu ez ezik, euskal munduan kokapen zehatza izatera aldera, Euskal Etxeak *euskal diasporara* daraman bidea ere ahalbidetu edo erraztuko du hirugarrenik.

Como yo no conocía ningún otro Centro Vasco, de a poco empecé a conocer de otros lugares que había. Yo tengo familia en Entre Ríos, Paraná, y me enteré que tiene dos Centros Vascos y está la (calle de nombre) “Bajada de los vascos” y está... Bueno se ve que hay un montón de actividades y yo nunca me enteré porque no estuve al tanto de nada, y de a poco me fui enterando... no sabía que iba a descubrir tanta cosa ahí... (Francisco Bengoa, 30, euskara ikasle, CF)

Euskal munduaren inguruneak definitzen doazen honetan, diasporako zentro anitzetan euskal mundua zabaldu eta berriro ere plegatzen dela esan daiteke. Beste era batera esateko, Euskal Etxea (bir)produkzio zentro nagusi gisa agertuko da.

Honek hiru argibide gehiago dakartza. Lehena, euskal mundua ez zaiola Euskal Herriaren espazio geografikoari guztiz egokitzen; haratago doa eta gainditzen du. Bigarrena, Euskal Herria ez dela zertan izan euskal munduaren eredu zentrala edo bakarra, eta diaspora horren kopia edo simulazio hutsa. Hirugarrena, euskal mundua diaspora komunitateetan aktibatzen dela, diasporan bizirik dagoela.

Acá la mitad de los de euskera vienen de fuera y se encontraron con una cultura increíble para conocer. Los que no son vascos se pueden adoptar, como cualquier vasco, porque están acá aprendiendo o cantando, transmitiendo de algún modo la cultura, yo creo que es más vasco que el Etxeberri o Aranburu que están en la casa leyendo un diario... ¿Qué es la cultura vasca? Es lo que está vivo. Y ¿Qué es lo que está vivo? La gente que lo difunde (...)

Por más que no sea vasca, tenés una admiración por ese pueblo tan atractivo, más antiguo que cualquier otro pueblo de Europa, que hasta el día de hoy conserva una lengua que no todo el mundo sabe, que está viva, que la hablan casi un millón de personas dentro de Euskal Herria y también en la diáspora. No sé en qué cultura ha durado eso, sacando las culturas que por algo comercial se mantuvieron. Esta identidad yo no la he visto en otra cultura, me atrapa (Luz Barrena, 26, euskara irakasle, Bahía Blanca)

Diasporan bizirik dagoen mundua izango da, hain zuzen ere, diasporako gazteak deskodifikatzen eta deskubritzen doan mundu espezifikiko bezain ezezaguna, gutxitua, gutxiarazia eta hein handi batean, Euskal Etxetik kanpo beste inon esperimintatzeko aukerarik eskaintzen ez duena.



Ezaugarri hauek guztiak tartean, euskal munduan murgiltzeak berezitasun gehiago emango dio esperientziari. Gaztea aukera anitz eskaintzen dituen munduaren atarian kokatzen da, hain zuzen ere, ezagutza eta esperientzia iturri agortezina eta berrikuntza ahalmen amaiezina kontsideratua den munduaren atarian. Deskubritzen jardutea epe luzera proiektatzen da gainera, deskubrimendua ez baita momentuko gauza edo bat-batean agortzen den gauza.

Mundu liluragarriak, bere interesetara egokitzeko behar bezain zabalak, euskal mundutik igarotzen ez denarentzat arrotzak, eta guztientzat erakargarriak izan daitezkeenak.

Cuando hay una fiesta vasca mucha gente viene, y mucha gente que no conoce se sorprende. Todo es muy raro en sí lo vasco. Veo un baile y qué es lo que pienso: hay dos parejas con pañuelitos, folklore. Y bailan de repente con palos y espadas. O saltan arriba de un vaso y uno se queda diciendo: ‘¿Y esto qué es!’ (ríe) ‘¡Ay! ¿Dónde están? ¡Quiero aprender!’ Eso es lo que tiene lo vasco. Es todo sorprendente. Es todo fabuloso (Nahuel Pereira, 23, euskara irakasle, Mendoza)

Euskal mundua esperimentatzeko zein eta Euskal Etxea da toki hori, euskal identitatea nahiz diaspora identitatea eratzeko bitartekari nagusia Argentinan, mundu espezifiko nahiz singularra gerturatzen duena.

Hemen kokatu eta deskubritzen hasiko da diasporako gaztea, sartu aurretik ez zituen konpetentzia ugari garatuz, modu aktibo eta kolektiboan. Zentzu horretan, formazio pertsonala eta kolektiboa gaztaroa ezaugarritzen duenean, azpimarratu beharra dago diasporako gazteen artean ohizkoa dela ezagutza berri horiek goraiatzeko joera, Euskal Etxeak komunitatean sartzeko eta abstraditzeko marko garrantzitsuenak eskainiko dituen bitartean.

Guztien artean, bi jarduera eta ekinbide hauei dagozkien bi taldeak ezagutzeko tartea hartuko dugu ondoren. Biak ala biak ikasteko eta konpartitzeko aitzakia eta motibazio iturri garrantzitsuak dira, inplikazioa eta kolaborazio lortzeko medioak, identitatea aktibatzeke espazio sozial plausible eta esanguratsuak. Dantza eta euskararenak dira, ezbairik gabe, marko bi horiek.

Primero damos contenidos de cultura, con algún video para ver. Además de ver todo Euskal Herria, el mapa, después solemos ver el baserri, para ver la familia, qué es cada cosa, cosas que pude meter con los contenidos de euskera, con los lugares, qué sé yo, que profundiza un poco más. Lo importante es que están interesados, creo que el intento... En general los Centros Vascos no le dan mucha bola (no le hacen mucho caso) al euskera. A mí me gustaría que si alguna vez que traten de darle bola a los alumnos, a incentivarlos. A mí no porque yo ya voy, y ya estoy incentivada. Pero a la gente que va, ¿viste? que pueda seguir yendo (...)  
 ¡Bah!, a mí me encanta que la gente se integre, se sienta cómoda, y a veces más allá de lo vasco, o del euskera. Me gusta el tema del contacto con la gente. A veces no tiene que ver con el euskera, aunque sí, el marco es ese (Malena Arandia, 29, euskara irakasle, CF)

#### 4.2.1. Euskal dantzak eta dantza-taldeak

Dantza da gazte, nerabe eta umeak konbokatzen dituen jarduera nagusia eta, horrenbestez, Euskal Etxean sartzeko aterik handiena. Sektore honi zuzendutako jarduera bakarrenetarikoa izateaz gain, kolektibitateko helduenek ez dute taldeetan dantzatzerik gehienetan. Hala txikitatik dantza egiten dutenentzat, nola gerora taldera hurbiltzen direnentzat, dantza da euskal mundua bere osotasunean ezagutzen hasteko, identitatea esperimentatzeko, ibiltzeko, modurik efektiboenetakoa.

Erabat deigarria edo arras sotila, dantzariaren agerrera ikusgarri batek hurbiltzeko gonbitea luzatzen du. Hipnosi eta tentsio sentazioak piztu ditzake bai dantzari bai ikusleen artean, hasiera batean dantzarekiko lotsatiak ziren mutilak ere erakar ditzakeelarik. Dantzak ez du berez espazio konkretu baten beharrik, baina kokapen zehatza ezartzen du mugimenduak. Manifestazio soziala da, baina ez da soilik performens, ikuskizun edo mugimenduan dagoen sinboloen multzoa.

Horregatik guztiagatik, dantza eta dantza-taldeen inguruan ari garenean eszenatokian gertatzen dena ez ezik, backstage edo atzealdeari ere erreparatu beharko zaio, dantzaren espazio eta denborei, taldearen entrenamendu konstanteari, nork bere burua gaintzeko inizatibei. Interpretazioan hankamotz ez geratzeko beraz, dantzariak eta ingurukoek ematen dioten esanahiak batetik, dantzak ahalbidetzen dituen zentzu eta emozioak bestetik, eta dantza-taldeen dinamikak ezagutzea interesatuko zaigu. Dantza sotila da batzuetan, iradokigarria besteetan, eta ia beti ikusteko eskaintzen duena baino gehiago aditzera eman dezake...

Hasiera batean ordea, Euskal Etxeko gazte askok oso bestelako esangura emango dio dantzari. Askorentzat kirola praktikatzeko aitzakia besterik ez da. Baina era askotako jarduera fisiko edota sedentarioen artetik, dantzek **gorputza landu, zentzuak aktibatu eta izaera fintzea** ahalbideratuko dute. Horrela izatea espero da, hain zuzen ere, gazte gorputz “eredugarria”: osasuntsua, elastiko, atletikoa; liraina, deshinibitua, beroren seguru (Margulis & Urresti, 1996b)

Nerabezaroan zein gaztaroan sufritzen duen transformazio fisiologiko azkarren aurrean kontrolpean mantendu dezakeen nortasunaren erreferentzia puntu garrantzitsua izango da gorputza. Eta gorputzaren kontrola ahalbidetzeaz gain, *gorputz trebetasun eta ahalmen psikomotrizak* lantzea laguntzen du dantzak.

Vos ves una foto de nosotros, con catorce años, éramos todos gorditos, así que ¡mucha habilidad no teníamos! (risas), ¡tenía muy poco control de mi cuerpo! Agarrábamos y nos poníamos a practicar, tratar de sacar los pasos, algo. Ese grupo fue excelente. La pasábamos re bien juntos, teníamos bastante afinidad y bastantes ganas de aprender bailes. Así que ese año... ¡logramos bailar espectacular! (Emmanuel Pérez, 22, dantza irakasle, Bahía Blanca)

Testuinguru alai eta abegikor batean, –barre, algara, buila eta txantxa artean–, *zentzuak pizten dituen mundu espezifikokoaren giroa* ernarazten doa, zeinak dantzaria inguratu eta estimulatzeko duen. Dantzariaren presentzia ez da espazio batera mugatuko gainera; dantzaren ikusgarritasunak eta dantzarien algarak Euskal Etxeko txoko guztietara zabalduko dira.

Guzti-guztiak zentzuak piztu, arreta deitu eta dantzarako animoak piztu ditzake. Gorputzaren transpirazioa eta ukimenak, kanta eta abestien erritmoak edo trajeen ikusgarritasunak dantzariak eta dantzari ohiak mugiaraziko ditu, bazterrak alaitu edo gaztea erabat estimulatuko...

Es un sentimiento pero no sé cómo explicarte. Esa cosa de... la magia del baile. Nosotras hacía un montón que no bailábamos, pero es que escuchás un fandango y ya te sale bailar, se me mueven los pies, yo siempre digo eso, ¡se me mueven los pies! (Eugenia Vázquez, 30, euskara irakasle, Paraná)

Era berean, mugimenduari arauak inposatuko dizkio dantzak, “liberazioa eutsi” beharko balitz bezala. Zentzu horretan, sentimendu eta inpultso indartsuak kontrolatu

ditzakeen neurrian, kirola egungo gizartearen egunerokoan beharrezkoa den emozio atseginen forma sozial mugatua eta kontrolatua kontsideratu daitekeen bezala, zeinak deseguneratzea edo errutinatik aldentzea ahalbidetuko duen (Elias& Dunning, 1992), horixe bera litzateke dantza ere: aurretiazko plazerra kilikagarria luzaroan irautea, erritmoa eta mugimenduaren azelerazioa ondoren, tentsio-emozioaren arteko atsegina gorakada eta, azkenik, klimaxa.

Euskal dantza batzuek badituzte ezaugarri horiek, alegia, tentsio eta eferbeszentziarako joera, mugimenduaren bidez energia askatu eta erlaxatu eta energia askatuz energiak betetzeko parada; sinkronien bidez bat-batekotasuna bilatu eta oreka lortu. Aldiz, dantza guztiek ez dute aipatu ezaugarriak eta Euskal Etxeko dantzariak ikasitako dantza ugarien artean konparazioak burutzen dituzte. Beti izango dute baten bat besteak baino gogokoagoa, gehiago harrapatuko duena, ikusgarri edo erakusgarriagoa zaiona.

Zentzu horretan, euskal dantzak Argentinako dantza tradizionalarekin konparatuko dituzte, nahiz eta gutxi batzuek ikasi horiek eta gehienek dantzatzeko interes gutxi agertu; Arrecifeseko taldearen kasuan, esaterako, gazte batek baino ez. 17-24 urte bitarteko gazte horien arteko elkarrizketan euskal dantzekiko preferentziak agertu ez ezik, Euskal Etxeko gazteak bere aukera justifikatzeko dantzen nolakotasunei ere helduko die, beraien esanahietan esploratuz.

—Podemos bailar alguna que otra danza argentina pero más o menos, *gutxi*, poco. Yo lo que hice siempre es bailar acá. Personalmente me gusta esto, me parece mucho más atractivo, más llamativo la música, el tipo de baile. Tiene más movimiento, más dinamismo... más alegre.

—... a no ser Viudas, que bueno, es un baile... (risas)

—En las danzas vascas también tenés un montón de danzas que son más solemnes, mas de caminar... pasa que acá no las conocemos, acá hacemos fandango, arin-arin, ezpatadantza (ríe)

—Mascarada suletina es bastante complicado hacerlo, y tiene mucha expresión, mucho mucho salto, mucha elegancia, sutileza en cada paso, distintos personajes que bailan...

—Claro... hay una gran diferencia, y eso está clarísimo. (...) Tienen mucha más carga histórica las danzas vascas o españolas o italianas que una danza argentina. Y eso se ve, por ejemplo, en las diferentes historias que representa cada danza. Eso también es lo atrapante, genera más curiosidad...

(Talde elkarrizketa, Arrecifes)

Beste dantza askok bezala, -eta beste dantza askok ez bezala-, euskal dantzak badu erritmo bizia, grazia eta zailtasun bat edo beste. Halere, hauen arteko diferentziak ere plazaratuko dira, sotilak, solemneak edo konplexuak diren dantzak errazak edo sinpleagoak diren dantzen artean bereiztuz. Azken hauek txikiei dagozkie, hein handi batean. Dantzarien ibilbidea izaten da, hain zuzen ere, sinpletasun horretatik konplexutasunera igarotzea, “igarotze erritua” izango balitz –eta Euskal Etxeko dantza taldeak egituratu ohi diren irizpideari helduz–, hasiberrien taldetik (“principiantes” edo “txikien” taldea) erdikoien dantza-taldera eta azkenik, nagusien taldera salto egitea.

Pausua menperatu, dantza ikasi arte, desafiotsat har daiteke. Noski, hanka sartu eta estropezu egin, gazteak ibiltzeko beharrezkoa den *adore nahiz konfiantza* har dezan. Dantzatzea horregatik da hain garrantzitsua: dantzaren bitartez izaera espresatzeaz gain, dantzak *izaera finkatzea* ahalbidetzen duelako...

Al principio aprender algunos pasos básicos, después es práctica. Aparte me encantan los bailes, la música me encanta, el ezpatadantza me encanta. Cuando pasamos a bailar el solo adelante, vamos pasando de a uno, y te sentís el mejor del mundo (risas). Sí, cuando estás ahí que te están mirando todos, bailar sólo está re lindo... A mi el baile me representa varias cosas (Mauro Chaulet, 28, dantzari, La Plata)

Horretarako saioak intentsuak bezain intentsiboak izan ei dira. Dantza-taldeen jarduera dibertimendu testuinguruan gertatzen da baina ez da dibertsio hutsa; aisialdian gertatzen da baina da ez da denbora-pasa soila. Dantzan jardutea oso gauza serioa da, **taldearekiko zein komunitatearekiko pertenezia erakusteko** modua baita.

Adin berekoekin batera, –askotan dantza “irakaslea” gaztea izaten delarik–, ikasketa sistematiko ez konbentzionaletan murgilduko da. Banakako nahiz taldeko dinamika martxan jarriko dira, talde barruko komunikazioa, koordinazioa eta konplizitatea indartzea helburu. Funtsezkoa da dantza-taldean ardura hartzea, dantzalekua eta zentroaren mobiliarioren erabilera egokia egitea. Formalki bada ere, lehiakidetasuna eta konpetentziaren artean elkartasuna eta leialtasuna gailenduko dira; abilezia baino, taldearekiko dantzariak duen konpromisoa, ikasteko prestutasuna eta jarduteko esfortzua baloratuko dira.

Como experiencia, la verdad que me ha dado muchísimo. Soy muy social, pero nunca me he podido enganchar con ningún deporte. (...) Lo lindo es que nosotros no compitamos y que nosotros valoremos eso. No tenemos como una presión social de reconocimiento. No es tanto la importancia del mejor dantzari. Directamente uno ha dicho ‘se lo merece porque ha venido a todas las clases’. Hemos hecho prevalecer siempre la amistad, siempre-siempre (Carla Gómez, 20, dantzari, Mendoza)

*Dantza-taldearen lorpenak* goraipatuko dira. Dantza-erakusketetan (urtean zehar dantza-taldeak han eta hemen eskaintzen dituen dantzaldietan, urtean behin ospatzen den euskal astean egiten den erakuskizunetan, eta abar) dantza-taldeak urtean zehar irakatsi eta ikasitakoa erakutsi beharko du. Horietan, aipatutako talde kohesioa frogatzen da modu berezi batean.

Baina dantza-taldeak ez du bakarrik taldea edo tokian tokiko Euskal Etxea ordezkatu. Diaspora barruan nahiz diasporatik kanpo, dantza-taldeak **euskal komunitatea ordezkatu** egiten duela esango da, Argentinan dauden beste diaspora komunitateek egingo duten bezalaxe.

Komunitatearen erreferentzia nagusien errepresentazioa bihurtuko da dantza, alegia, komunitate jakin baten sintesi edo kodifikazioa, dantzak horiek guztiak bildu ei baititu: komunitatearen hizkuntza, historia, ohiturak... Dantzen ezaugarritze horregatik, dantzen esanahiak modu arduratsu batean transmititzea espero da.

Dantzariak aipatu ezagutzak jasotzeko aukerak izan ditzake. Euskal dantzen inguruko ezagutzak ez ezik, Euskal Etxeko dantzariak *dantzen aditu gisa* ere agertu ohi dira gainera. Dakienaren kokapen pribilegiatu horretatik, horrela mintzatzen dira:

—Es una cuestión de ganas. Vos tenés que respetar lo que hacés y por qué los hacés.

—Acá hay muchos lugares donde aprenden árabe y dónde aprenden odalisca, pero lo hacen más por una cosa estética, que llame la atención. No me parece mal, si a vos te gusta hacelo, ¿no? difundir más la danza y aprender y perfeccionar eso.

—Pero si viene un árabe de verdad se muere, porque hay miles de minitas (de chicas jóvenes) haciendo de odalisca cuando allá representa la prostitución.

—Vos preguntás y más que bailar folklore te dicen ‘árabe’. Es lo que más está (de moda), porque ven las odaliscas y cómo se mueve y les llama la atención eso.

—Mueve la cadera de una manera impresionante y ahora que todas las músicas que escuchamos son cumbia, son todas con ese ritmo, como de seducción. Se mueven más que las que bailan folklore, o una que baila vasco. Pero es así, lo nuestro es típico, estoy re orgullosa de eso. No es el mismo interés que tiene otras personas (Isabel Trincado eta Sonia Mikelena, 16-17, dantzariak, Pergamino)

Euskal Etxeek jakin badakite dantzaren potentzialtasunak zeintzuk diren eta erabat inplikatuko dira jarduera honek denboran jarraipena izan dezan. Halaber, zentroko gazte, nerabe eta umeei eskaintzen zaion egitekoa izanik, diaspora etxearen jarraipena bermatu nahi da: batetik, belaunaldi aldaketa produzitzeko baldintzak sortuko dituztelako eta bestetik, zentroaren inguruan ahalik eta jende gehien biltzea (adin txikikoak eta horien familiak eta lagunak) lortuko dutelako.

Dantza ez da, beraz, dantzarien jarduera isolatua. Euskal Etxean jende gehien mugitzen duen jarduera, zentroaren motore nagusienetakoa eta komunitatearen isla ere bada:

En un principio, el cuerpo de baile fue eso, el motor más fuerte. La gente grande (gente mayor) también se sentía involucrada con el Centro Vasco por el cuerpo de baile, padres nuestros, abuelos... (...) Al principio como que era para la gente vieja el Centro Vasco. Pero después vino un cambio grande y como que los jóvenes teníamos... es más, íbamos y pedíamos algo y nos daban. Creo que eso sucedió por el hecho del cuerpo de baile, que le dio mucha vida al Centro. Entonces, como que los viejos se sentían muy representados, muy agradecidos a nosotros. Entonces si pedíamos un espejo, ‘ahí tienen, espejo’ (Miguel Salazar, 23, gazte erreferente, Mendoza)

#### 4.2.2. Euskara eta euskara taldeak

Euskara eta euskara taldeen egoera arraz desberdina da. Euskal Etxe gehienetan ez da euskara irakasten, ez dago euskara talderik eta sarritan ez du jarraipenik izaten. Urte hasieran martxan jarritako talde urriak denborarekin desintegratu ohi dira, urte bukaeran ikasle gutxi batzuk marko honetan biltzen direlarik. Euskaren presentzia, oro har, murrizta da, dantzarekin alderatuz gero. Ondorioztatu daiteke Euskal Etxeak euskararekin apenas inplikatzeko direla eta orokorrean jarduerak ez duela jarraipenik izaten. Hori dela eta, euskara ez da zentrori sartzeko aterik nagusia, baina euskara bada diasporara gerturatzeko ibilbide sendoa ere.

Euskara taldeak heterogeneoak izaten dira eta **taldea, familia eta euskara bera motibazio handiak** dira ikasten hasteko.

Euskara taldea osatzen denean dantzari asko eta asko dantza taldeko lagunekin batera euskara ikasten hasiko dira. Jada ezaguna egiten zaien euskal munduaren baitan kokatzen dute euskara. Honetan sakontzeaz gain, taldean integratzea eta taldea indartzea motibazio nahikoa izaten da.

Cuando empecé yo bailaba nada más. Después empecé a interesarme ya por otras cosas más. Y ahí consiguen a esta profesora, empezaron las clases de euskera y dijimos, ‘tenemos que apoyar el euskera’, y a mí me encantan los idiomas. No sé si el euskera tiene alguna particularidad que me guste, ya es como que todo lo que es vasco me interesa (Eugenia Vázquez, 30, euskara irakasle, Paraná)

Hitz solteak, esaldi laburrak, esamolde sinpleak, euskal kanta baten ahapaldiak... guraso edo aiton-amonei nonbait entzundakoak, edo Euskal Etxean inoiz entzundakoak, eta ondorengoek errepikatzen dutena, askotan esanahia jakin gabe.

Askotan nahikoa da euskal jardueratzat hartzea horrekiko interes handia agertzeko. Horrela, hizkuntzetan jaioak ez badira ere....

Era como algo que teníamos incorporado de escuchar lo básico, entonces siempre me gustó. Y retomé cuando empezaron los chicos y dije ‘yo voy de nuevo’. Me cuesta mucho los idiomas, en general, los detesto (risas), y como que el euskera..., como que me interesaba más (Miren Esnaola, 26, dantzari ohia, Rosario)

Gazte batzuentzat ordea, Euskal Etxera sartzeko ate nagusia da euskara. Nagusitan sartuko direnez euskarak euskal mundua zabalduko die, hots, euskal mundua eta diaspora esploratzeko bidea izango da eta nola ez, harreman berriak sortzeko markoa eta konpetentzia bereizgarriak eskuratzeko medioa.

Azken horiek hizkuntzekiko interesa adieraziko dute. Unibertsitatean dauden gazteentzat bereziki ikasketa oro baliagarria eta lagungarria da, euskara ikastea barne. Hizkuntzak jakitearen garrantziaz ari dira, eta hizkuntza “arraroak” edo begi-bistan “ulertezinak” direnen erakargarritasunari buruz mintzatu. Euskarekin ere kasualitatez edo ezustean topo egin ohi dute, deskubrimendua are eta magikoagoa suertatuz, nonbait.

Todo lo que me ha pasado aquí adentro ha sido por casualidad. Hay una reunión y (la profesora) nos preguntó si queríamos estudiar. Y yo no tenía idea qué era el euskera, no sabía siquiera que era el idioma que hablan los vascos, o sea, esa era mi situación, mi ignorancia. Y a mí me interesan los idiomas. Dije que sí, empecé a estudiar. Y bueno, ya me enganché (Nahuel Pereira, 23, euskara irakasle, Mendoza)



Behin eta berriz azpimarratzen denez, euskararen presentzia murriztagoa da. Ez da kalean entzuten, ez Euskal Etxean, ez gaztearen egunerokotasunaren bestelako espazioetan.

Euskararen presentzia eskasa da eta oso kokapen espezifikoa izan ohi du diasporan: euskara ikasgela, Euskal Etxean. Hortik kanpo zaila izaten da euskararen arrastorik inguruan topatzea; hor barruan erraza da abstrakziorako espazio moduan girotzea. Euskara ikasgelak oso modu berezian apaindurik daude gainera, txoko guztiak euskaraz kondentsaturik, mundu espezifikoaren murgilketan lagunduko duena.

Mapak, argazkiak, marrazkiak, argibideak agertzeko posterrak edo kartelak; liburuak, hiztegiak, bideoak, diskoak... ez dira **zentzuak aktibatze**ko mekanismorik falta. Kanten, kartelen edo mimikaren bidez espresatzen direnean ere, zentzuei eragiten die. Eta zentzuei dagokiena, naturalagoa bizi eta errazago barneratuko da; barrukoa “bota”, “ateraz”.

Nosotros teníamos una profesora, Sofía, que nos hacía hablar mucho, ‘bota!’ nos decía, ‘¡qué salga!’. Y nada, estuvo bueno porque de esa forma fuimos animándonos más y era como una metodología nueva. Cada profesor se dedica a una parte y se complementan muy bien y nosotros nos divertíamos mucho. Hacíamos juegos, también. Jugábamos al Scrabel -uno que vas armando palabras-, jugábamos al dígallo con mímica. Acá lo bueno era que practicábamos, y salía todo así, más... más natural (...) Y nada, yo llega un momento que estaba así como muy animado. Yo siempre quería saber más y más (Miguel Echeperé, 22, euskara ikasle, CF)

Giro alaia sortzea behar-beharrezkoa izanik, esan beharra dago euskararen ikasketa prozesua diasporan ikasketa prozesu konbentzionaletatik ezberdintzen dela, esaterako, ikastetxe edo akademietan eman ohi dena. Zentzu horretan, taldea indartu eta ikasketa prozesua errazteko beharrezkoak dira Euskal Etxeko ikasleentzat egokitutako metodologia, bat-batekotasuna, irakasle-ikasle arteko tratua ona eta banan-banako arreta pertsonala.

Ikasketa prozesua, bestalde, **azelerazio-desazelerazioa erritmoan** datza, “liberazioari eustea” (Elias & Dunning, 1992) prozesuaren modukoa hain justu. Izan ere, hastapenak nahiko maldatsuak izaten dira, guzti-guztia bitxia edo arraroa egiten baitzaio gazteari; ulergaitza, nahaspilatsua. Pixkanaka hitzak, egiturak, tonua ikasten joango da,

denbora epe laburrean asko ikasi duenaren sentrazioak emozio berriak piztuko dituelarik, are gehiago beste ikasleekin konpartitzeko aukerak dituenen. Tentsioa, egonezina edo etsipena, berriz, oztopoak agertu eta ikasketak prozesuan geldialdiak direnean. Intentsitate beherakada gaudituta, estasi momentuak eta klimaxa dator, esan nahi dena, azkenik, ondo espresatzea lortu denean...

Al principio a mí me resultó bastante complicado, porque empieza muy abruptamente, incorporar de repente estructuras, significados, los plurales y todo junto, fue así, como un shock fuerte (...)

Estábamos todos muy engachados, muy '¡Qué bueno es esto!', esa era la sensación que teníamos todos, '¡Qué loco! (¡Qué raro!), ¿por qué nunca nos enteramos de esto?',... Cada cosa que me iba enterando... era fascinante, todos los días descubría algo nuevo '¡Uy! ¡Qué increíble!, ¡Qué increíble!' (risas) Venir acá y ver que a todos nos pasaba lo mismo, o las primera veces que tuvimos que empezar a hablar solos, con muy poco vocabulario, muy poco verbo, muy poca estructura de todo...pero ahí nos tirábamos, era muy interesante.

Una vez que ya empecé a entender, ya me animo más solo. Incluso soy de buscar palabras todo el tiempo en el diccionario, de meterme y ver qué significa esto... Ahora es más placentero todavía, incorporar las estructuras, las palabras y bueno, avanzando (Francisco Bengoa, 30, euskara ikasle, CF)

Aurrera egiteko han eta hemen ikasitakoa erlazionatzen eta osatzen joango da gaztea. Ikasketa prozesuak horrekin jartzen da harremanetan, deskubritzearekin, deszifratzearekin.

Hitzekin eta hizkuntza egiturekin jolastuko da. Eta egiturak ikasiz desegituratuz doa. Ikasketa prozesu mota berezi honetan, bere burua ezagutzen eta arraroa zaiona natural egingo du. Finean, hizkuntzaren desafioak tartean, gaitasunak handitzen ditu. Eta gainera, ahalmen pertsonaletan konfiantza eta segurtasuna hartuz, eroso sentituko da.

Aprendí inglés pero la verdad que no lo apliqué, no lo uso, no lo hablo. A mí ya con el euskera me alcanza (risas) Siempre me gustó, desde que lo conocí. Y me encanta hablar, y me encanta leer, las palabras, todo, el sonido, todo. Además de todo el tema de los familiares, el idioma también... ¡te atrapa! A mí me atrapó. Vas descubriendo cosas, van cayendo fichas, cosas que las fui aprendiendo y que después las vas entendiendo, o se te van haciendo más naturales, decirlo, usarlo. (Malena Arandia, 29, euskara irakasle, CF)

Gazteak beste esanahi batzuk atxiki dizkio euskarari; pentsatzeko, sentitzeko eta harremanetan egoteko modu konkretu batzuk eskainiko ditu.

Zentzu horretan, **euskarak distintzioa emango** duela esan daiteke. Hitz egin eta egoteko modu bat, gauzak transmititzeko beste modu bat; finean, izateko beste modu bat.

Ha sorprendido siempre que el euskera se mantuviera bastante en casa. Para mí es un orgullo hoy en día. En su día no me daba cuenta de eso, y ahora cada vez que nos encontramos con gente yo siento que así como cuando suena un fandango salgo a bailar, viene un euskaldun y enseguida le pregunto si sabe euskera, pero no porque ‘¡ay! ¡si no sabés no!’, sino porque tengo ganas de hablarlo, tengo ganas de transmitir, de hablar de esa manera (Iratze Arregui, 28, dantzari ohia, Rosario)

Ikasketa prozesuari jarraipena eman dioten gazteek *euskaraz hitz egitea* dute helburu. Hizkuntzaren funtzio komunikatiboari so egiten dio ikasleak, Euskal Etxeko euskara ikasgelatik haratago hainbat maila, eremu edo esparrutan ase dezakeena, euskaraz moldatzen hasten denean behintzat. Horrela, azken urteetan ikasleak euskaraz komunikatzeko aukera berriak zabaldu dira. Horien artean: euskara eskolak eta barnetegiak, Internet bidezko ikastaroak (Boga programa), euskaraz txateatzen edota beste euskaldunekin hitz egiteko aukerak agertzen diren bakoitzean.

Baina badira ere bestelako motibaziorik. Inolako helbururik ez dutenen artean, *ikasketa prozesuaz gozatzea* helburutzat jo daiteke. Ondo pasatzea, disfrutatzea eta gustu handiz egitea baloratuko da, beste hizkuntza asko (ingelesa edo frantsesa kasu) obligazioarekin lotzen diren bitartean.

Ez da falta euskara taldea hobby edo terapiarekin lotzen duenik, euskararekiko seriotasun edo konpromiso eza kritikatu. Horrelakoetan talde harremanak eta harreman pertsonalak gailendu ohi direla kontuan hartu behar da, Euskal Etxean burutzen diren beste jarduera askotan bezalaxe, hain justu.

Aitzitik, euskararekiko jarrera anitzen atzean euskararekiko gabezia handienetakoa islatu ohi da, hitz bitan, euskarak ez duela zentroa errepresentatzen. Zentroen inplikazio eza antzematen dute, oro har. Baliabide gehiago eskatu eta euskalduntzearen prozesuak jarraipena izatea exijitzen dute bai ikasle bai irakasleek,

presente egotea eta euskara ikusgarriagoa izatea. Horretarako, Euskal Etxeen inplikazioa edo babesa beharrezkotzat jotzen da.

Jendea juten da baina agian ez benetan euskera ikastea. Juten da denboa pasatzea, zeozer ikastera, zeozer hitz egiteko baina gutxi, moldatzeko modukoa, baina, gehixo ez. Jendea ez du euskera ondo hitz egin nahi, nahiko luke baina kostatzen da. Euskal Herrian kostatzen da, pentsa hemen Argentinan. Beti zeozer baukezu euskera baino lehen: ardurak eta eskola edo lana (...) Baina beno (barre), hori da dagona, ta hiru urte ikasten baina beno, lehengo urtean taldea nahiko handia zan, danak 'kaixo', 'egun on' ta... hurrengo urtean gutxio ta hirugarren urtean ezebez, bakarrik juten nintzan ta beno ta batzutan esaten nun 'beno, bakarrik nago', 'beno, ez naz jungo', 'ni ere ez' (Martín Irazuzta, 21, dantza irakasle, Bahía Blanca)

Gehiago jakitea, hitz egitea, komunikatzeko gaitasuna izatea, *lorpen pertsonala* da. Gogo eta ahaleginaren bidez euskara ikas daitekeela azpimarratzen da. Euskara euskalduntasunaren zeinu gorena bihurtzen da, euskaldundu diren gazteentzat bereziki.

Besteetan euskara nozio minimoak ikastea eta enplegatzea nahiko izaten da. Kode bereizgarriak enplegatuz komunitatearekiko pertenezia handitu eta identifikazioa erraztu egiten du.

Horrela bada, gazte guztiek baloratzen dutena izango da *euskararekiko aldeko jarrera*.

Sé canciones, "hola", "chau", los números, "aquí", "allí". Tengo ganas de aprender. De a poco. Me encantaría saber hablar y encontrarme con vascos y no tener que hablar en castellano y encontrarme mismo con los chicos (los jóvenes) de acá y hablarnos en euskera. Porque lo que podemos meter en euskera, lo metemos, para no perderlo tampoco (Rafaela Salfiti, 20, gazte erreferente, Macachín)

### 4.3. Aurrera. Identitate noranzkoak definitzen

Identitatea diasporan eratzeko bideei erreparatuz, ibilbide honetan aldaketa esanguratsuak gertatuko direla suma daiteke: hasierako dependentziazatik elkarkoitasun egoerara; ezezagunetik ezagunaren eremura; jarrera pasiboago batetik jarrera aktiboago batera; besteen laguntzarekin nork berak bizi izandako deskubrimendutik besteei ezagutaraztera. Hori gutxi balitz, identitate-noranzkoak defintzerako bidean narratibak beste giro bat hartuko du, alegia, Euskal Etxean hasteko hasierako kausalitatetik edo

familia tradiziotik haratago gazteak bere borondatez aurrera egiteko hautua egingo duela.

Hastapenetan baino zentroan jarraitzeko hartu den erabakian azentua jarriko da, zentroan parte hartuz identitatearen norantza gero eta argiago ikusten delarik.

El chico que está acá en el Centro Vasco, sabe lo que es el Centro Vasco, casi todos lo que están acá lo han elegido. O (vinieron) cuando fueron chiquis y cuando se pudieron haber ido decidieron quedarse, y si se quedaron lo tienen al sentimiento. Y el que está más o menos que no sabe lo que es, después de que vuelve de la semana vasca está totalmente convencido de que éste es el lugar que quieren.

Porque en una ciudad tan chiquita, cuando sos uno de los únicos vos decís; ‘mmm...¿qué estaré haciendo?’. Y cuando te encontrás con eso decís: ‘No, voy bien’(...) Hasta que empieza a descubrir todo el mundo este es como que decís ‘¿qué será esto?’, ‘¿por qué harán aquello?’. Y después descubren que hay un montón de gente que hace lo mismo que ellos (Alejandra Almirón, 27, idazkaria, Pergamino)

Lehen egunetik egungo parte hartzera, hastapenetik konpromisoak hartzera daraman ibilbidean, bi postulatu kategorikoki adieraziko dira, biak ala biak **Euskal Etxea eta euskalduntasun zein diasporatasuna** estuki harremanetan jarriko dituen.

Lehena, *Euskal Etxea- euskal jarduera “tipiko” edo “tradizionalak”*. Euskal Etxea euskal mundua ikasteko eta deskubritzeko bitartekari nagusia bihurtuko da; euskal jarduerak kolektiboki praktikatzeko medioa; euskalduntasunaren ardatza, zentro edo gune pribilegiatua. Produkzio-birprodukzio zentro lez, Euskal Etxeak euskal mundua zabaltzen du, Euskal Herriko lurralde eremu mugatua gaindituz.

Diasporako gazteak euskalduntasuna *hemen eta orain experimentatu* dezake. Praktikatu, aktibatu, manifestatu. Euskal mundua ez da milaka kilometrotara dagoen zerbait; ez eta iragan urrutiko oroitzapenaren azken astindua, hondakina, hondar apurra. Euskal jardueren bidez Euskal Etxeak gertu dagoen mundu espezifiko eskura jartzen du, erreala, etxekoa, ezaguna.

El cuerpo de baile fue el motor del Centro Vasco para los jóvenes. Empezamos con el cuerpo de baile y ahí me gustó mucho más, y me metí mucho más. Como que antes estábamos muy metidos con lo vasco, pero desde muy lejos, no tan cercano. Después he avanzado y nos involucramos mucho más con lo vasco. Yo creo que el Centro fue el medio. En el Centro me sentí como..., -por decirlo de algún modo-, como más vasco (Miguel Salazar, 23, gazte erreferente, Mendoza)

Horrela, *euskal jarduera-euskalduntasuna sentitu* elkarren artean indartzen dira.

Euskal jarduera kolektiboen praktiken bidez euskal zein diaspora identifikazioa handituko da. Kategorikoki adierazten den bigaren postulatuak da, horrenbestez: zenbat eta lehenago hasi, orduan eta denbora gehiago jardueretan aritu, zenbat eta parte hartze handiago izan, zenbat eta barneratuagoa egon, orduan eta euskaldunagoa sentitu.

La mayor motivación para nosotros era la semana vasca; una vez que lo vivís te enganchas y ya no te vas más, o durás más tiempo. A lo lejos parece ‘¡bah! es un grupo de gente que...’, pero en realidad cuando estás adentro compartís un montón de cosas y como joven te divertís y lo pasás buenísimo, te dan ganas de meterte más y de a poquito se mete el sentimiento de vasco, va creciendo digamos (Sebastián Echevoyena, 27, dantzari ohia, Pergamino)

Euskal Etxeak ibilerak orientatu eta ibilbideak definituko dituela esan daiteke, euskalduntasuna eta diasporatasuna indartze aldera, hirurak (Euskal Etxea- euskal jarduera- euskalduntasuna/diasporatasuna) osotasun interpretatzaile gisa agertzen direlarik. Baina, era berean, aipatu bi postulatuak kolokan jartzen direnean **identitatearen noraezak** plazaratu daitezkeela nabarmendu beharrea gaude, honek ere identitate noranzkoak beste modu batean argitzen laguntzen duelarik. Zentzu horretan, auresan beharra dago diasporaren bilakaera trazatzean belaunaldien arazoa bete-betean agertuko dela, eta honek kezka eta ardurak sortzen dituela, baita gazteen artean ere.

Lehena, *denboraren arazoa*. Parte hartzea konpetentzia bereizgarrietan trebatzeko beharrezkoa bada, Euskal Etxean gazteak izan ditzakeen joan-etorriek kexua sortuko dute inguruko artean. Euskal belaunaldiak zuzenak ez izatearena, diaspora komunitatean nagusiak besterik ez egotea, familiak seme-alaba txikiak gerturatzeko ardurarik ez hartzea...; horiek dira, besteak beste, denborari lotutako beste hainbeste arazo.

Halaber, kontuan hartu behar da gazteriak denbora sozial legitimoaren zabalpena eta murrizketa biziko dituela, hots, ardura sozialak uxatzeko denbora nahiz espazio eta denbora anitzetan trebatzeko denbora. Horrela, bada, gazteak Euskal Etxetik kanpo beste talde eta egiteko batzuk topa ditzakeen bitartean, gaztetxoek ardurak hartzeko prestutasun gutxiago izango dutela uste da, parte hartzeko denbora gehiago duten arren.

Arreta txikien taldera zuzenduko da ondorioz, zentroan txikitatik hazi eta hezi daitezten, sentimendua urte goiztiarretan garatu dezaten.

Zentzu horretan, sentimendua baretzea, pasioa lausotzea edo nekeak handitzea dira denboraren poderioz diaspora kideengan erne daitezkeen beste bizipenak, gazteen artean kezka eta ardura gehiago sortuko dituztenak. Ez da falta euskalduntasuna –eta zenbait kasutan, diasporatasuna– maitemintzearekin konparatuko duenik, eta aipatu emozio baretzea aldiz, bihotz gabetzearekin. Finean, sentimenduan eta oso bizipen konkretuetan bizitzen den identitatearen baretzea. Identitate bizipen positiboetan baino, identitatea esfortzuekin lotzearena gerta daiteke orduan. Lantzean behin han eta hemen planteatutako “baina, zertarako hainbeste ahalegin?” galderaren atzean, nahiak eta ezinak, oztopoak eta erronkak agertuko dira.

(euskal kultura) nire kultura ere bada. Euskalduna da euskaldun sentitzen dana, bai. Baina beste aldetio, euskalduna sentitzen dana, euskera ikasiko luke, ahal izanez gero. Ni... (isiltasuna) ez dakit... Joe! argentinarra naiz ta hemengo gauza pilo bat dauzket. Ordun, ez dakit. Baina hemengo euskaldunak edo Euskal Etxeko jendea ez da euskalduna, euskalduna sentitzen da, ta ahal dona eiten du Euskal Herrin alde, ta kristona eiten do, nahiz eta euskeraz ez jakin. Joe!, hobeia izango zan dana euskeraz jakitia ta Euskal Etxen sartzea ta euskeraz hitz eitea, entzutea. Baina hori, hori ez da posible hemen (Martín Irazuzta, 21, dantza irakasle, Bahía Blanca)

Hain zuzen ere, *euskal identitatea zein diaspora identitateak barneratzeko bideen efektibotasuna murriztea*, identitate noraezen bigarren ardatz nagusia litzateke.

Zehazki, identitatea eratzeko Euskal Etxeak beharrezkoak badira, diaspora komunitateetan identitateak har dezakeen ezusteko bideak kexua sortuko da gazteen artean. Izan ere, Euskal Etxeen instituzioetan gaztea identitatea eratuz doala, *identitateen erakundetzea* gerta daiteke (Gatti, 2007) eta erakundetze honen ondorioz, ibilbide, ibilera edo bilakaera horiek arautzea; diaspora identitatea eta euskalduntasunaren ideia homogeneizatzea, bizipenak bateratzea edo diskurtsua uniformatzea. Are gehiago, “sentimendua ikastearena” edo “sentimenduak arrazionalizatzea”.

Euskal Etxeak identitatea eratu eta barneratzeko prozesuen efektibotasuna galtzearekin batera “lehenengo diasporako benetako euskalduna” eta “egungo diasporako euskaldunen” arteko ezberdintasunak agertuko dira. Lehenengoa, euskalduna izan eta

euskalduntasuna bizi eta sentitzeko forma naturalari dagokiona, berezkoa zaiona, jatorrizkoa, “bene-benetakoa” edo agerikoa, ezin ezkutuzkoa. Bigarrena, euskalduntasuna lantzen duenari egokitua, ikasi-irakatsi beharrekoa, berez ez datorrena, propioa ez dena eta beraz, fikziozko identitatea edo identitate artifiziala izatea egotzen zaiona.

Los Centros Vascos están mermando el sentimiento. Antes entrabas y era ver varios con txapela y no porque decían ser vascos, sino porque lo eran de verdad. Ahora encontrar a un euskaldun jugando al mus o cantando o tomándose algo es muy raro, ya no hay. Entonces bueno, somos cada vez mas argentinos y también la identidad argentina está como saliendo. Pero por otro lado en los Centros Vascos se está perdiendo lo que ellos dejaban, vuelvo a repetir, naturalmente.

Ahora falta esa naturalidad. Ahora es como que se están esforzando demasiado en mantener, mantener, mantener, pero cuando vos empezás a trabajar demasiado en costumbres que no son tuyas se hace medio ficticio el tema. Es muy valedero que estén bailando, pero les falta el incentivo del sentimiento y eso es cada vez más difícil (...)

Así todo, -me imagino como te pasa a vos, como le pasa a todos-, sigue viniendo gente y se siguen sorprendiéndose. Pero no es como antes. Antes era más notorio, como más sentimiento. Yo hace mucho que no voy a una semana vasca pero por mi hermana y gente que va dice ‘no son las mismas’. Hay que darle una vuelta de tuerca al tema como para que sea algo interesante. Las mismas no van a ser nunca. Es lógico ¿no? creo que es parte de todo el proceso. Estamos en una etapa de transición donde antes era una cosa y (luego) va a ser otra (Iratze Arregui, 28, dantzari ohia, Rosario)

Zenbait Euskal Etxetan identitatea ulertu, bizi eta sentitzeko forma batzuk trantsizioan daudela esan daiteke, diaspora komunitate zein gazteen transformazio azkarrak elkarrekin ulertu behar baitira, aldaketa horiek guztiak Euskal Etxearen barruan berrikuntzak probokatuko dituelarik.

Identitatea birdefinitzeko orduan sentimendua eta borondatea, **borondatezko sentimenduzko identitatea**, identitatea izendatzeko enplegatutako formula komuna da diasporako gazteen artean. Gustua, hots, gogotsu ekitearena, horren emendailua.

Oro har, irizpide objektibo baztertzailen aurrean identitatea bizitzeko aldaera subjektiboagoak gailenduko dira. Hau da, elementu jakin batzuen gainean eraikitako pertenezia forma zorrotzak baino (leinua, odola, abizenak, jatorria), sentimendua; herentziazko identitatea edo galdutako identitatea beharrean, identitate aktiboak eta hein batean desiratuak.



Lo siento muy directo, no siento como algo lejano. Lo siento como algo parte de mí. Yo me empecé a mover, empecé a venir al Centro Vasco y desde que llegué hubo un cambio, hubo un click. Me empecé a relacionar. Tuve mis amigos con quienes compartía lo mismo, ¡pero lo mismo en serio!, que ya no tenía que ver con mi familia (yo voy ahí por mi padre), es un núcleo que formé yo.

Lo asocio con... ¿viste? con sentirme realmente cómoda, y también para mí se exponen un montón de cosas muy íntimas, porque digo, 'Sí, bueno, todos los que me conocen saben que soy vasca y mi familia es vasca', hablo mucho de eso y me ven lo que hago. Me siento activo en eso, me metí en la colectividad. No lo siento un deber, 'porque para los abuelos era, tenés que hacerlo...' conozco gente que sí lo vivió así. Yo no, para nada, al contrario, me da gusto (Mariana Martínez, 19, dantzari, CF)

Familia historikoen kasuan, familia eta tradizioaren sama oraindik ere oso agerikoa den arren, familia-tradizioak difuminatu egingo dira bere parte-hartzearen borondatea azpimarratzeko, hau da, norberaren hautu gisa agertzeko.

Borondatezko identitatea, berriz ere, identitate forma zorrotzetatik aldentzen da, kasu honetan, obligazio eta eginbeharren artetik.

Nací acá prácticamente. Toda mi vida estuve acá dentro. Yo estoy tan metida acá dentro que terminé que mi grupo de amigos es éste y no son los amigos del colegio. Son las decisiones de cada uno y no me arrepiento de ello, obviamente. Yo lo decidí, plena conciencia de que esto era... ¡era lo mío! Son elecciones y no me arrepiento para nada de ello. No me imagino otra forma de ser sin esto metido en el medio siempre (Pilar Arrizabalaga, 20, dantzari, CF)

Euskal Etxean bere txokoa egingo du gazteak. Diaspora zentroa familia nukleotik at sortu duen gunere propietzat hartuko du, guraso eta neba-arrebek beste esparru batzuetan beste espazio batzuk izaten dituzten bezalaxe.

Gaztea prestu dago pertsona autonomo bezala bidea egiteko, etapa berriak igarotzeko; gaitasun handiagoa izan dezake *identitate autonomoa* garatu ahal izateko, erreflexibotasun handiagoa garatzeko, agente aktibo lez adin berekoekin batera identitatea finkatu eta baieztatzeko (Apalategi *et. al*, 2001), horretarako nagusien eta komunitatearen orientabide nagusienetatik aldendu behar bada ere, agente aktibo gisa finkatzeko bidean...

Es como que todo lo vasco ahora... si hubiese nacido de mí, hubiese sido diferente, no es que mi papá me dijo: -'¡Vas a ir!' (en tono fuerte), pero me llevó y me dijo: 'Dale, andá...'. Y como que ahora todo lo que es del Centro Vasco nació de mí, o sea, mi papá no me obliga ni nadie me obliga en esta familia a sentir cómo se siente el vasco, y ¡nada! él se siente vasco y respeta a mis dos hermanos del medio que no... (que vienen al Centro Vasco) para el almuerzo nomás (Jimena Gainza, 21, txiki irakasle, Mendoza)

Gazteak aukeraketa kontzientea burutzen duenaren ilusioari helduko dio. Norberak hartutako bidea intentsitatea inprimatuko dio esperientziari. Behin eta berriz aditzera emango denez, borondatezkoa eta gustu handiz ari dira; horrela ez balitz, ez lukete egingo. Eta gustuz egiten denak, halaber, identitate pragmatiko, interesekoak edo neurtuak aldentzen ditu.

Termino hauetan birdefinitzen doan identitatea ez da ahula. Aitzitik, sentimenak, borondateak eta gustuak tinkotasunez planteatzen dira. Konpromisoak, zentzu horretan, bere pertenez banala ez dela aditzera emango du.

...ahora ya es, es como otra etapa, es venir y... es otra cosa...venir a dejar el legado, enseñar a los más chicos, a tratar de que sigan, de que no se corte, qué sé yo... En otro momento fue venir por inercia, venir y bailar y encontrarte con amigos. Ahora es el esfuerzo de venir y de pensar cosas para venir para hacer acá, y para que los chicos se enganchen (...)

Pero eso también es lindo. Es diferente, porque no es venir de joda (de fiesta) acá todo el día, si no es venir con otro compromiso...si no, no lo haríamos (Dolores Belaustegui, 22, dantza irakasle, Rosario)

#### **4.3.1. Diasporako gazte ibiltariak: erreferenteen adibidea eta adibide ez horren atipikoak**

Euskal Etxearen barruan zein diaspora zabalean ardurak hartzearen garrantziari dagokionez, eta gazteen parte hartzea tokian tokiko oso ezberdina dela kontuan izanik, bisitatu ditugun zentro guztietan topatu ditugu gazte formatzaileak, transmisoreak, sustatzaileak, multiplikatzaileak. Hitz batean, erreferenteak.

Diaspora profil ezberdina duen aldetik, atal honetan diasporako gazte erreferenteen ibilera ezberdindua ezagutzeko interesa daukagu. Aitzitik, erreferenteen adibidea ezin gazte aktiboei mugatu, ez eta Euskal Etxera. Ikusiko dugunez, parte hartze

pasiboagoa dutenak ere euskal munduaren erreferente bihurtuko dira hainbat eta hainbat esparrutan.

Erreferente gisara tinkatzea “besterik gabe” gertatu da batzuetan, jarduera konkretuetan pixkanaka gero eta ardura gehiago hartzearen ondorioz, gazteak berak interes iturri eta esparru ezberdinetan aritzeko gogoak adierazi dituelarik. Besteetan, ordea, instituzioek bultzatu dute erreferenteen figura eta zenbait gazteri espresuki eskatu zaie eginkizunak betetzea, zentroak eskainitako aukerak lana eta konpromisoaren bidez itzultzea beharrezkoa ikusten dutelarik.

Honen harira, azken urteetan instituzioek gazteei zuzendutako ekimen ugari martxan jarriko dituztela aipagarria da, bai FEVA-k (*Gidarien Formazioa- Identitatea transmititu* programa), bai Eusko Jaurlaritzak (*Euskal Herrirantz* eta *Gaztemundu* programak<sup>1</sup>). Programa guzti hauen helburu estalitzat har daiteke diasporaren bilakaera Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioaren zentrorazko joera hartzea, hau da, “diaspora Euskal Herrira eraman” tendentzia nagusitzea. Programa hauen ageriazko helburua da, bestalde, gazteen formazioa bultzatzea. Batetik, Euskal Etxeen biharko “liderrak” gaur prestatzea, host, zuzendaritza organoetan sartzeko prestatuak egon daitezela; eta bestetik Euskal Herriari buruzko jakintza zabalagoa izatea, betiere administrazioaren irizpideei mugatuak. Gazteari hezitzeko denbora sozial nahikoa eskaintzen zaio horrenbestez, belaunaldi aldaketa ahalbideratu eta zentroen etorkizuna bermatze aldera.

Euskara eta dantza irakasleak, txikienen begiraleak, kultur eta gazte erreferenteak, zuzendaritza-batzordeko kideak, irrati esatariak, idazkariak... oro har, egiteko modu batzuk eta legatu jakin bat transmitituko dituzten gazte aktiboek, zentroan hasiberriei komunitatera sartzeko ibilbideak erakutsi ez ezik, jarraitu beharreko pausuak

<sup>1</sup> Gaztemundu programaren kasuan, “gazteek egonaldia egingo dute Euskadin, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak finantzaturik, gaurko errealitatera hurbil daitezen eta gero Euskal Etxeetan isla dezaten. Egonaldi horretan, parte-hartzaileek parte hartu beharko dute eurentzat antolatzen diren lan jardunaldietan, eztabaida foroetan eta kultur guneetara, erakundeetara eat turismo guneetara egingo diren bisitetan” (Eusko Jaurlaritza, 2003, 316/2003 Dekretuaren 2.artikulua).

Euskal Herrirantz programak gazte prestatuenek ikasteko-egonaldia egingo dute, lanbide heziketa eta oro har formakuntza alorreko ikastaroak burutzeko.

FEVA-ko Gidarien formazioa- Identitatea transmititu programari dagokionez, web gunean adierazten denez, norberak bere kabuz aztertzen jarraitzeko interesa piztea; egingo Euskal Herriko errealitatearekin kontaktua sartzeko beharra sortzea eta euren zentroetan ikasitakoa zabaltzea, komunikatzea.

ere irakatsiko dizkiete. Gazte erreferente horiek, beraz, diasporan gertatzen diren *identitate eratze-prozesuen gidariak* dira, hein handi batean.

Les tengo que dar letra, como me dieron a mí en un momento, para que lleguen a mi edad y sigan como yo. Tratamos de mostrarles a los más chiquititos, decirles que acá tienen el lugar. O sea, no hay nadie que les va a decir que no pueden hacer nada. El tema es que hay que trabajar, hay que traer ideas.

A mí siempre me gustó enseñar y ahora enganché para danza, cultura, todo, que es algo que me divierte mucho. La idea era empezar, meter palabras en euskera, como para que vayan enganchando. Te digo, ahora hace poco me puse realmente a estudiar euskera. Son cosas que hasta a los nenes les sirven. Es importante (Emmanuel Pérez, 22, dantza irakasle, Bahía Blanca)

Erreferenteak jakitunaren posizioa hartuko du. Bera gidari aditua da. Hasiberria ez bezala, baditu jada konpetentzia bereizgarriak; beste diaspora kide ugari ez bezala, bere posizioari esker beste esparruetara hel daiteke, aipatu luzapena Euskal Etxeko instituzioetara mugatua bada ere.

Horrek ez du esan nahi bere bidea agortu denik. Alderantziz, gazte erreferenteak jakin badaki bere ibilbideari darraiola, askotan oharkabeen bide hauek igaroko dituelarik, bat-batean, ustekabeen.

En 2004 empecé a estudiar euskera, desde el *kaixo* hasta el *ukan* y qué sé yo. Hice el barnetegi del 2005 en enero y recién en marzo empecé a dar clases. O sea, dar clases significa que lo que yo aprendo, mientras lo aprendo, lo transmito. Le explicamos a la gente que viene acá que no somos profesores, estamos estudiando. Pero es bueno para nosotros aprender, fija conocimientos y de paso, como es un profesorado, ganar experiencia. A mi me gusta explicar, –¡no sé qué te dirán los alumnos!-, pareciera que tengo facilidad (Nahuel Pereira, 23, euskara irakasle, Mendoza)

Diasporako gazte erreferenteak *ikasle eta irakasleak* dira aldi berean. Ikasi ahala irakasten dute; irakatsi ahala ikasten da. Transmisioa modu efektiboa emateaz gain, bi norabideetako prozesu dinamiko honen garrantzia norberaren interesak asetzeko eta motibatua sentitzeko orduan duen eraginean datza. Diaspora komunitatearen barruan aktibo jarraitzeko modua ez ezik, euskal mundua deskubritzen jarraitzeko aukerak ere izango ditu.

Ezin ahantz gazteak luzapen-soziala baduela, hots, ikasi edo formatzeko denbora sozial legitimoa. Eta horretan dabilta hain zuzen ere, gehientsuenak goi mailako ikasketak burutzen edo denbora laburrean horrelakoetan hasteko prest. Formakuntza

orokor baten baitan, ikasketei atxiki zaien garrantziaren arabera, Euskal Etxean garatutako kompetentziak horren parte bailiran baloratu eta goraiatuko dira.

Aipatutakoaren harira, diasporako gazte erreferentea *ikasitakoaren multiplikatzea* dela esan daiteke, hots, ikasitakoak lau haizetara zabalduko dituela. Bada, zentroan garatutako trebeziak eta bizi izandako esperientziak lanerako gaikuntza izan daitezkeen bitartean, unibertsitateko formakuntza zentroan aplikatu ditzake, bertan egiten dituen jardueren mesedetan.

(El programa de radio) empezó en el 2004. 2005 me propusieron si quería estar con ellos, para que haya alguien del Centro Vasco, porque los que conducían no sabían ni decir Oihane, y entrevistaban a gente y no sabían, estaba desaprovechado ciento por ciento. En 2005 dejaron y me ofrecieron si quería agarrar, con otra chica del Centro Vasco de acá que (también) estudia periodismo, y arrancamos en marzo, y hasta hoy (Iker Alava, 25, erreferentea, La Plata)

Transmisore-formatzaileen jarduerak zerikusia izan ei dute unibertsitatean burutzen ari diren ikasketekin, euren interes pertsonal edo zaletasunekin eta norberaren gaitasunekin.

Euskal Etxearen barruan zein kanpoko irakaspen anitz hauek osagarriak bihurtzen dira. Gazteak berak konektatu ditu esparru guztiak euren egunerokotasunean, diaspora komunitatea eta inguruan izan daitezkeen hartu-emanak aditzera emanaz, nonbait. Inguruan bere interesetan jarduteko espazioak faltan badira, Euskal Etxean topatuko ditu askotan bere zaletasunak garatu edo asetzeko aukerak edo espazio posibleak. Horrela izaten da irakasleen artean adibidez, edo beraien ikasketak bururaino eramanez, karrera profesionalean aritu ezin daitezkeen artean. Edonola ere, Euskal Etxean bere aurreko zaletasun eta interes konkretuak nahiz gerora agertu daitezkeen interes berriak, zentroan potentziatu, biribildu, perfiletuko ditu.

Dentro de todo este tiempo, mucho con lo vasco, pero también como persona he crecido dentro de lo que es la institución. Y por ahí, en la facultad, rindiendo materias sobre la organización de empresas o algo así, yo me imagino el Centro Vasco. Lo veo como una organización. En la facultad me dan herramientas como para hacer un diagnóstico, plantearse los objetivos, todo, como para una empresa. Y yo me lo ejemplificaba, como para agarrar el proyecto para el Centro Vasco. Como que lo tengo muy presente (Miguel Salazar, 23, gazte erreferente, Mendoza)

Multiplikatzaile, irakasle eta gidari moduan erreferenteen profila definitzen doan honetan, multiplikatzaileak izan beharreko gaitasun eta nolakotasunak argitzen doaz. *Gazte erreferentea sustatzailea* da, eta izan behar du, besteak beste: proposamenak eraman eta eztabaidarako trebea izatea, apasionatua, garra dariona, lanerako prestutasuna duena; burutsua eta irudimentsua, taldea aktibatu, taldea integratu eta taldea gidatzeko gaitasuna izatea; distentsiorako uneak sortu eta ordena jartzea, taldean egin eta ezin daitekeena egin determinazioz adieraztea, baimendu eta debekatzea; irakastea gustukoa izatea, ikasteko nahiak adieraztea, transmititzeko prestutasun edukitzea...

Finean, jardueren iraunkortasuna bermatze aldera ardurei konstantziarekin ekitea, zentroarekiko ezohiko dedikazioa izanik eta konpromisoa desinteresatua agertzea (irabazi ekonomikorik atera gabe), baloratuko dira. Beste modu batean esateko, burutik behatzen diren erreferentea izatea, konprometitua, arduratsua, langilea.

Cris es una fenómeno. No me expliqués cómo aprendió tan rápido, es re dedicada y ella se puso y en dos años, o sea vienen vascos y ella habla (en euskera) y todos le dicen que muy bien. Ella estudia y le pone ganas (risas) ¡claro! ¡Muy bien! Ella todo lo hace para el Centro Vasco, porque le gusta, no porque nadie le diga que lo tiene que hacer ni que le van a pagar ni nada (Miren Esnaola, 26, dantzari ohia, Rosario)

Halaber, aipatu ezaugarri eta nolakotasunak diaspora komunitatearen potentzialtasunak bururaino eramatea ahalbidetuko duela agerikoa bada, azpimarratzekoa da diaspora kideen ezagutza, jardun eta afektuetan izan dezakeen berebiziko eragin. Horrela izaten da gazte erreferenteen figurak indarra hartzen duenean, hau da, gazte erreferentearen gatzetasunean enfasia jartzen denean...

Cuando yo empecé a estudiar me motivaba más porque le gustaba mucho lo que hacía. Yo en su momento también lo admiraba, cuando empezó las clases, porque ya siendo profesor, un chico así tan joven y que supiera tanto, era muy... es un apasionado también con lo que hace, y como que me motivaba más para seguir aprendiendo. Y nada, y se formó como una amistad, y... y nada, hoy en día la mantenemos, chateamos, así para... para practicar un poco, y, ¿no?, un pibe muy copado (un chaval muy majó) (Miguel Echeperé, 22, euskara ikasle, CF)

Erreferenteei atxiki zaien gaitasun eta nolakotasunei erreparatuz gero erraza da gazte horiek diaspora barruan oso modu positiboan baloratuak direla imajinatzea. Hori gutxi balitz, ez da falta mirespena agertuko dion gazterik.

Gazte erreferenteak errekonozituak sentitzeko parada izango du, oro har. Bere egitekoetan jarraitzeko babes hori antzeman beharko du behintzat; zentroaren inplikazioa sentitu, ikasleen esker ona jaso.

Kasu guztietan neurri txiki edo handiago batean horrela izatea espero bada ere, gazte erreferenteari emandako esker ona are garrantzitsua izango da irakasle gaztea bere funtzio edo egitekotik haratago doanean, esaterako, euskarazko zenbait irakaslek astebururo egiten dituzten ehunka kilometroko desplazamenduak egiteko orduan, Euskal Etxe berrietan ere euskara irakatsi eta ikasteko. Zentroaren errekonozimendua animoak epeltzen direnean aurrera egiteko beharrezkoa duen bultzada izanen da hortaz. Bestela ere, inguruko errekonozimendua erreferenteak konfiantza hartzeak ahalbidetuko du, ematen dituen urratsen jabe izateko, ibiltzeko ahalmenen sinestun.

Yo me involucré un montón. Es más, por estudiar el remoto (de euskera) relegué un poco mi carrera, pero fue una decisión mía, sabía que no iba a tener fines de semanas para mí. Entonces yo lo asumí como un compromiso, no iba a dejar a gente sin aprender euskera... No tengo novio, ni hijos, ni nada ¿Cuándo lo voy a hacer si no es ahora? Si bien estoy cansada, es mi momento para hacerlo, lo hago con todo gusto. Esas cosas te re llenan. Yo también estuve en la situación que están ellos. Son ciudades chiquititas, no tienen posibilidades de nada, ni de profesores de euskera, -hasta que llegué yo-, ni de danzas ni de nada. Me re valoran. A mí me conocen desde chica, es un orgullo que yo les esté dando euskera, y yo imaginate, yo no lo puedo creer.

Siento que (el Centro Vasco) saca lo mejor de mí. Es donde me exploto al cien por cien, me siento repleta haciendo estas actividades. Encontré lo que más me gusta hacer. Porque yo estudio Derecho, me voy a recibir (a licenciar) y todo, voy a vivir de eso, pero lo que me gusta es dar clases de euskera y contar, contar de la geografía, enseñar que por qué no España, por qué no Francia...

Acá me dieron la confianza para que yo esté en este lugar. Entonces, yo tengo que rendir, lo tengo que devolver. Porque para mi es un montón esto (Luz Barrena, 26, euskara irakasle, Bahía Blanca)

Diaspora barruan sentitzen duen babesa lagun, litekeena da gaztea hemen gehiago inplikatzeko eta kanpoko egitekoak bigarren maila batean uztea. Dena den, kontzienteki hartuko duen erabakia izango da hori. Gazteriak duen denbora sozial eta denbora biologikoari, hots, luzapen-soziala eta bizi-luzapenari erreparatuko dio eta

aukeraketa burutu; “orain ez bada, noiz egingo dut bestela?”. Erreferenteen esanetan, lehentasunak finkatzean, momentu batean edo bestean Euskal Etxeak eta hemen garatzen dituen jarduerak toki inportantea izango du.

Horrek era guztietako erreakzioak eragin ohi ditu. Izan ere, Euskal Etxearen barruan ongi ikusiak eta txalotuak diren egiteko eta inplikazioak zalantzan jartzen dira Euskal Etxetik kanpo, hain zuzen ere, gazte erritmo estereotipatu eta hegemonikoekin bat egiten ez dutelako, esaterako, kontsumora, dibertimendura edo jarduera pragmatikoetara mugatutako espazio zein denborekin. Horrek, era berean, bi espazioen arteko distantziak, kanpoak eta barrukoak, handituko ditu.

De afuera siempre me dijeron que soy un tarado (risas), que cómo hacía tanto tiempo en eso y encima ir a Buenos Aires ‘¿de qué?’, ‘de la colectividad’ ‘pero, ¿ganás plata (dinero) con eso?’ ‘¡y no!’, no lo podían creer. Acá es diferente, te hacen más chiste ‘¡ah, el director del futuro!’’. Pero en el fondo sé que lo ven diciendo ‘está Sebastián allí’, como yo diría de ellos, por ser joven sabe cómo pensamos. En el fondo están contentos (Sebastián Belaustegui, 26, erreferente, Rosario)

Horregatik, jarduerak aurrera eramateko behar izaten den denbora, dedikazioa eta ekinagatik, gazteak berak “fanatismotik” gertu kokatuko du bere burua. “Zoramena” edo “fanatismoa” kontsideratu daiteke komunitatearekiko “leialtasuna adierazteko modu bat, sakratutzat hartzen dena eta defendagarria dena uste dutena, horregatik “fanatikoa” dela esango du, fideltasunaren seriotasuna azpimarratzeko” (Lasén, 2000, 192).

Euskal Etxea eta euskal munduak bere orokortasunean lehentasuna duenean, oinarri-oinarrian bizitzeko forma bat, ibiltzeko era adierazi nahi da.

He hecho... ¡he hecho de todo! (risas) De todo- de todo, todas las actividades diferentes. En el 98 descubrí el Centro Vasco y a partir de ahí, llegó un momento en mi vida que era todo Centro Vasco (risas), era como que vivía más ahí que acá en mi propia casa. Porque era, o sea, siempre encontraba otras prioridades en el Centro Vasco, había que organizar todo, o venía la semana vasca y había que juntar plata, iba a dar clases acá, allá. Hubo dos años que no hice otra cosa (...) Mis amigas piensan ‘estás loca’, ‘¡vos y tus vascos!’ (risas) Se tendrán que adaptar, ¡qué va a ser! Ya era como una forma de vida. Les resulta rarísimo, no entienden que te interese tanto (Eugenia Vázquez, 30, euskara iraskasle, Paraná)



Euskal munduak eta diaspora munduak egunerokoaren parte inportantea betetzen du, bere bizitzaren parte inportantea horri eskaintzen diote; beraien bizitza da. Eta orokorrean, bizitza urte labur horietan jarraipena izan duen gauza –ia– bakarra dela aditzera emango dute, jarraikortasun eta biografia koherentzian enfasia jarritz.

Egoera konkretu batzuetan diaspora identitate forma jakin bat agertu edo ezkutatu daitekeela sostengatzen dutenen aurrean, diasporako gazteak bata bestetik ezin dela bereiztu erantzungo du. Izan ere, euskal munduari dagokiona denbora libre edota aisialdira mugatu ezin den bezalaxe, diasporan eratzen doan identitatea ezin da Euskal Etxera mugatu; haratago doa, ingurua eta ingurukoak inplikatur, diaspora identitatearen egokitzapen, mugak eta zabalerak argituko dituela.

Estamos trabajando, hay que trabajar. Y yo me doy cuenta que... que es algo que me gusta, que yo le pongo mucho tiempo, y dedicación, y energía de mi parte. A veces digo ‘no, tendría que poner energía en otras cosas también’, pero bueno, me gusta y me interesa. Pero igual voy a ver, quiero empezar a..., no seguir con lo mismo, pero tratar de... (ríe) hacer otras cosas... Yo empecé a poner casi toda mi energía acá. Por eso ahora me cuesta mucho llevarla a otras cosas. Esto que hago me gusta, entonces quiero buscar otra cosa así que también me de placer... (entre risas). Pero bueno, estoy con eso, y además vos sabés que tengo un novio vasco, así que (risas), cien por ciento, todo, cuando vengo acá, en mi casa,... no es tan fácil, desligarme (Malena Arandia, 29, euskara irakasle, CF)

Edozein eremutan mugitzen direla euren interesak, inplikazioak eta gogoak agertuko dituzte. Aitzitik, hau ez da soilik erreferente gazteei mugatutako bizipenen kasua. Bata zein bestea, gazte aktiboagoak zein pasiboagoak, formatzaile zein ikasleak, euskal nahiz diaspora munduaren igorle eta eroaleak bihurtuko dira familian edo lagun taldean, ikastetxean zein lantokian, kirol klubean eta akademietan, aurrez aurre edo zeharka. Hau da, Euskal Etxeetan parte hartzen duen diasporako gaztea, oro har, mundu horren erreferente gisa agertuko da, eta probokatzen dituen erreakzioen arabera, horren *defendatzaile edo bultzatzailea* gisa tinkatuko da gehienetan.

Halaber, inguruko artean ezezaguna izaten den euskal mundua deskubriarazteko nahiak tartean, lagun eta kideen interesak suspertzeko edo partehartzera gonbidatu edo animatzeko asmoz, gazteak “bere sekretua, bere egia, komunikatu behar du, ‘bereak’ zeintzuk diren jakin, eta bere kausaren aldekoak

hurbildu” (Arriaga, 1998, 75), lotura edo sarbide zuzenik ez dituztenen artean bere esperientzia zabaldu, bidea erraztu, eta finean, mundu hauek desplegatu.

Yo a veces me meto en Internet, en un foro del club (de fútbol) puse, si querían estudiar, dar la dirección de acá, que yo estaba estudiando hace un tiempo, y mucha gente contestó. Era... no es algo que esté tan lejos de las personas. Lo que pasa es que a veces no hay mucha difusión y por eso la gente no viene, pero yo creo que si supieran, vendrían. Y... nada, lo puse para promocionar. Cuando tengo posibilidad lo digo, más que nada para ver si lo ve alguno y quiere venir.

Yo lo tomé así, y lo converso con mi familia, con mis primos, ya todos lo saben. Lo ven como una forma mía de saber de estas cosas, de recuperar algo perteneciente a mi familia. A veces queda como que una anécdota más para ellos, pero bueno, no tanto para mí. Pero no, a veces me preguntan, yo les contesto las cosas, me preguntan el idioma, de cómo es allá, los equipos de fútbol (risas) Y nada, yo les trato de contestar lo que puedo (...) a mí me toman ya como un representante... (risas) (Miguel Echepare, 22, euskara ikasle,CF)

## **5. NORABIDEAK**

### **IDENTITATE ARTIKULAZIOAK DIASPORAN**

---

#### **5.1. Memoria kolektiboak: oroitzapen eta ahaztura gidak**

Memoria ez da soilik iragana ahaztu gabe aurretikako ideiak, sentsazioak edo irudikapenak gogoratzeko ahalmen pertsonala; bizitza sozialean sortu eta testuinguruaren zein jarduera sozialen eragina duen aldetik, memoria kolektiboa sinesmen, ideologia eta jarrera sozialekin estuki harremanetan dago (Garzón, 1998). Memoria horrexegatik izaten da garrantzitsua, iraganaren berri eman eta oraina zein etorkizuna orientatzeko gaitasuna duelako, hots, bideak iragateko eta bideak egiteko gida badelako.

Beste batzuetan zenbait oroitzapen baztergarriak izan daitezke, bide galduak. Gogoratzen hasi beharrean, hobe ahanzturari heltzea. Kasu horietan ahaztura memoriaren parte inportantea dela esan daiteke, ezin baita dena gogoratu, den-dena ahaztu ezin den bezalaxe. Dena gogoratzeak saturazioa eta angustia probokatu eta oraina oztopatuko luke, egunerokoa gozatzeko paradarik eman gabe (Augé, 1998) eta berria denari bideak moztuz (Mannheim, 1993). Ildo beretik eta inork baino dotoretsuenen, Uruguako Alfredo Zitarrosak “p’al que se va” (1967) kantatu zion bezalaxe: “Egia da gauza asko ahaztu daitezkeela, baina batzuk ahanzturak dira eta beste batzuk gauzak besterik ez dira” eta, hortaz, “ez bota maletan erabili behar ez duzuna, bideak luzeagoak baitira sama gehiegi duenarentzat”.

Ikerketa honetan memoria kolektiboaren parte diren oroitzapenek zein ahanzturak berebiziko garrantzia dute:

Bizi-ibilbideari ekin berri dion gazteari dagokionez, ezinbestekoa da gazteak aurreko belaunaldiekin memoria aldetik dituen desberdintasunak kontuan hartzea. Norberak esperimendatutako bizitzak gaztaroa ezaugarritzen duen bitartean, memoria

kolektiboak aurreko belaunaldiek bizitako esperientziei erreferentzia egin diezaieke. Horrenbestez, belaunaldien arteko artekotasunean sakontzeko gida da memoria kolektiboa, alegia, gertutasun-urruntasun eta jarraipen-jarraipen eza sakontzeko bide bat.

Diasporari dagokionez, desplazamendu-enplazamendu esperientzietatik eratorriko memoria kolektiboek hartuko dute garrantzia, batzuk aipatzeagatik, diaspora komunitate memoriak, familia memoriak, memoria biografikoak edo komunitate nazionalaren memoriak. Memoriak protagonista ugari eszenatoki diferenteetan plazaratzeaz gain, denbora forma askoren inguruan mintzo ohi dira. Honetan, iraganeko eta egungo bizitza Argentinan edo Euskal Herrian; gazteak dituen etorkizun proiektzioak; migratzaile, familia eta diaspora komunitatearen berri emango du. Are gehiago, aipatu protagonista, espazio eta denbora horiek guztiak artikulatzen lagunduko du memoriak.

Horretarako narrazioaren trama 1810eko Maiatzeko iraultzan hasi eta 1816an gauzatuko den Argentinako independentzia ostean eta bereziki 1880-1914 urte bitartetan kokatu beharra dago, hots, migrazio masiboaren garaietan, argentinar identitatea eta Argentina modernoaren sorreraren atarian. Eskolako irakaspenak, familia transmisioak eta gizartean indarrean dauden migratzaile kolektibo ezberdinen estereotipoen bidez gogoratzen hasi eta han-hemengo herri, familia eta esperientzien arteko konexioak eraikitzen hasiko dira, askotan detaile txiki guztiak zainduz gainera. Gazteak goranzko sendiari heldu eta presente egingo du, norberaren parte balitz bezala...

Por parte de mi familia vasca es algo que se ha transmitido, anécdotas o situaciones, o lugares donde vivían. Sé que mi tatarabuelo era alfarero, y en la casa de Irunberri, –una casa muy vieja–, en el fondo, hay una especie de torno. Mi padre estuvo el año pasado, volvió y me contó y yo... es algo que para mí lo vi, estuve ahí. Nosotros tenemos familia allá y está esa cosa tan fraternal... tenemos vidas distintas y hasta con algunos no me conozco, pero yo sé de su existencia y ellos saben de la mía. Es como que hay algo....

Mi interés por una parte de mi familia... A mí siempre me llamó mucho la atención el hecho de saber de dónde vengo. Yo tengo una hermana menor que es... ¡muy vasca! Eso lo ves en su cara, en su actitud de todos los días, pero ella no lo elige. Si bien no reniega, no elige adentrarse, no le interesa. Es como que es algo muy individual (Mariana Martínez, 19, dantzari, CF)

Gazte guztiek, ordea, ez dute transmititutakoa bereganatzeko nahirik, migratzailearen esperientzian murgiltzen diren ondorengoan artean guztia jasotzeko intentziorik ez dagoen bezalaxe. Zentzu horretan, behar-beharrezkoa da *goranzkoen transmisioa eta ondorengoan bereganatze prozesuak* desberdintzea. Oro har, **bereganatze-baztertze jarrerak** muturreko bi adibideen artean kulunkatuko dira, alegia, harrotasunez erakutsitako interesa eta ezkutatu behar ez den axolagabetasunaren artean.

Aipatu axolagabetasuna distantziak antzemateko modu ezberdinetatik datorkie. Batzuetan *urruntasuna* determinantea izango da distantziak are gehiago handitzeko. Ez dago loturarik, ez informaziorik, ez elementu preziaturik; alderantziz, gerta daiteke erresistentzia eta ondasun soziokulturalekiko mugak topatzea. Besteetan *gertutasunak* eragingo du arduragabetasuna, gehiago jakiteko beharrik ez dagoela uste denean, familian presente egoteagatik eta orokorrean gizartearen parte dela sumatzeagatik. Azkenik, transmisio-bereganatzearekin indiferente dira iragana baino egungo egitekoetan eta norberak eraikitako harremanetan enfasia jartzen duten gazteek.

Por parte de mi papá todo vasco, por parte de mi mamá todo italiano, menos un apellido argentino, criollo. Lo raro es que yo no me siento nada italiano, salvo por carácter que sí que tengo la personalidad italiano. No reniego que sea italiano, pero si vos me decís ‘¡eh, tano!’, no me voy a dar vuelta; si me decís ‘vasco’ yo me doy vuelta. Además yo a la familia vasca cada vez que fui a Euskal Herria los fui a ver y tenemos relaciones por teléfono, y en cambio la italiana nada. Mi mamá me dijo de qué zona de Italia éramos ¡y yo me olvidé!, ¡y tengo el mismo grado de ascendencia!, eso es lo raro (Sebastián Belaustegui, 26, erreferente, Rosario)

Argentinaren identitatea jatorri ezberdinek osatzen dutela esaten da eta hori bera sostengatuko dute diasporako gazteek. Aitzitik, parte batean bakarrik zentratu eta horri segida emateko borondatea agertu ohi dute. Aukeraketa norberak egiten duenaren ustea ere ez da gutxietekoa, bere aparteko interesak inguruko artetik ezberdindu eta bestelako gertutasun sentazioak ahalbideratuko dituelako.

Jatorri erreal edo fantasmatu espezifikoan sakontzeko asmoz familia parte horren kontaktak entzuteko prestutasun berezia adieraziko du; kankar, esamoldeak, azentuak eta hitz solteak doinu bereziarekin ahoskatuz. Jatorri horren inguruko informazio gehiago lortu nahian goranzkoen jaiotza, heriotza edo ezkontza agiriak, eskutitzak eta

bestelako dokumentuak bilatzeko, irakurtzeko eta ondo gordetzeko borondatea agertuko du. Era askotako elementu grafikoak (ber)esanguratu ditu; argazkiak, amuletoak, intsigniak, soinekoak edo kutxa misterioitsuak, altxor preziatuak bihurtuko dira. Nola ez, bere baitatik ateratakoekin ere berreraiketa egiteko moduan egongo da.

Hor sortuko da narrazioa, detaile inkongruente eta anekdota edo pasadizo solteak ordenatuz, inpresio iragankorrek batasun zentzua hartuz. Ordenazioa ez da erabatekoa, ordea. Baina handik eta hemendik lortutakoak gainjarri eta nahaspilatu badaitezke ere, edo goranzkoen migrazio esperientzien artetik ezberdintasunak markatu badaitezke ere, narrazioetan gazte bakoitzak *jorratutako gaien* eta *azpimarratutako elementuen* arteko kointzidentzia argia da. Baita *doinu emozional erreplikakorra* ere. Enfasia jartzeko moduak, gorrotoa edota maitasun pasioak espresatzeko erak eta berariazko gestikulazioak hartuko dira, besteak beste, argentinarraren identitatearen beste mito fundatzaile gisa (Arfuch, 1996). Honen harira, diasporako gazteak goranzkoa presente egiten du, baina ezin goranzkoen ahotik mintzatu: gazte doinua, erritmoa eta hizkera enplegatuko ditu, **goranzkoen migrazio-esperientzia epikoa**, abentura komiko-dramatikoa bilakatuz nolabait.

Mirá, exactamente no te sé decir, pero tenía veinte años, más o menos. Era del 1900, por ahí. Pregunté a varias personas y la explicación que me dan era como que bueno, vino... a buscarse la vida, ¿viste? Eran trece hermanos, entonces uno iba para acá, otro para allá... Y no sé, tal vez estaba medio podrido y se fue a América (risas). Qué sé yo, bien, bien, no sé. Encima mi abuelo murió. Cuando vino estuvo en Chacabuco, se juntaba con otros vascos, se ve que trabajaban en los mismos lados. El era muy callado, nunca hablaba, ¿viste?... no contaba nada de allá, y como que siempre estaba pensativo, como si estuviese recordando o no sé qué. Y que... ¡nada!, que sí le había enseñado a ella (a la hermana de mi abuela) los números en euskera... (Malena Arandia, 29, euskara irakasle, CF)

Familiako garrantzi handiko migratzailearen esperientzia sendotuko da memorian. Bada, gogora ekartzen den hura ez da migratzaile soila, *migratzaile-heroia* baizik, populatu beharreko lurralde arrotza konkistatuko duena –hala Patagoniako desertu latza nola mugarik gabeko Pampa zabala–. Heroiak, halaber, ustekabekoei buru egin eta indartuko da; bidean adore handiko ekintzak burutuko ditu; gorabeherei aurre egiteko bertuteak erreferentziala bihurtuko du. Aipagarria, maitagarria, gogoragarria.

Aipatutakoa gutxi bailitzan, ez dira faltako migratzailea laudatzeko estrategiak. Bat ez datozen gertaeren omisio selektiboa edo berri batzuk partzialki asmatzea; lorpen txikiak puztu eta edertu garaipen laudagarriak bihurtu arte; gertaera batzuen arteko segida eta beste gertaera batzuk apartatzea, testuinguru espezifiko batean arreta jarriz, horiek guztiak memoria kolektiboa distortsionatzeko baliagarriak izateaz gain (Baumeister & Hastings, 1998), diaspora kolektibitateen apartekotasunen oinarri sendoak bihur daitezke. Hala eta guztiz ere, transmititua izan den eta gazteak bereganatu duen migrazio esperientzia hauen sinesgarritasunetik haratago, migratzailearen esperientziaren *funtzio eta esanahiei* erreparatu beharko zaie. Migratzaile-heroiaren nolakotasun hauetan kokatuko dira, bederen, *memoriaren esanahi sozialak*.

Mi bisabuelo paterno era de Zuberoa. Lo sé porque tengo la partida de nacimiento. Y del resto de mis bisabuelos sé que una era de Bilbao, otro de Navarra...Igual todos se conocieron acá porque todos venían de chicos (de pequeños). A mi viejo (mi padre) siempre le admiraba eso: el coraje que había tenido mi bisabuelo que, así, a los 15 años se habían despedido de los padres y que se habían subido al barco sabiendo que no iban a volver. Pero bueno, lo hacían porque ahí no había mucha oportunidad y había que hacer algo para vivir ¿no? (...)

Eso que hay en los pueblos más que en las ciudades grandes: que los vascos fueron los que llegaron a trabajar en el campo y fueron un poco los que hicieron, digamos, el lugar, viste. Eran como la gente que trabajaba mucho, como la que se hizo de abajo y logró, digamos, construir su familia, hacerse de su cachito de tierra, y eso... todo ese jeite ¿no?, que el vasco que trabaja, que está callado, que tiene palabra y todas esas cosas. Si bien yo no tenía ese cuento muy armado ni nada, yo realmente lo sentía por haberlo visto a mi abuelo, y a mi viejo (a mi padre). Gente que siempre trabajó y fue muy luchadora, siempre metiéndole para adelante, se las rebuscó para ir haciendo cosas, para conseguir todo para la familia y así, construir (Damián Solozabal, 27, erreferente ohia, Rauch)

Argentinara heldu aurretik familia-bizitza gogorraren inguruko suposamenduak, itsasontziratzen den urte goiztiarrak eta zalantzak beteriko etorkizunari nola egiten dion aurre, kontakizun epikoa hasteko modu egokia izaten da. Narrazioaren berreraiketan azpimarratutako elementu apur hauek aski ezagunak diren garaiko argazkien xehetasunak osatuko dituzte: kaian azken agurra, itsasontzira igo, ezezagunerantz astiro kulunkatu, itsasoz bestaldean proiektutako dudak eta esperantzak lagun. Bakar-bakarrik eta ezer gutxi eskuartean migratzaile-heroi gaztea portura heldu eta periplo migratzailea hasiko da Argentinatik barrena.

Erreferentzia espazialak nahiko lanbrotsuak dira. “Han”, –Euskal Herriko herri konkretu batzuetan–, familia handiak, aukera gutxi, bizitzeko modurik ez. “Hemen”, –Argentinako landa guneeetan–, aberastasuna, zabalera; egoera gogorra baina betiere aurrera egiteko modukoa.

**Argentina agintzapeko lurralde** gisara identifikatuko da, hots, oparotasunaren lurraldea edo aukeren lurraldearekin, amerikar mitoaren baitan. Migratzailea, berriz, herria eraiki edo lurra ereiteko behar-beharrezkoa den lan indarra, herriaren garapenaren bermea.

Migratzaile-heroi gaztea migrazio-periploa bukatu eta Argentinan finkatuko da azkenik. Bizitza berri bati hasiera emango dio eta, honekin batera, memoria kolektiboan sustraitzen diren zenbait mito eraikitzeke oinarri gehiago finkatu. Migratzaile-heroi gazteak lanerako aparteko indarra, konstantzia, ausardia duela esango da; familia osatzeko determinazioa; iraganari begiratu beharrean, aurrera egiteko nahia; bere egoeraren hobetzea eta goranzko mugikortasun soziala eta guzti lortuko ditu.

*Lanak* diaspora identitatea zentzuz beteko duela esan daiteke. Batetik, ogibide konkretuetan aritzeagatik euskal kolektiboa osatu eta aparteko kolektibitate moduan irmotuko delako. Bestetik, lanaren inguruan kokatuko direlako euskal nolakotasunak edo euskal diasporari atxiki zaizkion estereotipo aski ezagunak: vasco –langile fina, indartsua, burugorria, prestua; vasco–, hitzekoa, konfiantzazkoa, zuzena, bidezkoa; vasco- itxia, bakartia, isila, hitz gutxikoa, sentimenduak eta emozioak agertzen ez dituen, eta abar.

(Nire berraitona) Nafarrokoa zen. Nire amonak beti kontaktzen zigun nolakoa zen, oso pertsona ona zela, lecheroa zela eta oso humildea. 1916an itsasontzian (etorri zen) eta sendiaren pena hau da... nire aitonak (buelatu) nahi zuelako baina ezin zuen. Ez zuen dirurik eta oso, oso, oso gaizki etorri zen hona. Baina gero, ahal (izan) zuenean, ez zuen nahi. Pena edo tristeza ematen ziolako.. tenía como un... (...) Era muy cerrado, algunas cosas decía pero... ¡ojalá yo hubiera podido conocerlo!, para hablar en euskera y preguntarle. Pero él tenía como mucho dolor acordarse de allá... Lo transmitía en el coro, cantaban canciones vascas, eso sí. Según hablo con mucha gente se daba varias veces en el inmigrante, ese sentimiento de..., -no sé cómo llamarlo-, como de tristeza, o de ensimismarse con lo que era todo el hecho de haber venido, que debe haber sido re fuerte para ellos. Llegaban noticias de allá y se ve que lo escondían y estaban en una caja que nadie la podía abrir, y estas cosas (Luz Barrena, 26, euskara irakasle, Bahía Blanca)



Kontakizun horietan protagonista nagusi bi daude: **ahaide migratzailea eta gazte-narratzailea bera**. Familia istorioen, Argentinako historiaren eta modu xumeago batean bada ere, Euskal Herriko historiaren zertzeladak definitu eta bertan kokatzen da gaztea. Maila intimoa, erdibideko mailak –familia istorioak esaterako–, eta maila historikoa gurutzatuz (Augé, 1998), hangoa eta hemengoa, iragana eta orainaren arteko loturak eraiki eta indartuko ditu.

Gaztea urruneko iraganean sartu eta orainera bueltatzen da. Izan ere, ez dago iraganera bueltatzerik iragana berreskuratzeko, orainaldia eta etorkizuna begiratzeko baizik. Gaztea ahaidearen bila doa, berarengana hurbildu eta elkarrekin bidearen parte bat egingo dute. Baina gaztea ez da berarekin mimetizatuko, distantziak gordeko ditu. Horretan datza, hain zuzen ere, memoriaren alde dinamikoa: momentuko behar, kezka edo interesen arabera memoria aktibatu eta egungo esperientzien arabera lehengo gertaerak berrinterpretatu.

Zentzu horretan, migratzaile-heroiaren adinari erreparatuko zaio euren egoera aztertzeko edo Argentinako egungo gazteriarekin konparatzeko; zauri mingarrietan sakondu baino, migrazio esperientzia gogorak aintzat hartuko dira jarrera sozial eredugarriak aldarrikatzeko; praktika kulturalen garrantzia adierazi eta hauen jarraipena justifikatzeko; migrazio esperientzia epiko-dramatikoa Argentinan lausotzen direla azpimarratuko da, Argentinaren potentzialtasunak zeintzuk diren goraiatzeko; egungo Argentina gorabeheratsuan ezustekoei buru egin eta aurrera egiteko modurik badela birgogoratzeko...

En mi caso, mi familia nada que ver, o sea, mi abuelo es tano, -es italiano-, el *man'lardela'pastaluta*, el domingo a la mañana, ¿viste? Todo, todo... y él siempre me hablaba de los vascos, de los Irazuzta, de los Ibarguren, de los Iraztorza, de lo rectos que eran, de que la palabra es algo que es tremendo, y que esto, que el otro... (...) La historia de mucha gente, que ha venido de allá... y bueno... cómo cambia el tiempo ¿no? Porque uno se pone a pensar en todo y dice: uno hoy día, teniendo tantas cosas, hay veces que se siente perdido, que no llega a nada. Y esas personas que vinieron sin nada, que tenían la edad que tengo yo. Y vinieron con una expectativa de decir 'bueno, acá arranco recién', ¿no? Y cuando uno hoy cree que a los 25 ya tiene que estar hecho, ¿viste? Ya no existe la positividad, y la iniciativa. La gente no tiene iniciativa, no tiene... Y acá en la Argentina en cualquier momento te cambian las reglas (Emmanuel Pérez, 22, dantza irakasle, Bahía Blanca)

Bidea iragateko eta bidea egiteko beharrezkoa da memoria, norabideak zehazteko gida inportantea. Neurri berean, identitate jarraipen dinamikak nahiz ez-jarraipen dinamikak bete betean hartzen ditu. Bada, diaspora belaunaldi gazteekin batera ingurua interpretatu eta izendatzeko eroale berriak datozela esan beharra dago, edo beste era batera esateko, “eskuragarri dagoenaren berrikusketa; dagoeneko probetxuzkoa ez dena ahazten irakasten digu, oraindik ere konkistatu ez denaren atzetik ibiltzea” (Mannheim, 1987, 213).

Oroitzapenak ez ezik, **ahantzurak ere paper aktiboa** izango du, beraz. Ahaztu egiten da, besteak beste, oroitzapenak exijitzen duen esfortzu eta nekeak ekiditeko, nostalgia edo bakardadetik ihes egiteko, orainaldiari paso emateko (Augé, 1998). Ahantzuraren bila abiatu eta oroitzapenekin topo egin daiteke, halere. Ahaztura gogoratzeko modua izan daiteke orduan, karentzia eta hutsuneak bilaketa berriak inplikatzeko dituen-eta.

Esan ez dena interpretazio berriei atek irekiko dizkio. Instituzio edo nagusiak isiltzeak narratioak harik eta misterioitsuago, fantastikoagoa bihurtzea edo kuriositatea piztea dakar. Gogoratzen hasteko aitzakia izan daiteke, norberaren inguruan gehiago jakiteko eta besteei transmititzeko. Gazteak berak hasitako bilaketak eta lortutako ezagutzak direla-eta, diasporako gazteak posizio berriak hartuko ditu. Are gehiago, *belaunaldi komunikazio-harremanari buelta emango* dio: oraingoan gazteak nagusiari transmititzen dio.

Los abuelos de mi abuela eran vascos. Para mí son mis tatarabuelos recién. Pero mi abuela no era muy de contar esas cosas, hablar sobre el tema. Y después que yo aprendí euskera se acordaba de todas las cosas: los números, los colores y esas cosas, palabras. Y yo le decía: ‘pero abuela, ¿por qué nunca me hablaste así?’ ‘¡Tengo que ir a aprender yo para que vos...!’ (risas) Es como que la abuela nunca se molestó en averiguar mucho más tampoco. Averigüe yo, ver el acta de matrimonio. Yo soy la primera en participar en el Centro. En mi casa como que la vasca de la familia soy yo (Eugenia Vázquez, 30, euskara irakasle, Paraná)

Etxekoen eta batez ere neba-arreben interes falta, gurasoen ezaxola, nagusien transmititzeko borondate eza eta, oro har, ahaztu nahi dutenen guztien aurrean gazteak paper protagonista hartu eta bere jarrera eta partehartzea medio, ingurukoak Euskal

Etxera hurbildu eta partehartzera gonbidatuko ditu. Kasu horietan familia loturak indarberritzeko bideak izango dira memoriak.

Aipatutakoaren harira, transmisio iturri eta istorio edo historia berreskuratzeko edo bereganatzeko baino, Euskal Etxeak interesa pizteko eta gehiago ezagutzeko motibazioa eskainiko du, bide batez batasun eta jarraipen ilusioak elikatu ditzakeelarik.

Ellos vinieron antes de la Revolución de Mayo, que fue en 1810. Yo soy la quinta generación de argentinos, o sea que ya es... no es algo pueda decir “mi tatarabuelo...” (risas). Eso es algo que me crea cierta curiosidad, de vez en cuando investigo, veo. Fui al Centro Migratorio de la Argentina, no me pudieron dar mucha información, y... ¡y nada!, sigo en eso. Es como una mezcla, se puede decir. Algún día la llenaré, y mientras que hago eso trato de seguir aprendiendo más el idioma, y lograr mayor conocimiento, se puede decir (Miguel Echeperé, 22, euskara ikasle, CF)

Oroitzapen eta ahanzturak epe konkretu batean kokatu badira ere, iraganak oraina eta etorkizuna konbokatzen ditu. Argentinaren historia modernoa berreskuratu eta argentinaren identitatearen inguruan, aukeren eta aukera ezen inguruan mintzatzen da memoria. Halaber, identitate indartsu zein identitate karentziaren inguruak islatzen ditu. Baina hau narrazioaren parte bat besterik ez da. Ondoren aurkeztuko ditugun diaspora kideen beste bi profil, -gerra ondoko iloben eta euskal oinordekotzarik ez duten gazteek-, bidea jarraitzeko, denbora, espazio, protagonista, iluminazio eta itzal gehiago ekarriko dituzten bidelagunak izango dira.

### **5.1.1. Gerra ondoko ilobak**

Argentinara heldu eta hemen egonkortutako azken migratzaile kolektibo handien ilobak dira, Euskal Herrikoak (1936-1937ko gerraren ondoren, 1941-1946 bitartean Argentinara heldutakoak) eta Bigarren Mundu Gudako (1939-1945) militarrek, errefuxiatuak eta gerra kaltetuak.

Guztiak garaiko Juan Domingo Perón presidentearen lehen agintaldian (1946-1952) helduko dira. Ordurako aldaketa inportanteak antzeman daitezke maila ekonomiko, politiko eta soziokulturalean. Transformazio horiek laburkiro azaltzeko izenburu adierazgarria enplega liteke: “munduko garautegi” gisa identifikatzen zen

Argentina “Argentina industrialarekin” identifikatzen hasiko da, zeinak “herri langilearen” protagonismoa aldarrikatuko duen, landa eremuko nekazari, abeltzain eta gauchoa baino. Peronismoak landa eremu jatorriko langileri masaren hiritartzea bultzatuko du, hau da, hiri-bizitzara bultzatu, hedatzen ari den industria-kapitalismoaren kontsumoetara orientatu eta soldatapeko hiritar baldintzatik harago sortutako klase-interesen gauzapean saiakera oro oztopatu (Izaguirre, 1994)

Transformazio azkar horien baitan migrazio pertzepzioan ere aldaketak gertatuko dira migratzaile-heroitik guztiz ongiatorria ez den militante politikoa edo errefuxiatuaren etorrerarekin. Erbesteratu eta atzerritar nozioak negatiboak bihurtuko dira, “ideologia subertsiboak inportatu” eta gatazka sozialaren ardura eurena delakoan, argentinaren elitearekin soziabilitate esparruak konpartitu ez dituztelakoan, Argentinan egonaldia betiere mugatua izan eta erreferentzia nagusiak jatorrizko herrietan mantenduko dituztelakoan (Devoto, 2003). Halere, migratzaile-kolonizatzailearen irudia indartsua da oraindik ere eta migrazioa mesedegarria denaren ideiak bere baitan dirau, Argentina egoera ona dagoenaren adierazle, Argentina agintzako lurraren lekukoak. Peronismoak europar migrazioari ateak zabaldu eta migratzaileen aukeraketa burutuko du, parte-hartze politikoaren bitartez etorkin-kolektiboen integrazioa bultzatuz.

Testuinguru berri horretan gerra ondoko iloben oroitzapenen esanahi sozialak bestelakoak izango dira. Espazio, denbora eta protagonista berriak agertuko dira; iloben doinu emozionala bera da eta jorratutako gaien kointzidentzia, erabatekoa. Bestalde, aipagarria da gerra ondoko iloben testigantza gehienak Euskal Etxe historikoetan topatu ditugula, hain zuzen ere, zentro hauen erreferentzialtasuna diasporan handia den horietan, errefuxiatu eta gerra kaltetuak ustez masiko parte hartuko duten zentro horietan.

Ezbairik gabe, **gerra** da narrazioetan azpimarratzen den elementu garrantzitsua. Mende hasierako estampa berdintsuak errepikatzen diren arren, detaile handiek argazkiak berrenfokatuko dituzte: European geratzeko inolako aukerarik ez, errepresio edo jazarpenetik ihesi itsasontziratua, eta azken agurra, oraingoan, berriz elkar ikusiko dutelakoan.

Komunitate frustrazioen iturri, familiak banatzen direneko beldurra, mina zein pribazio sentazioak berpizten dituen gerrak, memoria traumatikoa eta familiaren isiltzeak (Arriaga, 1998) inplikatu ditzake. Baita ere batasuna, laguntasuna, konplizitatea, etxe berrien eraikuntza eta familia bateratzeak.

Gazteak nagusien esperientzia lazgarriak eta oroitzapen traumatikoen berri du. Erabateko transmisioa dago, ordenatua eta berez batasuna duena. Eskolan baino etxeko espazio intimo-afektiboan transmitituko dira jarrerak, ohiturak eta arauak. Ez dago konfusiorako tarterik; dena da normatiboa eta agerikoa. Transmisio eta bereganatze prozesu horietan *emakumeak* zeresan handia du; gerra ondoko iloba asko eurekin denbora luzez bizi eta gertuko harremana du gainera. Amamaren ahotik jasoko dira jaso-beharrekoak; identifikazio komunitarioak ezartzeko erreferente politikoak; jarrerak orientatzeko anekdota eta hito aberkoiak.

Cuando llegaron en 1950 vinieron con una imagen fea de Italia, de Europa. Mi nona (mi abuela) dice que es argentina. Tiene todo eso de italiana: me habla en su dialecto, me canta canciones, todo, pero le quedó una espina medio fea. El nono (mi abuelo) estuvo en la guerra, lo llevaron para un montón de lados, estuvo prisionero, después se escapó. Como encima era medio pobre, -como la mayoría de la gente que iba a la guerra-, le quedó esa espina de decir ‘Italia me usó y me tiró’, por decirlo así. Siempre decía que no quería volver, decía: ‘yo soy argentino, acá me dan la posibilidad, crecí acá’. Aparte se amalgamó tanto la identidad del argentino al italiano, hasta de comer tallarines el domingo, cualquiera, hasta el que no es italiano. Esa costumbre quedó muy argentina, más cercano.

Del lado de mi viejo (de mi padre) mi abuela dice que sus papás eran vascos. Mi papá me dice, ‘sí, son de allá’, pero no le interesa, no le da mucha bola (mucha importancia). Igual desde que yo empecé (en el Centro Vasco) está mucho más interesado. Ya viene y me pregunta cosas, o ve algo en el diario y dice ‘Che ¿cómo es esto?’, ‘qué quiere decir tal cosa’. Algún día tendría que averiguar, investigar o ver papeles. Estaría bueno para conocer un poco más de uno. Y bueno, como que toda esa parte la enganché un poco, ‘uy, estaría bueno ver en cierta forma las raíces’, entonces aparecí acá (Gerardo Pino, 25, euskara irakasle, CF)

**Erreferentzia espazialak argiak** dira, distantzia sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalak handituz doazelarik. “Han”, Europan, gerra, hondamena, suntsipena; kanporaketak, infernua, karentzia, gosea, heriotza. “Hemen” Argentina, langile eta erbesteratuentzat *harrera-lurraldea* eta oraindik ere, oparotasunaren lurraldearen irudiari eutsiko diona.

Argentina eta Italia/Europa edo Euskal Herria/Europa espazioekin batera, hirugarren espazio garrantzitsuak agertzen dira: *kolektibitateen etxeak*, *Euskal Etxeak* euskal diasporaren kasuan. Kulturen eta politikan aktibo eta kolektiboki jarduteko espazioak, espera luzea lausotzeko topagune eta sozializazio zentro bezala indartuko dira. Eurek eta euren ondorengoek masiboki parte hartuko dute bertan. Gerra ondoko ilobek parte-hartze horri segida ematen diote, belaunaldi jarraikortasun argia adieraziz.

Kolektibitateen etxeak zentro geografiko, sinboliko eta sozial inportanteak bihurtuko dira. Kolektibitateen etxeetan eta migratzaileen etxeetan zabalduko dira, oro har, zenbait abitu, bizi estilo, kultur-tradizio, izateko eta egiteko erreferentziak; politika, herria eta elkarkidetzaz ulertzeko zenbait irizpide. Baina “loraldi” honekin batera kontuan hartu behar da *mailakako galera* zabalduko dela, guztien artean, euskararen aurrean gaztelania indartzearena. Halaber, argentinar ohiturak eta espresioak etxean sartzearen justifikazioa, hots, argentinar murgilketa eta nolabaiteko integrazioaren beharra argia da gerra ondoko iloben artean. Horretan jarriko dute enfasia, belaunaldien arteko *gertutasuna nahiz urruntasuna* aldi berean produzitzen dela ikusaraziz.

—Mi abuelo estuvo peleando para la República, y sí, en cierta manera sí, no tenían trabajo y un día le dijo a mi abuela, ‘nos vamos para América’ y fue a Argentina porque tenían ese tío.

—En esa época vos subías a un barco y no sabías a dónde terminabas (...)

—Siempre dicen que están eternamente agradecidos a cómo le abrió la puerta Argentina, jamás iban a hablar mal, como que llegaron y tenían su lugar, encima en un Centro Vasco se sentían como en casa, venían vascos en cualquier momento y siempre tenían con quien hablar. Así que no, no se les debe haber complicado (...)

—Los jóvenes que conocemos todas esas historias, los hijos de esos padres de esa época, es como que asimilás y querés seguir reivindicando. Escuchás a tu abuela que en el barco cuando venía de viaje se metió un pañuelo que tenía la ikurriña, la cara de Sabino Arana y lo trajo, y si la enganchaban la podían llegar a matar. Y es como que de chiquito escuchás todas esas historias y no tenés opción de pensar de otra manera, y algunos ya empezamos a escuchar otras campanas...

—... y después que te quieran medir un poco te choca también, te quieran poner un poco el freno, es chocante, cuando vos hiciste tantas cosas, que me vengan a decir a mi ahora, ‘tengan cuidado, fíjense’, es chocante. Vos decís cómo vos lo podías hacer y estabas convencido y ahora nosotros no lo vamos a poder hacer, es medio...

—Tienen miedo a que nos vean mal, a que nos tengan marcados, no sé cuál es el miedo en realidad...

(Iker eta Josu Alava, 25-22, gazte erreferenteak, La Plata)

Zalantza izpirik gabe **aitona-amonak dira protagonista** nagusiak. Nahiz eta orainera iragateko zenbait elementu errepikatu (arbasoen adina edo arbasoen gaztetasuna migratu zutenean, Argentinan bizi izandako elkarguneak eta aukerak, Argentina beraren oparotasun garaiak, eta abar), narrazioan apenas interbenitu gabe mintzatzen da gaztea. Gazteak posizio bereizgarria hartuko du betiere.

Migratzaile-kolonizatzaile-heroia baino, errefuxiatu edo gerra kaltetuak, borrokalariak, agertuko dira narrazioan. Biak ala biak bizitzari eta traba guztiei aurre egiteko kapazak direnak; dena emateko prest daudenak.

Arestian lanaren zentraltasunaz aritu bagara, oraingoan *politikotik* hartuko du zentzua identitateak. Horren inguruan kokatuko dira, hain zuzen ere, euskal kolektibitatearen beste nolakotasunak: vasco-itxia, vasco-separatista, vasco-vasco (ez espainola ez frantsesa) eta vasco- abertzalearenak. Bestalde, identitate politikoaren muinean kokatuko da nagusiki Euskal Herria/Espainia konfrontazio ardatza.

Abertzaletasunari dagokionez, espresuki, Euskal Etxeetan PNV-EAJ alderdiaren tendentziak nagusitzea eta “beste kanpai batzuk” isiltzearena, gainontzeko indar abertzaleak edo frankismoaren kontrako bestelako indarrak kanporatzearekin batera. Esan gabe doa diaspora barruan gertatzen diren mugimendu hauek berebiziko eragina izango duela diaspora komunitateen identitate errepresentazioetan nahiz diaspora zentroetatik bideratzen diren orientabide ideologikoetan.

Aipatutakoarekin batera, azpimarratzekoa da politikaren zentzu konkretuak gerra esperientziatik eratorriak direla eta berebiziko eragina izango duela gazteen parte-hartze politikoari begira.

Mina, erresentimendua, beldurra, komunitatearen barruan sor daitezkeen zatiketa eta ukapenarekin harremanetan jarriko da, oro har, politika. Politikaren zentzu negatibo guzti hauek gazteen egungo parte-hartzea mugatu dezakete, nahiz eta goranzkoen gerra bizipenek indarra, adorea edo ausardiarekin ere harremanetan egon. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da iraganera begiratzen dela egungo esperientzia eta pertzepzioetatik abiatuz, eta egungo Argentinan gazteek duten politikaren zentzu negatiboak goranzkoen esperientziak (bir)interpretatzeko modua ere izan daitekeela.

Azkenik, goranzkoak zentzu guzti horiek eta orientabide zehatzak transmititu ditzake, eta ilobak horri dagozkion jarrerak bere egunerokoan garatu hein batean, anekdota txiki batek gaztea sakoneko gogoetara bultzatuko duelarik...

Una de las cosas que me arrepiento es que cuando me han dado cocina española mucha bolilla no le daba (no le hacía mucho caso), me era un rechazo a lo que en su momento tanto dolió.

Mi abuela no hablaba con dolor, no, no hablaba con odio. Le han matado en la guerra a un novio, que creo que hubiera sido el amor de su vida, -por más que a mi abuelo lo amó-, siempre habló de Andrés... Cuenta de una carta que le había dejado diciéndole 'no le tengas rencor a nadie', yo decía ¿Cómo puede ser que esté a cinco horas de fusilarlo y que esté diciendo 'no le tengas rencor a nadie'? Pasaban esas cosas. Mi abuela decía que iba en la escuela con la ikurriña en el doblete de la pollera (la falda), como diciendo, 'mirá la llevo igual', obviamente un poco así de rebelde pero que daba la sensación de que evidentemente lo sufrió, y si la llegaban a agarrar o si decía alguna palabra en euskera, -cuando para ella era lo más normal-, le daban... pasa hoy en día, que uno el resentimiento lo tiene.

Yo escuchaba eso entonces siempre estaba a modo de título 'vasca si española no', y bueno después te das cuenta que en verdad no pasa por títulos, entonces hay que dejar ser tan reactivo para que las cosas fluyan un poco más, la gente enseguida si no es como que te hace a un lado.

Y bueno, eso me pasó cuando me pidieron cocina española (reímos). Todo eso me pasó, así que sí, es medio... Todas historias que tienen que ver con uno y que en verdad uno en la familia las siente, las cuenta. Yo con mis hermanos siempre me he sentado a hablar del tema cuando realmente uno sabe que la vive igual (Iratze Arregui, 28, dantzari ohia, Rosario)

Iloba gertutasun-urruntasunaren artean kulunkatuko da. Batetik, jarraikortasunaren beharra: txikitatik ikasi, entzun, ikusi eta dastatutakoak; goranzko migratzailearekin konexio zuzena izatearena; eta familia-istorioa familia artean konpartitzeak eragiten duen batasun sentrazioa. Bestetik, goranzkoetatik desberdintzeko premia: egiten dutela egiten dutela, goranzkoak esaten dituenetatik haratago, ilobentzat haiek "hangoak izango dira beti". Beraien bizitza, beraien lurra, beraien afektuak han daude hein handi batean. Buelta presente izan dute, eta askok familia eta lagunak bisitatzera bueltatu dira eta harremani eutsi diete.

Goranzkoen artean arroszkuntza determinanteagoa izan badaiteke ere, familia istorioak, gaztearen biografia eta Argentina/Euskal Herrira arteko zubiak eraikitzen dira. Iloben esanetan, aiton-amonek euren bizi-historia eta egunerokotasunaren parte bihurtu dute Argentina. Bi belaunaldientzat Argentinak zentzu sinboliko eta afektiboa badituela



adieraziko da. Argentinan lausotutako gerra esperientzia epiko-dramatikoa, Argentina harrera lurralde gisa irudikatzea, eta batez ere, Argentinari “*beti esker onak*” ematearen ilusioak, konexio horiek estutzen ditu.

Alaine estuvo metida mucho tiempo (en el Centro Vasco), mi abuela Pilar también, y es como parte de su vida. Ellas por más que vivan acá, en Argentina, están más pendientes de allá, del País Vasco, de Euskadi, que de acá. Siempre hablan de ello, les costó mucho porque ellos venían de una guerra, se separaron, te hablan siempre de sus amistades, sus cosas que quedaron allá, es cómo su casa.

Cuando ellos se fueron fue un infierno, cómo te lo cuentan, cómo fue la época de Franco... pero fue su tierra, fue su país y fue de ellos. (...) La abuela Pilar, es la señora que las vivió todas y te cuenta que tenés que luchar y que no tenés que bajar los brazos. Porque nosotros de un problemita así (de pequeño) nos hacemos un problemazo. Y ellos vienen y te cuentan la historia de cómo vivieron y vos decís ¡puta! Nos preocupamos por una pavada (por una tontería) y ellos que no tenían ni para comer, no sabían si iban a vivir, a los 12 años tenían que trabajar para poder mantenerse... y nosotros “queremos, queremos, queremos” y no luchamos por nada. Hay que mirar más allá, más arriba. La abuela Pilar te cuenta cómo vivió y vos decís: es una capa (es un “genio”).

Ellos siempre están agradecidos. Siempre. Porque Argentina les abrió un lugar como a cualquier otra persona. Tenés que estar en el lugar de ellos. Tenés que escuchar las historias de las demás. Ves la otra parte, la analizás de otra forma (Tamara Iturriaga, 19, dantzari ohia, Macachín)

Esperientzia horretatik ikas daiteke, jarrera erreferentzial, eredugarri eta goraiagarriak errepikatzen direnean. Oro har, badago goranzkoa miresteko eta entzundakoarekin txunditzeko motiborik; gazteek badaukate gogoeta egiteko betarik eta zalantzak asetzeko aukerarik.

Ilobek arretaz entzuten dute nagusiek esan behar dutena. Baina gazteak ere badu zeresanik eta zereginik. *Transmisioa bi aldetara* eman daitekeela eta neurri handi batean ematen dela azpimarratzekoa da. Gerra ondoko ilobak besteek egiten ez dituzten bidaiak eta hito aberkoiak burutuko ditu, nagusiari bizipen berriak kontatu eta objektu preziatuak gerturatuko dizkio.

Ilobak oroitzapenak –eta ahazturak– berpiztuko ditu, eta honekin batera, are garrantzitsua dena: aiton-amonak iragana gerturatzen duen bitartean, ilobak orainera gerturatuko ditu aiton-amonak...

Mi abuelo nació en Bilbao. Vinieron en la época de la guerra, en el treinta y seis. Vinieron mi abuelo, la hermana, la madre y el padre...se radicaron aquí en Buenos Aire, mi abuelo armó su vida, le fue bien (...). Volvió hace mucho tiempo, hace unos treinta años. Y él quería volver pero bueno, tiene problemas de salud y a su vez se le hace difícil. Pero cuando sabía que yo iba para allá se emocionó bastante cuando le traje las fotos y le mostré los lugares. Fui a donde el padre tenía la relojería y él vivía y conocí un poco y con una cámara de fotos lo filmé y después se lo mostré... él estaba muy contento y de hecho tiene... tiene fotos tuyas de chico, de cómo era la ciudad antes y demás. Cuando yo fui toda la parte moderna, toda la parte del otro lado de la ría... cambió mucho... (Pedro Larra, 20, dantzari ohia, CF)

### 5.1.2. “Ez-ondorengoak”. Euskal oinordekotzarik ez duen gaztea

Memoria kolektiboaren bidez hangoa eta hemengoa; iragana, oraina eta etorkizuna; goranzko eta ondorengoaren artean, zu eta nire artean, haiek eta gure artean, bideak eraikitzen dira. Artikulatzeko gaitasuna izateaz gain, eta komunitatearen historia eta bilakaerari erreferentzia egiten dionean, batasun zentzua elikatu dezake memoria kolektiboak.

Desplazamenduak gogoratzean jatorri komun bat inbokatzen dabil diaspora. Interesgarria bezain beharrezkoa suertatzen da, horrenbestez, euskal diasporan parte hartu eta euskal ondorengotzarik ez duten gazteek memoria kolektiboa eraikitzeko bideak ezagutu eta oroitzapen zein ahanzturen esanahia sozialak identifikatzea. Iturri batzuen arabera euskal oinordekotzarik ez dutenek Euskal Etxeetan parte hartzen duten gazteen %12 dira (Emakume Abertzale Batza, 2004), nahiz eta kopuru hori handiagoa izatea pentsatzekoa den, genealogiak (bir)asmatzeko erabiltzen diren mekanismoak euskal oinordekotza dutela sostengatuko duten gazteek ere enplegatuko dituzte-eta.

Ondorengotzari dagokionez, lehenik eta behin pertsona bakoitzaren aurretikoen segida edo genealogiaren gaiari heldu behar zaio. Jatorriari eta jatorri horren jarraipenari erreferentzia egiten dio genealogiak. Sorrera bat edo gehiago; segida lineala edo ez lineala ote den, ez da zehaztuko. Halere, diasporan genealogiak aztertzen direnean “familia jatorriarekin” zerikusia ei du; pertenezia, historia, biografia, odola, arraza eta leinua erraz nahastuko dira. Guztien artetik, abizenak dira genealogia horien iturburu preziatuena, jatorriaren proba ukaezina, komunitate batekin pertenezia erakusten duen zalantza gabeko marka, integratzeko edota baztertze irizpide nagusienetakoa.

Ildo horretatik, euskal diasporan abizen edo genealogiak duen garrantziaz asko esan da. Arestian aipatu bezala, Euskal Etxeak genealogiaren arrastoa eta abizenen pista jarraitzen dute kolektibitatearen kide potentziala identifikatu eta gonbidapena luzatzeko. Are gehiago, Euskal Etxeko kide izateko euskal abizena edukitzea exijitu izan dute luzaroan. Aurre baldintza bat ez denean, “euskaldunak” eta “euskal adoptatuen” arteko bereizketak egin izan dira.

Gaur egun ondorengotza eta arrazak diasporan duen garrantzia dela-eta, Euskal Herrian euskaldun izateko enplegatzen diren definizio zabalagoekin alderatuz, diaspora identitatea kontserbadorea, sabinista-aranista, tradizionala edo baztertzaitzat jo izan da, euskaldun izateko euskal arbasoak behar direla erantzun ohi baitute diaspora kide gehienek, nahiz eta 18-30 urte bitarteko diasporako gazte gehientsuentzat euskaldun sentitu eta euskaldun identifikatzen den pertsona oro euskaldun gisa onartua den (Totoricagüena, 2003)

Argentinako euskal diasporan belaunaldien arteko ezberdintasunak ikusarazten direla ondorioztatu daiteke, diasporako gazteek ez baitiote genealogiari aparteko garrantzirik emango, formalki behintzat. Izan bada, ordea, kontu errepikakor bat, narrazioan zeharka eta oso gutxitan modu irekian edo zuzenean planteatzen dena, horren garrantzia gutxitu asmoz, apika. Dena den azpimarratzekoa da genealogia eta abizenen arreta diasporari soilik ez dagokiola: diaspora komunitatearen barruan ez ezik, diaspora komunitate kanpoan genealogia eta abizenen inguruan problematizatu egiten dela, hots, egungo argentinarrak gizartean presente dirauen gaia badela.

- Lo primero que preguntan las amigas es si podés venir si nos sos vasca
  - Eso siempre lo preguntan. ¡Obvio que no!, si no tenés apellido venís igual. Si te gusta ¿quién te lo pide? Si tenés ganas, es algo que te fluye. Cada cual...
  - Eso del apellido, ‘si vos no sos no te vas a prender’, dejar de lado porque ‘como no sos un inmigrante de allá o no tenés el apellido de allá...’
  - Por ejemplo yo en Bariloche conocía unos que eran vascos y había otros que se habían prendido (se habían animado), porque eran los amigos, y les encantaba. Es algo que te nace. El apellido obvio que es importante, pero tampoco tenés que ser tan estructurado que ‘si no tenés el apellido vasco no podés bailar’
  - Va a haber más gente que se una, y eso estaría bueno, que se difunda más el Centro Vasco y que la gente venga porque le guste, no solamente porque tenga el apellido sino porque realmente lo sienta y que tenga ganas de aprenderlo.
- (Isabel Trincado eta Sonia Mikelena, 16-17, dantzariak, Pergamino)

Abizenak biografia datu edo kokapen geografikoaren inguruko informazio garrantzitsua eskaini eta jatorri komuna dutenak batu ditzake. Baina horrek ez du esan nahi bazterketa irizpidea izan behar denik; aho batez, jatorri konkretu hori ez dutenak baztertzearen ideia errefusatzeko dute gazteek. Betebeharra edo aukeraketa, egituraketa zorrotzak edo fluxua, ixteko edo zabaltzeko aukerak planteatzen direnean, gazteek erantzuna zein den ondo dakite.

Aipatutakoak ez du esan nahi **diaspora komunitate barruan diferentzia bat** sortzen hasiko ez denik, euskal jatorrikoak eta “euskaldun adoptatuak”, hau da, euskal ondorengotza dutenen eta euskal ondorengotzarik ez dutenen arteko mugak ezartzen hasiko ez direnik.

Uste orokorraren arabera, lehenengoak modu naturalagoan biziko du identitatea, jarraipena eta konexio zuzena zalantzagabekoa baita. Bigarrenengoak edo jatorri marka ez duenak, pertenezia modu artifizialagoan biziko duela, asmatutako pertenezia bati helduko dio, konexio eraikiko du euskal jatorririk ez baina “euskalduna izatera heltzeko”.

“Ez ondorengoek” euskal oinordekotza dutenen mirespena jasoko duten arren, euskal diaspora komunitate barruan euskal oinordekotzarik ez duen gazteak dituen bizipenak, sententzioak, irudipenak, arraz ezberdinak izaten dira. Identitatearen ustezko gabezia bati aurre egingo dio; genealogia eta abizenak birbaloratuko dira, oinordekotza anitzak dituztela azaltzeko. Identitate nahasketak, Argentina arrazen kresolaren mitoa, eta gaztea horren parte bezala, plazaratzen dira.

Tengo una mezcla bastante interesante yo (risas) de sangre... tengo desde aborígenes hasta españoles, italianos, alemanes... (...) Muchas de las chicas de acá tienen apellidos bien vascos, ¡que se caen de vasco! y que tienen toda la familia, con toda su historia acá en el Centro Vasco y es re lindo... me encantaría... aparte creo que ellos lo sienten más que yo todavía el tema de tener el apellido vasco, sangre vasca...el ascendente... es otra visión (risas)

Es que bueno, en mi caso no lo siento del todo... yo sé que no es tan importante pero te lleva en cierta manera..., no es una traba para que vengas a aprender ni nada, pero por más que vos lo sientas lo sentís de otra forma. Soy vasca pero por elección, no porque..., ¿me entendés?, pero bueno (ríe), Yo sé que si busco en algún lado tengo que tener uno, porque viste cómo es, pero todavía no ha surgido ese ascendente tan directo (Gloria Frondizi, 18, dantzari, Pergamino)

Arrotza “historia gabeko pertsona” dela kontsideratuko dute ingurukoek (Schutz, 1974), iraganik gabekoa eta, zehazki, iragan komunik ez duena. Hau dela eta, arrotzak momentuz ez duen lotura, pertenezia edo gertutasuna bilatzeari ekin diezaioke.

Abizenak errekurtsio espresiboak dira gaztearen eta familiaren identitatean tematu edota euskal jatorria sinbolikoki asmatzen ahaleginduko denarentzat: kolektibitatearen iraganaren ondorengoa sentitzeko, agian ez duten belaunaldi sakontasuna birsortzeko, biografiaren datuak manipulatzuz familia herentzia bat etorri eta kolektibitatearekin jarraipen bat adierazten du, are gehiago migrazioak belaunaldien ez-jarraikortasuna adierazgarria bihurtzen duenean (Ramírez Goicoechea, 1991).

Komunitatean integratzeko konexio posiblea bilatu eta, zergatik ez, **jatorria asmatuko da**, horretarako zenbait estrategia erabiltzen direlarik. Izen-abizenen jatorria edo erroa identifikatu eta moldatu; izen-abizenak euskaratu edo euskal ezizenak jarri eta zabalean erabili, adibidez, e-postaren erabiltzaile izena aukeratzeko orduan.

Deiturak erakusgai direnean, zenbat eta ponpoxoagoak edo burrunbatsuagoak izan, zenbat eta konplikatagoak eta identifikagarriak suertatu, hobe. Aitzitik, arreta beste nonbaiten kokatu beharra dago: begi-bistan horren zorrotzak diren genealogiekin jolasten dela, hauek asmatuz edo transformatuz, hau da, dagokien ustezko seriotasuna edo zorrotasunaren aurrean burla eginez.

Es un nombre de origen mapuche pero transformado al castellano por Don Pedro de Mendoza, que fue un conquistador importante. Significa tigre y fue un héroe importante. En 1500, ¡más o menos! (risas) Tengo todo mezclado, tan... Por un lado un héroe aborigen, por otro un conquistador, no sé, ¡cualquier cosa! Tanto fanatismo, llegaba tan absurdo que una chica de acá en el centro decía que este nombre era vasco porque “nau”. ‘Es posible que sea vasco, fíjate bien’ Le digo ‘no, es de acá, es aborigen’ Y lo puse en el mail, quedó así.

Tengo por lo menos cuatro razas mezcladas y totalmente distintas. En mi caso en particular me gusta preocuparme por eso y tengo mucha riqueza en ese sentido. Puedo aprender de muchas cosas al mismo tiempo. Y bueno, está bueno tener variedad, poder elegir. Eso es lo mejor (Nahuel Pereira, 23, euskara irakasle, Mendoza)

Narrazio horietan genealogien inguruko interesa duen **gaztea eta Argentina bera dira protagonista** nagusiak. Atzealdean, –backstagean, nonbait–, Europar espazioa bere osotasunean hartuta. Argentinaren europartasuna eta, beraz,

argentinartasunaren europartasuna nabarmenduz, bi espazio garrantzitsuen arteko distantziak neutralizatzea ahalbidetuko du.

Hibridismo edo lotura hertsia horrek markatuko du, era berean, bere baitan asumitutako partikularitasuna edo apartekotasuna. Funtsean, Hego-amerikar testuinguruan diferentziak trazatzea eta horrenbestez, “beti Europara begira” egoteko tendentzia esplikatu –edo justifikatzeko– joera.

Mi apellido siempre fue un problema, difícil de leer. En la escuela cuando el profesor se trababa yo sabía que era mi apellido (risas), me pasa siempre, lo tengo que deletrear. Siempre llamó la atención, y a mí me sirvió para tratar de entender de dónde venía. Es algo que tenemos acá los argentinos. No todo el mundo, pero saber de los orígenes... todos somos nietos o biznietos (...) Es en parte lo que nos hace distintos. Bueno, los argentinos tenemos la mala costumbre de creernos distintos a los latinoamericanos y en parte lo somos. Un argentino no se identifica con Latinoamérica al principio. El porteño sobre todo, es la personalidad más fuerte –y más odiada dentro de Argentina–, siempre se va a creer distinto. Nunca nos llegamos a sentir del todo latinoamericanos, no sé por qué, pero es así (Sebastián Echevoyena, 27, dantzari ohia, Pergamino)

**Arrazen kresola** osotasun interpretatibo-esplikatzaile gisa agertzen da, eskolan ikasia eta nagusitzen den bitartean ondorengoak aldarrikatuko dituen. Nahasketaren figura gisa, koktela litzateke bere errepresentazio grafikoetako bat. Argentina etorkinen herri gisa birdefinitzen da eta honekin batera, kultura berria bat erdiestea, guztien artekoa eta guztien artean diferentea.

Argentinak posible egin du oinordekotza anitzak batzea, gazteak familia historia aberatsak izatea. Migrazio-mugakideak deritzotenak ez dira aipatu ere egingo (espresuki, Uruguay, Paraguay eta Bolivia migrazioak), espazio eta denbora horretatik at daude. Europar irudikariari helduko zaio. Guztien artean, italiartasunari, espresibitatea (emozioak, keinuak edo tonua), ohiturak, abituak, pasta, pizza eta era askotako jakiak, italiar familia tradizionala, eta abar.

—Yo creo que es enriquecedor, más allá de los motivos por los que se dieron las migraciones. La sociedad Argentina es de una sociedad de descendientes de inmigrantes y ahora se toma más conciencia de qué pasa con la gente que eran nativos de acá. La cuestión de la otredad, como que uno va al colegio y las lista de apellidos y la mayoría son italianos, vascos, o lo que fuera. La identidad es esa, ‘de dónde venís’, ‘de Francia’. Como que se forjó eso.

—Los peruanos vienen de los Incas y los argentinos de los barcos.  
 —Cada uno tiene una mezcla adentro, apellido italiano, madre española y abuela...  
 —Bueno, yo soy en ese sentido soy un cocktail, (risas)  
 —Juntas cinco italianos, tres franceses y un polaco y ya está, ¡argentino! (risas)  
 —Yo directo no tengo nada. Pero yo soy Aguirre de apellido, no sé de dónde. Yo me construí argentina. Pero pertenezco a lo vasco. Lo que no se lleva en la sangre se lleva en el corazón.  
 (Elkarrizketa Taldea- Mistoa, Buenos Aires)

Arrazen kresolak, argentinartasuna bera, jatorriaren plusari dagokio, berezko aberastasuna eskainiko duena. Osotasun irudia ez ezik, gabezia, falta eta oraindik ere osatzeke dagoenari erreferentzia egiten dio kresolak. Euskal oinordekotza ez dutenen gazteen eskutik plazaratuko dira, berriro ere, identitate beteak eta identitate gabeziak.

Argentinarraren arrazen kresolaren mitoarekin beste zenbait mito agertuko dira, Argentina gizarte gazte bati lotutakoak, berria, trebatu gabea edo esperientzia gabekoa; ez horren modernoa, historia laburrekoa, elkarrekin egiteke dagoen Argentinaren irudia alegia.

Igual es loquísimo (es rarísimo) lo que pasa, no sé si es nuestra idiosincrasia, es Argentina... es muy difícil de explicarlo. Tiene que ver con la identidad que tenemos. Esta composición tan mixta que tenemos como sociedad me parece que nos hace así. Somos así, mezcla de muchas cosas, es rarísimo, ¡somos muy raros! (reímos) Tenemos que, como sociedad, aprender muchísimo todavía, muchas cosas. Pasa eso, que es una sociedad joven todavía. Me parece que le falta recorrer mucha historia (Damián Solozabal, 27, erreferente ohia, Rauch)

## 5.2. Egungo Argentinaren inguruneak...

Memoria kolektiboak espazio-denboratik iragateko gidak dira. Espazio eta denbora bati pertzepzio edo irudi bat egokituko zaio, ikusi dugunez, europar hondamendia eta Argentina agintzazko lurraldearen inguruneak perfilatzen dituen. Orainaldira bueltatzean, berriz, pertzepzioa erabat aldatuko da, Europaren inguruan eraikitako mito berriak amerikar mitoa ordezkatzeko duelarik, nolabait. Gainera, falta edo gabeziaren diskurtsoa mahai gaineratuko da, Argentina kanporatze-lurraldearen irudia indartuz.

Argentina ez da berdina. Aukeren lurraldea eta harrera lurraldea izatetik, gabezia eta eskasia, bazterketa eta kanporatzearen lurralde bezala gailenduko da. Hezkuntzak eta masa kontsumoak bereak egin dituela, Argentina modernizatu eta “argentinartu” dela sostengatuko da (Germani, 1974) eta azken urteetan, akaso, Argentina “hego-amerikartu” dela, Europa-Argentinatik aldenduko den bitartean, Argentinak bere “Hego-Amerikako destino tragikoarekin” topo egingo duela (Devoto, 2003) eta ondorioz, espazioen arteko distantziak ezinbestean transformatu direla.

Krisi ekonomiko, politiko eta sozial jarraituak sortu duen baztertuaren kontingentia gabeziak zeharkatzen duen modernitate hegoamerikarra badela agerian utzi dute, zeinak egunerokotasunean eta pribatuaren eremuan aldaketak produzitu; gero eta banatuagoak dauden munduen sorrera ahalbidetu; munduan kokatzeko logika eta memoria forma ezberdinak eragin; eta gazteen artean hiri kultura bizitzeko aldaera diferenteak ekarriko dituen (Wortman, 2000). Berriro ere garapenaren ideiaaren krisiak eragin zuzena dauka gero eta handiagoa den gizartearen antolakuntza -faltan (Wortman, 1991) eta, hitz bitan, Euskal Etxeko gazteak horrela ikusiko dute Argentina eta, espresuki, argentinaz gazteria:

—Sin compromiso

—Se perdió el compromiso con todo, la gente más perdida, le importa...

—...nada...

—Vivir la vida, o sea, no sé... que...

—Sí, lo que pasa... ¡Bah!, también pasa por todo el momento de transición que ha pasado el país, ¿no? desde la dictadura hasta ahora, (Argentina fue creciendo) con altibajos. Entonces es obvio que escuches en tu casa, en muchas casas, despotricando, la situación, como...

—Quejándose...

—... O mirando para afuera, y creyendo que afuera siempre todo está mejor, y ta, ta, ta... tirando mierda para adentro, y ‘que Argentina esto, que Argentina aquello’, y por ahí después te recuperarás, y entonces empezás a creer un poco de vuelta. Acá está arriba y después de vuelta está abajo, y siempre echándole la culpa al otro y que siempre son los políticos, muchas veces son los políticos, pero (...)

(Elkarrizketa Taldea, Necoechea)

Egungo Argentinaren inguruak, horrenbestez, erabat aldatu dira. Gazteen eskutik ingurune berri hauek ezagutzeko kontuan hartu behar dira, alde batetik, gazteak 1976-1990 bitartean jaio eta 90eko neoliberalismo hamarkada bete-betean harrapatuko zutela,



denbora laburrean Argentinako klase ertainaren apogotik gainbeherara igaroz; beste alde batetik, Euskal Etxeko gazteen diskurtsoa Argentinako klase ertaineko gazteen inguruan artikulatzen dela eta funtsean, klase ertaineko gazte argentinarren inguruan mintzatzen direla. Azkenik, elkarrizketak 2006-2007 urteetan burutu direla, eta ordurako nolabaiteko hobekuntza antzematen bada ere, 2001eko krisi integralak oso presente darraiel.

Narrazioaren trama azken hiru hamarkadetako ibilbidean kokatzen da, gure protagonista helduenen bizitza tarte osoa alegia. Egungo Argentinaren gabeziak diktadura militarren garaietan (1976-1983) ikustatzen hasi eta Carlos Menem presidentearen hamarkadan (1989-1999) eta bere ondorengo sakonduko dira. Eredu neoliberalak maila politiko, ekonomiko eta sozialean erabateko aldaketak produzituko ditu argentinar gizartean, eta horrela adieraziko dute gazteek beraiek.

**Deshiritartze prozesuak** (Svampa, 2005) dimentsio politikoan eragingo du, besteak beste, parte-hartzea eta erabakitze ahalmena murriztea; “protestaren” kriminalizazio edo judizializazioa eta polizia errepresioaren gorakada; “segurtasun” ezaren pertzepzioa handitzearekin batera, hiritar-segurtasun aldarrien gorakada edo “polizia bakea” inposatzeko deiak.

Diktadura garai luzeak eta gero, ezegonkortasun ekonomiko handi baten testuinguruan, demokraziaren edukiak hustu ahala demokrazia formala puzten denean, esperantza zein espektatibak behera egin eta, ordea, gora egiten dute nabarmen ezegonkortasunak, frustrazioak, apatiak edo indiferentziak; horren emaitza: tentsio pilaketa kezagarria, zeinak erregimen demokratikoaren gobernu-ezintasuna, ezegonkortasuna eta legitimazio falta azkartzea eragin dezakeen (Boron, 2008)

—Pasa que la gente ya está cansada, siempre lo mismo.

—Lo que pasa, también venimos de una cultura, ¿no?. Había una época antes de la dictadura, que los jóvenes eran muy participativos, o estaba en algo político, o en centros de estudiantes. A raíz de toda la época de la dictadura se puso algo, “no te metas”, el silencio, “no te metas”, el “algo habrán hecho”.

—Y es lo que le pasaron esos padres a sus hijos.

—Como que en ese aspecto se retrocedió, el no participar, el ‘no te metas’, ‘lo que le pase al de al lado no importa’.

—El tener miedo (...)

—Pasa que hay muchos factores. Hoy está la pobreza, hoy por hoy mucha inseguridad, la droga también (...) Argentina es un país rico, lo que pasa que tiene mala distribución de la riqueza, no es un país pobre para nada.

—Lamentablemente los que tienen el poder no piensa en la Argentina, o sea no piensan en el pueblo, no piensan en la Argentina.

(Talde elkarrizketa, Paraná)

Maila politikoan egiten duten kritika bikoitza da. Bata, politika instituzionalarekiko kritika, klase politikoarekiko zein alderdi politiko tradizionalarekiko konfiantza faltan adierazi ohi dena. Bestea, gazte argentinarekiko zuzendutako kritikak, klase ertainaren sektore baten parte-hartze, interes eta jakin-min falta. Sektore honen mobilizazio ezak bere parte hartze politiko eza justifikatzeko baliagarria izan daitekeela esan beharra dago.

“*Horretan ez sartu*” gizartearen aurrean geundeke, despolitizazioaren bidean apatia edo pasotismo jarrerak nagusitzen diren gizartean alegia. Errepresioa eta desagertpenak justifikatzeko diktadura garaian militarrek hedatutako beste kontsignetako bat izango da, hain justu, “*zerbait egin dute*” leloa. Eta egin-egitearen beldur horixe bera da, askotan, gurasoek seme-alabei transmititutakoa eta Paranako gazte hauek kritikatu dutena. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da diktadurak ez dituela soilik gazte militanteak modu planifikatu batean eraso; errepresioa eta gaztea izatearen arteko lotura zuzena burutu eta “gaztetasunaren” manifestazio edo forma sozialei eta kulturei eraso egingo die, beldurraren kultura zabalduz (Wortman, 1991). Diktadura garaiak bizi izan dituzten orduko gazteak dira, hain zuzen ere, Euskal Etxeetako gazte gehientsuenen gurasoak egun.

Halere, Euskal Etxeko gazteen agerizko eszeptizismoa eta beldurrak ezin despolitizazio parametroetan kokatu. Pasotismoa edo beste alde batera begiratzeko jarrera hartzen dutenak egon badaude ere —“nik politikari buruz ez dut hitz egiten” esan ondoren isiltzen diren gazteak—, gehienek iritzi politiko argia adieraziko dute, nahiz eta iritzi edo adierazpen horiek “errebolta konfusoaren” (Bourdieu, 1990, 169) formak hartu gehienetan, hau da, diskurtso desegituratua, zirriborrotsua eta lanbrotsua duen kontzientzia politikoa forma bat; forma anomikoak, ezinegona, kexua edo haserrea besterik erakustearena; sistema bere osotasunean zalantzan jartzearena (lana, familia, hezkuntza, alderdi politikoak, erakundeak, eta abar)

“La juventud está perdida” es un clásico ya. Que está todo el día en la computadora (en el ordenador), que hace esto, que no estudia, que no es como antes... La situación laboral que hay hoy en día no es al que había antes. Dicen que la educación de ahora no es la de antes, como que están menos capacitados, que cuando terminás de recibirte nadie te va a garantizar el trabajo, ni mucho menos. Muchos dicen que el país supuestamente está mal, pero está mal porque alguien lo llevó a que esté mal. Y no precisamente la juventud, se puede decir. Y como que a veces ese discurso a la juventud también le pega. Te enseñan que es una cosa de "sálvese quien pueda". (...), ‘vos tenés que hacer lo que tenés que hacer para llegar’... No baja a veces un mensaje muy esperanzador... como que todo... está todo para atrás (Miguel Echepare, 22, euskara ikasle,CF)

Diskurtso desegituratu bezain desitxaropentsu horrek zerikusia handia du klase ertainak *bere burua pentsatu eta errepresentatzeko errekurtsuak galtzearekin*. Bai hezkuntzak bai ekonomia dolarizatuak (peso argentinarra eta dolarren baliokidetzeara, peso bat-dolar bat) modernizaziorako sarbidea eta klase ertain zabalaren kontsumo mailaren berme izango direnak, 2001eko krisiarekin batera “argentinarrak apartekotasunari” bideak itxi eta “dena atzeraka” doala baieztatuko du. Klase ertainaren lanbide iturri inportante eta erreferentzia nagusienetakoak kolpatuko ditu desindustrializazio eta sektore publiko eta sektore estrategikoen pribatizazioak. Pobrezia eta desberdintasun sozialak handituko dira; prekarietatea, langabezia eta azpi-enpleguak zabaldu eta oinarri sozial eta materialen galerak sortuko dira, besteak beste, etxebizitza propioa, elektrotresnen eta inportatuko produktuak erosteko erraztasunik gabe, atzerrira bidaiatzeko aukerarik gabe geratuko dira.

“*Salba bedi ahal duena*” erako gizartearen irudia indartuko da, “guztiak guztien kontra”, lehiakortasuna eta indibidualismoa. Diskurtso erreakzionario baten baitan, zorigaitzeko egoerari buelta emateko argentinarren ustezko inizatiba faltari edo larregizko alferkeriari egotziko zaio. Diskurtso moderatuago baten baitan, argentinarrak gizartean gailendutako lehiakortasuna, pragmatismoa eta joko zikina edo jukutriaren salaketa.

Eredu neoliberalak legitimatu edo bultzatuko ditu indibidualismoaren sedukzioa, indiferentzia soziala eta kontsumo estrategiak, 90eko hamarkadako Argentinan Carlos Menem agintaldian zabalduko direnak (Svampa, 2005). Aldaketa horiek guztiak harreman sozialen berregituraketa eta bizi-estilo konkretuak inplikatuak ditu.

“*Esan nor zaren*” gizartearen aurrean geundeke, kontsumoa eta itxuratik epaitzen duen gizarte txatxu eta pragmatikoa, gazte hauentzat oinarritzkoak diren erreferentzia etikoen kaltetan: konpromisoa, ardura, eta lana; familia balore tradizionalak, ohorea, konfiantza, eta abar.

Ese poco interés por nuestro pasado, por nuestra familia es lo que nos lleva a estar hoy como estamos. O sea, las personas, la poca cultura que tienen, el poco interés que tienen por las cosas, o sea, únicamente parece que es vivir y divertirse y no interesarnos por otras cosas. COMO UNA ACTITUD... más frívola, más pragmática. ¡La falta de valores que tenemos!, no tenemos valores arraigados (...) Argentina está formada por miles de culturas diferentes, y si tomáramos un poquito las mejores cosas de cada una... por lo menos tendríamos algún valor, alguna referencia... La palabra, el honor, la familia, el trabajo, lo trabajador que es (el vasco), lo insistente... esos (valores) me parecen básicos, fundamentales... ¡Son fundamentales! (Gerardo Ramírez, 25, gazte erreferente, Pergamino)

Argentinako gauzeekin interes edo ardura faltak, ezjakintasunaren edo kulturgabetasunaren kontsideratzen denaren eremuan sartzea dakar. Euskal dantzetan aritzen diren gazteak esaterako, Argentinako kultur tradizio eta Argentinako folkloean ez aritzea, horretan jarriko dute enfasia.

“*Utzikeriaren gizartea*” kontsumo gizartearen beste parte bat izango da. Propioa galtzearena, eta kanpoko kultura-espresio hegemonikoak bereganatzearena; hizkuntza eta kultura homogeneotasunerako bidean.

Los argentinos somos muy dejados. No tenemos tradición. El folklore fue la tradición argentina, pero se pierde eso. No tenemos el orgullo como tienen la gente del País Vasco... el argentino no es tan así, no lleva una tradición, la deja pasar y copia ondas de otro lado, de Estados Unidos... No creo que tenga el orgullo por la patria... no. Eso es lo que veo yo ¿Y TÚ NO TE SIENTES ORGULLOSA? Si te sentís orgullosa de tu país pero como no ponen iniciativa, nada, entonces es como que lo dejás. Yo, por ejemplo, tengo más cultura, costumbres a lo que es vasco que a lo argentino en sí. Pero, ya te digo, porque tengo a mis abuelas que te transmiten esa emoción que tienen, entonces... Acá lo que es folklore, no sé, antes capaz que sí había, pero no es (ese) entusiasmo (Tamara Iturriaga, 19, dantzari ohia, Macachín)

Politika, ekonomia eta kultur arloetan sumatzen dituzten gabeziekin batera, identitate krisia antzeman daiteke. **Argentinartasun falta** gabezi edo muga horien guztien ondorio bat izateaz gain, egun dituzten arazoek palanka denaren ustea zabalduta

dago, hots, argentinartasuna potentzializatuz, egungo arazoak konponduko direla, hein handi batean.

Sarri askotan argentinartasun falta nazionalismo argentinaren baten faltarekin lotzen da eta azken hau, ikur, sinbologia, praktika kultural, aberri egunen ospakizunak eta nazioarekiko harrotasun falta erakustearekin.

Cada día hay menos interés por la familia, los valores de amistad, amor. Los chicos de ahora, el futuro de mañana, ¿a qué valores apuntan?... yo siento que están perdidos, perdidos-perdidísimos, que no saben a dónde ir, que se llevan por la masa. Es como decía uno de los periodistas de CQC (Caiga Quien Caiga), Mario Pergolini, cuando fue todo lo del Mundial (de fútbol) dijo que ‘ojalá todos los años tengamos Mundial porque se despierta la pasión por el país, por las raíces y el amor por el país’, que el mate, que esto, que la camiseta, que la bandera, se valora más un 9 de julio (día de la independencia), el 25 de mayo (constitución del primer gobierno autónomo)... Durante el año falta esa argentinidad (Jimena Gainza, 21, txiki irakasle, Mendoza)

Argentinaren gabeziak islatzen dituen irakurketa orokor honek eten bat izan zuela aipatu beharra dugu. Izan ere, 2001eko ez-tandarekin batera mobilizazio ziklo berria ireki zen, politika kalera bueltatuz. Eferbeszentzia sozialak espazio publikoa eta harreman sozialak eraldatuko zituen; kooperazioa, elkartasuna, bat-egitearena indartuko ziren. Argentina eta argentinartasuna aldarrikapenak ugarituko dira eta zentzu orokor batean, Hego Amerikarenak ere bai.

Politikari profesionali zuzendutako “*denak joan daitezela, inor gera ez dadila*” leloak bestelako espazioei bidea irekiko die, auzo-asanbladetan politika egiteko forma berriak kasu. Baita langileek berreskuratutako fabriketan, langile langabetuen piketeetan, aurreztaileen aldarrikapenetan edota truke-klubetan. Maila sozio-ekonomikoan ez ezik, hiri garrantzitsuetan batez ere arte-politikoak, kultur kolektiboak eta informazio-komunikazio talde alternatibo berrien sorrera eman zen. Aurreko hamarkadetan aktibo egondako eragileak ere oso aktiboak ziren, besteak beste, giza-eskubideen aldeko mugimenduak (Madres de Plaza de Mayo eta HIJOS), ikasle mugimendua, “villa miseria” deritzen asentamendu oso prekarioetan edo auzoetan lan komunitarioan zebiltzanak, Estatu mailako sindikatu berriak nahiz sektore sindikatuak, eta oro har, *mugimenduan dagoen gizarte* (Zibechi, 2005) aktiboaren beste hainbat sektore eta kolektibo.

Salbuespenak salbuespen, Euskal Etxeko gazteak ez ziren aktiboki inplikatu, are gutxiago espazio publiko ezberdinetan parte hartu. “Bronca” edo amorrua handia bazen ere, beldurra eta errepresioa ez ziren gutxiago izan. Argentinako klase ertaineko sektore zabalak kalea utzi eta etxera bueltatu zen, herri sektore mobilizatuenak ere erreferentzialtasun politikoa galduko zutelarik.

2003 urteaz geroztik kaleko desmobilizazioa areagotu eta alderdi politiko tradizionalak bueltatuko dira. Urte berdintsuenetan klase ertaineko sektore batzuen egoeraren hobetze erlatiboa gertatu zen.

Euskal Etxeko gazteek kritika maila mantenduko dute, bakar batzuk ikasle federazioan edo kultura-musika eremuan zein Gobernu Kanpoko Erakundeetan edo eliz taldeetan mugituko direlarik. Esan bezala, diaspora komunitatean izango dute parte hartze eskusiboa.

### **5.2.1. ... eta euskal diasporako gazteak egungo Argentinan**

Azken hamarkadetako krisiek gogor kolpatu ondoren irudikatutako gabeziaren gizartearen inguruneak argituz, transformazio ekonomiko, politiko, kultural zein sozialek kolektibitateetan duten eraginaz galdetzerik badago. Diaspora komunitateak testuinguru konkretuan kokatzea eta elkarreraginen nahiz elkartrukeen norantzak aztertzea behar-beharrezkoa da.

Aho batez, hiritarrek espazio publikoan zein kolektibitateetan duten parte-hartzea eskasa dela diote Euskal Etxeko gazteek. Batak bestea esplikatzen du, hein handi batean, eta horrekiko kezka agertuko dute; interes falta orokorrak diaspora komunitatei eragiten diola; denbora faltak kolektibitateen jardueretara ez hurbiltzea dakarrela; ezagutza faltak kolektibitateen garrantzia gutxiestera daramala; euskalduntasunaren goraiamenak argentinartasunaren kaltetan direla, argentinartasuna berez kaltetuta dagoen garai hauetan, erreferentziak eta perteneziei dagokionean; ez dutela euskal mundua behar beste ezagutzen; euskal diaspora nahi baino ezezagunagoa dela... Eta, beste alde batetik, euskal diasporako kideen gehiegizko interesa Euskal Herriarekiko, Argentinarekiko interes faltan islatu daitekeena, gazteen aburuz:

—Otro gran tema, la falta de interés de los que estamos en los Centros Vascos por nuestro país. La falta de conocimiento de nuestro entorno, eso es interesante porque hay muchos que exigen luchar por la ikurriña pero no tiene ni idea quién es el Ministro de Economía.

—La construcción de la identidad vasca, cómo vos no estás construyendo la (identidad) argentina.

—A mí me da lástima, no conozco mucho de lo que pasa en el País Vasco, y no conozco mucho de lo que pasa acá en este país (...) Cuando empezás a preguntar qué es lo que nos está pasando como argentinos, que en realidad es lo que vivimos. Que tenés que trabajar, estudiar, que no tenemos tiempo para dedicarle al Centro Vasco. Que vos estás viviendo una realidad todos los días y no podés traducirlo en palabras porque tu cabeza gira en torno a una realidad que está pasando a 15.000 km de distancia entonces vos te hacés el importante en tu círculo cercano, dentro del Centro Vasco, afuera no existís.

—Y adentro y afuera, si tenés amigos afuera, me dicen “la secta”.

—Eso también pasa por lo que hablamos al principio. El desconocimiento, la falta de definición de la embajada cultural, el Centro Vasco, la casa vasca, lo que fuere. No se difunde hacia lo que es la comunidad argentina qué es lo que significa estar en un Centro Vasco. Eso es una falta de conocimiento, de información y un problema de los medios... Euskal Herria no está.

—El tema es por qué lo hacemos, si es porque buscamos una pertenencia a 15.000 km o es porque nosotros le estamos encontrando un lugar de pertenencia.

(Talde elkarrizketa mistoa, Buenos Aires)

Euskal Etxearen eta inguruaren arteko distantziak handitu egiten dira. Diasporaren definizio faltak, funtzioei dagokionez, kalte egingo die zentroei.

Diasporako gazteak *diferentzia batekin bizi dira* egungo Argentinan, arrotzaren identitatea biziko dute. Batetik, diaspora komunitatearen kanpoan eta barruan distantziak areagotzen direnean bereziki, euren egitekoak susmagarriak jotzen dituztela jakin badakite; eta bestetik, distantziak egon badaudenaren jakitun, inguratzen duenaren gogoeta hasi eta inguruarekin dituen harremanak objektibatzen saiatuko dira (Schutz, 1974).

Arrotzak gizartean eratu ditzakeen posizio ezberdinez jabetu bezain pronto, *gaztea eta egungo argentinarraren gizartearen arteko elkarrizketa* moduko bat hasiko dela esan daiteke. Balizko elkarrizketa luze eta mamitsu hauen bidez identitate argentinarra ez ezik, euskal identitatea eta diaspora identitatearen inguruko gogoeta zabala egingo du. Elkarrizketa hauetan gazteak berak hartuko du hitza, diasporako gazte bezala dituen

inpresioak argituz. Baina elkarrizketa hauetan falta den bigarren protagonista garrantzitsua, hots, Argentinako jendartea bere osotasunean hartuta, ez da elkarrizketatik kanpo geratuko: diaspora komunitateekiko herritarrek dituzten jarrerak, espresibideak eta tonuak ere erreproduzituko ditu diasporako gazteak berak.

Oro har, **diasporan parte-hartzeak mesfidantzak sortzen ditu** jendartean eta zehazki, diaspora komunitateetan parte hartzerik ez duten lagunen, familien, ikaskideen edo lankideen artean. Diaspora kidearekiko prudentzia batzuetan, gaitzespena besteetan, oso nabaria izan daiteke. Gizarteari leporatutako mobilizazio-eza eta ezjakintasun orokortuak, ez du harremanean lagunduko. Gaztea ez ulertua sentitzen da, arrotz; berak interesa, konpromisoa edo identitatea mobilizatzeko hautua hartu du, eta nola edo hala diaspora birbaloratzen saiatuko da...

‘Soy descendiente vasco’, ‘tengo apellido italiano’ .... pero nunca te pusiste a pensar todo el laburo que les costó a los tipos venir acá a la Argentina, radicarse acá, hacer las casas de las colectividades. No se les da ni el papel ni el valor que realmente tienen esas casas de colectividades. Hoy estar dentro de una colectividad es como que estás encerrado. Aquí en provincia hay un montón de colectividades, pero justamente son los mismos de siempre, que va pasando de familia; es muy raro que se vayan metiendo, no porque no quiera sino porque la gente es como que manifiesta un desinterés en cierta manera. La gente por ahí no conoce, pero todo por ignorancia. Es como que sos diferente, o tenés... no sé si rechazo, pero cierta prudencia con respecto a eso (Gloria Frondizi, 18, dantzari, Pergamino)

Interes falta eta ezjakintasuna are handiagoa da euskal diasporari dagokionean. Kontuan hartu behar da, behin eta berriz aditzera ematen denez, ez dela berdina aitortzarik ez duen euskal kolektibitatearen moduko diasporan parte hartu edota errekonozimendua duen diaspora handi batean parte hartzeak, esaterako, Argentinako italiar kolektibitatearen kide izatea.

Zentzu horretan, *nazio arazoa* bete-betean plazaratzen da. Euskal Herriak lortu ez duen aitortza euskal diasporan eragina du behinik behin. Ingurukoaren artean gutxi batzuk Euskal Herria eta euskalduntasunaren berri izango dutela jabetuko dira, eta berri gehientsuenak gatazka politikoaren harira sortzen direla. Medio nagusiekin alderatuz gero, esan gabe doa euskal diasporatik edo Euskal Etxetik gatazkaren inguruan zabaldu nahi duten diskurtsoaren eragina oso eskasa edo nulua izaten dela.



Esan bezala, aitortzarik gabe eta ezagutza betiere txikia izanik, euskal diasporan parte hartzeak zalantza gehiago piztuko du jendardean. Euskal munduaren edo euskalduntasunaren erreferente gisa, gazteak behin eta berriz esplikatu beharko du zertan datzan kolektibitatea, zertan datzan euskal mundua, zer egiten duen Euskal Etxean, zertan datzan gatazka politikoa, eta abar.

Mis papás no entendían nada. Se pusieron contentos porque a ellos todo lo que sea estudiar les parece bien. Al principio te hacen las preguntas típicas; ‘¿qué es esto?’. O cuando hablás con un amigo ‘doy clases de euskara’ es lo primero que te dice ‘¿qué es?’, yo: ‘el idioma vasco’, él: ‘¡uy, la ETA!’. Siempre sale por ese lado porque es lo que más prensa tiene. Y después siempre están desde los que dicen cualquier cosa hasta los que tienen miedo, ‘No, che... ¿pero no es peligroso esto?’ y otro te dice ‘¡Aguante ETA!’. Entonces te encontrás con todo eso y es todo un tema (Gerardo Pino, 25, euskara irakasle, CF)

Aprobazioa edo gaitzespenaren artean, solaskidearen erantzun eta jarrerak bezain heterogeneoak izan daitezke gazteek beraiek luzatutako azalpenak, Euskal Etxeetan entzundakoak errepikatzen gehienetan, nahiz eta Euskal Etxe guztiek egoerari aurre egiteko orientabiderik ematen ez duten. Aipagarriena zera da: diasporako gazte guztiek egingo duten Euskal Herria edo euskal munduaren aldarrikapenek harremanak birbideratu ditzaketela beste behin ere, hartu-emanetan sakonduz.

Oro har, euskalduntasunarekiko inplikazioa argentinartasunarekiko kaltetan ulertu ohi da. Inplikazio falta argentinazko gazteri pasiboaren inguruan sostengatutako diskurtsoetan sakonduz justifikatu egiten da betiere. Baina honetan beste zerbait dago jokoan, hain zuzen ere, diasporako gazteen leialtasun nazionala. Zentzu horretan, pentsatzekoa da euskalduntasunarekiko pasio eta sentimendu agerraldiak nahiz Euskal Herriarekiko edo diasporarekiko inplikazioa erakustaldiak mesfidantzak handituko dituela.

Mi mamá nos hace ver eso. Nos dice: ‘ustedes se fanatizan con lo vasco y se olvidan de las cosas argentinas’. ¡Y no!, ¡no me fanatizo!, tengo muy bien presente que soy de Argentina. Pero suele pasar, volver de la Semana Vasca y uuuuu... ¡salta tanto lo vasco y se nota tanto! Estás en una reunión y preguntan ‘¿Qué hacés?’ ‘bailo vasco’ ‘¡ah! Vasco con ETA’ y qué sé yo, se te salta ahí toda la pasión y se nota más y mucha gente te dice: ‘¡Pará flaca!, ¿qué sos, vasca o argentina?’ (Jimena Gainza, 21, txiki irakasle, Mendoza)

Bideak estutuz doaz. Diasporaren leialtasun nazionalak mahai gainean jarri eta ingurukoen galdeketari men egin behar dio. Diaspora identitateak ez ditu jarraibide kultural zein sozialak berez hartzen. Gainera, erreferentzia edo perteneziaz beste nonbaiten *topa* ditzake; are gehiago, perteneziaz eta erreferentziak beste nonbaiten *izan* ditzake. Diasporako gazteak arrotzaren identitatearen formak bereganatuko ditu, eta “arrotzari esker txarrekoa izatea leporatuko diote, eskaintzen zaion jarraibide kulturala babesleku eta babeska eskaintzen diola errekonozitzen ez duelako” (Schutz, 1974, 107)

Ustezko desleialtasun nazionalak zokoramendu nazionalera darama, zeina oso forma konkretuetan espresatzen den: *hangoa edo hemengoa izatea*. Han edo hemen izateko modu bat dagoela aurre-suposatzen da, eta identitatea ulertzeko modu honek identitatea bizi eta ulertzeko bestelako formekin talka egiten du ezinbestean, hain justu, diasporak identitatea eratzeko eta bizitzeko forma anitzekin, diasporak garatutako konpromiso edo leialtasun askorekin.

Diasporak pizten dituen mesfidantzen aurrean gazteak **diasporaren zentzu berriak** plazaratuko ditu.

Cuando hablo del interés que tengo también me pasa que hay personas que no les interesa o que se molestan de saber que mirás a otro lado también. Esta es la visión que ellos deben tener: ‘vos sos de acá y no naciste allá’. Yo no estoy diciendo que no soy de acá, ¡para nada!, yo no reniego del lugar de donde vengo. Al contrario, ellos reniegan más que yo porque tienen esa cosa tan marcada del “sos de acá o sos de allá”. No es que todo el mundo tenga que buscar de donde vienen, no los juzgo, pero me parece que está bueno. Es una herramienta que yo utilizo que forma más mi persona, me aporta otra cosa a mí. Me aporta mirar el lugar donde vivo de otro modo distinto (Mariana Martínez, 19, dantzari, CF)

Diasporak kokapen pribilegiatua eskainiko du. Kokapen horretatik abiatuz gazteak ingurua interpretatzeko, sentitzeko, ikusteko edota transformatzeko bide ezberdinak zabaltzen ditu. Diaspora horretarako giltza edo erreminta bat litzateke, diferentzia sentitzeko formak baimentzen dituen, erreferentzia berrietara jotzeko bidea argitu dezakeena; marko irekierak ahalbidetu ditzakeena.

Diasporak eskainiko duen kokapen pribilegiatua berezia da oso, definitua, zehaztua. Ez datza “bi munduen artean”, “bidean” edo “noraezean” egotearekin, zeinak diaspora kidea anbiguetatean murgilduko lukeen; ez eta “ez barruan ez

kanpoan”, “ez hemen ez han” egotearekin, zeinak diaspora kidea ezerezean galtzea inplikatu dezakeen, hots, zentzua galtzera. Alderantziz, diaspora kokapenak *osotasun imaginario* bat eskaintzen du; ehunetik ehunera izatearena; bata zein bestea eta beste asko sentitzearena; han, hor eta hemen aldi berean egotearena.

Guzti honen aurrean, gazteak berak hainbestetan luzatu dioten galdera plazaratu eta erantzuna ematen saiatuko da...

Beti esaten det neretzako galdera gogorrena izaten dala, ‘¿que te sentís, vasco o argentino?’ Neretzako da lo peor, ze bi sentimendu diferente dire. Ni oso argentinarra naiz, oso, oso. Neretzako hemengue izatie asko da, ¡se me pone la piel de gallina! (barre artean), ta hango gauxe..., edozein lagun nire etxera sartzen dana ikusten du nola hango gauhek danak sartute daudela, hor ipinite daudela, hango musikie... normala da, claro. Las raíces, hanguak dire ta hori, bai, hori, están a flor de piel, horregatik neretzako zaila da esatie zer sentitzen naz. Erdi..., ni erdi!, sentitzen naiz bata ta bestie, ze hemen nagonin oso argentinarra naiz ta han nagonin oso argentinarra naiz ta euskalduna be bai sentitzen naiz. Ez naiz euskaldune, ni argentinarra naiz, baina hango gauxiek neretzako dire eguneroko gauxe, halaxe da, ta horregatik. Neretzako honera (Euskal Etxera) etortzie eguneroko gauxie da be bai, holaxe da. Ez dakit nola azaldu baina zuentzako, Euskal Herriko jendeantzako akaso argi ta garbi dago baina hemengo jendentzako ez dago, zaille da entenditzea nola gaude horrenbeste... estamos muy metidos en el tema, baina jakiteke, sin querer. Así como yo puedo ver el río (de Rosario) y siento que es mi río, puede ir a cualquier monte de Euskal Herria y sentirlo como también mío digamos,... ir y sentir que eso no menosprecia lo que tenemos tampoco, que son dos cosas que las sentimos nuestras (Iratze Arregui, 28, dantzari ohia, Rosario)

Diasporako gazteak kokapen definitua dauka. Propioa, osatua... osatuegia agian. Baina identitate osatuegi batek problemak planteatu ditzake, esaterako, osotasunari erantzuteko ezintasuna eta osotasunari erantzuteko norberak edo beste batek inposatutako presioa. Horrelakoetan kokapen pribilegiatua kokapen deserosoa bihurtu daiteke. Era berean, kokapen ez definitu batek zalantza piztuko ditu inguruko artean.

Diasporako gazteak identitateari buruz galdetuko dio bere buruari. Identitatea zentrala da gazte hauentzat. Baina, agian, ez du erantzunik topatuko. Gehienetan bere kokapena azaltzen, tematizatzen, kostatuko zaio. Diaspora identitatea ez da berez emana, zaila da esatea zer eta nola sentitzen duten, zaila da diasporakoak ez direnei esplikatzeko eta haiei ulertarazteko. Zaila da, azkenik, hitz edo kontzeptu zuzenak enplegatzea, harik eta bere kokapen berezia zehazteko presiopean dagoenean.

Horretarako zenbait estrategia edo bide har ditzake:

Batetik, diskurtsoa birbideratu beharra dago; diskurtsoa modulatu eta puntu batean moderatu beharra dago. Argentinartasunaren afera berriro ere mahai gaineratzen da. Oraingoan beste nonbait jarriko da enfasia, hain justu, argentinartasuna modu naturalean bizitzearena edo argentinartasuna egunerokotasunean kokatzea, argentinartasuna barneratua izatea. Euren argentinartasuna ez da zalantzan jartzen; hain normaltzat jotzen denez, ez dago argentinartasuna gailentzeko aparteko motiborik.

Mis papás están contentos de que estemos en el Centro. De hecho no hay mucha más explicación. Por ahí mi mamá siempre nos decía ‘¿por qué no aprenden cosas argentinas?’, ‘¡vayan a bailar bailes argentinos!’, ‘¡aprendan la cultura argentina!’. Bueno, no hace falta aprender la cultura argentina para nosotros, la cultura argentina se la vive todos los días, lo bailes quizá un poco menos (ríe)... pero es que ya nos habíamos enganchado con eso (Sebastián Echevoyena, 27, dantzari ohia, Pergamino)

Bestalde, diaspora komunitatean gazteak egiten duenari erreparatuta, ingurukoaren aprobazio bila ibiliko dela esan daiteke. Hasiera batean bere egitekoak, konpromisoak, leialtasun edo inplikazioak zalantzak pizten bazituen ere, oraingoan lortu duten onespenean jarriko da enfasia.

Gazteak oniritzia beharko du neurri handi batean. Bere lana eta esfortzua txalotua izan behar da. Aipatu errekonozimendua oso garrantzitsua izango da identitatea oztopo barik bizitzeko, identitatea disfrutatzeke edo identitateaz gozatzeko. Identitateak zentzu positiboa izan behar du, eta ingurukoek hori bera ikustea dute helburu.

Vas a la facultad y ‘no (puedo ir a tal lugar) porque yo tengo ensayo’, ‘¿ensayo?’, te miran con cara de..., ‘no, porque yo bailo vasco’, y bueno, ‘cuando puedas avisame que te quiero ver’..., eso un montón de gente, siempre. Como que la gente, no que tiene envidia, como que ve con buena cara que otro tenga una actividad más allá de lo que es la facultad. Está todo el mundo tan metido en el estudio, que el resto es joda, joda para salir y despejarse, que el tener otra actividad tan importante, lo miran con envidia, si querés... (Pilar Arrizabalaga, 20, dantzari, CF)

Praktiken onspena eta diskurtsoaren egokitzapena burutzeaz gain, bere kokapena agertzeko beste modurik badago, noski. Diaspora identitate atzerritarren estigma negatiboa ezkuta dezake adibidez, edota identitatea ukatu, baztertu, txikiagotu, txikitu. Ez da horrelakorik diasporako gazte horiengan; harrotasunez heltzen diote

identitateari. Pozarren, diaspora identitatea garatu eta lau haizetara zabaltzeko moduan daude.

Aipatutakoak ez du esan nahi, ordea, zuhur jokatzeko ez dutenik. Ingurukoek bere kokapena zehaztugabetzat hartzen dutenean, diaspora identitatea zehazteko intentzioak agertuko ditu azkenik. Beste era batera esateko, diasporako gazteak badaki nola eta zertan itaunduko duen albokoak eta alerta egoeran mantenduko da. Eta horri begira, aldeztu aurretik erantzun konkretuak prestatzen ditu...

—En la Argentina el que te diga ‘yo soy vasco’, ahí te vas a dar cuenta que del Centro Vasco y del conocimiento de lo que es. No tienen ni idea, lo único que saben que tienen apellido vasco y te dicen ‘yo soy vasco’.

—Y luego te dicen que son español, soy vasco francés, y tenés que explicarle que en realidad no existe el vasco-español o el vasco-francés, que el que es vasco es vasco, no, ‘no, pero mi abuela nació del lado de España’.

—Los que vienen al Centro Vasco jamás te van a decir ‘yo soy vasco’. Te hablarán así, como te hablamos nosotros.

—Cuando te dicen ‘¿vos sos vasco?’, ‘no, mi papá nació en el País Vasco’, es como que ya ves la intención. Porque la realidad es que no soy vasco, soy hijo de vasco, y lucho y reivindico, estoy viviendo dentro de esta cultura, producto de defender la sangre de mi padre, digamos, y de mis abuelos. Ellos no, ellos te dicen, ‘yo soy vasco’, y ¡no!, ¡yo soy argentino!

(Iker eta Josu Alava, 25-22, gazte erreferenteak, La Plata)

Diaspora kideei dagokionez, ez da nahiko euskal ondorengotza izatea. Diaspora kidearen profila birdefinitu beharra dago, konpromisoan eta ezagutzan enfasia jarritz.

Argentinarrei dagokionez, zalantzarik ez eurak argentinarrak direnik. Argentinari izendatu, agertu eta sentitu egiten dira. Argentinarren erreferentziak eta esperientziak konpartitzen dituzte; jarraibide sozial eta kulturalak berenganatzen dituzte, eurentzat hartu eta segida eman. Argentinan bizi dira eta Argentinan dute euren egunerokotasunaren parterik handiena.

Horregatik, diasporako gazteen leialtasun nazionala kolokan jartzen denean, argentinarrak baino argentinarragoak direla baieztatu dezakete. Horretarako, **argentinartasunaren birformulazioak** burutuko dituzte. Argudio nagusia izaten da, ondorengotza ukatzea argentinari identitatea bera ukatzea litzatekeela. Alderantziz, ondorengotza aldarrikatzea eta diaspora komunitatean parte hartzean sakontzea argentinari identitatea aitortzeko modu bat litzateke.

Zentzu horretan, diskurtsoan beste buelta bat ematen da. Hasieran diasporako gazteari esker txarrekoa dela leporatuko zaio eta oraingoan berriz, diasporako gazteak kolektibitateetan parte-hartzerik ez dutenen akatsak agerian utziko ditu, talde elkarrizketa luze eta mamitsu honetan adierazten den moduan, non gaztea eta gizartearen arteko elkarrizketa plazaratzen den beste behin ere.

—Siempre te vienen a preguntar... ¡Bah!, ¡qué sé yo!, como estamos tan metidos en el Centro Vasco, la típica: “juega al fútbol el País Vasco contra Argentina, ¿por quién hinchás?” Y son respuestas que... ¿¡qué sé yo!? seguramente por Argentina, capaz. O ‘si hay guerra entre Argentina y el País Vasco, ¿por quién te ponés?...’, y vos decís ‘¿¡qué!?’, (risas) ‘nunca lo pensé’. Pero te hacen esas preguntas que vos decís... porque, claro, mucha gente que lo ve de afuera, que no ve, siente como que... claro, no ve la parte que vos estás defendiendo al pueblo vasco, si no que ve tu error, supuestamente, porque cree que estás vendiendo... estás vendiendo a Argentina.

—... ‘sos más vasco que argentino’...

— ‘¡si vos sos argentino!, ¿qué hacés acá?’... Son cosas que vos no te las planteás, porque viviste así, o sea no me imagino... sin la parte vasca, digamos. Qué sé yo, porque abro la puerta de mi casa y acá estoy en Necochea, en Argentina, la bandera es así, así y así. Pero para adentro de mi casa, las formas, son más o menos capaz que como en tu casa.

—Y acá en el Centro Vasco lo mismo. Abrimos la puerta y ahí sí es diferente, y también en la casa de todos nosotros está la parte argentina.

—Es que justamente, este es el Centro Vasco “Argentino”, y en todo momento se recalca que es el Centro Vasco “Argentino”. Por ejemplo, mi familia ya es como cuarta generación de argentinos, pero ya es algo que lo tenés... ya está adentro de lo que vos... ya de lo que es tu familia, ya es algo que lo tenés y es normal.

—Pero no te entienden...

—No te entienden...

—No te comprenden esas vivencias que tenemos

—Te hablan todo el tiempo de Argentina y que ‘si vos sos argentino, sos argentino’. Y Argentina es un país súper joven, que se formó con todos inmigrantes, o sea que si vos... el sentimiento de argentino ¿dónde está? justamente en toda esa parte que vino, tus abuelo, tus bisabuelos que vinieron a vivir a Argentina, qué sé yo, si a vos no te importa un carajo de tu abuelo italiano, y es un poco error tuyo porque también con ese... si no sentís algo ahí adentro por ese italiano que vino y que te contaron en tu casa, y tampoco estarás muy aferrado a la parte argentina, digamos. Porque así como nosotros nos metemos en lo vasco también agarramos la parte argentina, ¡la parte!... hablando mal. Pero defendemos lo mismo de Argentina, nos preocupamos, no es que ‘¡ay!, ¡estos argentinos...!’ no.

—O sea, lo principal es que somos argentinos nosotros. Primero somos argentinos. Es así.

—Sí, sí, obvio.

(Elkarrizketa taldea, Necochea)

Elkarrizketa intentsu bezain luze honek pista baten atzetik jarri gaitu: Argentinan hamaika kolektibitateen etxeak daudela. Beste kolektibitateetan parte hartzen duen gazteak sentimendu berdintsuak izan ditzakeen susmoa dago. Hau da, Euskal Etxeetan euskal diasporari soilik atxiki ezinezko ezaugarriak garatzen direnaren konbentzimendua dago. Diaspora komunitateetan parte hartzen ez dutenek ulertu ezinezko bizipen eta sententzioen aurrean geundeke, bai ordea kolektibitateetan egun daudenak. Kolektibitate artekotasuna plazaratzen da, diaspora identitatearen batasun zentzua.

### **5.3. Bihar, Euskal Herria**

Elkarren arteko distantzia fisiko-geografikoa esanguratsua izateaz gain, Argentina eta Euskal Herria espazio sinboliko ezberdin bi osatzen dituzte. Agintzazko edo harrera lurraldea izatetik (“munduko garautegia” edo “Argentina industrialaren” garaiak), gabezien Argentinara daraman bidea egin du. Euskal Herriak, bitartean, kanporatze edo hondamendi lurraldea izatetik oparotasunaren lurraldea izatera daraman bidea.

Distantzia geografiko, sozial zein sinbolikoak handiak izanik ere, diasporak Euskal Herria gertu senti dezake, Euskal Etxeetan aktibatutako euskal munduaren bidez; eskola eta familia arteko memoria kolektiboetan; Euskal Herriko bisitariak eta diaspora gazte bidaiariek konpartitutako kronikak, komunikabide edo Eusko Jaurlaritzaren unean-uneko propaganda kanpainak, esaterako, 2003ko urteko “un país en marcha”/ “aurrera doan herria” kanpaina, herri moderno, garatu eta aurreratua bezain indartsu eta lehiatsua erakutsiko duena.

Instituzioetatik estrategia aldaketa bat produzitu dela nabaria izanik, diasporako gazteak ez lurralde mitikorik ez eternitatearen lurralderik ez duela espero nabaria da. Hurbilpen sententzioak indartu eta aurreikuspen gaitasunak handitu ahala, distantziak eragin dezake inozentziatik urruntzen da gaztea. Halaber, diskurtsoa berdindu, bateratu edo homogeneotu dela ematen du; adierazgarria da Euskal Herriaren inguruko errepresentazioak berdintsuak izatea bertara noizbait bidaiatu eta oraindik bidaiatu ez

dutenen artean, han familia dutenen eta ez dutenen artean, euskal oinordekotza dutenen eta oinordekotza asmatzen dutenen artean.

Zentzu batean zein bestean, Euskal Herria etorkizunean proiektatu eta epe luzera edo laburrera planeatutako bidaietan gauzatzen doa. Horrenbestez, Euskal Herriaren inguruan gazteak egun burutzen dituen interpretazio eta sostengatutako diskurtsoak batetik, eta bidaiaren esanahi sozialak eta zentzuak ezagutzea bestetik, interesatzen zaigu.

Diasporako gazteak **aldi berean etxekoa eta arrotza** denaren eremura bidaiatuko du, alegia, aldi berean gertu eta urrun antzematen dena, ezaguna eta ezezaguna zaion eremura. Horrela, bada, ziurtasunak eta ezusteak bizitzeko, ezagututakoa berresteko eta itxaropenak berritzeko bidaiatzen da, besteak beste.

Yo sé que no podría vivirlo como unas vacaciones, yo sé que el día que viaje allá no va a ser sólo para conocer. (...) También sé que me van a pasar muchas cosas, pero no sé cuáles. Un viaje te moviliza, pero yo sé que este viaje en particular me va a movilizar, bien o mal, pero algo va a suceder. Quiero ir con esa libertad de no sentirme... no quiero sentirme un turista, en lo más mínimo, no voy con ese plan; no quiero ir un mes “a ver qué onda” (“a ver qué tal”). Sé que existe mucho de eso, pero... soy consciente de que hay mucha fascinación, uno proyecta un montón y tal vez no era lo que esperabas. Yo quiero ir a cerrar algo y al mismo tiempo abrir una cosa nueva (Mariana Martínez, 19, dantzari, CF)

Bidaiak inprobisaziorako uneak eta sorpresarako paradak izan behar ditu, baita ibilbide markatuak ere.

Bidaiak ametsa, desio eta fantasiarekin zerikusia du. Bidaia askoren potentzialtasunak baloratzen direlarik, Euskal Herrira bidaiatzeak lehentasuna du, bai gaztearentzat bai familia askorentzat ere. Funtsean *proiektu kolektiboa* da bidaia, dela gaztearen dependentzia ekonomikoa, dela aurretik ezagutzen den edo bidaian ezagutuko diren familia edo lagunekin konpartitzea, eta noski, dela arbaso migratzaileekin topatzea.

Bidaiatzea helburua da. Euskal Etxeko jardueretan jarraitzeko pizgarria, loturak berritu eta konpromisoak berresteko edo historia bizi eta familia istorioak suspertzeko, bidaiak ate berriak zabalduko ditu. Era berean, bidaia ikasitakoari amaiera emateko bidea da, ikasitakoa osatzeko edo diaspora komunitatean izandako esperientzia



bukatutzat emateko. Gaztemundu programan parte hartzen dutenen artean bereziki, bidaia ordainsaria gisa hartzen da, erreferenteek merezi duten aukera, beharrezkoa duten trebakuntza edo ibiltzen jarraitzeko arnas berritzeko beharra.

Bidaia intentsua da eta identitateari eragin ohi dio oso intentsuki. Askotan Argentinatik kanpo egingo duen lehen bidaia da, eta horrek esperientzia zirrargarria izatea bihurtzen du. Gehienetan alderantzizko desplazamendua egingo du gazteak: Argentinako hiri handietatik Euskal Herriko herrixka txikienetara. Orokorrean, ez du han bilatuko hemen daukana; beste era batera esateko, eremu ezberdinetan esperientzia berriak bizitzea espero du. Bidai narrazioa detailez josten dira, xehetasunak birgogoratzea eta beste batekin konpartitzeak bidai esperientzia luzatuko du. Baita gertutasun sentsazioa handitu ere.

Bidai planen artean, harik eta herri gehien ezagutu eta familiarekin biltzea. Euskal Etxean, familiarean edo eskolan jasotakoak osatzen doaz *gazteak berak biziko dituen esperientzien bidez* oraingoan. Bidaiak aktibatzen ditu momentu eta leku ezberdinen arteko jarraipen ez-jarraipen dinamikak, denbora eta espazio artikulazio edo bidegurutzeak.

La segunda vez fui con Gaztemundu, y fui con Luismi, amigo de toda la vida. Estábamos muy ilusionados de ir. Y nada más llegar lo que más impresiona es la arquitectura, que es parecida a nuestro caserío, -obviamente esto es copia de allá- pero todo tiene algo. Los pueblitos chiquititos era lo que veíamos con (el documental) “La mirada mágica”, las fotos que vemos acá, entonces es como que le ponés vida a todos esos recuerdos que vos tenías. Y visitar de nuevo a mis familiares, y acompañar a Luismi a visitar a los suyos la primera vez. La parte de noche de Bilbao, todas las cuestiones que no tiene que ver con lo folklórico también está bueno, obvio; el Guggenheim, -aunque esté muy criticado-; en los pueblitos, los aitonas y las amonas siguen estando igual, sentados en la puerta de casa así, bien foto antigua, y eso está bárbaro. Todo lo que pasaba..., teníamos siempre un recuerdo, pero un recuerdo generalmente contado por otro (Sebastián Belaustegui, 26, erreferente, Rosario)

Paisaia edo lekuarekin identifikazioa bat-batekoa da, eta Argentinako bizitokiarekin, hau da, gaztearen lehen mailako zentro erreferentzialarekin, konparatuko da. Bizitokiak ez dituen ezaugarri horietan azentua jartzen da, esaterako, Pampa aldean bizi den gaztea itsasoarekin liluratuko da, hirian bizi dena herri txikietan aurkituko du gozamendurako parada. Gainera, zaharra eta berria, tradizio eta modernitatea eta oro

har, “historia duen herriak” erakarriko du gaztea, “historia laburreko Argentinarekin” alderatuta. Oinarrizko konparazioen eremuan sartzeak ez du esan nahi lurralde bukolikoan pentsatzen ari direnik; aitzitik, ohikoa ez dena ezagutzeko aldeko jarrera, berria zaiena bizitzeko nahia adieraziko du gazteak.

Que todo sea verde, ¡todo verde!, no hay marrón ni planicie como acá, que todo sea montañoso. Lo que más me gustó fue estar en los cascos viejos de todos lados, las casas antiguas me re gustaron, que te dabas cuenta que tenían historia. Me fascinó la cantidad de comida que me comí, los mariscos, los pescados... Ver que muchas cosas eran como me las imaginaba. Y cómo es la gente también me impresionó. Porque a pesar de ser super fríos, como que re poco afectivos, me re impresionó que la gente toda te ofrezca todo lo que tiene, sin ningún interés de nada, eso me re impresionó (Rafaela Salfiti, 20, erreferente, Macachín)

Gazte bizipen eta anekdotak nagusi dira bidai narrazioetan. Esan bezala, Argentinatik kanpo egiten duten lehen bidaia izaten da, bidai bizipena emozioz gainditzen duena. Bidaia “hastapen berria da, zerotik abiatzea, arnasa hartzeko, nerabezaro forma berri bat, mundua ikasteko modu bat. Bidaietan jakin-mina sortzen da, harkorrangoak gara. Momentu eta enkontru orotan berritasuna eta iragankortasuna aurrez aurre jarriko ditugu. Bidaiak gaztetasuna kontserbatuko du” (Lasén, 2000, 145). Termino horietan planteatuz gero, gaztaroa bidai forma bat ere bada.

Bidaia-gaztaroa lehengo aldiz ingurua probatzeko beta da. Inguruan bete-betean murgildu eta arretaz behatzen da, zenbait erreferentziekin alderatuz, balorazio berriak eginez. Den-dena txundigarria suerta daiteke, bidaiari-gazteak liluratzeko prestutasuna duen aldetik.

Lekua, jendea, jarduerekin ez ezik, badago egungo gazte argentinarrak liluratuko dituen beste zerbait ere. Baliteke 90eko hamarkadan “elektrotresnen irudikaria” itsutzeak: objektuen balorazio sinbolikoa, ertain klase baxuko gorakada sozial nahiak kondentsatu zituen irudikaria, peso1-dolar1 moneta- bihurkortasunaren bidez lortuko zutena; kontsumoa, kuota, kreditu eta inportazioarekiko pasioa piztuko zuena; espazialki eta kulturalki Europara heltzea baimendu zuena (Arfuch, 1996). Aitzitik, XXI. mendearen atarian, eta 2001eko krisi sakonaz geroztik, “segurtasunaren eta askapenaren irudikariak” indarra hartuko du, euskal gazteria-argentinarraren gazteria konparazioen bidez.

Horrela, bada, objektuak baino klase ertaineko euskal diasporako gazte argentinarrak handietsiko ditu, besteak beste, segurtasuna, ordena, garbitasuna, erosotasuna, alkohola, droga kontsumoa, kartelak, pankartak, estetika, homosexualitatea, nudismoa, jai herrikoien giroa...

Nosotros veníamos del lío de 2001 y nos llamaba mucho la atención que era todo muy seguro, ¡pero muy seguro! Había esas fiestas vascas y pasaba un tren a las tres y decíamos ‘¡si no pasa nada!’ . Y acá iríamos aterradas. Eso era muy bueno. Y después, la gente grande la veíamos muy parecida a los de acá. Pero los más chicos, -los de 15 años-, los veíamos distintos, como más arruinados. Había droga, o veíamos propagandas de cómo preparaban hachís, -eso nos causaba mucha gracia (risas)-. Pero después como que son más libres, como más abiertos que nosotros. Nosotros somos... todas tenemos el pelo largo, ¡todas!, si se usa el pelo largo, sobre todo en Rosario. Todo el mundo es prejuicioso, y allá es como que no importa. ¡Nosotras éramos los que mirábamos! (risas) Íbamos a la playa y se desvestían al lado y vos decías, ‘¡listo!, tranquilito’ (risas) O sea no es que nos parecía mal, al contrario. Acá todo el tiempo es el qué van a decir, el qué dirán, el no sé qué ¡y eso que somos un millón de habitantes! Y mis primas que vienen de allá dicen que sí, que es mucho mejor en ese sentido (Miren Esnaola, 26, dantzari ohia, Rosario)

Gazteak Euskal Herria eta euskal gazteria behatu eta pertzepzioak egokitzen ditu, egungo Argentinan sumatzen dituzten gabezietatik abiatuz. Kulturalki, politikoki, ekonomiko eta sozialki, bi herrien arteko konparazioak bere horretan darrai.

Orainaldi hobea ebokatzen duen diskurtsoak (momentuz beste denbora eta espazio batean posible dena, biharko Euskal Herria kasu) Euskal Herria/Europa eta Argentinaren arteko konparazioak burutzera darama.

Narrazioaren parte honetan, eta betiere bi espazioak orainaldian kokatzen direlarik, lehenak irabaziko du: hiritarren mesedetan jartzen diren instituzio eta gestio eraginkorra (Eusko Jaurlaritza espresuki)/ instituzio inexistente eta ustelduak (azken urteetako Argentinako gobernuak); garapen ekonomikoa (industrializazioa, modernizazioa)/ krisi ekonomiko jarraituak (desindustrializazio eta pribatizazioak kasu); politika kulturala (diasporari zuzendutako subentzioak adibidez)/ Argentinako espresio kulturalak baztertzea (argentinartasun falta); gazteak herriarekiko konpromisoa (euskalduntasuna)/ historia eta egunerokoaren desinteresa, eta abar.

Aipatutakoaren harira, inguruan dauden gabezien artean arrazionala den idealizazioa profesatuko dute gazte batzuek, Euskal Herriarekiko jarrera kontziente bezain argia plazaratuz.

Gainera, euskaldun sentitzen diren euskal herritarrekin egon eta konpartituko du batik bat, interes komunak, pentsamenduak eta sentimenduak dituztela poztasun osoz konprobatuz. Are gehiago: bertakoekin, hots, Euskal Herriko euskaldunekin Euskal Etxean ikasitakoa espresatzeko aukera da bidaia. “Hemen”, “nire etxean”, “nire herrian egiten dudana”, “han” ere egiten dela konprobatzea, probatzea. Jai giroa, estasi komunitarioan murgildu eta espresio zein sinbologia konpartitzea, euskal diaspora-Euskal Herriko gertutasuna eta batasuna piztu, indartu eta berrindartuko balitz bezala.

Será por el hecho de que lo tienen muy presente, porque están peleando por eso... Por ahí, en algunos comentarios, una persona me preguntó: ‘¿cuánto de vasca y de española te sentís?’ No me esperaba que me preguntara eso, no tiene nada que ver una cosa con la otra... yo soy argentina y vasca, española no, española nunca, en mi diccionario no entra, no existe. Nunca en mi vida... (...)

(Con los participantes del Congreso de ciudadanía) fuimos a ver Gernika, ¿que Gernika para los argentinos fue...! Los irlandeses no la vivieron tanto. La mayoría de los que participábamos del Congreso éramos argentinos, pero también éramos vascos. Los irlandeses, eran irlandeses, no tenían raíces vascas, no tenían ni idea del País Vasco. Nosotros sí, sabés, de lo que lees, de lo que escuchás... Fuimos a Gernika, entramos al Museo de la Paz y todos llorábamos... es como que ¡te llega más! Lo vivís de otra manera (Jimena Gainza, 21, txiki irakasle, Mendoza)

Diasporako gazteak ez du bere burua turistatzat hartuko; Argentina zein Euskal Herriaren parte sentitzen da eta bien inguruko ezagupen-erreferentziak (eta ezagupen-erreferentzia faltak) argituko dituzte. Diasporako gaztearentzat, oporretan doan turistak ezin diaspora bezala bizi eta sentitu; diasporako kideak bestelako interesa, jarrera, atxikimendua erakutsiko ditu... Horrela, bada, errekonozimendurako edota konfrontaziorako baldintzak prest dira.

Diasporatik kanpo Argentinan topatzen dituzten ulertezintasuna, zalantza edo prudentzia jarrerak Euskal Herrian ere ematen direla ikusiko du. Batzuetan txantxetan, besteetan serio-serio, diasporako gaztea “euskaldunak baino euskaldunagoa” dela aditzera eman dezake.

Galdera zan ‘Baina zergatio ikasten dezu euskera? Zetako?’ Ze bai. HARRITUTA...harrituta, harrituta, ez zuten ulertzen. ‘Nahi detelako!’ (barreak), arbasoak hemengoak ziren ta neri pertsonalki gustatzen zait ta ondo nago horrekin. Batzutan Euskal Herrin jendeak dana erderaz, eta nik hori ikusi ta jo! palo handia hartu nun, triste nengoen. Nik pentsatzen nuen “joe!, Argentinako jendeak ikasten du euskera ta zeuk hemen ez? Da gainera ez zaizu inporta”. Jendea zetorkit ta esaten zin beno ‘jo!, ba gustauko litzake euskeraz hitz egitea’ jo baina, ‘bizitza guztia hemen ta ez zendun ezer ikasi?’ Nik uste det gogo kontua dala. Ez zendun ikasi, nahi ez zendulako. Agian ez zenduke ondo hitz egingo baina beno, harrapauko edo ulertuko dezu. Baina, ta kalean, ‘parkau ze ordu da?’ ‘eee!?, es que no te entiendo’. Ta hola, ta gainera gaizki jendea, hori, hori da jo, ulertzea asko kostatu zitzaidan. Adibidez (euskal) dantzak ez eitea ez zait arraroa iruditzen, ze hemen gauza bera gertatzen da, baina euskararen aldetio, joe!... haserre, molesto. Badau esaera bat edo: “donde fueras haz lo que vieras”, ta ordun erdaldun jendea etortzen bada, euskera ikas dezala, agian ez danak harrapatzea baina, ohitura bat hartzea ez da zurea uztea (Martín Irazuzta, 21, dantza irakasle, Bahía Blanca)

Halaber, diasporatik kanpo Argentinan topatzen dituzten onespentak, mirespenak edo laudorioak, Euskal Herrian ere jaso ditzakeela ikusiko du. Berrito ere, errekonozimendua lortzea litzateke diasporan aurrera jarraitzeko indarberritzea, identitatea zentzu positiboan bizitzeko aukerak zabaltzea...

Algunos no les llama mucho la atención, no sé si porque no se lo imaginan o qué. Mi prima baila, es dantzari, me he puesto a bailar con ella, o por ahí tocaba el txistu y como que se notaba en ella una alegría. Por ahí también, los vascos son un poco más secos, en ese sentido. Aquí como que uno es más demostrativo. Y con amigos de Amorebieta que salimos de fiesta con la cuadrilla y le contaba: ‘¡que este es la ostia!, ¡que éste es más vasco que nosotros!’ (marcando acento). Y es como que uno se siente reconocido, sin buscar el reconocimiento, cómo que esas cosas te alientan (Miguel Salazar, 23, gazte erreferente, Mendoza)

Euskalduntasuna ez ezik, “inoiz baino argentinarragoa” edo “argentinarrak baino argentinarragoak” sentitzera ere hel daiteke hemen. Bidaia identitateak irmotzeko lagungarria bada, argentinartasuna nabarmendu eta goratzeko, diferentziak aitortzeko unea heldu da.

Publikoki argentinismoak azalduko dira, –are gehiago beste argentinarrekin batera taldean bidaiatzen denean, Gaztemundu programan bezala. Adibidez, asko eta ozen hitz egiten, kamiseta jarri edo bandera eramateko orduan; argentinarraren familia artekotetasuna edo emakume-gizon arteko aparteko tratua gailenduko dira, afektiboagoak

izatearena azpimarratuko da... Argentinaren defentsa eta guzti egin arte. Zentzu horretan, bidaiak intimitate eta zintzotasun bitxi hori sor dezakeela esan daiteke.

—Del País Vasco todo...me encantó, me encantó. No pensé que iba a ser tan lindo. Yo lo he mirado en fotos, pero...si ya desde que llegué del avión ahí.....ver, es como que estaba en casa. No es lo mismo estar ahí, sentirlo, estar con la gente, no sé, es muy lindo (...)

—Está toda la idea de los chicos (en el País Vasco), cómo pensaban políticamente, son muy jugados, estaban muy comprometidos con su país. Eso por acá no pasa, me parece, no sabés quién gobierna, ni te importa, salvo algunos jóvenes que están en algún movimiento político. Ahí es como que todos sabían, le daban mucha importancia

—Acá rige mucho el “no te metas” (...)

—Sí... por ahí me pasó que..., es que estaba como en casa, en el País Vasco, pero me sentía más argentino que nunca (risas), me ponía la camiseta, era como “vengo de Argentina”, “yo soy argentino”. Y cuando me decían ‘Argentina son unos ladrones’, me pegaba. Acá no lo defendería; sí, acá en Argentina son unos ladrones, pero allá que te digan eso te golpeaba mucho.

(Lisa Ergaray eta Federico Grau, 16-21, dantzariak, Paraná)

Bidaiaren amaiera da baina bidaia ez da bukatu. Euskal Herria, Argentina eta norberaren inguruan gogoeta egiteko parada ere izan daiteke bidaia. Pentsatu, gogoeta egin, errektifikatu, irudiak egokitu, berraztertze momentua eta lekua da. Eta bideak, agian, beste norabide batzuetatik eramango du gaztea...

Yo creo que en mi persona fue como un “parate”, analizando la situación, de cómo está mi país, de cómo está Euskadi, todo. O sea, que Euskadi es todo lindo, todo precioso, lo tenemos ahí arriba. Pero Euskadi también tiene problemas, como la Argentina. Eso, vivir un poco más la realidad, no tanto en el sueño (Jimena Gainza, 21, txiki irakasle, Mendoza)

#### **5.4. Joan-etorriko bideak. “Hemen bizitza”**

Egin nahi dituzten beste bidaien artetik Euskal Herrira bidaiatzeak lehentasuna du. Etorkizunean Euskal Herrian bizitzeko aukerak planteatzen direnean ordea, Euskal Herriarekiko lilurapenak –eta bidaiatzearen emozioak–, behera egiten du nabarmen. Azpimarratzekoa da diasporako gazte gehienek noizbait horretan pentsatu dutela, eta ezetz erantzun.

Gaztearen identitateak bizi-aukera edo bizi-horizonteetan islatuko dira. Etorkizuna proiektatuz gaztea orainaldian kokatu eta egungo egoeraren berri ematen du berriz ere, narrazioaren protagonistak eta pertsonaiak birkokatzen ditu, espazioaren egokitzapenak eta migrazio ideiarene berrinterpretazioak burutuko ditu.

Narrazio berri hauen hastapenetan gazteak **bi bide nagusi ikusaraztera** ematen ditu. Bata, oztopoz gaindiko bide malkartsua, zalantza handiak besterik planteatzen ez dituen biharko Argentinara. Bestea, Euskal Herrira daraman bide zabala, oparoa hein batean. Bi mundu hauen artean ez dago erdibiderik; bakar batean kokatzeko ardura agertuko du gazteak.

Yo por ejemplo en una época tenía fantasías de ir a vivir a Euskal Herria. O ganas, no sé, como que estaba fascinada. Además también, me había enamorado (risas), ¿viste? de todo. Ese recuerdo que tenía yo de piba (de joven), en época de fiesta de verano que iba a todas, todos los pueblitos, los chiquitos (risas), o sea, agarré todas, todas, todas, y estaba re feliz, conocí a un montón de gente, blá, blá, blá... bueno, mi familia, todo, el paisaje, todo, estaba fascinada.

(Euskal Herria) me gusta, pero ahora es como que no me gusta como para vivir. Ahora te digo, ¿eh? O sea, Buenos Aires me encanta. Ahora me preguntás y sí. Pero uno nunca sabe lo que va a pasar, lo que va a elegir. Esas cosas, no podés asegurar nada. Pero ahora sí, sí, sí a mí me gusta acá, está mi familia acá, estoy más contenida, entonces como que cuesta... (Malena Arandia, 29, euskara irakasle, CF)

Euskal Herrian bizitzaren ideiak migrazioaren inguruko usteak berpizten ditu ezinbestean. Eta migrazioak, atzo bezala gaur egun ere, deserrotzearekin harremanetan jartzen da, traumatikoa eta mingarria den zerbait, bizitza pertsonala, familia bizitza eta bizitza soziala desegituratu eta haustearen ezbeharra.

Migrazioa goranzkoek hartutako bide ezaguna da, baita azken 30 urteetan Argentinatik joan diren lagun, familia edo auzokideen bizipen errepika-ezina ere. Inguruko migrazio-esperientzietatik osatuko dituzte, oro har, migrazioaren esanahi zaharberriak: Argentina/Euskal Herria enplazamenduen testuingurua inbertitu den bitartean, desplazatzeko baldintzak, pertsonaiak, motibo eta motibazioak aldatu dira. Barkura igotzea behartua ziren lehen, desplazatzeko gogoeta eta aukeraketa egin daiteke egun, hots, *joan-etorrien determinazio ezak* planteatu eta buelta egingarria egin daitekeela azpimarratzen da.

—Antes sí, de más chico (de pequeño) yo decía que quería irme a vivir al País Vasco. Ahora no. Ahora no iría a vivir. Iría a conocer, estar ahí un tiempo, volver y extrañarlo y volver a ir y volverlo a extrañar.

—Yo no de por vida, pero una experiencia allá, un año o dos, lo haría. Hoy por hoy me tira mucho mi familia.

—Creo que me gusta vivir acá.

—Allá no tenés la vida que tenés acá, la diaria, tu lugar, tus amigos de todos los días, venir acá al Centro Vasco, ir a ver básquet,... distintas cosas que te tira.

—Tengo trabajo, puedo estudiar, no tengo problema.

—No tengo urgencias.

—No tengo urgencia. Tendría que ser porque me voy por trabajo, ahora abandonar La Plata por irte... por nada, ¡no!

—De busca-vida no.

(Iker eta Josu Alava, 25-22, erreferenteak, La Plata)

Desplazamendu berrietan pentsatzeko orduan *klase baldintza* bete betean agertzen da, oraina eta etorkizuna urgentziarik gabe bizitzeko aukerak baititu diasporako gazteak. Batetik, klase ertainarentzat egoera hobera jo eta profesionalei zenbait ate ireki zaizkienean, lanerako edo formaziorako luzapen soziala izango du. Bestetik, etorkizuna imajinatzeko eta eskusartzeko bizi-luzapena dauka, bidaiatzeko aukerak barne, zeina bizi-esperientzia eta garapen pertsonalarekin estuki harremanetan dagoen.

Zentzu horretan, aipagarria da bizi luzapena eta luzapen soziala ez dela berdin bizi neska edo mutila izanik. Bizi-horizontea zabala ematen duen arren, *emakumeak baditu zenbait urgentzia*, familia osatzeko presio sozial eta biologikoak esaterako. Zentzu horretan, desplazamendu berrietan pentsatzeko orduan, diasporako emakume gazteen artean ama, izeko edo amamaren migrazio esperientzia diferentzialak presente dirauela esan daiteke.

Aipatutako klase-sozial eta genero baldintzak Argentinaren egungo egoeraren inguruko pertzepzioak desplazamendu zein enplazamenduen ideiak berpiztu edo makaltzeko gai badira, *adina baldintzak* planteamendu berdinak ekarri ditzake, gazte-gazteriak urteen joan etorriekin bizi dituen esperientzia anitz ezberdinei estuki lotuak.

Gerardo Pino gaztearen kasuan esaterako, unibertsitatean hasitako esperientzia erabakigarria izan da Euskal Herrian bizitzeko aukerak nahiz euskal mundua bere osotasunean birplanteatzeko, alegia, horien inguruko iritzi nahiz sentimenduak



birmoldatu edo egokitzeko. Berarentzat euskal mundua enamoratzearekin zerikusia handia izan du eta orain, berriz, desenamoratze prozesua bizi du. Munduan birkokatzen ari den honetan, lehengo emozioa baretuz joan da, antsietatea neutralizatu eta Euskal Herrira joateko ideia edo intentzioak baztertu ditu behin-behineko.

Cuando empecé me decían, ‘¿a dónde querés ir?’, ‘al País Vasco’, y hoy en día ya no. Hoy en día no. Creo que ya..., crecí un poco, la facultad me hizo ver tantas cosas distintas, entrás a ver el mundo de otra forma. No sé, como que el romanticismo un poco se me corrió. Antes como que necesitaba, dedicaba mucho más el tema del *euskara* y después como que un poco me empecé a desligar, me pasaban otras cosas en mi vida, si bien seguí ligado a todo esto, la idea romántica de volar allá se me fue (...)

Porque en un comienzo pasa, yo conozco gente que está dentro de lo que es una diáspora vasca, que a veces pierden la realidad de donde están. O sea, está perfecto, todo el tema de las raíces, todos estamos acá por eso, por lo que fuera, porque te gusta, porque querés participar, pero a veces pierden un poco la noción de que somos argentinos, ¿viste?, argentino. Entonces estás siempre mirando allá, pecás un poco de eso y volvés a tu realidad, hablás con tus viejos, o hablás con tus amigos, con tus amigos que no son de acá y en un momento yo estaba re pesado (muy cargante, muy machacón) con todo este tema. Después con el tiempo dije; “no, cálmate”, empezás un poco así, yo creo que a muchos les pasa, sobre todo a muchos alumnos que vienen a primer año, ya en tercero y cuarto ya se cansan, esa emoción, entonces cuando se baja un poco esa emoción se te pasa, esa ansiedad, es como que ves las cosas de otra forma, ya lo ves distinto. Ves más grises por decirlo así. ¡Bah!...la vida, ¿no? Un montón de otras cosas., qué sé yo... (Gerardo Pino, 25, euskara irakasle, CF)

Krisi testuinguru batean migrazioaren ideiak indarra hartzen du. Egoerak hobera jotzen duenean, aldiz, espektatiba eta aukeren artean nolabaiteko korrespondentzia dagoenean, **Argentinan bizitzeko ideia indartu** eta migrazioaren ideia bera lausotu eta espazioen esanguratsuen arteko birbaloratzea suertatu daitezke. Sikiera “hemengo egoera hangoa balitz”... ez litzateke desplazamenduaren burutazioa burura etorriko.

Ihesbiderako pasaportearen bila hiritartasun bikoitza lortzeko ahaleginek familia istorioak berreskuratzea inplikatu duenean, azken hamarkadetako hiper-inflazio ekonomikoak europar identitate hiper-inflazioa eragingo duela esan daiteke (Arfuch, 1996, 2002). Aldiz, identitate deserrotzea eta hainbestetan amestutako europar jatorriari berriz ere heltzea ez ezik, europar testuinguruari begiratu baino Argentina Hego-

amerikar testuinguruan ulertzen hastearren beharraz jabetu eta identitate (hego-)amerikar batean pentsatzeko aukerak ere parez pare ireki dira.

Identitatearen norantzak definitu eta alda daitekeen testuinguru orokor horretatik abiatuz, 90eko hamarkadan zein 2001eko eztanda ostean joan zirenen eta geratu direnen arteko elkarrizketa biziak plazaratzen dira. “Kapital ihesaren” ondorioz sortutako “aditu ihesa” eta oro har, “gazte ihesaren” aurrean, Argentinan geratzeko hautua egin dutenen ahotan, migratzaile berriei leporatuko zaie, hain zuzen ere, lehengo migratzaile-heroiek egin zutena ez egitea, hots, egoera zailenetan ihes egitea Argentinan geratu beharrean, bizkarra ematea aurpegia eman beharrean, esker txarrekoak izatea arbasoek esker onekoak izan direnean eta, oro har, leialtasun eskasa adieraztea.

Lo que hacían esos pibes (jóvenes) era irse, lo tomaban por ese lado, rebuscársela, ‘yo me rajo, yo no me quedo acá’ (ríe), en vez de quedarse a lucharla... Todo el mundo se quejaba que acá tenían malos trabajos ¿no? Pero allá terminan haciendo lo mismo, haciendo trabajos muy poco calificados. La generación antigua fue irse para no volver. Fue irse a conseguirse una vida en otro lado, a hacerse un lugar, encontrar una tierra donde echar raíces nuevas digamos, donde hacer su casa, construir su familia. Y en este caso... gente que fue a juntar plata y volvían ¿entendés? Fue como en el peor momento dar la espada (ríe). Y bueno, cada uno hace lo que quiere ¿no? Pero... (Damián Solozabal, 27, erreferente ohia, Rauch)

Menem-en hamarkadan (1989-1999) eta 2001eko eztanda eta gero joan zirenen oihartzuna bueltan da. Geroztik urte batzuk igaro dira, eta euren falta presente dagoelarik, joan zirenekiko aurpegiratzeak gero eta argiago entzuten dira.

Aipatu kritikak Euskal Etxeetako zenbait kideri luzatzen zaie, joan zirenen artean familia historiko eta gazte erreferente aktibo ugari baitzeuden. Bat-batean, kide andanak zentroa utzi eta zentroa mugimendu barik geratzen da; etxea hustu egiten da. Eusko Jaurlaritzaren *Euskal Herrirantz* programak esaterako desplazamendu hauek bultzatzea besterik ez zuen lortuko.

Desplazamenduekin Argentinako klase ertain zein altuari eta zehazki Buenos Aires hiriarri historikoki aurpegiratutako hori, hots, “beti Europa begira” egotearena, Argentina edo Hego Amerika testuinguruan pentsatu beharrean, oso modu esplizituan agertuko da. Baina Europak ez du berdin erantzuten eta espazioen arteko mugak gero eta argiago irudikatzen dira. Europar mitoa desegiten den bitartean Argentinan

apartekotasun zenbait mito desmitifikatzen doaz, esaterako, latinoamerikarrek Europa hertsu eta mugatu batean pairatutako jarrerak nortzuk eta argentinarrak pairatzen dituztela ikustea.

Acá cuando fue todo el problema del 2001 y qué sé yo, la cantidad de gente que se fue, fue impresionante y las colas que había en el consulado español y en el consulado italiano, era impresionante, era tremenda la cantidad de gente que se estaba yendo.

Es raro que sea un beneficio tener doble ciudadanía a la hora de entrar allá y ver la cola eterna para los que tienen el pasaporte argentino y los que teníamos pasaporte de la comunidad (europea) entrábamos así, sin problema. Pero también, acá en Argentina, se recibió tanta gente, como que no devuelvan todo eso que la Argentina les dio, cuando lo necesitaron, sí, pero cuando lo necesita uno...no (Pilar Arrizabalaga, 20, dantzari, CF)

Europak atek itxi dituenetan eta “Argentinak gehien behar zaituen momentuan” alde egitea kritikatu da oso. Kritika edo aurpegiratze horiek Argentinan geratzeko presio sozial arrakastatsua izan daiteke, joatekoak direnen artean batez ere. Zentzu horretan, litekeena da diaspora komunitateetan eta kalean entzuten diren kexuak migratzeko ideia oztopatzea, alegia, migratzeko nahiak dituztenen artean migratzeko intentziorik ez agertzea edo migratzeko planak ezkutatzea.

**Argentinako bertuteak** gailentzeko ordua da. Jada ez da bi espazioen arteko konjuntzioa bilatzea edo espazio ezberdinetik onena ateratzea, baizik eta Argentinaren aldeko baldintzarik gabeko apustua egitea.

Argentina birbaloratzen da, ohiko dikotomietatik abiatuz. Ordena/kaosa, segurtasuna/ziurgabetasuna, garapena/ azpigarapena, bihozgogortasun/sentikortasunaren artean, Euskal Herria/Europak eta Argentinak ordezkatzeko dituzten espazio esanguratsuen artean, narrazioak beste buelta bat emango du eta oraingoan bigarrenak hartuko dio lehengoari aurre.

Argentina birdefinitzen da, beresanguratu. Harrera eta agintzapeko lurraldearena, *afektibitatearen lurralde* gisa aurkeztuko da egun eta bere inguruneak perfilatuko dira, besteak beste: harreman sozialen gertutasuna eta elkarkoitasunaren zentzu zabala, familia artekotasuna, laguntasuna; erabat argentinartzat jotzen diren errituen ospakizuna

—matea hartu, okela errea jan, futbol zelaira joan—, topaketen dimentsio afektiboa, berezko espresibitatea eta sentimenduen demostrazioa...

—Mirá, yo soy un poco así, como que me cuesta desarraigarme de mi tierra, digamos. La parte afectiva me moviliza mucho, entonces creo que extrañaría muchísimo, no podría.

—Acá se vive muy bien, más allá de todo, porque somos muy allegados de nuestros grupos, muy de estar juntos y de hacer amigos, que eso te tira mucho.

—Yo he conocido la gente que ha venido de allá que se queda asombradísima de cómo somos nosotros: muy expresivos, muy familiares, más de estar así todos juntos. Y bueno, por ahí, como que ustedes los vascos tienen más fama de ser un poco más..., no sé cómo explicarte...

—Pero igual me encantaría ir a conocer y todo eso (ríe), pero como una cuestión, ya te digo, de estado transitorio. Si fuera por mí viajaría todo el tiempo, eso me encanta, pero mi lugarcito en el mundo es como que todavía es acá.

—Y también es la idea de que sabés que vas a volver.

—Siempre con pasaje de vuelta.

(Eugenia Vázquez, 30, euskara iraskasle, Viviana Domenecq, 21, dantzari ohia Paraná)

Argentinari atxiki zaion afektibitate orokortuak hara joateak galarazten du eta hemen gelditzeko euspen puntua garrantzitsu bihurtzen da.

Distantziak handitzen dira, espazioak zein sentimenduak birkokatuz. Batetik Euskal Herria urruntzen dela ematen du, zentro espazial nagusia Argentinan kokatuz. Bestetik, zu eta nire artean, gure eta haien artean distantziak markatzen dira, argentinartasuna ohitze edo adaptazio prozesu batean finkatuz, denboraren poderioz handitzen den bizi-esperientzia balitz bezala, alegia, gazteak migratzailearen baldintza hartuko balu bezala.

Une batez diaspora identitatearen ahultasuna sumatzen da, kolokan dagoenaren zalantzako posizioa. Baina ez dago anbiguetaterako lekurik. Hemen bizitzearen hautua egin du diasporako gazteak, nola eta determinazio handiarekin gainera.

Las fechas patrias las re valoro, mi bandera la respeto, todo; soy argentina y soy vasca; tenemos el lema en el Centro Vasco: “somos privilegiados por tener dos hermosas patrias” (...) Yo sé que también soy argentina y amo a mi país. Si vos me dijeras ‘si te vas a vivir al País Vasco’, (niega varias veces con la cabeza), ¡Cómo la Argentina...! Es mi país, nació acá, estoy acostumbrada. Lo otro lo amo, lo adoro, mis abuelos vinieron de ahí y realmente me encanta el lugar, me fascina, pero mi país es este y acá voy a elegir vivir el resto de mi vida (Jimena Gainza, 21, txiki irakasle, Mendoza)

Hemen, egungo Argentina honetan bizitzeak diferentzia batekin bizitzea suposatzen du. Kontzienteki eratutako diferentzia izango da. Erreferentziak edo euspén puntuak anizten edo ugaritzen ditu. Autonomia eta dependentzia berriak eratzen, esperiméntazio eta destino bideak moldatzen, oraina eta etorkizuna eraikitzen dira.

Bidearen parte batean kokatu da gaztea, azkenik. Baina horrek ez du esanahi bidea, bizi horizontea bera, agortu denik. Ez eta aurrez aldetik finkatutako bidea dagoenik. Bizi-norantzak definitzen diren honetan, maitasun minduaren harira Alfredo Zitarrosak (1967) joan denari kantatu dionez, “atzera begiratzean tristezia sentitzen baduzu, ez ahantz bidea joan eta etortzen denarentzat dela”.

Zentzu horretan, adierazgarria da oso joan ez direnak bueltan pentsatzen egoteak. Buelta egingarri bihurtu ahal izateak *jatorri, lurralde edo lekuen itxiera edo mugen ezinbestekotasuna* anulatzen du; etxearen ideia berriak zabaltzen dira, diaspora komunitatearen errepresentazioetan murgiltzeko.

Durante toda mi vida proyecté mi vida en un lugar fuera de acá., fuera de la Argentina, y ahora también me doy cuenta... ¡que no!. Así como puedo valorar un montón de cosas que vivían mis bisabuelos y que yo quiero vivir en algún momento como manera de acercarme a eso, a mí también me pasan cosas acá.

Caí en la cuenta de que estoy a gusto acá también, y hago lo que quiero y lo que siento, me dedico a lo que me gusta, a lo que elijo. Y sé que hay un montón de cosas de acá que extrañaría si me iría, eso lo sé, pero eso lo puedo ver ahora. La tierra la elige uno, de eso estoy totalmente convencida. Yo veo cantidad de chicos de allá que se sienten a gusto acá y se quedan o al revés, es una elección. Eso me pasa, y ahora me causa alegría, quiere decir que el lugar de dónde estoy lo formo yo también y estoy a gusto y me siento bien. Se tornó en una inquietud y no en ganas de irme o escaparme (Mariana Martínez, 19, dantzari, CF)

## 6. ETXEAK

### DIASPORA IDENTITATE LUZAPENAK

---

#### 6.1. Topaguneak

Gaztaroan okupatzen diren espazioek berebiziko garrantzia dute, gazteak gizartean eta bizitzan dituen kokapenaren berri ematen baitu. Gainera, espazioak sailkatzeko erabiltzen dituen errepresentazioen bidez espazio bakoitzean sortutako harremanen esanahiak edo espazioaren erabileren zentzuak plazaratuko ditu. Goazen, bada, Euskal Etxearen inguruan eraikitako errepresentazio anitzak ezagutzera, Euskal Etxeen inguruneak irudikatzen.

Gazte esperientziak espazioaren araberakoak izaten dira eta diasporako gazteek Euskal Etxe barruan edo kanpoan esperientzia esanguratsu bezain ezberdinak izan ohi dituzte. Honek ez du esan nahi diaspora zentroak espazio antagoniko, paralelo edo alternatiboak osatzen dituztenik. Ikusiko dugunez, Euskal Etxeak egunerokotasuna erreproduzitu eta egunerokotasunetik aldentzeko topagune bezala birdefinitu daitezke. Zentro geografiko bakarrean topa ditzakegu kanpoa eta barrua, publiko eta pribatua, oraina eta gerori dagozkion zentzuak.

Euskal Etxeak **espazio fisiko higiezinak** dira. Txikiak edota handiak izan, alokairuan edota jabetzean eduki, eraikitzen edota zaharkitzen egon, etxeak kokapen zehatza eta egonkorra du eta horrenbestez, diasporako kideak elkartzeko espazio finkoak dira.

Tenía mis amigos ahí e íbamos. Era un lugar más donde nos encontrábamos, algo más que compartíamos. Muchos han dejado, se han ido a otro lugar a estudiar, pero cuando volvemos nos juntamos en el Centro Vasco, hacemos un asado, nos comemos unas pizzas. Es también un punto de encuentro, un tema de charla digamos (Gerardo Ramírez, 25, erreferente, Pergamino)

Bertan daudenentzat edo joan eta etortzekoak direnentzat topagunea da zentroa. Gerturatu eta baten bat aurkituko duzunaren ideia indartsua bada, norbaitek topatuko zaituenaren ilusioa ere handia izaten da. Topaketa gehienak aurreikusi daitezke, eta aurrez aurreko tratuan gazteak beste kideekin konpartitu eta harremanak berritu eta berretsiko ditu. Etxean denak ezagutzen zaituzte eta guztiak ezagutzen dituzu; dena da bistakoa, ezaguna.

“Etxean bezala sentitzeak” ezaguna edo intimoaren maila gorena adierazi ei du. Emozionalki oso ebokatiboa izateaz gain, zaila da etxeak ordezkatzeko duen guztia deskribatzea. Funtsean, etxea osatzen dute eguneroko elementu txiki baina inportanteek, eskuragarriak ez direnean faltan botatzen diren guzti horietakoak (Schutz, 1974): hizkuntza, abestiak, hitz-egiteko moduak, paisaia, irudia, jakiak prestatzeko modua, zaporeak eta usaina, keinuak, objektuak, ohiturak...

Etxean esperimentatzen den guztia zabal testuinguratua egonik, zentzumenak piztu, zentzu-esperientziak aktibatu eta atentzio kanpoak zabaltzen dira, ingurua behatu eta interpretatzeko baliagarria suertatzen dena. Giro epel eta abegikorra denean, etxeko espazioak gaztea inguratzen duen mantu atsegina da. Gainera, jende berria gerturatzeko giltza ere izan daiteke.

La gente que viene a comer al restaurán está interesado en saber. Hay un mapa y continuamente te preguntan a ver si conocés ‘el pueblo tal porque tengo familia’, te preguntan algo en euskera. A la gente le hace mucha ilusión hablar de eso y nos acercamos mucho. Tratamos de hacer sentir bien desde este lugar (...)  
A mí me encanta, el estilo, y trato de ir más allá y ver que mejorías se pueden hacer con la fachada, con la estructura, no perder esa mística que tiene el lugar, que a mucha gente le encanta. Que la gente te diga que es hermoso, que se siente como en casa... hay que tener cuidado cuando uno hace retoques en lugares como estos que siempre fueron..., que decían mucho de una cultura, de una costumbre (Iratze Arregui, 28, sukaldari, Rosario)

Espazioaren erabilera, gestioa eta dekorazioak leku baten berri ematen du, zentzu sinbolikoa inprimatzen dio etxeari, etxea kolektibitatearen lekuko bihurtuz.

Euskal Etxeen artean diferentzia sakonak egon arren (Rosario edo La Plata bezalako Euskal Etxe historikoek azpi-egitura indartsua dute, baserriaren egiturak eta guzti dituztelarik), etxeko espaziotik barna dabilen gaztea txokoak esperimentatu, bazterrei zentzua eman eta espazioaren funtzio berriak asmatu ditzake. Inportanteena

zera izaten da: espazioaz jabetzen den bitartean etxearekiko afektibitatea handitu eta bertan duen kokapenaren zentzua hartuko duela.

Donde ensayamos, ese lugar me encanta, porque es un lugar nuestro y es donde hacemos los bailes, allá atrás, el Vicente Iburguren. Acá abajo en el Txoko Alai nos quedamos pero estamos un rato, comer algo. Nos gusta ir para atrás, arriba. Ahora, donde juegan las damas, nosotros ponemos unas tablas, nos quedamos a comer ahí. Y bueno, mirás para allá, todo lo que se vende en el Centro vasco: lauburus, pines, remeras (camisetas), qué sé yo, de todo. Mirás para otro lado y dantzari, o nombres que pasaron por acá. Mirás para allá y están todos los socios comiendo... todos los lugares son lindos (Mauro Chaulet, 28, dantzari, La Plata)

Gazteak espazioarekin interaktuatu eta beretzat hartzen du. Beraien presentzia fisiko edo sinbolikoa espazio diferenteetan nagusituko da askotan. Beste askotan espazio konkretuen ardura izango dute, dantzarako gelak, euskara ikasgelak edo tabernaren txokoak adibidez. Halaber, zenbait Euskal Etxeko gazte taldeek euren txoko propioa eduki eta gestionatzeko aukera dute. Azken hauek potentzialtasun handiko espazioak izan daitezkeela kontuan izan behar da, gazteen parte-hartze aktiboa bultzatu eta espazioa beresanguratu egiten baitute.

Espazioaz jabetu ahala, zentroa **gatazka-espazio** gisa ikustarazi daiteke. Euskal Etxeak gainean eraikitako mundu harmoniatsuen iruditik haratago, diaspora komunitatean espazio neutroak ez direla azpimarratu beharra dago, bertan birproduzitzen diren botere harremani so eginez. Zentzu horretan, Euskal Etxe barruan Gaztetxe bat aldarrikatzeko esperientzia belaunaldi arteko harreman tirabiratsuak islatzen ditu.

Empecé a relacionar eso con los Gaztetxe de allá. Discutimos con la gente de la Comisión (Directiva), ‘pero si ustedes tienen un lugar acá, ¡les sobra!’. La idea es esa, que el lugar sea motivo de encuentro, lograr que los chicos que se han dispersado se sientan como en su casa. Yo lo siento como mi casa, pero es muy difícil que alguien sienta lo mismo que vos. Y el día de mañana voy a estar chocho (contento) cuando me llamen y digan ‘che Miguel, ¿nos juntamos en el Gaztetxe?’ (risas). Esas simples cosas me reconfortan mucho. Esperemos que funcione. Estamos muy ilusionados. Tenemos muchos proyectos (Miguel Salazar, 23, gazte erreferente, Mendoza)

Ilusio eta proiektu berriak, aspirazio pertsonal eta kolektiboak, etxean proiektatzen dira. Helburuak, bitartekoak eta interesak konpartitzen direnean apartekoa



eta aldi berean ohikoa den oro garrantzia hartzen du; gauza txikienak handi bihurtu eta indarra ematen dute. Jarduera konkretuak direla eta zentroak mugimenduan daude eta, horrenbestez, gaztea mundu dinamiko batean sartzea ahalbidetzen da.

Euskal Etxeak **jarduera espazio kondentsatuak** izan ohi dira gainera. Zer edo zer egiteko aukerak handiak dira bertako gazteentzat: euskal jarduera “tipiko” edo “tradizionalak” (dantza, euskara, pilota...) eta kirola praktikatzeko (instalazioen arabera: paleta, futbola, saskibaloia...); bidaiak eta jaiak planifikatzeko; jokatu eta jolasteko; jan, edan edo musika entzuteko; edo besterik gabe bertan egon, lagun artean hitz egin. Bestalde, etxeak behar dituen zaintza espezifikoetan aritzea jarduera arrunta izaten da.

Era askotako jarduera hauen bidez espazioaz jabetu, etxearekiko ardurak hartu eta taldearekiko inplikazioa garatzen ditu gazteak. Besteak beste, prestu egotearen garrantziaz jabetzen da, alegia, zentroarekiko pertenezkiaren mailarik gorenetakoa adieraztea.

—Principalmente es un trabajo hecho a pulmón. Lo levantaron los socios, y hoy en día está donde está por los socios.

—Los abuelos.

—¡Toda la gente! Toda la gente que trabaja y que tiene que ir a arremangarse, y tener que estar toda una noche sirviendo platos en una cena para poder juntar plata (dinero). Lo hace, y lo hace sin problema. Y lo disfruta tanto como si estuviera sentado comiendo...

—Y capaz que más... porque estás en la cocina entre amigos, y la pasás bien, y te estás riendo. Y ningún problema.

—Nadie se queja. Al contrario, es que te necesitan y estás ahí.

(Elkarrizketa Taldea-Necochea)

Jarduera diferente asko egiteko aukera ez ezik, jarduerak *modu diferentean* gauzatuko dira hemen. Euskal Etxetik kanpo gazteak lan edo ikasi egiten du, baina zentroan burutzen diren lanak eta ikasketak ez dira batere konbentzionalak. Euskara eskoletan edo dantza saioetan talde dinamikak gailentzen badira, lana edo jarduera prestaketan elkartasun eta konplizitateak dira nagusi, eta lan neketsuenak ere atsegín handiz egiten dira.

Aisialdia, denbora librea, lana edo ikasketen arteko ezberdintasunak ezartzea gero eta zailagoa da. Beste kideekin batera *hemen* eta *orain* gazteak esperientzia

ezohizkoak bizi ditzake. Baina beste espazio askotan ez bezala, esperientzia bakan horiek denboran jarraipena dute.

Topagune horiek ez dira iragankorrak, aldi batekoak, unean unekoak, funsgabeak. Diaspora komunitateak **espazio iraunkorrak** dira, elkarkotasun espazio fidelak, non etxeko espazioan daudenak eta ez daudenak gogora ekarri eta gaztea istorio edo historia komun horren parte senti daitekeen.

Euskal Etxean familia lotura baino elkarkotasun zabalagoa ematen da, baita espazio formaletan ematen diren harreman sozialak baino elkarkotasun intentsuagoa.

Es como que podés llevar a cabo un montón de cosas que están en común, como festejar, o aprender lo poco que sé de euskera, esas cosas. Hago cosas que no hago en otros sitios. Ahí yo soy más yo que en ningún otro lado. Me siento más liberada de todo, de... Si bien yo tengo una personalidad bastante firme, me relajo un montón, reírme un montón, de cosas que habitualmente no las llevo a cabo. Termina la clase de baile y nos quedamos todos comiendo. A veces vengo a tocar el piano, a moverme más con otras personas que les pasa lo mismo y hacer fiestas, un montón de proyectos... Y ya esa cosa de casa, estoy un rato y paso a tomar mate. Siempre tengo ganas de ir (Mariana Martínez, 19, dantzari, CF)

Elkartzeko, ospatzeko, konpartitzeko, eta antzeko interesak eta kode berdintsuak maneiatzen dituztenekin harremanetan jarri eta enpatizatzekeo guneak bihurtzen dira.

Emozioak eta afektibitatea adierazteko baldintzak prest ditu, txunditu, tentsionatu edo erlaxatzeko paradak eskainiz. Gerturatzeko eta gogoratzeko eta, nola ez, urruntzeko eta ahazteko espazio gisa agertuko dira.

Era ir a ver a alguien que esté allá, era el furor. Siempre tenés ganas de bailar, pero siempre para divertirse, porque te olvidás de todo ahí, es como una cosa aparte que vas a disfrutar, vas a cantar, es otra cosa (Tamara Iturriaga, 19, dantzari ohia, Macachín)

Gazteak etxean dituen bizipen guzti hauek *egunerokotasunetik kanpo* kokatuko dira. Errutinatik “aparte” dagoena, apartekoa dena, Euskal Etxe barruan esperimendatzen hasiko da. Zentroko erritmo biziak, jarduera espazio dentsuak lez, eguneroko monotonía apurtzen du.

Gazteak igarotzen dituen bi espazio mota bereizten eta definitzen doaz. Bata, etxearen espazioa, barrukoa, intimoa, inguratua, epela, abegikorra, ezaguna, gertukoa,

familiartekoa. Bestea, etxetik kanpo dagoen espazioa, kanpokoa, urrunekoa, ezezagun edo anonimoagoa, hotza, inbertsonala (Gatti, 2007).

Tienen inglés, computación, van al club, al fútbol,.. Y también es eso, los padres ¡no tienen tiempo!, ¡no tienen tiempo! Por suerte se ha formado un grupo de chiquitos, eso ayuda a que sus familias también vayan. Por eso, más que clases de baile es ir, que encuentre un lugar donde se sienta bien, donde se sienta cómodo, que le guste, que encuentre amigos (Gerardo Ramírez, 25, erreferente, Pergamino)

Lantoki eta ikastetxeak, hizkuntza eta musika akademiak, klubak eta gimnasioak... ordutegi finkoa dituzten espazio arautuak dira, rol espezifikoak ezartzen dituzten espazio instituzionalak, espazio hotzak. Batzuk aisialdi eta denbora libreari egokituak, baina guztiak denbora produktiboari dagozkionak, alegia, prestatu, lehiatu, kontsumitu edota produzitzera bideratuak direnak.

“Denbora produktiboa” eta “denbora ez-produktiboaren” arteko bereizketa egin nahi da, alferrik. Kontsumo gizartean denbora ez-produktiboa denbora produktibora zuzentzen da. Horrela, denbora ez-produktiboak zentzua galdu eta zegokion funtzioa indargabetzen da, dagoeneko ez baita “deskonektatzeko” bideratzen.

Sailkapen honetan diasporako gazteak enfasia jartzen duen horrek ez du lekurik: atseginez hartzen diren era askotako konpromisoak eta ardurak ez lirateke baloratuko.

Beste sailkapen bat arriskatu behar da; alde batetik, ohiko jarduera eta jarduera arruntak bildu, eta beste alde batetik, tentsio eta emozio atseginak ahalbidetzen dituzten aisialdi praktika mimetikoak lehenengoetatik bereiztu (Elias & Dunning, 1986). Euskal Etxeak bigarrenari hobeki egokitzen zaie, Argentinako hirietan dauden beste espazioak aldiz, lehenengoari. Biak talka egin eta leian sar daitezke.

Jugué al fútbol, hice judo seis años, pero era chico. Es otro ambiente, ¿Por qué?, porque yo jugaba en un club de barrio, donde me conocía con la gente desde que había nacido (...) y también te lo tomás de otra manera por la edad. A esa edad vas, jugás, te divertís. Depende también quien te está dirigiendo, porque la gente que dirigía mandaba al chiquito como si fuese a la final del mundo, y tenés que hacer todo lo contrario: que se divierta, que la pase bien, que haga amigos. Justamente, que haga una actividad para que no esté en la calle. Cuando yo era más chico no se tomaba tan así, era todo lo contrario (Mauro Chaulet, 28, dantzari, La Plata)

Egunerokotasunak hartzen dituen denbora eta espaziotik aldentzeko, kanpokoa kanpo gera dadin, fantasia zein ilusiorako, harremanetarako, sexua eta maitasunerako, **espazio atemporalak** (Margulis, 1997) beharrezkoak izaten dira. Paradoxikoa badirudi arren, aipatu espazio atemporalak espazio eta denbora propioak behar-beharrezkoak ditu:

Espazio atemporalen denborei dagokionez, etxea *denbora askatuaren espazioa* dela esan daiteke.

Produktibotzat hartzen ez den denbora Euskal Etxera hurbildu eta jarduera rekreatibo eta ebasiboetarako denbora baimendua izango du gazteak. Asteburua, larunbata edo ostiral gauean batik bat, zentroan elkartu eta adin eta klase sozial bereko beste gazte argentinarrek egiten dutena egingo dute: hitz egin, pelikularen bat ikusi, musika entzun, matea hartu, pizza, okela edo errekia jan...

Mis amigas saben que los sábados son sagrados. No me llames a la tarde para decirme ‘Ay, voy a tomar mate a tu casa’ ‘¡No!’, saben que es Centro Vasco. Y llegar y charlar de lo que te pasó en la semana, planear algo el sábado. Generalmente hacíamos algo a la noche, todos los vascos así (Jimena Gainza, 21, txiki irakasle, Mendoza)

Espazio atemporalen espazioei dagokionez, zentroak *festa-espazio hibridoak* direla esan daiteke.

Euskal Etxea festa, ilusio zein fantasiarako dekorazio, iluminazio eta musika prestatu daiteke, –urte bukaerako jaietan edo lantzean behin zentroan egiten diren erakustaldietan–, euskal ikurrak espresatzeko medioak tarteko, baina ez soilik horri mugatua. Hemen ez dira faltako, orokorrean, ez ikurriñik ez Argentinako banderarik; Euskal Herriko mapa eta pegatinak, irudi eta argazkiak; taberna eta parrilla; euskaraz agurtzen duen norbait; gorputza janzteko kamisetak, intsigniak eta bestelako bereizgarriak.

Oro har, gazteak desinhibitu eta ireki, desegituratu eta integratzeko, eroso egon eta norbera izateko espazio eta denbora bereizgarriak ahalbidetzean datza espazio atemporalen garrantzia.

—Se nota a full la diferencia, por el tema de que acá compartimos muchas cosas... todos. Todos los que vienen acá comparten todos algo. En cambio cuando vos vas a un bar hay más grupos, hay separaciones, hay que buscar el lugar para estar, y acá es como que es más...

—Hay un rol más familiar acá. Hay distintos grupos de gente, distintas edades, y distintas actitudes. Todos estamos unidos, ya sea por las actividades que se dan acá, o por un gusto de estar juntos todos, familia.

—Yo creo que es así. Si, es así.

—El tomar se toma acá, se fuma acá, y se toma allá y se fuma allá. Es que por ahí que acá se controla mucho más eso, el tener un control de uno mismo, el disfrutar de una fiesta más normal, más...

—Si, ¡pero también nos emborrachamos acá adentro!, en otro nivel.

—Es más discreto...

—Pasa también porque esto es tuyo, uno cuida más lo suyo.

—Otro entorno de, de, de trato, de respeto.

—La gente cuando entra se apropia del Centro, porque el Centro también se lo permite. Entonces es como que eso también genera un estado de “orden”- entre comillas-, o sea, un pseudo orden. Es como un cierto respeto. O sea, no reprime, se puede manejar libremente o sea... es una de las cualidades que...

—Que hace que esto siga funcionando.

—Que funcione y que esté como esté...

(Talde elkarrizketa- Arrecifes)

Gazteak espazioak sailkatu eta definitzen ditu. Bakoitzak bere funtzionamendu, arau, kode eta praktika zehatzak izango ditu; bakoitzak interakziorako aukerak, debekuak eta preskripzioak erregulatzen ditu. Hau da, espazio bakoitzak gaztea zer izan daitekeen eta zer ez definituko du. Topaguneak, zentzu horretan **baimen nahiz debeku espazioak** ere badira.

Ez bakarrik Euskal Etxeetan; aipatu ezaugarriak konpartituko dituzte gaztea murgildurik dagoen hainbat eta hainbat espaziok, batzuk aipatzeagatik, boliche edo tabernak, lantokiak, ikastetxeak edota zentro komertzialak. Diasporako gazteak espazio hauek transitatzen jarraituko du, ez du aukera hori baztertuko. Baina behin eta berriz lehentasunak zeintzuk diren argituko ditu. Formalki, behintzat, gehienetan nahiago izango du Euskal Etxean geratzea. Halere, aukeraketa hau eginez zentrotik kanpo eskuragarri dituzten gazte espazioen arau eta kode sozialak saihestea lortuko dute, etxe barruan bestelako arau eta kodeak birproduzituko dituzten arren.

Barrua eta kanpoaren arteko distantziak handitzen diren bitartean, publiko eta pribatuaren zentzuak agertzen doaz. Batetik, Euskal Etxea espazio itxi moduan

errepresentatzearena, alegia, zentro pribatu baten formak hartzearena. Bestetik, kaleko espazio publiko zabalarena, irekia eta integratzailearena, plaza publikoaren irudian agertutakoa. Ramon Alarconek esplikatzen duenez, bereizketa hauek La Pampako Macachin bezalako herri txikietan ere ematen dira.

(El fin de semana) los chicos más que nada lo utilizan para joda, disfrutar con sus amigos. (Los jóvenes del Centro Vasco) están todos los días metidos adentro y es feo porque justo el sábado están todos (los jóvenes del pueblo) metidos en la plaza, re lindo. Si te gusta no es feo, pero queda mal. Entonces (los ensayos) lo hacen los viernes a la noche, ahí casi siempre estamos todos. Te pegás un baño y salís para el pub (Ramón Alarcón, 21, dantzari, Macachín)

Hortaz, diaspora gaztea espazio anitzetan arituko da. Gazte espazio ororen ezaugarritzat jo daiteke, halaber, *bazterketa mapak* osatuko dituztela, modu batean edo bestean. Bazterketa distintzioaren beste aldea litzateke, eta gazteek ordu txikietan igarotzen dituzten espazioak etnozentrikoak, klasistak eta arrazistak izaten direla (Margulis, 1997) kontuan hartzekoa da.

*Klase sozialaren arabera* espazio konkretuetan sartu edota kanpoan geratuko dira gazteak. Halaber, barruan sartuko denak badaki jokoan dauden elementu sinbolikoak zeintzuk diren, eta bertan geratzeko (edo kanporatua ez izateko) zenbait jarraibide kontuan izateaz gain, zenbait trebezia garatu beharko ditu. Adibidez, jarrera bat adierazi, kode batzuk jarraitu edo estetika bat zaindu.

Oso gutxitan espresuki aipatzen den kontua, Euskal Etxeen inguruan klase sozial ertaina eta altua bilduko dira, eta klase baxuak edo herri sektoreek ez du lekurik izango, oro har. Gazte kategoriaren baitan, azken hauek gazteria-ez-den-gaztea osatuko lukete. Aipagarriena zera da, Euskal Etxeak **bazterketa espazioak** ere badirela.

Muchas veces yo lo comenté con mi novio, con familiares o con otra gente, ponele acá... bueno, en los Centros Vascos, ¿no? incluyendo éste, ¿vos ves gente pobre alguna vez, gente, digamos, de un nivel social bajo? ¡Ni hablar en el Laurak Bat! pero... es como que no hay un acceso a todo tipo de gente. Tampoco hay una cosa para que se acerque. Porque imaginate todos los descendientes de vascos que hay acá en la Argentina, hay un montón que deben ser, digamos, pobres, o de un nivel social bajo, qué sé yo. Que no viven en las condiciones normales que vivimos nosotros, sino que le faltan un montón de cosas, y que tranquilamente pueden acercarse a Centros Vascos a estudiar euskera, a conocer algo, o a preguntar algo sobre el apellido... Eso nunca lo vi (Malena Arandia, 29, euskara irakasle, CF)

Askotan aipatzen den kontua, *nazio adskripzioari* dagokionez, bazterketa espazio gisa agertu ohi dira diaspora topagune hauek. Honen harira, kanpokoan mesfidantzak handiak izaten dira eta, probokazioa handitzearen, Euskal Etxeak *sektak* direla aditzera emango diete maiz zentrora gutxitan joaten diren lagun eta ezagunek. Eta sekta terminoak sozialki dituen konnotazio ezkorrak ezagunak dira: elkarte ezezagun, sekretuzkoak, susmagarriak; talde egituratu itxiak, fanatikoak, baztertzaileak bailiran kontsidera daitezke diaspora zentro horitatik inoiz transitatu ez duenarentzat.

Ospe txar horren jakitun izanik, eta larunbat gaua ere Euskal Etxean egoteko zaletasuna dela-eta, lagunak hurbildu eta parte har dezaten gonbitea luzatuz erantzuten dute gehienek, etxeko ateak zabaldu nahian, nonbait, eta bestelako irudia agertuz, alegia, ezagutaraztea, integratzearena, irekitzearena.

—Muchos amigos vienen y ‘¿cuándo hay fiesta en el Centro Vasco?’, ‘¿cuándo hay romería?’, ‘¿cuándo hay kalimotxo?’. Para hacerte enojar te dicen gallego (español). Ahora cuando salta otro dicen ‘¡el es vasco!, ¿eh?’, e incluso empiezan a discutir explicándole. Y cuando bailamos fandango se ponen a hacer así como que bailan.

—PERO AL PRINCIPIO LES PARECÍA ALGO...

—Una secta

—En general, muchos dicen, ‘¿saliste?’, ‘no, estuve en el Centro Vasco’

—‘¡Qué raro!’ te dicen.

—‘¡Qué raro!’, ‘¿Hasta qué hora te quedaste?’, ‘hasta las tres y algo’. ‘Entonces saliste’, ‘no, no salí’.

—Porque para algunos es como estar en su casa con sus amigos tomando algo. A la larga lo terminan entendiendo, e incluso vienen.

—Pasa que nos hacemos amigos de tanto viajar, y te dicen hay fiesta en Rosario y el fin de semana no laborás (no trabajas) y podés ir, y te vas y ahí conocés gente y así conocí a (mi novia) Ainara. Parece una secta, los que son de afuera te dicen, ‘ustedes son de una secta, de novio con una vasca, estás todo el día en el Centro Vasco’...

(Iker eta Josu Alava, 25-22, erreferenteak, La Plata)

Diasporako gazte hauek denbora eta dedikazio handia eskainiko diote zentroari, Euskal Etxeko beste zenbait gaztek noizean behin soilik gerturatuko direlarik. Maiztasuna zentroak birdefinitzeko orduan eragin badezake ere, biek ala biek termino berdintsuetan deskribatuko dituztela aipatzekoa da.

Laburbilduz, topagune horietan bateragarriak dira ustez bateraezinak diren egunerokotasuneko eta egunerokotasunetik kanpoko espazioak: dibertimendu osasuntsua, lasaitasuna eta mugimendua; denbora liberatua eta kontrola; kontrolpeko festak eta bat-bateko espresio ustekabeak.

Azkenik, Euskal Etxeak **euspen-espazioa aproposak** bezala birdefinituak izan daitezke, kalean antzematzen duten segurtasun faltatik babesteko, inguratuta sentitzeko, ezaguna denaren espazio abegikorra...

Cuando son esas fiestas en los boliches, a esas voy. Voy a lugares tranqui, a comer, eso, pero no ir a bailar. No, ir a bailar, encerrarme ahí, no, no me gusta. Música muy fuerte, griterío. Acá es más tranqui, más familiar... Acá podés venir tranquilamente, pasar muy lindo momento... Es más familiar (...) (Prefiero estar aquí) que en la calle. Aquí hay mucho para hacer. Aparte, es saludable (Marcos Vázquez, 17, dantzari, José C Paz)

...gurasoak lasaitzeko eta zentroen instalazioak edo azpiegiturak lortzeko nagusien konfiantza irabazteko gai diren espazioak dira, gaztea hazteko eta hezteko espazio egokiak hain zuzen ere.

Es como una familia. Yo entro acá y es como estar en casa, te manejas como si nada... como si estuvieras en tu lugar. Es lo que tiene de bueno el Centro Vasco...funciona mucho como centro de contención, por decirlo de alguna manera. Te hacés tu grupo, conocés gente de diferentes edades...chicos que por ahí viviendo en el mismo pueblo en la misma ciudad no conocías. Aparte te lleva, vienen todos, 'bueno, ¡vamos!'. Hicimos del Centro Vasco ese lugar, esa cosa de que lo sintieras al Centro Vasco como tu lugar. La Comisión (Directiva) siempre está abierta para todo, siempre ayudando, '¿qué necesitan?'. La gente siempre te incentivaba a que ayudaras, que fueras, que estuvieras. En el Centro Vasco siempre tenés ese lugarcito para venir cuando quieras, no hay problema con eso (...)

Y mi mamá, estaba re contenta que saliera de mi casa, me re apoya mi vieja (mi madre), ¡bah! todos en mi casa, ¿viste? no les molesta que esté acá en el Centro Vasco. Aparte qué sé yo, es diversión sana digamos, están seguros que estoy en un lugar donde me van a contener, me van a, voy a poder estar, no voy a hacer nada raro (Gloria Frondizi, 18, dantzari, Pergamino)



## 6.2. Komunitate erreferentziak, pertenezia lekuak

Euskal Etxea jarduera anitz modu diferentean egiteko topagunea da, bizipen konpartituak izan eta egunerokotasuna intentsuki bizi, modu ezohizko batean egunekotasunetik aldentzeko. Interakzio fisiko, afektibo eta sinbolikoen bidez, espazioa hauek zentzuz bete eta pertenezia leku bihurtuko dira (Augé, 1992), zeinak munduan kokatzeko nahiz ibiltzeko erreferentziak propioak eskainiko dituzten, parte-hartze jarraitua duen gazteari bereziki.

Euskal Etxera sartu zenetik, –beldur eta espektatiba gaindiko lehen egun hartatik–, komunitatearen parte izaten hasi arte, ibilbide luzea egin dezake gazteak. “Diasporagaiak” inguratzen duena behatzeari utzi eta *aktiboki parte- hartu* beharko du. Etxeko espazio fisikoa propio egitea batetik, eta kideekin harremanak sendotzea bestetik, sartu berri den gaztearentzat bi erronka garrantzitsu dira. Erronkari aurre egin eta helburua lortzea berriz, garaipen txiki bat lortzearen modukoa.

Esto era un galpón viejo, abandonado, roto y sucio, y encima el grupo de dantzaris es un grupo muy cerrado –un grupo de amigos, todos primos y el novio o la novia de aquel otro-. Todas esas cosas tenía. El que es de afuera y lo ve por primera vez se encuentra con una pared. Yo me encontré con esa pared y... yo soy muy tímido, tengo muy pocas relaciones, y no me explico cómo entré. Aparte estaba negado porque bailar no es algo que me llame mucho la atención y sin embargo... Ahora somos un grupo muy formado de amigos. Ya está, me siento parte de esto. Antes al principio no formaba (Nahuel Pereira, 23, euskara irakasle, Mendoza)

Hasiera batean, behintzat, instituzioaren eguneroko bizitzaren inguruan gazteak duen ezagutza “inkoherentea, partzialki argia eta kontraesanez betea” dela esan daiteke. Baina komunitatearen ezagutza jasotzen hasiko delarik, “koherentzia, argitasun eta adostasun *nahikoak* izango ditu ulertzeko eta ulertua izateko” (Schutz, 1974, 98). Horrela, komunitatearekiko arrotz izateari utzi orduko, bere tokia egiten has daiteke, “orain bai, parte sentitzen naiz” esan arte. Orduan bai, gaztea **munduan (ber)kokatu** egiteko moduan dagoela adieraz dezakegu.

Kokapen bereizgarri honek baditu zenbait inplikazio. Batzuk aipatzeagatik, lehenik eta behin etxeko gauzekiko interesa, konstantzia edo lan egitearen borondatea izatearena. Hots, *konpromisoa* eta *inplikazioa*. Bigarrenik, *leialtasunarena*, “bere

esanera egotea” moduko esaldietan espresatzen dena. Eta, azkenik, etxearekiko *ardurak*, azpiegituraren zaintzari ematen zaion garrantzia aipagarri.

Aipatu ezaugarriak Euskal Etxea bestelako topagune formetatik bereizteko lagungarria da, alegia, sailkapen berriak egiteko aukera. Kontu errepikakorra diasporan, zentroari ezin *klub* deitu, eta asko zainduko dira bi termino horiek ez nahastearren.

—No es lo que es un club. Tiene todo, tiene más cosas que se dan.

—Hay muchas cosas para hacer. Acá venís, hacés y trabajás, eso en un club ya está armado. Esto lo vamos armando día a día, con las actividades, con el (programa de intercambio) Hator Hona, con las ideas que se nos van ocurriendo.

—Claro, aparte se da una crisis económica, no es que te alejás del Centro Vasco, porque es como que si estuvieras mal y te vas de tu casa y la dejás de pintar, la dejás de cuidar, la dejás de esto... Sabemos que es nuestra casa, vas a cuidarla...

—... vas a venir a ver su gente, a ver la gente que conocés de toda la vida, a charlar.

—En un club vos vas y te olvidás, o sea, no tenés metido en la cabeza que el que dirige el club podés ser vos, digamos. El que va al club lo usa y se va. Nosotros no venimos acá a eso. Nos preocupamos por mantenerlo.

—Es otra la mentalidad acá adentro.

(Elkarrizketa Taldea- Necochea)

Jarduera mota ezberdinak, familiartekotasuna, azpiegitura inbidiagarria edo antolakuntza ona (funtzionamendu egokia, gestio efizientea) dira Euskal Etxea bezalako instituzio batek bildu beharreko ezaugarriak.

Beste instituzioekin alderatzen da diaspora etxea, norberarena goraiapatuz. Herri txiki edo handietan etxearen izen ona azpimarratzeko tendentzia dago. Neurritz gain baloratu ohi da, era berean, diaspora komunitateko kide izateak ekar ditzakeen mesedeak... eta etekinak. Aho txikiarekin adierazi ohi dena, komunitateko kide esanguratsua izateak statusa indartzeko erabilia izanen da.

(En Macachín) nos conocemos todos. Cuando vos golpeás una puerta y decís que venís en nombre de los vascos, se te abren puertas y ventanas (risas). Es una institución que está muy bien vista. El Centro Vasco siempre tuvo un buen funcionamiento, comparando con otras instituciones que hay. La sociedad española solamente tiene el edificio, no existe como organización, nadie quiere hacerse cargo. En cambio con el Centro Vasco todo el mundo quiere hacerse cargo, y ser el presidente. ¿Por qué? porque va ganando poder. El que quiere la presidencia es porque quiere poder. Ya te digo, el presidente de la comisión de los vascos es importante a nivel pueblo (Malena Santisso, 29, kultur erreferente, Macachín)

Euskal Etxea egitura formala duen familia instituzio antolatu gisa birdefinituko da. Adina eta generoaren arabera kide bakoitzak funtzio bat eduki eta bakoitzak berea betetzea espero da, gazte eta emakumeak askotan organo batzuetatik baztertuak izan direlarik, Zuzendaritza Batzorde edo Euskal Etxearen presidentea izateko bideetatik adibidez. Ezarritako hierarkien arabera, erabakitze eta botere esparruak ezaugarritzen dituzten negoziazioa eta gatazka bere baitan du instituzioak. Hor ere antolatzeko forma instituzionalak jarraitzen dira (aktak jasotzea, subentzio eskaerak, proposamenak eta balantzeak aurkeztu...). Azkenik, memoria eta tradizioa aldetik, egiteko eta pentsatzeko jarraibideak eskaintzen dituen instituzio sozialak ere badira.

Horrela bada, diasporako gazteak egiteko forma konkretu batzuk ikasiko ditu. Instituzioen funtzionamendua ezagutu, arauen barneratzea eta organo konpetenteekin komunikatzea eta dagokiona eskatzea irakasle eta erreferenteen lana izaten da, inplikazioaren seriotasuna nabarmenduz.

Empezamos como a decir: ‘organicémonos’. No es venir dos horas a ensayar. Tenés que planificar, pensar qué se puede comer, qué no, que cuánto sale la tarjeta. Eso es así, te lleva tiempo. Es explicar cómo manejarse. Es comunicarse con la Comisión Directiva y decir ‘poneme en el orden del día’, pedir plata, que te aprueben el presupuesto. Y bueno, con ayuda de los más grandes, tratamos de explicarles a los más chicos cómo es todo. Es lo que ellos van a tener que hacer en un futuro. Es todo una institución. Son cosas que las tenés que tener organizadas. Es aportar el granito (Dolores Belaustegui, 22, dantza irakasle, Rosario)

Gaztea mundu antolatu, formal, hierarkiko batean sartuko da. Zentrotik kanpoko ingurunea, ordea, ez da horrela antzematen; kaosaren pertzepzioa handia da, arriskuen sententzia presente dago. Gazteriak ustez bizi duen orientazio faltaren aurrean etxeak ordena eta zentzua eskaintzen ditu.

Diaspora zentroak **komunitate erreferentzia positiboak** bilduko ditu oro har. Egungo Argentinaren gabezien aurrean euskal diasporaren potentzialtasunak ez ezik, Argentinan dauden diaspora kolektibitate ororen potentzialtasunaz arituko dira, halere. Honek diasporak gizartean izan beharko lukeen funtzioen berri ematen du.

Krisi sakonen astinduak presente dirauelarik, guztiz asebetegarria ez zaien momentu batean, positibo edo eredugarria den oro etxearen barruan proiektatuko du. Esaterako, ezegonkortasunaren artean jarraikortasuna agertuko da; familia

desegituraketan aurrean etxeen familiartekotasuna gorai patuko da; hiriak probokatutako erritmo azkarra baino, lagunenekin egoteko parada baloratu da; aurrez aurreko tratuzuzena, gertutasuna, afektibitatea, eta abar.

Acá viene mucha gente y se pone a disposición de un fin, de un lugar donde se pueda estar cómodo. Capaz que en el trabajo tienen problemas, pero vienen acá y tratan de olvidarse de todo y encontrarse con amigos para hablar, para trabajar. Se sienten parte de él, y hacen todo por él. Eso está bueno porque es como algo con que agarrarse, algo para salir adelante.

Acá encontré como una segunda familia, conocí mucha gente, abrí más la cabeza, conocí historias, me desestructuré bastante, y uno como que está más en contacto con las personas, ¿no? Eso es lo que importa. En una era en la que está todo tan mecanizado, como que es un lugar para encontrarse, y rescatar lo bueno de los tiempos pasados Y EL PRESENTE... ¡Y sí! Trabajar por el futuro también. Y nada, yo formo parte de eso (Miguel Echepeare, 22, euskara ikasle, CF)

Etxea inguruko arazo, gatazka edo krisien eragin kaltegarrietatik aparte kokatzen dela dirudi. Etxeak segurtasuna eskaini eta auzo bizitzaren irudikaria indartzen du: “Auzo mundu batean bizitzeak”, modernitatearen azkartasunetik at dauden munduen errekreazioa (esaterako, turismo-kontsumo formak edo disposizio teknologiko berriek ahalbidetutako deskonexioak edo dibertsio parkeak, Disney parkeak kasu), galdu den mundu homogeneo batean sinbolikoki murgiltzeko poztasuna ematen du eta horixe da, hain zuzen ere, erakargarria egiten dutena (Morley, 2005)

Badago, ordea, beste interpretaziorik. Izan ere, diaspora komunitatean parte-hartzea non eta Argentinan parte-hartzea da. Zentroan ikasitako kanpora proiektatu dezakete eta hori izaten da, hain zuzen ere, helburu nagusienetako. Esaterako, Euskal Etxean *konpromiso eta ardura* batzuk garatuz, gizartean antzematen dituzten konpromisoa eta ardura faltei buelta eman.

Lo de las raíces, el interés por la cultura...., también te hace querer mucho a tu país, de querer que crezca y sí, (tener un) interés por la cultura. (Ante la) falta de compromiso, asumir un compromiso. Participar en una asociación, sea cual sea, es ‘tenés que estar tal día a tal hora en tal sitio’. Como decimos con el Miguel, lo vasco no se obliga, se siente... Si lo hacés por obligación, lo vas a terminar dejando a la larga....Yo adoro ir al Centro Vasco, lo adoro. Por ahí a veces me da fiaca (pereza), vagancia, pero ahí soy feliz, una vez que estás ahí, me encanta... (Jimena Gainza, 21, txiki irakasle, Mendoza)

Norberekeria eta lehiakortasunaren aurrean, Euskal Etxean beste elkarrekintza, harreman eta interes batzuk posible diren ustea dago; askoz solidarioak, ez horren pragmatikoak. Euskal Etxean aipatu indibidualismo formak urrundu, bakardadea eta anomia uxatu eta konpainiaz disfrutatzeko eta ikasteko aukerak oso positibo baloratzen dira.

Azkenik, itxarotera kondenaturik egon beharrean, aktibatuta egon eta manifestatzeko aukerak oso modu positiboan (bir)baloratuko dira, hain zuzen ere, egunerokotasunaren urgentzietan murgildu beharrean, konpartitu, elkarrekin ikasi eta eztabaidatzeko aukera izatea. Horrela, gazte “pasota” edo “galduta dagoen gaztearen” estereotipoekin alderatuz, Euskal Etxeko gazteak bestelako interesak eta jarrerak agertuko ditu, formalki behintzat.

—Yo lo que noto, por ahí es una pavada (una “chorrada”), pero ves a todos en su mundo con su MP3 bendito, es como que... es como el principio del individualismo

—No sé si son los jóvenes individualistas, el mundo es individualista. Vos competís todo el tiempo, vos te formás para trabajar en un lugar donde tenés que competir con otro te guste o no. El modo de vida, el mundo te lleva a hacer cosas, tiende a hacer esas cosas. Sigue habiendo jóvenes comprometidos con un montón de cosas y es así...

—No es que quiera sonar novelera, pero yo creo que un poco lo que hacemos en grupo es un poco de resistencia ante el individualismo.

—Hay matices, porque dentro de nuestro grupo hay gente muy individualista también. No te digo que todos dentro del Centro Vasco tiene intereses sociales ni de crear lazos ni nada...

—Nosotros éramos 40 y es un bardo (un lío) organizarse entre 40, y es aprender a manejarse como grupo. Yo veo todo esto, pero no me desanima. Al contrario, no te quedás cruzado de brazos, a mí me anima a aprender a hacer cosas entre un grupo (Talde elkarrizketa mistoa, Buenos Aires)

Gaztea Euskal Etxean eta munduan kokatu ez ezik, –eta zenbait kasutan diaspora munduan kokatu ez ezik–, diaspora komunitatea **bidea egin ahal izateko** leku egokizat hartuko da. Zentzu horretan, inportantea da oso etxea irteera eta helmuga puntu bezala soilik ez ulertzea, baizik eta munduan orientatzeko erabiltzen diren koordinadak bailiran bezala ulertzea (Schutz, 1974).

Etxea hazteko nahiz hezteko da, aurrera egiteko modu bat. Euskal Etxeak irakatsi, ikasi, formatu, ezagutzak aplikatu eta trebeziak garatzeko, sozializatzeko gune garrantzitsuak dira. Etxe kolektiboa lez, txiki, gazte eta helduen topagune gisa,

belaunaldien arteko harremana baloratzen da. Baita belaunaldi batean ematen diren neska-mutilen arteko harremanak.

Nunca, nunca me pasó antes, ir a un lugar y que te den... que te den, por decir “tu lugar”. Tener un lugar dentro de una institución, dentro de algo, poder decidir y poder hacer. Todos tienen su palabra y su lugar, ¿no es cierto? Te enseñan a manejar todo eso con mucha responsabilidad. Y eso, más allá de lo que es el Centro Vasco, en lo que es la vida te ayuda muchísimo... Es un lugar donde yo aprendo muchas cosas, más allá de aprender bailes aprendo cómo desempeñarme, cómo manejarme en un grupo, con gente, cómo tomar una decisión y después hacerme cargo... Si estoy haciendo algo y me equivoco, saber que me equivoqué, y empezar de nuevo (Emmanuel Pérez, 22, dantza irakasle, Bahía Blanca)

Etxea batasun zentzua hartzeko eta, aldi berean, etxekoetatik bereizteko edo bereizgarritasun propioak adierazteko espazioak eskainiko dizkio bere kokapena definitzen ari den gazteari.

Eta hori izaten da, gazte hauen kasuari dagokionez, azpimarragarriena: bizi-ibilbide luze honetan planteatzen zaizkion muga zein horizonte zabalen errekonozimendua; ibiltzen jarraitzeko, besteekin bidea egin edota bere bidea hartzeko konfiantza nahikoa hartzea.

A mí el Centro Vasco me ayudó mucho porque yo era muy cerrada. Ya fue todo un tema tener que venir a la primera clase, que no conocía a nadie. Y bueno, vas conociendo a chicos más grandes, más chicos, ¡de todo! Te vas abriendo. Y después de ahí se me hizo más fácil, porque al tener un ambiente tan cálido... fue como que me fui haciendo más abierta, más sociable. ¡Ahora no me para nadie! (Gloria Frondizi, 18, dantzari, Pergamino)

### 6.3. Hamaika etxe. Diaspora komunitate sareen hedapena

Hasieran esan bezala, Euskal Etxea kokapen zehatza duen zentroa da. Horrek ez du esan nahi diaspora komunitateak itxiak edo buruaskiak direnik, maila lokalean eta gain-lokalean harremanik ez dituztenik, edo eragina betiere mugatua dutenik.

Argentinako euskal diaspora *multi-lokala* da, eremu anitz eta heterogeneotan ehunetik gora Euskal Etxe daudelarik. Zentroen arteko harreman, lotura edo elkartrukeak direla-eta, *trans-lokala* ere baden diasporaren aurrean kokatu behar gara.

Aipatu bi ezaugarriak medio, etxearen ideiarene luzapena emateko aukerak parez pare irekitzen direla ikusiko dugu. Euskal Etxe guztiek ez dituzte harreman mota eta intentsitate bera, halere: Euskal Etxe historikoen arteko harreman estuak eta interesekoak esaterako, oso inportanteak dira egun ere, eta zentro berrietan duten presentzia eta erreferentzialtasuna alde batekoa da. Gainera, eskualde batzuetan besteetan baino harreman handiagoak izaten dira (Buenos Aires probintzian bereziki). Azkenik, diaspora harreman gehienak Argentinara mugatzen direla aipatu behar da, nahiz eta Uruguay, Txile eta Estatu Batuetan dauden zenbait Euskal Etxerekin kontakturen bat edo beste izan. Hori dela eta, datozen lefroetan Argentina eta Euskal Herriarekin dituzten elkartrukeetan zentratuko gara, bizipen diasporikoen zentzuak ezagutzea helburu.

Orokorrean Argentina mailan zentroen arteko harremanak ugariak eta anitzak direla esan daiteke. Batzuk aipatzeagatik: dantza saioak eta pilota partidak hurbileko herrietan; urtean bitan antolatzen diren euskara barnetegiak; herri ezberdinetan urtero ospatzen den Euskal Astea; egun seinalatuetan zentro batzuetan egiten diren festak, San Ferminak, San Ignacio edo Aberri Egunak kasu; erreferenteen artean egiten diren bilerak edo euskara irakasleek astebururo egiten dituzten desplazamenduak...

Yo también estuve en la situación que están ellos; para mí ser vasco y pertenecer a un Centro Vasco era eso, desfilar vestida de vasca, porque era lo único que teníamos. Son ciudades chiquititas, no tienen posibilidades de nada y (el Centro Vasco de) Bahía es un centro re grande, organizado, súper a favor de la cultura, todo, y ayuda a la los Centros Vascos pequeños. Yo me involucré un montón, haciendo amigos invisibles de Viedma, de Río Colorado, de Bahía para que se conozcan, no solamente de transmitir todas las actividades de euskera sino para toparte con otra gente que también está con lo mismo. Todo en beneficio del centro (Luz Barrena, 26, euskara irakasle, Bahía Blanca)

Euskal Etxe eta diaspora kideen arteko harremanak eta trukeak **diaspora bizipenak indartuko** dituzte. Hots, euskalduntasuna bizitzeko parada ez ezik, kolektibitatearen arteko topaketen bidez diasporako kideak ezagutu eta diaspora zentzua hartzeko aukera izango du gazteak. Urrun antzematen zutena gerturatzen doa; orain arte ikusezinezko errealitatea izan den komunitate zabala, ikustarazten hasiko da.

Bizipen berdintsuak izan, interes berdintsuak eduki, gauza berdintsuak egiten dituztenekin topo egingo dute. Identifikazioa bat batekoa izaten da. “Beste toki batzuetako euskaldunekin” konpartituz, dagoeneko diaspora esperientzia ez da zentro bakar batera –euren Euskal Etxera– mugatuko ikusiko dute.

Diasporaren magnitudez jabetu ahala *legitimazioa bi aldeetara* emango da. Batetik, maila lokalean kokatuta dagoen Euskal Etxea indartzeko, non eta diaspora barruan indarra eta babesa lortuko duen. Bestetik, komunitatearen luzapenari helduz gazteak berak bere egitekoak legitimatu edo justifikatzeko beharrezkoa duen onarpena. Noski, diaspora topaketetan ez dira falta ondo pasatzeko aukerak, egunerokotasunetik urruntzeko baliagarriak ere badirenak...

Vos decís baile vasco y por ahí decís ‘¿y esto qué es?’. No se dan cuenta que bailar y hacerte conocido es lindo y no saben de la fiesta y la semana vasca lo que es..., porque es cierto, la juventud lo que busca es estar entre muchos chicos, hacerse conocido y pasar un fin de semana largo entre todos. Y cuando te llaman de algún pueblo, de la fiesta de las colectividades, vas y representás a la colectividad vasca, vas y pasás una noche, bailás, demostrás lo que sabés, te tomas un vinito, te comés un asadito, que siempre hay ¿viste? Volvés contento y pasas un día diferente, salís de la rutina, a mi me encanta (...) Te hacés conocido; y esa gente es buena (Ramón Alarcón, 21, dantzari, Macachín)

Diaspora zabalean identitatea irtotzen doa, urtean zehar burututako lanak erakutsi, kolektibitatea ordezkatu eta errekonozimendua lortuz.

Sareak ere handituz doaz. Kolektibitateen barne topaketetan diasporako euskaldunak ezagutu, informazioa eta egitekoak konpartitu, diaspora eta zentroen gorabeheren berri izango du. Harreman sareak eta informazio sareak berebiziko garrantzia izango dute: kolektibitatean integratu eta horren parte sentitzeko parada izango du, alegia, euskal diaspora-mundu hori gertutik ezagutu, jarraitzeko eta irekitzeko aukerak.

Diaspora eta euskal munduak irekitzeaz gain, gazteak beste hainbat marko zabalduko ditu, diaspora eta euskalduntasunetik haratago doana. Hain justu, gazteen artean ohizkoa da diasporaren barna **Argentina bera gerturatzea**, modu ezohizko batean Argentina errealitatea deskubritu ere...



Yo la gran ventaja que tengo, entre otras tantas, es que he podido viajar por toda Argentina. Yo no conocía a mi país. Argentina poco y nada. Y con el Centro Vasco recorrí el país. O sea no sólo conocí lo vasco sino lo argentino.

En todos los lugares donde yo fui, no sé, en Paraná, en Córdoba, en Rosario, La Plata, Buenos Aires, es todo un mundo distinto al mundo que se vive acá en Mendoza. Los Centros Vascos del país no se pueden comparar con el Centro Vasco de Mendoza, porque la relación que existe es totalmente distinta. O sea acá sigue siendo un grupo de amigos. La desventaja es la desorganización. Allá es una institución fuerte con una comisión que decide tal y cual cosa (Nahuel Pereira, 23, euskara irakasle, Mendoza)

Euskal Etxeen artean alde handiak egon arren, bisitatutako zentro gehienek tokian tokiko komunitatera zenbait jardun bideratzen dituztela ikusi dugu, asistentziarako jardun sozialak eta kultur arlokoak bereziki (geriatrikora joan edo umezurtzekin aritu; arropa, jostailu, jakiak edo dirua bildu, eta abar)

Komunitatera, —eta zenbait kasuetan komunitatearen kaltetuenetara—, zuzendutako zenbait jardunen eraginkortasun nahiz egokitasunetik haratago (Euskal Etxeari baino, nori dagokion zer eta nola egin, gobernu eta herriko instituzio publikoetara zuzendu ei dira begiradak), funtzio nagusia laguntza eta ekarpenak egitea baino gehiago jarduera horien bidez euskal komunitatea beste eremuetara eraman nahi da. Hau da, euskal diaspora ezagutarazteko estrategiatzat jo daiteke. Halere, hori baino gehiago lortzen da. Izan ere, gazteak herrian bizi diren arazoez ohartzea baimentzen du, beste modu batean horrelako gerturapenik izango ez lituzketela azpimarratuz.

—Todos los años vamos al geriátrico, bailamos, les llevamos flores. Nunca les fallamos y siempre vamos a todas las salas, bailamos habitación por habitación.

—Para ellos es re importante, y para nosotros es re emotivo, porque uno los ve así, como que están abandonados, y lloran.

—Es duro, el que va por primera vez y mira todo eso, cosas así que vos decís, no se te dan (...)

—Nosotros tratamos de integrarnos a la sociedad paranaense en general.

—Porque somos vascos pero también somos argentinos, entonces no podemos estar aislados de todo.

(Lisa Ergaray eta Federico Grau, 16-21, dantzariak, Paraná)

Euskal Etxea gizartearen parte bat da, edo izan beharko luke. Eta horretara bideratuko dira egiteko nahikotxo.

Asistentziarako jardun sozialez gain hitzaldiak eta tailerrak antolatuko dira; jaki tipikoen dastapenak burutu; zentroaren izenean kirol jardueretan parte hartu; liburu azokan edo kolektibitateen topaketetan stand-a jarri Urtero hainbat eta hainbat zita inportante agertuko zaizkie, berriro ere, erreferentzia lortu eta presentzia bermatzearen bidean oso lagungarriak izan daitezkeenak.

Euskal Etxeak kokatuta dauden herri txikietan, handietan eta Buenos Aires hiriburuan ere, diasporak “movida kulturala” aberastuko du, baldin eta zentroak mugimenduan badaude eta jarduerak denboran jarraipena badute behintzat. Hori guztia ere bai baloratuko du gazteak:

Es un lugar chiquito, son 15.000 habitantes y no pasan muchas cosas. Y como que siempre he tratado de hacer cosas para agregarle algo a la ciudad, para que haya más ofertas culturales, que haya cosas, que haya movida. Y el segundo año (del Centro) fue en el que más funcionó, yo creo que casi aburrimos porque siempre ‘¡otra vez el Centro Vasco!’ (risas). Siempre había cosas. Era una institución que se estaba moviendo muchísimo. (..) No eran todas actividades grandes digamos, eran: armar un boletín que iba a salir cada dos o tres meses más o menos, que iba a ser para distribuir a los socios; hacer una cena, dos charlas en el año, las clases de danza, juegos rurales y después una tasca. Y bueno, ese año funcionó bárbaro...

La idea era seguir interesando gente que nada que ver (con lo vasco), por ahí a partir de alguna actividad digamos, menos comprometida, y bueno a partir de eso seguir engancharlo. Y mientras, empezar a relacionarnos con la FEVA y con los Centros que estuvieran más cerca (Damián Solozabal, 27, erreferente ohia, Rauch)

Diaspora komunitate sareak maila ezberdinetan zabaltzen dira horrenbestez. Euskal Etxeak dira gainera **Euskal Herriko euskaldunekin harreman sarea** hedatzeko nukleo garrantzitsuak.

2002 urtetik aurrera euskal bisitariekin harremanak handituko dira, Argentinak izandako ekonomia dolarizatuaren gainbehera, pesoaren baliogabetzea eta euroaren gorakadarekin batera. Aitzitik, bisitariak ez dira leku guzti-guztietara helduko; hiri edo destino turistiko garrantzitsuenetan mugitu eta bertako Euskal Etxeetara helduko dira batik bat (Buenos Aires, Rosario, Paraná, Mendoza...). Bisitariak ez ezik, azken urteetan Euskal Herriko ikasleen presentzia nabarmen igo da. Beste batzuetan zentroek gonbidatu izan dituzte musikariak, dantza taldeak, abesbatzak, euskara irakasleak eta abar, Udalbiltza edo Eusko Jaurlaritzaren bidez. Bestalde, harreman trans-lokalen

adibide, herri batzuetan “Hermanamientos” deritzenak martxan jarri dituzte, Euskal Herriko eta Argentinako udalak elkartrukean arituz.

Aipatu harremanak hurbilpen berezi mota bat sortuko du. Lehendik ere Euskal Etxeak euskalduntasuna gertutik bizitzeko mekanismoak izanik ere, gaur egun kontaktuak izateko erraztasunak handiagoak direla esango da, baina inola ez determinanteak. Nolabait, Euskal Herriak duen zentraltasuna neutralizatzen da eta beste behin ere Euskal Etxearen potentzialtasuna mahai gaineratu. Modu honetan diasporaren inguruko polemikari erantzuten zaio, alegia, lotura hori ez dela behar-beharrezkoa.

Halere, kontaktu horiek oso modu positiboan baloratu ohi dira. Nahiz eta kontaktu esporadikoak izan, eta batzuetan egun edo ordu batzuk besterik ez elkarrekin egon, ezin galdu bizitokian harreman bereziak bizitzeko aukerak. Eta bisitariak lagun egin eta zentroko ateak zabaldu nahi izango dizkiete.

—Y hay un montón de reacciones. Está el que se re contra sorprende y no lo puede creer, y está el que quiere escarbar como diciendo ‘A ver...’,

—‘Acá hay algo mal’...

—Sí, se subestima muchísimo. La mayoría se sorprende y gratamente, pero hay otros que hasta un principio lo mira de reajo...

—...Y que después lo reconocen y te dicen “mirá, la verdad que...”

—Porque no es nada más de lo que se ve, o sea, no es que nosotros nos ponemos la bandera vasca y decimos ‘somos vascos’. Somos argentinos y vascos, no hay mucho más que explicar. Es así. (...) No, pero en general bien, y les llama la atención y estamos hablando de sentimientos...

—Lo que pasa también, lo que es raro, es que por ahí, en un país totalmente distinto, y tan lejos todo, es como que por ahí estemos tan aferrados a un montón de cosas de la cultura de allá. Entonces por eso a algunos les... les produce desconfianza o les produce como que es una mentira.

—Hasta que lo conocen bien y por ahí se dan cuenta de que no, que para nosotros es algo normal, que lo vivimos como algo natural.

—Muchos por ahí vienen y no saben. Muchos te dicen que ni saben que existen en Argentina Centros Vascos así, y hay otros que saben que existen pero los ven como batzoki.

—Sí, igual a la gran mayoría le sorprende bien.

—Se quedan fascinados. Aparte justamente, imagínate, son vascos encima, especiales, o sea, vascos de los que nosotros queremos, más afines a nosotros, porque si se anotan para (el programa de intercambio) Hator Hona vienen ya con otra predisposición, y lo viven distinto también.

—Era muy loco Se producen un montón de cosas que, por más que tenés muchas diferencias, básicamente tenés cosas que te unen un montón. Entonces eso es lo que por ahí más raro les parece a ellos.

(Elkarrizketa Taldea-Necochea)

Aipamen luze horretan diaspora euskaldun eta Euskal Herriko euskaldunen arteko elkarrizketa plazaratzen da. Esaten denaren arabera era guztietako erreakzioak sortuko dira, nork edo nork dituen aurreiritziek gidatua. Badira diasporaren ezagutzarik ez dutenak, eta jakin-minagatik hurbiltzen direnak. Badira kontu handiarekin hurbiltzen direnak, atzetik zer edo zer ezkututzen den jakin nahian. Baina gazteek eurek adierazten dutenez, “gehien maite ditugunak” hurbilduko dira: euskal kultura defendatzaileak eta oro har, euskal identifikazio nazionalista edo abertzalea dutenak. Finean, zaila da imajinatzea euskal bisitariaren profil orokorra ez duen beste inor Euskal Etxetara hurbiltzeko interesa edo gogorik izatea...

Edonola ere, diaspora bizipenak arreta deitzen duela nabarmena da, zentzu onean edo txarrean. Bi muturren artean graduazioa eman ohi da, halere: gutxiespenetik mirespena adieraztera; mesfidantzatik onespenera. Ohikoa da diasporako gazteak euren jarduera eta sentimenduekiko konfiantza falta antzematea hasierako aurrez aurreko horietan, elkar ezagutza handitu ahala elkar ulertzea etor daitekeela jabetzen badira ere.

Diferentzian eta berdintasunean sakonduko dute, diasporako gazteen identifikazioa handia izanik betiere. Azken honi dagokionez, batasun ilusioa elikatzeko tendentzia, euren euskalduntasuna “egiazkoa” dela azpimarratzeko modu bat izan daiteke, sentimenduak “faltsutzat” edo artifizialtzat, diaspora bizipenak kolokan jartzen dituztenen aurrean. Berrito ere, euskalduntasuna –eta diasporatasuna– naturaltasunez, normaltasunez bizi dutela erantzungo dute. Biak ala biak gazte horien egunerokotasunaren parte dira.

Halaber, inportantea da oso errekonozimendua izatea eta horretan azentua jarriko du, beste behin ere. Lanean jarraitzeko, inzentibatua egon behar da eta euskal bisitarien animoek arto sentitzeko motiboak eman diezaioke. Era berean, Euskal Herritarrak animatzen dituztela sentitzea harrotzea da; pizgarria eta inpultsoa emango diote elkarri oro har. Bitartean, diaspora komunitate sareak olatu hedakorra moduko lirateke, diaspora komunitate zentrotik hedatzen doana hain justu.

Zentzu batean edo bestean, Euskal Herria ez dela izango euskalduntasunaren produkzio zentro bakarra aditzera eman nahi da, ez eta harreman sareak hedatzeko nukleo nagusia.

Nosotros llegamos como a un toldo, y pensamos que era nuestro techo, y cuando vinieron estos chicos, nos hicieron darnos cuenta que eso se puede sacar y que para arriba tenemos mucho más. Entonces, ahí es donde nosotros, todos empezamos a arrancar con cosas nuevas, empezamos a..., algunos querían aprender bailes, otros aprender euskera, otros... y así empezamos todos a su manera, a tratar de seguir avanzando. Es más, nos dimos cuenta que por ahí nosotros podemos tener el mismo efecto con otros chicos de otro lado. Entonces uno no se da cuenta de la onda expansiva que tiene, o del efecto derrame que puede producir, hasta que no viene algo que hace lo mismo con uno (Emmanuel Pérez, 22, dantza irakasle, Bahía Blanca)

#### **6.4. Etxetik at. Jada ez dauden gazteak**

Euskal Etxeak topagune eta identitate espazioak dira. Lokal mailan kokatuta badaude ere, lokala dena gainditu eta etxearen luzapena egiten da. Zentzuz beteriko mundu gisara irudikatzen den diasporan gazteek egun bizi dituzten esperientziak direla-eta, zaila egiten zaie askotan Euskal Etxetik kanpo berain burua (ber)kokatzea.

Aitzitik, etorkizunean izango duen parte-hartzeaz galdetu bezain pronto lehen zalantzak agertuko dira. Halaber, zentroen etorkizunaz itauntzean diaspora komunitatearekiko kritikak ikusarazten hasiko dira. Beste modu batean esateko, etorkizun hurbilean kokatzean espektatibak adierazteaz gain, egungo kexu eta mugen berri emango du gazteak; biharko Euskal Etxea imajinatzean, zentroen gaurko gabeziak islatuko ditu.

Diaspora barruan gazteak izan dezakeen ibilbidea osatu nahi dugu horrela; Euskal Etxera sartu zenetik zenbait amaiera hipotetikotara daraman bidea trazatu. Irteera hipotetiko horiek irekiera berriak plazaratuko dituzte, halere. Horretan arituko gara azken atal honetan: Euskal Etxetik at diaspora bizipenen nondik norakoei lehenengo hurbilpena egiten.

Gazte batzuk dagoeneko zentroa utzi dute, eta beste batzuk partehartze maila nabarmen jaitsi. Bada tinko eusten dionik ere. Guztiei hamar urteren buruan kokatzea eta orduko Euskal Etxea imajinatzea eskatu diegu. Oro har, erabilitako denbora tarte

nahikoa izan da bizi-luzapenaren murrizketa eta luzapen sozialaren galerak antzemateko eta zentzu horretan, hamar urteko epea proposatzea oso adierazgarria izan dela aipatzea.

Diasporako lagunekin batera zahartzaroa imajinatzen dute askok. Seme-alabak eramane eta bertan hezteko prestutasuna dute, ondorengoek euren bizipen zoriontsuak bizitzeko aukerak izan ditzaten. Diaspora etxeak, oraindik ere, topagune eta identitate espazio aproposak direlakoan daude. Determinazio osoz esango da Euskal Etxea ez dutela abandonatuko, herrian bizi artean behintzat.

Si me tendría que ir a vivir a otro lado... por otra cosa pienso que no. Si me toca vivir por ejemplo en Mar del Plata, iría al Centro Vasco de Mar del Plata pero viajaría para acá bastante seguido, viajaría para estar acá. Pero dejar de venir, no. No se me cruzó nunca por la cabeza, desde que empecé a venir, te digo la verdad. Al contrario, siempre hacemos futurología de lo que vamos a hacer después, ‘¡mirá cuando no podamos bailar más!, ¡qué vamos a hacer!’... vamos a jugar al mus, no sé, pero siempre relacionado con estar acá (Mauro Chaulet, 28, dantzari, La Plata)

Gazteak ***bere zentroarekiko duen pertenezia estua eta leialtasunak*** dira, paradoxikoki, diasporarekin loturak mozteko arrazoi nagusienetakoa.

Argentinako diasporaren anplitudea tartean, nora joan eta han Euskal Etxe edo txokoa izateko aukerak handiak dira. Unibertitate ikasketak beste hirietan burutzen dituzten diasporako ikasleen kasuan adibidez, beste zentro batean aktibo jarraitu edo parte-hartzeari segida emateko aukera ona izan daiteke, diaspora barruan beti ere.

Alderantziz, honakoa izaten da bide laburrena: bizitokitik kanpo ikasi edo lanera joan, behin-behineko zentrotik urrundu eta diasporarekin harremanak etetea, Euskal Etxea behin-betikoz uzteko.

Ir a otro lugar no te da. Por más que sea lo mismo, la misma cultura, lo mismo todo, tenés cierta reticencia, es otro lugar. Este Centro Vasco es tu casa. Con los chicos de Rosario hay buena onda (buen rollo), también tenés esa cosa Centro Vasco Rosario- Pergamino, pero igual, es como que prefiero mil veces volver acá, aunque sea los fines de semana. Es lo que conocés (Gloria Frondizi, 18, dantzari, Pergamino)

Joatekoak direnen artean gutxi dira beste Euskal Etxe batean murgiltzea pentsatzen dutenak. Eurena ezagutzen dute eta bertan ezagunak dira. Oraingoa beraien etxea da; bestea, ordea, “beste leku bat”, ezezaguna, urrutikoa eta neurri batean, hotza. Arrotz sentituko dira han, eta horrekiko izango duten harremana argia izaten da: noizean

behin zentrorra joan, egon eta bertakoekin tratu ona mantendu... baina inola ere ez inplikatu edo aktiboki parte hartu.

Etxean geratu diren gazteen artean parte-hartzea ere kolokan dago. Diasporako lagunek zentroa uzten duten bitartean, haiek zentrotik kanpo betebeharrarekin hasiko dira, unibertsitate ikasketa edo lanari lotutako eginbeharrekin batez ere, Euskal Etxean garatutako zenbait jarduera, interes eta ardurak beste espazioetara desplazatuz...

Llegó un momento en mi vida que hacía todo vasco y estaba dejando mucho de lo otro. Ya era mucho tiempo acá metido, mucha responsabilidad, con la Comisión Directiva, más euskera, más bailar y todo. Te lleva mucho tiempo y poco tiempo para lo demás. Y también llega un momento que cada vez uno le da más bola (más importancia) a la facultad, le gusta lo que hace, y ve que otros compañeros en el tiempo libre están leyendo lo tuyo y tu hacés tu laburo y la competencia es grande, entonces vos decís ‘pará’... Hay que pensar en dejar (Sebastián Belaustegui, 26, erreferente, Rosario)

Betebeharrarekin denbora gehiago eskaini ez ezik, denbora librean aisialdirako tarte zabaltzea bilatuko da. Gazte premia berri hauek bizi-luzapena eta luzapen sozialarekin estuki harremanetan dago, gazteriarri bete-betean eragin dien azken hamarkadetan transformazioekin eta Euskal Etxeen bilakaerarekin, noski. Egoera berri horiek ezinbestean **espazio nahiz denborak birplanteatzea** dakar:

Asteburuetan Euskal Etxera joatea “sokratua” zen lehen; orain berriz, “sakrifizioa”. Diaspora komunitateak sakraltasuna galtzen duela esan daiteke, Euskal Etxe barruan egonik kanpoan “zerbait galtzen ari denaren” sentsazioa sakonduz doalarik. Luzapen soziala nabarmen murrizten den honetan etxetik kanpo lagunekin egoteko, atsedena hartzeko, dibertitu edo arduragabetzeko denbora handitu nahiko da. Finean, horixe bera izaten da gazteari dagokiona, gazte estereotipo hegemonikoak jarraiki. Eta holaxe ulertuko du hanka bat barruan eta hanka bat kanpoan duen gazteak.

Etxetik haratago era askotako gazte espazioekin topo egingo du gainera. Hiri handi eta herri txikien arteko ezberdintasunak handiak izanik ere, espazioak handitu eta aniztu dira. Horren adibide, tokian tokiko kirol klubak, gimnasioak, musika eskolak, hizkuntza akademiak edota lagun-taldearen espazio intimoak. Esan gabe doa aipatu espazioetan erreferentzia berriak aurkitu eta zergatik ez, konpromiso berriak bere gain har ditzakeela.

Gazte askok Euskal Etxera sartu zireneko momentuak berriz ere biziko dituztela ikusten da, alegia, ezagun edo familiako baten parte hartzeko gonbite jaso; topaketak eta bidaiak burutu; ezagutzak eta ardurak hartu; parte izan eta eroso sentitu.

Me dio lástima (dejar de venir al Centro Vasco) más que nada porque me gustaba mucho ensayar y demás, pero tampoco podía hacer las dos cosas, tuve que elegir algo. Fue voluntario. Y son cuestiones de elegir (...) Un conocido me dijo que necesitaban un chico de mi edad para jugar al básquet, y empecé y me enganché mucho y... Soy árbitro de partidos de los más chicos y juego mi categoría. Entonces yo juego los sábados, dirijo los domingos, entreno lunes, miércoles y viernes, y me lleva algo de tiempo. Cada año se hace un encuentro y en los viajes tenía un grupo de chicos a mí cargo. A mi me gustó siempre el trabajo con chicos. Me llevé bien. Me sentí cómodo (Pedro Larra, 20, dantzari ohia, CF)

Beste gazte askok ez bezala, diasporako gazteak bizitza etengabeko hastapena balitz bezala bizitzeko aukerak badirela sumatu dezake. Aitzitik, horizonte zabala irudikatzeko orduan klase sozialak eta generoak berebiziko garrantzia dute, kasu konkretu honetan, bi kolektiboei arreta berezia eskaini beharra dagoelarik: **dantzari helduak eta diasporako emakumeak.**

Esan bezala, dantza Euskal Etxeko jarduera nagusia izan ohi da eta gazte gehienak dantzariak izan dira. Nagusien taldean dauden dantzari helduek laster ikusiko dute nagusiegiak direla dantzatzeko, eta gazteegiak beste jarduera batzuk egiteko.

Dantzari eta dantzari ohientzat dantza uztearen ideiak barnean ukitzen ditu. Gorputz abilezia galtzea nagusitzearekin identifikatzen da sarritan. Aro berriak zabaltzeko, ordea, badira atzetik datozenen errelebuaren zain daudenak.

Todos los que empezamos hemos seguido pechando y pechando y yo ya llega mi séptimo año y viste cuando podés decir ‘yo ya creo que cumplí mi etapa’. Ya los conozco todos, me puedo bailar cualquiera que los sé. Y es lo que tiene este Centro Vasco, que tenés la posibilidad de decir ‘bueno, me cansé de esto’, (‘hago otra cosa’), salvo manito pelota (pelota mano), el machismo absoluto, aparte que no te interesa, no te dejarían yo creo (Carla Gómez, 20, dantzari, Mendoza)

Euskal Etxeak beste jarduera batzuetan integratzeko aukerak eskaini ditzakeen arren, galera nabarmenagoa da nesken artean.

Aho txikiarekin esaten dena, –baina zentro askotan oso agerizkoa dena–, gizonak era askotako beste espazio batzuetan arituko den bitartean (klase sozialaren



arabera, kirolak baimentzen dituen sozializazio guneetan, edota espresuki bereganatzen dituzten zuzendaritza-batzordeetan), emakumeentzat ez euskal jarduera “tipiko” edo “tradizionalik”, ez aparteko ardurarik Euskal Etxearen barruan. Beste modu batean esateko, diasporako emakumeentzat ez dira espazio nahikorik eratuko eta uste baino gehiagotan zentroaren bizitza sozial eta politikotik baztertuak izango dira.

Halaber, litekeena da emakumearen kokapen etortzekoak diren seme-alabekin batera aldatzea. Honek etorkizunaren inguruko dudak piztuko ditu. Zentzu horretan, ezin bistatik galdu premiazko duda hauek ezineguna sortzen dutela, Rosarioko Iretzek tonu larri honetan ondo baino hobeto espresatzen duen bezalaxe...

Estaría en un lugar donde sentís que hacés cosas por el Centro Vasco, que te sientas útil, porque de mi camada no quedó nadie ¿qué incentivo tendría yo para venir? (Antes) uno se sentía incentivado, llegaba el día del ensayo y yo no hacía otra cosa. Ahora existen muchas otras cosas para hacer, ¿vale la pena luchar tanto por algo que en verdad no es lo único?, porque se va como desmenuzando el tema, ¿no? Me lo he preguntado miles de veces, y por otro lado mejor no me pregunto porque la vida se me dio así, y yo pienso que si tengo hijos los traigo al Centro Vasco a bailar. Yo viví cosas hermosas acá, pero también digo ¿seguirán? Si no los traemos nosotros ¿quiénes lo van a traer? Pero yo también me tengo que sentir incentivada. Los traigo, ¿y yo con quién estoy? (Iratze Arregui, 28, sukaldari, Rosario)

Motibazioa bilatzen da etengabe. Uneoro berebiziko garrantzia izango du parte hartu eta parte izateak, eroso sentitu eta asebetetzeak, eta errekonozimendua jasotzeak. Hasierako gogoak gutxira desgastea bihur daiteke, ordea. Erreferenteen kasuan, adibidez, norberaren larregizko inplikazioak eta inguruko konpromiso falta antzemango dute –konprometituta egon badagoena inguruneok konpromiso nahikorik ez hartzea kritikatu du betiere–, besteetan funtzionamendu desegokia dela-eta. Askotan biak aldi berean.

Motibazio galerarekin batera, egiteko eta ardura konkreturik gabe geratu dira hainbat eta hainbat gazte. Hau da, espazio propiorik gabe daude. Era askotako jardunak modu diferentean gauzatzeko aukera paregabea eskaintzen zuen honek, oso bestelako terminoetan plazaratzen hasiko da: Euskal Etxea **ez dela parte hartze espazioa**, eta euspen-espazioa efektiboa izateari utzi diola.

Alde batetik, Euskal Etxean gazteak aldarrikatu dituen praktika komunitarioak eta funtzionamendu instituzional egokia kolokan jartzen dira. Zentroen eta, oro har,

*diasporaren erakundetzearen* ondorioz sortutako trabak maila guztietan islatuko dira: Eusko Jaurlaritzak eta FEVA-k (Federación de Entidades Vasco-Argentinas) Argentinako euskal diasporan duen papera eta funtzionamendua, irizpide ideologikoak markatu eta hierarkiak finkatzeko orduan; Euskal Etxe historiko, erdibideko eta berrien arteko sakoneko diferentziak, errekurtsioak eskuratzeko orduan esaterako; eta zentroen egituraketaren arabera, zenbait organoetara heltzeko zailtasunak (Euskal Etxearen zuzendaritza batzordea edo batzorde nagusia bereziki), gestio txarra eta gehiegikeriak, ondasunen bidegabeko gastuak, eta abar.

Aipatutako erakundetzeak belaunaldien arteko harremanean eragingo du. Elkarlana oso modu positiboan baloratzen den ezaugarria izanda, elkarrekin eztabaidatu, erabaki eta egiteko nagusiek jarritako trabak oso gaizki baloratzen dira. Bide horretatik litekeena da belaunaldi arteko diferentziak handitzea, gazteak pentsatzeko, sentitzeko eta egiteko forma propioak nabarmentzea.

Recién este año dijimos por qué no hacer algo por el Centro Vasco. Vemos tanta inoperancia que nos genera impotencia, entonces queremos empezar con cultura y después ver qué es lo que se puede hacer. Eso es lo que estamos buscando, en realidad, tener (los jóvenes) un papel importante, desde nuestro lugar y no permitir que se comentan ciertos abusos y ciertas cuestiones. Nuestra idea es ir como jóvenes a integrar la Comisión Mayor, y dar otra opinión de la que hay. Ahora es como muy lineal, todos opinan lo mismo. Es como que hay que reciclar un poco, ¿sí? Nos tienen que dejar un poco de lugar, toda esta gente que está instalada que ya no tienen ganas de trabajar, que estaría bueno que de de un paso al costado y de un lugar a los jóvenes. Venimos empujando nosotros de abajo y queremos llegar de alguna manera, pero bueno (Malena Santisso, 29, kultur erreferente, Macachín)

Maila guztietan espazio propioa aldarrikatuko da, hortaz. Baina askotan gazte-helduak eta erreferenteek ezingo dute dagokien kokapen berria okupatu eta etxea utziko dute azkenean. Horren aurrean, zentroa parte hartze espazio dinamikoa bihurtu eta gazteak integratu beharrean, txiki eta nerabeen bila irtengo dira beste behin ere. Euskal Etxea hasieratik hasiko da: diaspora kide potentzialak bilatu, gonbidapena luzatu edo dantzara animatu, eurak deskubritutako “mundu magikoa” gerturatu, zenbait trebezia garatzeko atek ireki.

Zikloa bukatu dutenentzat ordea, atek ixten direla ikus daiteke. Deskubritzen jarraitzeko bide berriak, –proiektu berrietan gauzatzeko marko berriak hein batean–,

maiz oztopatzen dira. Parte hartzeko ez ezik, interes eremuak definitzerako orduan eskumen falta agerizkoa da. Zentzu horretan, badira euren jardunetan kontrolatuak sentitzen direnak, konfiantza falta sentitzen duenak, errepresalien beldur direnak.

Hitz hauek Euskal Etxeen beste gabezia bat islatzen da: diaspora hazteko eta hezteko espazio egokia izateari uzten diola *gazteen interes zein kezkek asetzen ez* dituztenean. Hauen artean, Euskal Herriko bilakaera eta arlo politiko, ekonomiko edo sozialean egun gertatzen direnak gerturatzearen beharra espresuki aipatzen da; honekin batera, –zergatik ez–, gazteen interes esparru konkretu zabalen inguruko lanketa egitea (hezkuntza, drogak, hiritartasuna, sexua, homosexualitatea, eta abar).

Estamos muy limitados, nos tienen controlados de qué hacemos y cómo nos movemos. -¡Pará!, la grabación no se las mostrás a nadie, ¿no?- (insisto sobre el anonimato y privacidad de la entrevista y continuamos)

A FEVA lo mantiene el Gobierno Vasco, y muchas cosas te tapan los ojos o nos controlan. Nosotros queríamos que si venía alguien de Batasuna lo íbamos a ayudar a que de charlas, y si venía alguien del PNV lo íbamos a ayudar. Que no vamos a tapar los ojos de nadie, cada uno puede elegir lo que quiere, vamos a atender igual de bien a todos. Nosotros mucho no podemos hablar de política, pero no por eso nos vamos a informar lo que hace el otro porque la desinformación es lo que te lleva a elegir un sólo camino. Y dijimos que nos íbamos a manejar así, abriendo más las puertas, contactos con Gaztetxes y con instituciones u organizaciones argentinas que trabajen con jóvenes. Íbamos a abrir más por ahí. Movilizar otras cosas de la juventud, no que aprendan a bailar este paso o el otro (erreferentea)

Proposatu daitezkeen jarduera eta proiektuen harira, Euskal Etxeetan eztabaida nagusienetakoa izaten da, hain zuzen ere, zentroak jendartean itxi edo ireki. Alerta mekanismoak piztuko dira etxea klub bihurtu ez dadin, diaspora komunitatearen funtzioak indargabetu ez daitezen.

Ateak itxiz gero ez legoke jenderik ez jarduerarik. Epe laburrean espazio dinamikoa izatetik hutsik dagoen espazio, iluna, zikina, abandonatua bihurtuko litzateke. Euskal Etxea “hilik” edo “hiltorian” dagoela, egin daitezkeen irainik handienetako kontsideratzen da. Mugimenduan dagoen zentro dinamikoa nahi da betiere, baina atek irekitzeak zalantza asko planteatzen ditu.

Laburbilduz, kontuan hartu beharko litzateke zentroa hazteko kideak behar direla, eta kideak hurbiltzeko markoak gehitu behar direla; markoak gehituz (euskal jarduera “tipiko” edo “tradizionaletatik” haratago, oso bestelako eskaintzak egitea)

izana galdu edo desbideratzeko arriskua antzematen da. Zentzu horretan, jendarte zabalarekiko mesfidantzak agerian geratzen dira, batez ere etxearen zaintza edo ardurak asumituko ez dituztelakoan. Aldiz, dependentziarik ez izateko, auto-gestioaren bidean, auto-finantziazioaren beharra planteatzen da. Oro har, markoak irekiz edo azpiegiturak alokatuz, nola edo hala atek zabaldu.

A mí no me gustaría que el Centro Vasco se convierta en una institución donde se pueda hacer gimnasia aeróbica, y de repente euskera, o no sé, ¡títeres!. Como pasa con otras instituciones, pierden..., o sea. Yo no digo que hay que ser fanático y centrarse solamente en lo vasco, como dicen muchos, que no estoy para nada de acuerdo, sino no podría estar yo acá: “El que no tiene apellido vasco no entra”. Son fanáticos pero tremendos, o sea... Si no se dice, se piensa. Y te lo hacen saber. O sea, pero en el tema de actividades yo no creo que hay que estar cerrado y dirigido a lo vasco únicamente. Yo creo que las actividades que hoy hay, mejor organizadas, funcionarían bien (Nahuel Pereira, 23, euskara irakasle, Mendoza)

Euskal Etxea zentro sinboliko, geografiko eta zentro instituzional bezala ixteko arriskua bertan da; jarduera, intereseke esparru eta kideak galtzeko arriskua oso presente dagoen bezalaxe.

Euskalduntasunean zentratzen den diaspora komunitateak **leku elitista** bihurtzeko arriskua badu, bazterketa muturrera eraman arte. Hala eta guztiz ere, ezin da naziotasuna bazterketa irizpide nagusi edo isolatutzat hartu. Diaspora kide potentzialak gerturatzeko oztopo dira diasporako egungo kideak urrunduko dituzten adina, ondorengotza, generoa eta klase sozialaren baldintzak.

Mucha gente tiene esto que yo tenía al principio, esto de decir ‘yo soy vasco, me identifico con mis abuelos, con su ética, con su manera de ver la vida’. Se quedaba en eso, algo medio sentimental. Me parecía que estaba súper interesante ver lo que está pasando en el País Vasco ahora: mostrar el ejemplo de un lugar así chiquito, cómo había crecido, cómo se había desarrollado. Hasta me parecía que eso debía replicar inclusive en la ciudad (...)

Yo veía que había mucho de eso (gente con plata, gente con dinero) y poco de lo otro, más gente del campo, gente más sencilla. A la larga ese sectarismo de decir ‘los vascos y la etnia’, como más de la cuestión de sangre, como estirpe ¿no?, ‘los vascos así’, una cuestión social, medio de figurar, de estar en una institución de cierto prestigio. Si bien nunca se expresó así tan claramente, sí estaba en cómo se hacían las cosas, la cena por ejemplo, que se hiciera muy cara la entrada, que le quitaba la posibilidad de participar a mucha gente, y esas cosas pasaban ¿viste? (Damián Solozabal, 27, erreferente ohia, Rauch)

Komunitatearen ustezko prestigioa edo nolabaiteko statusa mantendu nahian elitea, sekta, estirpea, odola edo abizena identitate irizpide zorrotzak bezain baztertzailak nabarmentzean, diasporako gazteek birdefinitzen dituzten parte hartuzko edo sentimenduzko euskalduntasuna kolokan jartzen da.

Halaber, elkar laguntza, babesa, giro alaia, familia handia eta plurala, “jende ona”, zentzuz eta orientabidez betea izan beharrean, hau da, topagune eta identitate lekuak izan beharrean, espazio hotzak eta lehiakorrak bihurtzen direnaren kexua. Azpijokoak, liskarrak, haserrealdiak edo erabaki ez bateratuen ondorioz zentroa utzi eta harremanak guztiz etengo ditu gazteak. Geratzen direnen artean ere, ez da girorik.

Es un lugar chico, todo el mundo se conoce desde siempre y todo el mundo se pelea con todo el mundo por muchas cosas. Hay mucha gente que se fue del Centro Vasco por los que estamos acá. Uno dice ‘no hay gente’, pero esa persona no viene porque se siente incómoda, porque la gente es cerrada, también los chicos. Por ahí alguien quería entrar a bailar y ¡claro!, era horrible para esa persona y lo reconocemos. No es que éramos malos ni nada, pero éramos como los dueños (risas), pero eso era algo malo (Miren Esnaola, 26, dantzari ohia, Rosario)

Batzuetan Euskal Etxeko funtzionamendua dela eta, besteetan gazteak dituen bizipen eta behar berriak direla-eta, eta sarritan bien arteko konbinazioak, zentroa uztera darama. Datozen lerroetan jada *etxetik kanpo dauden gazteen esperientzien esanahi multzoei* helduko diegu, Euskal Etxetik kanpo euskalduntasuna eta diasporatasuna nola bizi duten ezagutu nahian. Horretarako kasu batzuen esperientzia konkretuan zentratuko gara.

Malena Arandiaren kasuan adibidez, diasporako beste kideekin batera Buenos Aires Hiriko Laurak Bat Euskal Etxetik esplizituki kaleratua izan zen duela bost urte. Atzera begiratzean erraza da pena, nostalgia eta amorru sentsazioak nahastea. Euskal Etxea bere bizitzaren parte oso inportantea izan da eta *haustura bortitza* bortizki bizi izan du kanporatua izatean.

Alde batetik, jardunak eta ardurak eten behar izan ditu. Bestetik, harreman guztiak kolokan jarri dira, batez ere, erreferente gisa zuzendaritzarekin izan dituen distantziak handituz eta adiskidezinezko egoeran sakonduz. Azkenik, etxeko espazioarekin erabateko haustura produzituko da: bera –eta berarekin kaleratuak izan

zirenak– ezin izango da zentroan sartu, baina gaztearen haserreak ez dio ezta gerturatzen uzten. Agerizko desilusioak beste bide bat hartzera darama.

Fui hace poco y me dio como cosita, porque... hicimos un montón de cosas allá, tenemos toda la historia, entonces como que... me dio pena, ¡bah!, no sé, como que... me dio nostalgia. Me acuerdo de esas cosas..., las cosas que hicimos, yo hice muchas amistades también. Pero bueno, en una época estuve... no quería pasar. -No sé si vos te acordás esa época...- (...) Y bueno, eso está muy muerto. Es un hermoso edificio, pero la gente, la verdad que me da bastante asco. La gente de la Comisión Directiva, la que hizo todo eso. Como que los veo, y me da asco, ¿viste cuando decís...? son tan distantes a tu forma de ser, y de pensar y de todo, y... ¡puaj!. Eso, me da bastante rechazo. Así que mientras siga esa gente ahí... No te dan ganas ni de ir, ni de nada, ¿viste? Además eso, se cierran y... y no... no hacen nada, o sea... no sé qué hacen (Malena Arandia, 29, euskara irakasle, CF)

**Etxearen erreferentzialtasun zalantzan** jartzen da. Erreferentziarik egotekotan, zalantzarik ez horiek negatiboak direla. Halere, kanporatua izan eta denbora gutxira beste Euskal Etxe bat sortu eta horretan parte hartzen dabil, osatu berri den diaspora komunitatean momentu batean galdutako espazio, jardun eta denborak eta egunerokotasunak edota etxeak osatzen duen gauza txiki guzti horiek berrezarriko dituelarik.

Lan edo ikasketak bultzatua joan den gaztearen kasua diferentea izango da. Neurri handi batean, gazte horiek *erdibidean* kokatuko direla esan daiteke: ez guztiz joan, ez guztiz zentrorra etorri; ez guztiz kanpo ez guztiz zentroaren barruan.

Etxeko espazioak erreferentzialtasun handia dauka joan behar izan denarentzat. Presente dituzte bertan geratu diren lagun eta adiskideak. Finean, bere istorioaren parte inportantea bertan dago eta honekin eten bat produzituko dela esan badezakegu ere, gazteak haustura terminoetan planteatzen du. Urruntzeak falta edo hutsunearen sentrazioak dakar, nonbait.

Yo vivía adentro del Centro Vasco, hacía todo, estaba en todo. Y entonces fue como que venía así y “tac”, nada. Yo en el Centro Vasco encontré un lugar donde puedo participar, puedo hacer cosas, y ahora me falta un poco eso, o sea yo siento la falta, al no estar. Igualmente desde acá trabajo cuando hay que hacer algo en la computadora (en el ordenador), participo a distancia, o cuando vuelvo (a Pergamino), y ver de qué manera yo puedo retomar alguna participación en alguna institución (Gerardo Ramírez, 25, erreferente, Pergamino)

Berriz ere gazteak parte hartzea bilatzen dela ikus daiteke. Gerardoren kasuan esaterako, bide berriak topatuko ditu zentroarekin loturak mantentzeko, hutsuneak betetzeko edo, beste modu batean esateko, zentzuz betetzeko. Modu honetan, espazio beresanguratzen da.

Badira, azkenik, borondatez joan diren gazteak. Haustura *ziklo amaierarekin* lot daiteke honakoetan, zentzuak edo erreferentziak beste nonbaiten kokatzen hasiko diren bitartean.

Berria eta urrunekoa denak ilusioak piztuko ditu, hein handi batean. Halere, zentroaren eta familia istorioaren arteko lotura estua izan den kasuetan bereziki, urruntzeak haustura bat suposatuko du, hain zuzen ere, familia, harremanak eta espazioarekin distantziak handitzea.

Gazteak bere bideari ekiten dion momentu honetan, zaila da egoera honek sortutako sentrazioak deskribatzea. Horietako bat kulparena litzateke, dolua, mina eta penarekin bizitakoak, Tamararen hitzetan igartzen denez.

Alaine estuvo metida mucho tiempo, mi abuela Pilar también, y es como parte de su vida. Y si, cuando nosotros dejamos de venir a bailar, es como decir ‘me sacaste algo, perdiste algo de nosotros, de lo que es de la familia’. Eso es lo que vemos nosotros de la gente grande que estuvo en el Centro; lo tiene muy de ellos, es como una familia más, es parte de la familia. Y a ellos les duele un montón (Tamara Iturriaga, 19, dantzari ohia, Macachín)

Laburbilduz, Euskal Etxeak zentro sinboliko, instituzional eta espazial bezala, erreferentzia galtzen du. Zentrotik urruntzeak haustura terminoetan planteatu ohi da, alegia, iragana eta orainaren arteko, barruan eta kanpoaren artekoa, zuen eta besteen arteko haustura.

Euskal Etxearekin ez ezik, jada etxetik kanpo dauden gazteek **diasporarekin haustura** bat biziko dute. Diasporako jarduera, bidai, festa, ospakizun edo topaketetan ez dute parte hartze berdina izateko modurik; diaspora kide, dantza edo euskara taldekide eta, oro har, gaztaro zein nerabegaroko lagunetatik urrunduko dira, diasporako harreman sarea nabarmen murriztu edo guztiz desegingo delarik; informazio sarea moztuko da, diasporan zer ari den gertatzen jakin gabe, diasporaren berri izan gabe...

- Extrañás cositas, ganas de estar ahí nomás. Supongo que extrañaría más si me hubiese tenido que ir por estudio o trabajo. Pero como nos fuimos peleados no me duele tanto, no extraño a nadie en particular. Sí por el Centro, por cómo está ahora.
- En realidad extraño cosas que hacía antes, extraño actividades... ¡Tantas cosas!
- Fuimos a la semana vasca, ¡ay!, todos bailando, vos sentadita de espectadora (risas), y todos en el escenario...
- ... y por eso es que nos colgamos con otros para bailar
- (Extraño) bailar y también el grupo de gente
- Era otra onda (otro rollo), era un grupo de amigos, así, que te quedas un montón de tiempo ahí, te sientas re bien, que te de ganas de ir al Centro Vasco, no sólo por un ensayo...
- (Eugenia Vázquez, 30, euskara iraskasle, Viviana Domenecq, 21, dantzari ohia Paraná)

Gaztearen kokapena aldatu da. Zehazki, etxearen barrenei kanpotik ikusten hasiko da. Are gehiago, ikuskizun edo antzezpenari so egiten dion **ikusle pasiboa** bihurtu da gaztea. Diasporan ibili beharrean, kontenplatu egingo du; horren inportantea zen aktibatzea edo manifestatzea, jarrera pasiboan bihurtu da azkenik.

Gertutasuna eta aurrez aurreko harremanekin apurtzen da; eta begirada desbideratzen den kasuetan gertatu ohi den bezala, “desbideratze minimoak, begirada kentze arinak, sortutako loturen partikularitasuna guztiz hautsiko du” (Simmel, 1908, 678), hots, hurbileko harreman gardena, indartsua bezain sotila, guztiz hautsiko duela pentsatzekoa da.

Baina gaztea ez da guztiz deslotzen. Noizbehinkako bada ere, diaspora komunitate antolatuarekin kontaktua mantentzen da. Euskal Etxeak badu hauek lokalizatzeko modurik: bazkideak dira, alegia, lotura minimo frogagarria mantentzen dute askok; ospakizunetan eta urte bukaerako jaietara joan ohi dira; noizbait lagunekin Euskal Etxeko jatetxean bazkaltzen du edo kirola egiteko zentroko azpiegiturak erabiltzen ditu; komunitatean egiten diren zenbait jardun sozialetan parte hartzen du edo horietan zeharka laguntzen du, internet sarearen bitartez adibidez.

Parte hartzea mugatu dela aitortzen den arren, –etxetik at aktiboki ezer gutxi egiten dela–, oinarri oinarrian, diaspora zein euskal munduarekin konektatuta egotea posiblea denaren konbikzioa dute.

Posizio berria birdefinitu behar balitz, **Euskal Etxetik kanpo diasporan birkokatuko** dela esatea.



La participación se hace a distancia, por mail, mucho intercambio de ideas, de cosas para hacer para la semana vasca. La participación se va limitando. Siempre que se pueda ayudar en algo, yo estudio informática, si puedo aportar desde ese lado, estoy a disposición de ellos. Y si no, alojamiento, si viene alguien para acá...

El Centro Vasco es lo motivante. Es la excusa. Yo seguí muchísimo, integrando, aprendiendo, suscribiendo al sitio que hubiera para participar. Conocer la cultura vasca, conocer el idioma, la situación política, constantemente leo cosas en Internet y demás... seguir conectado con lo vasco.

Dentro de la familia también, siempre estoy molestando con el tema de ver cosas vascas. Los amigos seguramente estén hartos de lo vasco. Yo creo que se puede. Si bien te falta el motivo, la excusa, el grupo, muchas cosas se pueden hacer. Por ahí es mas lo que uno dice que lo que uno hace... activamente no estoy haciendo nada para promover (Sebastián Echegoyena, 27, dantzari ohia, Pergamino)

Euskal Etxetik kanpo dauden diasporako gazte askok zentroaren inguruan kokatzen dira. Batzuk ez dute bueltatzeko ideia baztertuko, formalki behintzat.

Euskal mundua eta euskalduntasuna ez da Euskal Etxera mugatzen, baina zentroak badira kolektiboan manifestatzeko espazio efektiboak. Diaspora osoaren erreferentzia nagusienetakoa izan da eta da. Diaspora komunitate antolatua hori da eta: zentro espazial, sinboliko, instituzionala. Zaila da oso zentrotik kanpo horren modukorik topatzea.

Euskal Etxea diasporaren kohesioaren bermea da, jarduera eta memorien txokoa, ibiltzeko eta aurrera egiteko norantza, egiteko eta asmatzeko lekua, konpartitzeko. Bere kokapen berritik, zaila egingo zaio bizipen horiek berritea, alegia, konpartitzearena, bat egitearena, elkarrekin aurrera egitearen bizipen intentsuak.

Lo que es la familia vasca, no se pierde, eso nunca, jamás. En un cumpleaños el fandango no falta. El típico fandango que te lo hacían repetir, repetir, repetir y eso te acordás. Pero al que no es familia vasca, si vos ya te fuiste del Centro Vasco, volvés a tu casa y nadie te iniciativa para que empieces, vos solo no podés. Si vos tenés una familia vasca que lleva su costumbre, las costumbres no las perdés: fandango, saludar en vasco; eso no lo perdés (Tamara Iturriaga, 19, dantzari ohia, Macachín)

Euskal Etxean edo Euskal Etxetik ezagupen batzuk lortu dute, konpetentzia bereizgarriak direnak. Kokapen berrietatik, dagoen tokian egonda era, diaspora identitateari heltzen dion gazteak jarraipena eman edo konexioa izaten jarraituko du.

Euskal Etxean izandako esperientzia eta bizipen anitzetatik bere bidea egiten hasiko da, diasporako kide gisa, euskal munduaren inguruneak deszifratzeko erreferente eta multiplikatzailea izaten jarraituko du, beste gauza askoren artean...

Cada cual desde su lugar también lo hace, obvio. Creo que desde mi lugar de comunicador, el conocimiento que obtuve sobre lo vasco y sobre la comprensión sobre la situación política y de ver cómo es en realidad la cosa ayuda de alguna manera. O por lo menos hablar más concienzudamente (ríe) -¡No sé cuánto más concienzudo soy yo que otro!, pero por lo menos...- (Damián Solozabal, 27, erreferente ohia, Rauch)

**ONDORIOAK**

Diasporak eta gazteak munduan kokatzeko eta mundua esperimentatzeko modu edo baldintza konkrituak direla, eta gaur egungo Argentinan Euskal Etxeek gazteei mundua modu espezifiko eta bereizgarrian esperimentatzeko aukerak eskaintzen dizkietela, ikerketa hau gidatu duen uste orokorra izan da. Hortik abiatuz gazte eta diasporaren definizio zabalak luzatu, Argentinako euskal diasporara hurbildu, eta diasporan nahiz Euskal Etxean diasporako dantzari eta euskara ikasleek, gazte erreferenteek, gerra ondoko ilobek, euskal arbasorik ez duten gazteek eta diaspora kide ohiek dituzten esperientzia anitzen berreraiketa esanguratsua burutu dugu, narratiba nagusi bat aurkeztuz: Euskal Etxean gazteek izan duten hastapenekin hasi eta identitateari eragin dion diaspora bizipen anitzak jorratu eta zentzua eman nahi izan diegu, esperientziaren amaiera hipotetiko batek diaspora esperientzien esanahi berriei bidea ireki diezaien.

Datozen lerroetan ikerketa honen ondorio nagusiak plazaratuko ditugu, diaspora eta gazteen elkarreraginei so eginez, gazteen diaspora identitate dinamika nagusiak ahalik eta gehien zehaztu nahian. Horretarako, Argentinako Euskal Etxeetako gazte narratiba nagusia berreraikiko dugu, nola eta bost narratiba txikiagoren bidez, hau da, lehen eta bigarren mailako trama, protagonista eta eszenatokiak (ber)identifikatuz eta diasporako gazte belaunaldien identitatearen inguruneak perfilatuko dituzten klase, adskripzio nazionala, belaunaldi eta genero ikuspegiak uztartuz.

## ***DIASPORA IDENTITATE KOKAPENAK EUSKALDUNTASUNA DIASPORAN ERATZEN***

Diasporak noizbait desplazatu eta nonbait enplazatu diren komunitateek osatzen dituzte eta oro har, horietan zentzua hartuko dutela esan daiteke, alegia, desplazamendu,

enplazamendu eta komunitate narratibetan. Aipatu lehen ezaugarriarekin identifikatuak izan diren bitartean, –diasporaren sorburutzat hartuak izan diren dispertsio traumatikoa, bi norabideetako migrazioak edo norabide zehatzik ez duen mugimenduak–, ikerketa lan honetan *diaspora komunitateen kokapenen garrantzia* azpimarratu nahi izan dugu lehenik eta behin.

Leku anitzetan enplazatutako diasporak ez du lurralde mugatu propiorik, ezta lurralde jakin bat edo erreferentzia zentro bakarrera egokitzerik ere. Identitatea eta lurraldetasunaren artean sor daitezkeen lotura berrien harira, aipatu beharra dago diaspora identitateen inguruneak birplanteatzeko aukerak zabaltzen direla, alegia, diaspora identitatea ez dela lurralde jakin baten identitatearen luzapena edo erreproduzio hutsa izango, ezta lurralde edo zentro sinboliko edo erreal bakar batengatik definituko ere.

Leku anitzetan enplazatutako diaspora komunitateen eta kideen arteko harremanen, elkarrekintzen eta trukeen eremu zabala litzateke diaspora. Diaspora kokalekuak, gainera, ez dira askotan eremu administratibo definitu bakar batean enplazatuko, esaterako, probintzia, eskualde edo Estatu batean. Horrek ez du esan nahi lurraldetasunaren eragina gutxietsi edo diaspora azterketek nazio ikuspegia kontuan hartu behar ez dutenik. Alderantziz, *diasporak desplazamendu zein enplazamendu logikan jarritz*, diasporak deszentratu eta birzentratuz, tokian tokiko diaspora komunitateetan berezitasunak aztertu beharra agertuko da, hala nola diasporan bertan identitatea eratzeko aldaeretan sakondu beharra.

Argentinako euskal diasporaren kasuan, espresuki, lau kokapen eremu esanguratsu identifikatuko ditugu: Buenos Aires Hiria, argentinaren erdialdea eta litorala (Buenos Aires, La Pampa, Santa Fe eta Entre Rios probintziak), Cuyo eskualdea eta Patagoniako kostaldearen iparraldea bereziki. Bost eremu horietan guztietan hiri gune eta landa guneen arteko ezberdintasunak handiak izanik, euskal diasporaren bilakaera ezberdinak desplazamendu-enplazamendu anitz horietan kokatu beharko dira. Argentinako euskal diasporaren inguruan, berriz, mito fundatzaile berdintsuak eratu eta horri eutsiko zaie neurri handi batean (kolektibo ezberdinu, bereizgarri eta hein batean

desiratua, eredugarria izateari), euskal diasporaren gainontzeko eremuekin alderatuta Argentinako euskal diasporaren erreferentzialtasun handia azpimarratuko delarik.

Halaber, Argentinako Estatu eraikuntzan nahiz argentinar jendartearen osaeran, argentinar klase ertain zabala edo identitate argentinar eraketetan protagonismo berezia atxiki izan zaien arren, diaspora guztiek ez dute izango protagonismo, erreferentzialtasun edo onarpen maila bera. Funtsean, tokian tokiko diasporen produkzio, bereganatze eta zirkulazio gaitasun mugatuei gehituko zaizkie euskal komunitate zabalaren aitortza faltak. Euskal eta diaspora munduak mundu gutxitu edo gutxiarazitzat hartzen dira gaur egun, uste baino ezezagunak eta nahi baino problematikoagoak.

Horrela, bada, Argentinako euskal diasporako gazteek euskalduntasuna diasporan eratu edo diasporan euskalduntasuna esperimentatzeko aldaerek osatuko dute ikerketa-lan honen lehen narratiba. Narratibaren tramak, ostera, euskal mundua, Euskal Etxe edo euskal diasporaren berri izan gabe hurbildu den gaztearen nahiz familia tradizioa jarraiki txikitatik diaspora zentroan parte hartzen duen gaztearen esperientziak bilduko ditu, hau da, *hasiberritik erreferentera daramatzan ibilerak*.

Ezezaguna eta hein batean arrotz zaiona deskubritzen hastetik inguruko arloan horren erreferentzia bihurtzera doa Euskal Etxeko gaztea. *Identitate deskubrimendu dinamika* horien baitan gaztea pixkanaka diferentziaz jabetu eta urratsez urrats arrotzaren identitatea eratzen hasiko da, oso modu berezian bereganatuz gainera:

- Gaztea euskal munduaren *orientabide eta espresibideen kodeak deszifratzen* hasiko da diasporan, euskal mundua gero eta sinpleagoa, singularragoa eta gertukoagoa zaiolarik.
- Gaztea ezezaguna edo nahaspilatsua zena diasporan *osatzen eta ordenatzen* doa; hutsik zeuden eskemak bete, parte ezberdinek harremanetan jarri eta zentzua hartuko dute, euskal mundua mundu osatua edo integrala lez agertuko zaiolarik.
- Gazteak era askotako *ezagutza ezberdinak eta kompetentzia bereizgarriak* jasoko ditu diasporan, besteak beste, komunitateko arauak eta programa instituzionalak; komunikatzeko eta izendatzeko modu konkrituak; Euskal Herriko historia edo geografia nozioak, eta abar.

Diaspora eta diaspora zentroak eszenatoki nagusiak dira euskalduntasuna eratzekeo narratibetan; espresuki, Euskal Etxeak euskal munduaren produkzio eta

birproduktzioa zentro nagusi gisa gailendu eta euskalduntasuna promozionatu eta indartzeko medio pribilegiatuak bihurtuko dira egungo Argentinan. Hori dela eta, zentro-periferia artean existitu daitezkeen harreman asimetriko edo hierarkikoak, zeinetan Euskal Herria zentroa eta diaspora horren inguruan pasiboki artikulatzen den periferia litzatekeen, kolokan jartzen dira. Aipagarriena zera da: euskal mundua iragan edo lurralde urrun batetik aldentzen dela, –inoiz hor kokatua egon bada behintzat–, diaspora komunitateetan, *hemen* eta *orain*, esperimentatua izan ahal izateko. Horren harira, tokian tokiko Euskal Etxearen inplikazio maila eta errekurtsioak batetik, eta bertako erreferente edo irakasleen ezagutza, interesa eta aurretiko jarrera erabakigarria izango dira identitate eraketetan konbinatzen doazen ezagutza, afektibitate eta kompetentzia bereizgarriak garatzeko orduan.

Diaspora kideak, era berean, jarrera aktiboa behar du izan euskal mundua deskodetu eta euskal munduan kulturalizatzeari ekiteko. Identitate eraketa eta bere hartze prozesuetan hori bera aditzera eman nahi da, alegia, zentro-periferia harremanetan ikusaraz daitezkeen diaspora subjektu pasibo, erreproduzitzailerik eta kontenplatioaren aurrean, diasporan martxan jarritako praktika eta dinamiketan parte-hartzea eta inplikazioa.

Zentzu horretan, diasporako *gazte erreferenteak* identitate eraketa prozesuen gidariak izateaz gain, ikasitakoaren multiplikatzailerik ere badira, eta profil ezberdindua garatuko badu ere (erreferente, sustatzaile eta dinamizatzailearena), *parte hartze pasiboagoa* dutenak ere inguruko artean erreferente gisa agertu eta inguruko euskal mundua gerturatu eta deskubritzen hasiko dira.

Diasporan identitatea eratzeke ibilbideei erreparatuz, oro har, jarrera pasiboago batetik jarrera aktibo batera, norberak diasporan deskubritutakoa besteei deskubriarazten bidea egingo du gazteak. Euskal Etxeek horretarako markoak eskainiko dituzte, hots, espazio, denbora eta jarduerak, *adinaren eta generoaren* arabera definituko direnak: adinaren arabera jardun eta talde konkretuetan arituko den bitartean, iragatea-erritua balitz bezala txiki, ertain eta handien taldeetatik, edo hasiberritik aurreratuen taldera igaroz, diasporako nesken kasuan dantza eta euskara jarduerak eta espazioetara mugatuko dira marko gehienak.

Oro har, diasporako gazteek Euskal Etxeetan eta Euskal Etxeen bidez euskal mundua manifestatu eta aktibatuko dute. Handik eta hemendik hasiko dira identitatea mailaka barneratzen nahiz kanporatzen. Horregatik, euskal jarduera “tipiko”, “tradizional” edo “ideosinkratikotik” haratago (komunitateari mugatuak diren jardun propio eta espezifikoak, euskal dantza eta euskara kasu), Euskal Etxeak identitateak eratzeko eskaintzen dituen markoak eta marko horiei ematen zaizkien esanahiak identifikatu ditugu:

- Euskal Etxeak *sozializazio prozesu kolektibo jarraituak* emateko aukera eskain dezake, eta prozesu horizontal eta bertikal hauetan, joko eta jolasak, talde dinamikak, hutsegite eta lorpen indibidual zein kolektiboetan, talde barruko konplizitateak areagotu eta talde kohesioa indartuko dira.
- Euskal Etxeak harremanen *espazio abegikor* gisa gailendu daitezke, irakasle-ikasle arteko tratua ona edo banakako arreta kasu, taldea indartu eta ikasketa prozesuan mesedegarri suertatzen dena.
- Euskal Etxeak *zabalki testuinguratu dagoen espazioa* eskain dezake, zeinean zentzu eta emozioak aktibatu eta atentzio kanpoak zabaltzen diren. Komunitatean sarbidea erraztu eta ikasitakoa barneratzeko ez ezik, abstrakzioarako marko horiek ingurua behatu eta interpretatzeko ere baliagarriak suertatuko dira.

### ***DIASPORA IDENTITATEEN KONPROMISOAK GAZTETASUNA DIASPORAN ERATZEN***

Diaspora kokatu den eremuetan antolatzen hasi eta etxe berriak eraiki orduko erreferentzi zentroa aldatzen dela esan daiteke: zentro-periferiaren artean existi daitezkeen harremanetan baino, diaspora komunitateak osatzen dituzten zentro espazial, sinboliko eta instituzional propioak gailenduko dira; *diasporak euskarri berriak* sortu orduko “hemen” kokatzen hasiko da, “han” baino.

Diaspora zentroak sozializazio eta elkarkoitasunerako guneak izaten dira, eta pertenezia eta erreferentzia leku garrantzitsuak ere bihurtu daitezke, diaspora komunitate antolatuen inguruan diasporaren jardun eta eztabaida nagusiak kokatzen hasten direnean; era askotako zerbitzu, egiteko eta orientabide eskura jartzen dituzte;



diasporaren interakzio sozialen espazio konpartitua bilakatu, kideen artean pertenezia piztu edo sustatu eta diasporan subjektu kolektiboa eratzen doanean.

Horregatik guztiagatik diaspora etxeak berebiziko garrantzia du bizitza auto-esperimentatu eta identitatea finkatzen dabilen diasporako gaztearentzat. Gazte-gazteriak, hots, bizi-luzapena eta luzapen soziala dituen gazteak, mundua orain eta hemen esperimentatu eta deskubritzeko aukerak izango ditu, eta mundua bera esperientzia eta bizipen berriei irekitako mundu bezala ager dakiok. Eta, gainera, diasporako gazteak bizitzan, gizartean nahiz diaspora komunitatean posizio berriak hartzen joan da: familia nukleotik emantzipatu eta beste nukleo batzuk eraiki; maitasuna, laguntasuna eta sexua bizi; lotura sozial berriak egin eta deuseztatu, eta abar. Aipatu identitate prozesuak *adina, genero, klase soziala eta adskripzio nazionalengatik baldintzatuta* egongo dira eta, ondorioz, diasporako gazte identitateak ezin dira soilik definitu lerro zuzeneko teoriak proposatutako goranzkoen identitatearen baldintzapean, ezta diasporan nazio edo lurraldetasun identitatea bereganatu edo esperimentatzeko aldaeretara ere mugatu.

Euskal Etxeko gazteen identitate eraketak *transformazio azkar baten baitan* kokatu behar dira, gazte-gazteriarentzat transformazio fisiologiko, portaerazkoa, emozional eta kognitibo azkarren aroa baita gaztaroa. Argentinako gazteen kasuan, halaber, krisi ekonomiko, politiko eta sozialek kolpatutako argentinarrak testuinguru orokor baten baitan ere kokatuko dira, argentinarrak klase ertainaren artean bere burua pentsatzeko errekurtsoen murriztapen edo galerarekin estuki harremanetan dagoena.

Hain zuzen ere, egungo Argentinan gazte identitateak diasporan eratu edo esperimentatzeko aldaerak osatu dute ikerketa lanaren bigarren narratiba. Baina, oraingoan, *hasiberritik diaspora komunitatearen parte izatera daraman ibileretan* kokatuko da narratibaren trama eta Argentinako diaspora zentroak ez ezik egungo Argentinako eszenatoki nagusiak ere izango dira.

Euskal Etxera heldu berri den gazte edo nerabea nahiz txikitatik diaspora zentroetan dabilzanek, biek ala biek dependentzia egoera batetik identitate autonomoagoa eratzeko ibilbidea burutuko dute, menpekotasunetik elkarkoitasunera igaroz lehenik eta behin, eta euskal nahiz diaspora munduetan kokatu eta posizioak

beretzat hartuz ondoren, “bera” dela aditzera eman arte, identitate hautatua eta hein batean desiratuan azentua jarritz, hastapeneko kausalitateetatik eta familia tradizioetik haratago.

Zentzu horretan, diasporan eta diaspora komunitateetan espresuki gazte identitateak eratu zein finkatzeko markoak eta markoei atxiki zaizkien esanahiak ezagutzea interesatzen zaigu, honako hauek identifikatu ditugularik:

- Gazteak garapen kognitiborekin harremanetan dauden *ezagutza abstraktu eta konkretu bereizgarri edota osagarriak* eskura ditzake diasporan, heziketa prozesu orokor baten baitan kokatzen direnak.
- Gazteak bizi dituen transformazio fisiologiko azkarren baitan, eta gorputza nortasunaren erreferentzia puntu garrantzitsua izanik, *gorputz trebetasunak eta ahalmen psikomotrizak* landu ditzake diasporan.
- Gazteak bizi dituen transformazio emozional-afektibo azkarren baitan, *indarra, segurtasuna edo konfiantza* har ditzake diasporan, adin berekoekin eta gainontzeko diaspora kideekin batera arituz.
- Gazteak bizi dituen portaera transformazio nahiz harreman sozialen aldaketan baitan, *egiteko forma batzuk* ikas ditzake diasporan, esaterako, inguru edo espazioen zaintzaren garrantziaz jabetu, ardurak hartu edo komunikazio eta elkarlanerako orientabideak eskuratuko ditu.

Euskal Etxean dituen egitekoak bere zaletasunetan edo gaitasunetan sakontzeko, biribiltzeko edo handitzeko jotzen direlarik, eta diaspora zentrotik kanpo marko edo espazio horien falta sumatzen bada, litekeena da Euskal Etxeak gazte-identitateak eratzeko baimentzen dituen aipatu markoei eta hemen garatuko dituen konpetentzien birbalorizazioa egitea eta, agian, diasporako komunitateei ez dagozkien esanahiak edo funtzioak neurritz gain atxikitzea.

Marko hauetan lortutako emaitzei erreparatu gabe, ikasteko prestutasuna, jarduteko ahalegina eta jardueretik aldeko jarrerak eta komunitatetarikoa pertenezia gorai patuko dituzte, halere. Diaspora-gaiak diaspora kide izateko garatu beharko ditu *konpromiso* eta *inplikazioaren zentzuak*, komunitatearen ardura hartzeak edo komunitatearekiko *leialtasuna* adieraztea.

Honek diaspora identitateari modu zuzenean eragiten dio: komunitate barruko betebeharren edota harreman sozialen elementu bat baino gehiago badela, eta konpromisoa eta ardurak diasporaren identitatearen parte garrantzitsuenetakoak direla

azpimarratu behar dugu. Identitate dinamikak, hain justu, *konpromiso / konpromiso faltaren ardatzean* kokatuko dira. Borondatez eta gustuz bere gain hartutako konpromisoan enfasia jarriz aditzera ematen da, batetik, komunitatearekiko leialtasuna serioa dela, eta, bestetik, euskal komunitatearekiko sentimendua hutsala ez dela. Horretarako krisi garaietan birbaloratuak edo goraiatuak izango diren sentimendu eta afektuen garrantzia lehen mailan jarriko ditu.

Diaspora gazteen identitateen noranzkoak definitzen doazen honetan, ordea, gaztearen bizi-luzapenaren eta luzapen sozialaren murrizketa eta Euskal Etxeetan euskal nahiz diaspora identitateak barneratzeko bideen edo mekanismoen murrizketa suerta daiteke. Sentimendua baretzea, pasioa lausotzea edo nekeak handitzearekin harremanetan jartzen da *diaspora identitatearen erakundetzea*: diaspora eta euskalduntasunaren ideia homogeneizatzea, diaspora bizipenak bateratu eta uniformatzea. Horren harira, harremanak erakundetu eta bertikaltzeko orduan, azken hamarkadetan diaspora zentroetan eragingo duten eragile berrien agerpena baloratu (Argentinako euskal erakundeen federazioa-FEVA eta Eusko Jaurlaritza zentro espazial, sinboliko eta instituzional berriak) eta diaspora zentroen honako bilakaera prozesuekin estuki harremanetan jartzen da: praktika komunitario eta komunitate funtzionamenduaren arautzearekin batera Euskal Etxeen eskumenak galtzea; praktikak eta eztabaidak bideratu edo gainbegiratzearen ondorioz diaspora etxeen interes-markoak murriztea; eta diaspora parte-hartze espazio dinamikoen bultzada oztopatzea.

Bestalde, gazteak bizi dituen transformazio azkarrak batetik, eta azken hamarkadetan Argentinan bizi izandako krisi sakonak bestetik, proiektu pertsonal eta kolektiboak eragiten dien zurrumbilo hauetan Euskal Etxeak badu zer esan eta zer egin. Erabat asebetegarria ez zaien momentu batean, egungo Argentinan Euskal Etxeak gaztea manifestatzeko edo espresatzeko markoak, pertenezia eta erreferentzia markoak ez ezik, aurrera jarraitzeko markoak ere eskainiko ditu, hau da, diaspora subjektu kolektiboarekin batera gazteak bere bidea egiteko konfiantza, konpetentziak, ezagutzak, eta afektuak. Horren harira, eta adina eta genero baldintzek esperientziak baldintzatuko dituztela kontuan izanik (diaspora zentroen bizitza sozial eta politikotik

baztertuak izatea; espazio, jarduera eta ardura konkretu gabe geratzea), gazte-identitate eraketetan Euskal Etxeek honako ekarpen hauek egin ditzakete:

- Euskal Etxeek *espazio atemporalak* osa ditzakete, denbora askatuaren eta festa-espazio hibridoak; desinhibitu edo elkarkoitasunerako espazioak. Era berean, *euspen espazioak apropostzat* hartuak dira, kaleko segurtasun eza eta inguruko erreferentzia negatiboetatik babesteko, hazteko eta hezteko espazio seguruak.
- Euskal Etxeak *jarduera espazio kondentsatuen* gune izan daitezke, jarduera asko modu diferentean egiteko aukerak eskainiko dituztenak. Era berean, *komunitate erreferentzia* etiko, sozial edo kultural positiboak edo eredugarriak eskainiko ditu, egungo argentinar gazteriak bizi duen ustezko orientazio falta eta gaizki hartuak diren zenbait jarrera sozialen aurrean (indibidualismoa, lehiakortasuna, kulturgabetasuna, eta abar) euskarri puntuak kontsideratuko direnak.
- Euskal Etxea *baimentzeko eta debekatzeko espazioak* izan daiteke, gaztea zer izan daitekeen eta zer izan ezin daitekeen definituko dituen, funtzioak banatu eta interakzioak arautuko dituen, egiteko forma konkretu batzuk luzatuko dituen.

## **DIASPORA IDENTITATE DESPLAZAMENDUAK DIASPORA ETA GAZTE IDENTITATEEN EGOKITZAPENAK**

Diaspora desplazamenduetan sortuko da, zehazki, *elkarren artean distantzia esanguratsua* duten eremuetara egindako desplazamenduetan. Diasporaren sorreran eta bilakaeran dagoen sistema kapitalistaren bilakaerari erreparatuz, desplazamenduak agortu beharrean desplazamenduetarako baldintzak eta desplazamendu testuinguruak dibertsifikatu eta intentsifikatuko dira; herrialde eta eremuen arteko harremanak baldintzatu ez ezik, eremuen arteko distantzia esanguratsuak ere zabalduko dira; egungo krisiek, halaber, desplazamenduen ideia (bir)indartuko edo (ber)piztuko dituztela kontuan hartu behar da, eta horrek, oso modu berezian identitateari eragingo diola.

Desplazamenduak, –desplazamendu fisikoak eta bestelakoak, emozionalak edo birtualak kasu–, edo desplazamenduen oroitzapenak *indartsua izan behar du orain eta hemen*: lekutu den tokietan diaspora diferentzia adierazi ez ezik norberak bizi edo beste batek transmititutako desplazamenduen esperientzia leku anitzetan kokatuta dagoen diasporaren eremu berdintsuenetara lotura edo pertenezia komun bat ere adieraz

dezakeelako. Desplazamendu esperientzien *funtzio eta esanahi sozialek* diasporaren nolakotasunak (berezitasunak, diferentziak, distintzioak) plazaratu ez ezik memoria kolektiboen ahaztura zein oroitzapenen gidak espazio, denbora eta protagonistak artikulatzeko ere kapazak dira, aipatu batasuna sendotze bidean.

Desplazamendu esperientziak inguruan sortutako aldaketak ez ezik belaunaldi aldaketak ekarriko duen egoera berria uztartzea ere ahalbidetuko du *belaunaldien arazoa diasporan* aztertzeak. Zentro-periferia arteko harremanetan Argentinak periferiako menpeko kapitalismoa garatuko duen bitartean, Euskal Herriak zentroranzko joerak hartuko dituelarik, klase ertainaren barruan kokatu eta klase ertainaren inguruan mintzo den Argentinako euskal diasporako gazteak bi eremu esanguratsu irudikatzen hasiko dira.

Zehazki, Argentina eta Euskal Herriaren arteko *distantzia espaziala* handituko dela aditzera emango da, desplazatzeko beharrezkoak diren medioak eta espazioak zeharkatzeko beharrezkoa den denboraren murrizketagatik. *Distantzia sozio-kulturalen* artean, arrazen kresolaren Argentina (gizarte berria, historia laburrekoa, trebatu gabea, egiteke dagoena), eta Euskal Herria/Europa (historia handiko herri modernoa, ondo gestionatua, garatua, aurreratua eta aukeraz betea) alderatuko dira. *Belaunaldi distantziari* dagokionez, euskal gazteria eta argentinar gazteriaren arteko ezberdintasunak azalaraziko dira, herriarekiko konpromisoa eta konpromiso falta, interesa edo interes faltarekin ulertu ohi dena.

Hain zuzen ere, diaspora eta gazte identitateak artikulatzeko moduen gainean eraikiko da ikerketa lan honetan aurkeztutako hirugarren narratiba. Gaztea orainaldian kokatu eta iraganaren zein etorkizunaren berri emango ditu, hau da, goranzkoen esperientzien eta garaikideen bizi-horizonteen inguruan, Argentina eta Euskal Herriko bilakaeraren inguruan. Espazio, denbora eta protagonista anitzak gurutzatzen direlarik, identitatea *jarraipen eta ez-jarraipenen dinamiketan* kokatuko da:

- Gaztea *iraganean kokatzen da eta egungo esperientzien arabera* interpretatzen du, hots, orain eta hemen dituen kezka, interes edo beharren arabera: migratzailearen adinari erreparatuko zaio egungo Argentinako gazteriaren gogoeta egiteko, jarrera sozial eredugarriak aldarrikatzeko edo Argentinaren egungo potentzialtasunak zein gabeziak agertzeko, besteak beste.

- *Gaztea iraganean kokatu eta arbasoa presente egiten du*, baina ez da goranzkoarekin mimetizatuko: gazte doinua, erritmoa eta hizkera enplegatzeaz gain, posizio bereizgarriak hartuko ditu, bizi-esperientzien ezberdintasunei erreparatuz; besteetan bidearen parte bat elkarrekin egingo dute, bi belaunaldientzat Argentinak zentzu sinboliko eta afektiboa duela aldarrikatzeko adibidez.
- *Gaztea orainean kokatu eta eremuen arteko konparazioak* burutuko ditu. Hurbilpen sentrazioak indartu eta aurreikuspen gaitasunak handitu ahala, distantziak eragin dezakeen inozentziatik urrunduko da; inguruan antzematen dituen gabezien aurrean Euskal Herriarekiko arrazionala den idealizazioa gara dezake orduan.
- *Gaztea etorkizunean kokatzean orainaren berri ematen du*, klase sozial, genero eta adinaren arabera pentsatzen diren bizi-horizonte zabalak ikusaraziz, eta besteak beste, eremu ezberdinetan esperientzia berriak bizitzeak, joan-etorrien determinazio ezak edo jatorri, leku edo lurraldeen mugen ezinbestekotasuna baliogabetzea inplikatzeko duena.

Egungo Argentinako Euskal Etxeko gazteek goranzkoek eta bere ondorengoek ezagutuko duten *beste diaspora bat* eskura izango dutela esan daiteke. Diasporako gaztea orainean, iraganean eta etorkizunean; hor, han eta hemen kokatzen da eta munduak interpretatzeko eta sailkatzeko modu diferenteak espresatuko ditu; munduan egoteko eta esku hartzeko jarrera, orientabide eta interes propioak garatuko ditu. Diasporako belaunaldi gaztea bere bidea egiten has daiteke orduan eta, ezinbestean, diaspora zentzu berrikin bete eta diasporan aldaketak eragin.

Diaspora identitateak eta, finean, identitateak ulertzeko, bizitzeko eta sentitzeko forma batzuen trantsizioa edo desplazamendua aditzera emango da. Diasporan *borondatezko sentimenduzko identitatea* gailentzeak inplikatu du, hain justu, irizpide objektibo baztertzailen aurrean euskal edo diaspora komunitateekiko sentimendua lehen mailan jartzea; herentziazko identitateen artean, borondatezko identitateetan azpimarratzea. Horrela, bada, aipatu jatorri marka zalantzarria bihurtzen denean, euskal oinordekotzarik ez duen gazteak ustezko frogak ukatzeko ordez borondatea eta sentimenduak gailendu ditzake; euskal oinordekotza duen gazteak ere bai borondate eta sentimenduan jarriko du enfasia, diasporaren irekiera tendentziak berrindartu nahian edo euskal oinordekotzarik ez dutenak baztertu ezin daitezkeenaren jakitun.

Aho batez, diasporako kideak ez duela euskal oinordekotzarik behar esango da. Argentinako euskal diasporan belaunaldien arteko ezberdintasunak ikusarazten hasiko dira, nagusiek ez bezala diasporako gazteek genealogiari bestelako zentzuak atxiki baitizkiote. *Euskal oinordekotzarik ez duen diasporako gazteak* esaterako, ustez horren zorrotzak diren biografia datuen manipulazioa edo moldaketa burutuko du; oinordekotza bat bakarra barik oinordekotza anitzak dituela aldarrikatuko du; asmatutako pertenez bati hel diezaioke eta modu horretan, diasporarekin konexio berriak espresatu.

Diaspora identitateak orokorrean forma inklusiboagoak hartzen dituela sostengatu badaiteke ere, euskal oinordekotza badutenen artean zenbait aldaera diskurtsibo ematen direla aipatu behar da. *Familia historikoen kasuan* bereziki, hau da, Euskal Etxe historikoetan famili tradizioa jarriki txikitatik zentroan murgilduta dauden gazteentzat, euskalduntasuna berez edo naturaltasunez bereganatutako baldintza litzateke, oinordekotzarik ez duten edo “diasporako euskal adoptatuen” artean diferentzia markatuz, nahiz eta azken horiek “euskaldun izatera hel” daitezkeela onartu. Edonola ere, jatorri marka hori diaspora zentroetan zenbait familiak duten statusaren adierazletzat ulertu behar da. *Gerra ondoko ilobak*, aldiz, herentziazko identitatea plazaratzen badu ere, aitona-amonekin desberdintzeko premiak euren egungo parte hartzearen borondatea azpimarratzera eraman ohi du.

Aipatu berri ditugun oinordekotza diferenteen baldintzak diaspora esperientziei zentzu aldakorak eranstean dizkiela kontuan izanik, eta diasporak eta gazteek elkarri eragiten diotela eta bietan gertatzen diren aldaketek berrikuntzak probokatuko dituztela abiapuntutzat hartuz, diaspora eta gazte identitateen egokitzapenei dagokionean Euskal Etxeak duen eraginaren hausnarketa egin nahi izan dugu:

- Euskal Etxeak *batasun eta jarraipen ilusioak* elika ditzake, gaztearen autobiografia goranzkoaren edo komunitatearen parte bihurtzen duen heinean, diaspora subjektu kolektiboa eratuz, diaspora subjektuaren bereizgarritasunak azalaraziko direlarik.
- Euskal Etxeak *ausentzia iraunkorretik harreman sinbolikoa eraikitzea* ahalbidetu dezake, hots, goranzko edo ondorengoaren arteko zubiak eraikitzea. Komunitatearen esperientzien transmisiorako baino gehiago interesa pizteko eta gehiago ezagutzeko motibazioa sortzeko gunea izaten da.

- Euskal Etxeak *norabide anitzeko transmisioak ahalbidetu ditzake*: belaunaldi arteko transmisio-bereganatzeak; belaunaldi bakoitzaren baitan konpartitzen direnak; edota komunikazio harremanari buelta eman eta gazteak nagusiarri transmitituko dionean, diaspora zentroetan lortutako konpetentziei esker familia loturak (ber)indartzeko agente moduan agertuz, goranzkoa orainera gertura ditzakeela.

### **DIASPORA IDENTITATE BEREIZGARRIAK EUSKAL ETA ARGENTINAR IDENTITATE ARTIKULAZIOAK**

Diasporak komunitate bereizgarriak osatzeko orduan inportantea da oso desplazamenduen oroitzapenak indartsu izaten jarraitzea eta diasporek dituzten enplazamendu anitzek erreferentzia zentro bakarrera ez murriztea. Orduan argudia daiteke diaspora komunitate bereizgarriak lekutu diren tokietan integratu edo asimilatzeke zailtasunak izango dituztela, edo beste era batera esateko, lekutu den tokiekiko diasporak *diferentzia biziko* duela. Honek, oro har, lerro zuzeneko teoriak kolokan jartzen ditu, alegia, diaspora lekutu den gizarte homogeen edota heterogeenetan diaspora identitatea mailakaz galdu eta forma hertsia bezain konkretuetan espresatuko litzatekeena: diaspora identitateak “bata edo bestea” edukitzea (identitate esentzial bakarra eta uniforme); “bata zein bestea” garatzea (identitate dual transnazionala), edo “ez bata ez bestea” konprenitzea (identitate postmoderno aldakor eta estrategikoa)

Argentinarraren gizartearen sozialemu, kulturalki edo erlijiosoki heterogeen den gizartearen ereduari egokituko litzaioke, identitate argentinarraren bateratzailea eratzeko orduan homogeneotasuna nabarmendu arren. Denboraren poderioz apartekotasun argentinarraren egokitzapenak suertatuko badira ere, argentinarraren izatea “sustraiak beste nonbaiten izatearekin” identifikatuko da luzez. Honek gabezia, falta edo osatzeko dagoen identitate bati edota identitate osatu edo aberasgarri bati erreferentzia egin diezaikeela kontuan hartu behar da.

Eguneko Argentinako Euskal Etxeetako gazteek, beste identitate askoren artean, euren burua gazte argentinarraren eta euskal gazte izendatu, sentitu eta agertu dute. Baina,



era berean, modu diferente eta berezi batean kokatzen dira beste argentinarrak zein euskal herritarren artean, eta horrek sarritan harreman problematikoak eta gatazkatsuak izatera darama. Ez-ulertze horiek, bi kasuetan, Euskal Etxean asumitzen dituen konpromisoek sortuak dira, diasporako gazteen jardunak gazteen estereotipoko hegemonikoekin bat ez datozenean; argentinarrak jendartearen bereziki, euskal komunitatearen aitortza faltatik eratorritako ez-ulertzeak agertuko dira.

Zehazki, argentinarrak jendartearen diasporarekiko inplikazioa argentinartasunaren kaltetan ulertzen denean, prudentzia eta gaitzespen jarrerak gertatzen dira. Leporatuko desleialtasunak zokoramendura darama eta “hangoa” edo “hemengoa” izatearen hautua egiteko exijituko zaio. Euskal jendartearen artean antzeko jarrerak erreproduzituak dira. Euskal Herrian nahiz diaspora komunitateetan izaten dituzten topaketetan, Euskal Etxeetan dituzten egitekoak eta bizipenak susmagarriak jotzen direnean, gutxiespen, ulertezintasun eta zalantza jarrerak azalaraziko dira, egiazkoak edo bene-benetakoak ez direlakoan, “azken finean, zu ez zara euskalduna” leporatuko baliote bezala.

Hain zuzen ere, argentinarrak eta euskal identitatearen arteko artikulazioak osatu dituzte ikerketa lan honen laugarren narratiba, trama nagusia hor kokatzen delarik, *argentinarrak eta euskal identitatearen egokitzapenetan*. Diasporako gaztea eta argentinarrak gizartearen arteko elkarriketa batetik, eta diasporako gaztea eta euskal gizartearen arteko solasaldiak bestetik, hasiko dira. Hauek osatuko dituzte, hain justu, narratibaren protagonista nagusiak eta lehen mailako eskenatokiak. Identitate dinamikak, berriz, *identitatearen (bir)formulazioetan* kokatzen dira, eta errepresentazio horiei dagozkion praktiken (bir)planteamenduetan:

- Gazteak *argentinarrak identitatearen izaera heterogeneoa* azpimarratuko du eta espresuki, oinordekotza eta kolektibitateak anitzak aldarrikatzea argentinarrak identitatea aitortzea dela, migratzaileen eredu hartuz eta kolektibitatearen bertuteak goraituz, esaterako, kulturei ematen dieten bultzada, balore eta praktika komunitarioen bizipenak, eta abar.
- Gazteak *euskal identitatearen zabaltasunean* azentua jarriko du, euskal mundua Euskal Herriko eremura mugatzen ez dela azpimarratuz eta, zehazki, euskal diasporan aktibatzen dela aldarrikatuz.
- Gazteak *argentinartasuna egunerokoan kokatuko* du, esperientziak eta jarraibide sozial zein kulturalak beretzat hartu eta segida emanaz. Krisi testuinguru batean, egunerokotasunean azaldutako elkarkoitasuna (familiarrekotasuna, laguntasuna),

topaketen dimentsio afektiboa edota argentinar erritoen ospakizunen (bir)balorizazioa gertatuko da.

- Gazteak *euskal komunitate zabalarekiko konpromisoa* adieraziko du, hots, euskal diasporako komunitateak nahiz Euskal Herria aldarrikatu eta euskalduntasunarekiko inplikazioa izatea.
- Gazteak *argentinar identitatea etorkizunean proiektatuko* du, esaterako, Argentinan bizi, lan egin eta familia osatzeko konpromisoa berritu eta berresten.

Diaspora identitatea, oro har, ez da ulertzen eta sarri askotan, gainera, diasporako gazteei zaila egiten zaie esplikatzea, tematizatzea edo definitzea. Diasporak gara ditzakeen errepresentazio eta praktika anitzak, ezberdinak eta antagonikoak mahai gaineratzen dira orduan, edozein kasutan diaspora diskurtso propiozat kontsidera daitekeena. Nahiz eta identitatea forma bakar batera diskurtsiboki txikitzea suerta daitekeen batzuetan, hots, “argentinarrak baino argentinarragoa” edo “euskaldunak baino euskaldunagoa” badirela aldarrikatzea, diasporako gazteak gutxiespen edo gaitzespenetik mirespenera, prudentzia edo mesfidantza jarreratik onespenera lortzeko saiakerak egingo ditu.

Diaspora kideak, ordea, ez ditu emanda dauden jarraibideak berez hartzen, eta horrek, argentinarren edo euskal herritarren artean modu berezi batean kokatzea ahalbidetuko du. Diaspora kideak, halaber, bestelako interes, jarrera, ezagupen, atxikimenduak erakutsiko ditu, eta horrek, modu berezi batean kokatzea ahalbidetuko du. Euskal Herrian dagoenean esaterako, adierazgarria da oso ez duela bere burua turista edo bisitaritzat hartuko.

Diaspora identitatea modu irekiagoa batean plazaratuko da. Batetik, diaspora identitatea munduan egoteko, izateko eta egiteko modu bat inplikatu duela, zeinak orientabide, interakzioa eta errepresentazio propioak dituen. Bestetik, diasporaren kokapena pribilegiatua pentsatzeko era diferenteak eta lotura zein leialtasun forma anitzak inplikatu dituela. Horrela, diaspora kokapenak *osotasun imajinario* bat eskaintzen duela esan daiteke (ehuneko ehun izan, sentitu eta errekonozitu), identitatea ulertzeko forma partzial (bi munduen artean kulunkatu, diaspora transnazionalak bezala) edo estrategikoen artean (ezerezean galdu, diaspora postkolonialak lez). Halaber, dispertsioaren diasporak bizitzako atsekabe, frustrazio edo bakardadearekin alderatua,

azpimarratzekoa da diasporako gazteen identitateak ez direla modu tragiko edo agoniatsu batean bizi, ez horiek tematizatzeko orduan ez horiek espresatzeko moduetan.

Diasporan identitate egokitzapenak aztertzerako orduan, Euskal Etxeek identitate artikulazioak baimendu eta oztopatu ditzakete zentzu hauetan guztietan:

- Euskal Etxeak *komunitatearen topagune zabal* bezala tinkatzea, parte-hartze espazioak baimenduz eta sustatuz. Kontrako zentzuan, *bazterketa espazioak edo leku elitista* gisa gailentzea, ondorengotza, adina, sexu eta klase baldintzen arabera sarbidea eta parte-hartzea mugatzean.
- Euskal Etxeak *interes berriak zabaltzeko eta kezka ezberdinak asetzeko espazio* bezala finkatzea, hauen artean Euskal Herriko edo Argentinako bilakaera politiko, ekonomiko, kultural eta sozialek sortzen dituzten interes eta kezkak. Kontrako zentzuan, *euskalduntasunean zentratzea*.
- Euskal Etxeak diaspora *harremanak diasporatik haratago zabaltzean*, inguruko eragile edo kolektibitateekin zubiak eraiki. Kontrako zentzuan, diaspora zentro *barruaren eta kanpoaren arteko distantziak* areagotzea.

## **DIASPORA IDENTITATEAREN ZABALERAK DIASPORA KOMUNITATEEN IREKIERAK**

Diaspora komunitate eta diaspora kideen arteko harreman eta trukeen bitartez *diaspora komunitate sareak* osa daitezke, diaspora antolaketa maila osatuagoa eta konplexuagoa inplikatzeko duena, baina betiere diaspora hedatzeko gaitasunaren araberrakoa izaten dena. Hortaz, diaspora guztiek ez dutela ezaugarri hau izango azpimarratu beharra dago lehenik eta behin.

Diaspora komunitate eta kideen arteko harremanak *maila ezberdinetan* gauzatu daitezke eta *norabide anitzeko* elkarreraginak inplikatu. Honek diasporaren definizioa eta azterketa eremua zabaltzera garamatza: batetik, diaspora kokapen zehatza duen arren maila lokaletik haratago heda daitekeela; eta, bestetik, diasporak inguruko eraginak jaso eta inguruan neurri handi edo txikiago batean eragina izateko gaitasuna baduela. Horrenbestez, eraginik produzitzen ez duen diaspora ikuspegia errefuxiatu eta zentro-periferia arteko harremanenetara soilik mugatzen diren diaspora azterketak gaindituz, maila ezberdinetan diasporak dituen norabide anitzeko elkarreraginak kontuan hartuko

dira: maila lokalean duen parte hartzearen ondorioz diasporak produzitzen duen eragina edo diaspora eta ingurukoen arteko elkarreraginak; lurralde erreal edo sinboliko batekin eta bertako eragileekin nahiz diasporako beste komunitate eta kideekin dituen harreman eta era guztietako trukeak; edo beste diasporarekin dituen hartu-emanak.

Zentzu horretan, Argentinako euskal diasporaren bilakaeran espresuki, elkarren osagarriak diren diasporaren itxiera eta irekiera dinamika nagusi bi identifikatu ditugu. Esan bezala, kokatu den eremuetan zentro espazial, sinboliko eta instituzionaletan *plegatzen* edo ixten hasiko da diaspora eta, honekin batera, zentro anitzek osatutako diaspora ireki edo *desplegatzen* hasiko da, elkar-harreman eta elkartrukeak handitzean diaspora eremu esanguratsuak osatzen eta indar harreman korrelazio berriak agertzen doazelarik. Harremanetarako diaspora gune berriek ez dutela zentro geografiko zehatzen beharrik, hauen ezaugarri nabarmenetakoa izango da.

Maila lokala gaindituz osatzen eta handitzen diren diaspora sareen bitartez, nahiz maila lokalean kokatutako diaspora komunitateen errepresentazio anitzei helduz, *etxearen ideia berriak (bir)planteatu daitezke*. Batetik, diasporak leku anitzetan sortutako hamaika etxe izan ditzakeela azpimarratu nahi da, hauekin batera erreferentzia, interes eta lotura zentro anitzak zabalduz. Bestetik, egungo Argentinako Euskal Etxeetan antzeman daitekeen joera aipagai. Bada, diaspora zentro horiek bateragarri bihurtzeko ustez bateraezinak diren kanpoko eta barruko eremuak, publikoa eta pribatua; egunerokotasuna aldendu edota erreproduzitzeko denborak, apartekoa eta aldi berean ohikoa dena; oraina, iragana eta gerori dagozkion zentzuak; euskal, argentinarrak eta bestelako kode, espresioak edo manifestazioak; eta abar.

Diaspora maila ezberdinei erreparaturik, diaspora identitatearen mugak eta luzapenak osatuko dituzte, hain zuzen ere, ikerketa lan honetan aurkeztutako bosgarren narratiba. Trama hor kokatuko da, *kokapen espezifiko zehatz horretatik diasporaren markoen zabalpenetan*, eszenatoki zein protagonista nagusiak Euskal Etxea bera eta bere inguruak (bizitokiak, herriak, diasporak) izango direlarik.

Euskal Etxea lehen kokapen espezifiko nagusia izango da. Hor agertuko dira diaspora-zentroa eta euskal jardueren arteko loturak nahiz euskal jarduerak eta euskalduntasuna zein diasporatasuna sentitzearena. Bigarren maila batean, hortaz,

Euskal Etxetik euskal eta diaspora munduetan kokatzea ahalbidetuko da, Euskal Etxetik Euskal Herrira daraman bidea erraztu ez ezik, modu ez ohizko batean Argentinara daraman bidea ere inplikatu dezakeena. Argentinako euskal diasporara, eta neurri txikiago batean, euskal diasporaren eremu zabalean kokatzea suertatuko da hirugarrenik, eta Argentinako euskal kolektibitatean parte hartzearekin batera, gainera, beste diaspora kolektibitateak eta diaspora esperientziak ezagutzeko aukerak. Aipagarriena zera da: markoak ez direla Euskal Etxean agortzen; alderantziz, kokapen anitz horietatik marko berriak irekitzeko aukerak plazaratuko direla.

Diaspora kideak maila ezberdinetan posizio berriak hartu eta *eremu anitz horiek konekta* ditzake gainera, adibidez, familia edo lagun artean, ikastetxe zein lantokian, kirol klubean edo lantokian, euskal diasporako nahiz beste diaspora kolektibitateetako kideekin aurrez aurre edo zeharka diaspora-esperientzia osagarri egin, komunikatu edo promozionatzen duenean. Horren harira, oso bestelakoa izaten da *Euskal Etxetik at dagoen gaztearen* egoera, zeinarentzat diaspora harremanen sarea, diaspora errekurtsoen sarea eta diaspora informazioen sarea tenporalki edota definitiboki hautsi den, eta horrenbestez, diasporan bertan (bir)kokatu edo kokapen berriak asmatu beharko dituen, baldin eta diaspora munduetan berriz ere murgiltzeko interesa badu behintzat.

Diaspora identitatea maila ezberdinetan zabaldu eta indartuz doa. Izan ere, diaspora komunitate sareak hedatu ahala diaspora bizipenak konpartitu, diaspora magnitudeaz jabetu, eta diaspora zentzua bereganatuko dira, diaspora esperientzia legitimatu edo identitateak beharrezkoak duen errekonozimenduari begira oso garrantzitsua dena. Honek lerro zuzenen teoriak kolokan jarriko ditu, alegia, identitate irmo batetik identitate ahul baterako igarobidean diasporaren komunitateen funtzio bereizgarriak mailaka galdu edota diaspora identitatea eremu pribatura (familia-etxea, gorputza) edo denbora libreraren (kontsumo denborak bereziki) mugatzen direnaren usteak.

Diaspora identitatearen indartzea eta diaspora komunitatearen potentzialtasunak handitzea, beraz, diaspora sareen hedatzeko gaitasunaren araberakoa izaten da neurri handi batean. Euskal Etxe berrien, erdibidekoen eta historikoen artean ezberdintasun handiak daudela kontuan hartuz –Euskal Etxe historikoen arteko harreman estuak zein interesekoak diaspora sare indartsuagoak eraiki eta alde bateko erreferentzialtasuna

izatera ahalbidetzen duelarik–, diaspora komunitateen itxiera eta irekiera mugimenduei erreparatu nahi izan diegu, maila ezberdinetan diaspora markoen joera aipagarri hauek identifikatu ditugularik:

- Euskal Etxea *maila lokalean kokatuta dagoen aldetik*, diaspora komunitatean antzeko interesak eta kodigo berdintsuak konpartitzen dituztenekin enpatizatzea; zentroen jardueren bitartez (ospakizun edo jaialdietan, edo arlo asistentzian, eta abar), inguruan eragin, bizitza sozialen parte hartu nahiz inguruko arazoez jabetzea.
- Euskal Etxeek osatzen duten diaspora *multi-lokala den aldetik*, diaspora komunitate arteko sareak eratzen hasi orduko diaspora bizipenak azalaraztea (Argentinako euskal diasporaren parte izan eta sentitzea); sare hauen bitartez Argentina bera gerturatzen dela esango da.
- Euskal Etxeek osatzen duten *diaspora trans-lokala den aldetik*, argentinar zein euskal jendartearen harreman sareak, esperientzien sareak eta informazio-sareak handitzea, edo leku anitzetako eragileekin, kolektibitateko kide zein euskal bisitariekin harremanak indartzea. Hori diferentzian eta berdintasunean sakontzeko aitzakia izaten da, eta lanean jarraitzeko pizgarria.

**IKERKETA NARRATIBAK**  
**LANAREN NONDIK NORAKOAK**

Ikerketa-lanaren azken txostena prozesu luze eta korapilatsu baten helmuga izaten da. Esperientziak, inpresioak eta gogoetak halaberrez sinplifikatu behar dira; trama esanguratsua jorratu behar da; esperientzia jarraituak, koherenteak eta hein batean itxiak kontatu behar dira. Baina orientabide eskas eta inpresio iragankor batzuetatik hasi eta garatu edo konplexu egiten bada ere, hots, txikitasunean hazi eta mailaka handitu arren, lanak baditu bere gorabeherak ere. Hori dela eta, ikerketaren ibilbideak aurkezteko tartea hartu nahi dugu ondoren, ikerketa prozesuaren nondik norakoak eta auto-kokapenaren inguruan luzez aritzeko: momentu diferenteetan hautatuko bideak eta geldiuneak esplikatzeke; urte hauetako bide lagunak aurkezteko eta, nola ez, bide galduak eta atzerapausoak edo ikerketan prozesuan bizi izandako desbideratzeak, irristatzeak eta estropezuak.

Ikerketa esperientzia kontatu eta gogoeta metodologiko zabalagoa egiteko parada honetan azken sei urteetako lanaren zirrikituak aurkeztu, euskal diaspora eta Euskal Etxeetako gazteen inguruko zenbait orientabide edo “gida praktikoak” luzatu nahi ditugu, posible den heinean behintzat, diasporako gazteen identitateen ikerketetan bide berriak ireki daitezten.

## ***IKERKETA ESPERIENZIA HASTAPENAK PRESTAKETA MOMENTUAK***

Esperientzia honen hasiera **2001 urteko Argentinan** koka daiteke. Euskal Herriko Unibertsitatean Soziologia ikasketak albo batera utzi eta Maiatzeko Plazako Amen Unibertsitate Herrikoiak Buenos Airesera eraman ninduen urte betez, Giza-



eskubideak eta eskubide politikoak ikastera. Hori baino askoz gehiago ikasi nuen, jakina. Uste ez bezala, askozaz gehiago luzatuko zen esperientzia. Bederatzi urte geroago, orduko bizipen arinak, bidean agertutako elementu solteak, Argentinan barrera egindako bidaien hamaika eta bat anekdotak sekuentzia batean antolatu eta ikerketa honen lehen trazoak bailiran burura datozkit orain. Zalantza gabe, Argentinan urte latza bezain oparoa izan zen hura, bai jendarteko sektore zabal batean, bai Gizarte Zientzietan, bai maila pertsonalean ere.

Buenos Aires hiri bizia otu zitzaidan hasieratik. 20 urte nituela heldu nintzen, uste baino erreferentzia nahikotxo besapean baina bertan zer aurkituko nuen zehatz-mehatz jakin barik, horrek arduratzen ez baninduen ere. Harrera bikaina izateaz gain, hiriak berak esperimenez irekia ematen zuen. Ahalik eta gehien ikasteko prestutasuna nuen, gainera. Buenos Airesek zentro politiko, ekonomiko, sozial eta bereziki zentro kulturala –garesti ordainduzkoak, askotan– garrantzitsuena izatearen famari eusten zion, duda barik. Dena ematen zuen ikusgai, entzungai, bizigai; esan gabe doa bideari ekitea errazagoa izaten dela buelta eman eta atzera egiterik badagoenean. Horrela zihoen behintzat, –eta horrela erregistratu nuen 2001eko agendatxoan–, horma batean irakurritako Zitarrosaren bertso horiek, gaur arte lagun izan ditudanak: “...ez bota maletan erabili behar ez duzuna, bideak luzeagoak baitira sama gehiegi duenarentzat...”

Hirian oharkabe igarotzeko parada handiak ziren. Barne migrazio edo mugamigrazioez aparte, apenas zegoen kanpoko ikasle, langile edo turistarik. Migratzaileak eta bisitariak beste garai batekoak zirelakoan, orduko Argentina gorabeheratsura inor joateak harridura pizten zuen batzuen artean, are gehiago gaztea eta emakume bazen. Buenos Airesen arrotza ez sentitzea erraza suertatu zitzaidan, oro har. Constitución auzoan etxea topatu nuen. Gerora jakin dut auzo honetan euskaldun migratzaile askok aterpea lortu zutela. Antza, 1842 urtearen bueltan “zonalde hau euskaldun jabeen taberna eta ostatuz gainezka zegoen. Establezimendu horietan sartzea euskara, euskal ohitura zerion lurraldean sartzea zen, non jota eta musa dibertsio nagusiak ziren. Ez zen arraroa hauetan frontoia topatzea” (Azcona, 1992, 323).

Zer esanik ez –euskal diasporaren azterketetan gutxitan aipatzen bada ere–, 2001eko Constitución auzoa oso bestelakoa zela. Tren eta autobus sareen konfluentzia garrantzitsuenetarikoa, Buenos Aires Hiriaren periferia marjinetuenaren luzapena, “jabe gabeko lurraldea” batzuentzat, beste askorentzat berriz, “guztion lurraldean” sartzearen modukoa: “boliche” eta tabernetan cumbia, futbola eta billarra nagusi; “kaleko haurrak”, kale saltzaileak eta etxegabekoak kale ertzetan nahiz etxeko atarian gau eta egun elkartzen ziren prostitutak, Hotel Irun inguruan –beste Constitución horren testigu, apika–. Denboraren joan-etorriaz ari garela, non eta Irujotarren etxean izandakoan bizi izan nintzen, euskal errefuxiatuek sortutako Ekin argitaletxeko liburuen artean.

Etxea eta lana aparteko laguna izango den Euskal Etxeko kide baten bidez lortu nituen, –euskalduna izateagatik diasporaren laguntasun keinua ote?–. Bestela ere, Argentinan askotan sentituko nuen baldintzarik gabeko babesa, eta ez soilik diasporaren aldetik, baizik eta afektibitate orokortu horren egunerokotasunaren isla balitz bezala. Heldu aurretik apenas kontaktu bi eta lehen egunetik Euskal Herriarekin lotura bat edo beste zuen jende piloak elkartzen hasi ginen. Horietako batzuk euskal oinordekotza zuten, aldeztu aurretik horren jakitun izan ala ez, eurentzat hori inportantea izan edo ez.

Orduko koadrila diaspora gune hasiberri informala bezala birdefinituko nuke orain. Duda barik, diaspora antolatua Euskal Etxeetan zegoen, eta hauek ere estreinako aldiz ezagutzeko parada izan nuen, urte osoan zehar garbitzaile lanetan eta euskara klase partikularretan jarduten. Horretaz gain, periferia aberatsenetakoan zegoen Centro Asturiano klub pribatua tabernari gisa ibili nintzen bi hilabetez, denbora nahikoa barne funtzionamendua eta harremanen dinamikak ezagutzeko, eta ikerketari begira are inportanteagoa suertatuko dena, bien arteko diferentziak markatu eta hobeto ulertu ahal izateko.

Lan egoera ez zen ona eta, gainera, okerrera egin zuen. Azken hiru hamarkadetan eredu neoliberalaren krisia sakontzeak bete-betean harrapatu gintuen. “Ajuste ekonomikoak” gero eta bortitzago ezartzen ziren, gero eta sektore zabalagoi. Greba, mobilizazio eta manifestazioek ez zuten etenik. Baldintzak prest ziren arren, etsipenak eta ondoezak zikloaren bukaera ikustea oztopatzen zuen behinik behin. Urte

amaieran krisiaren eztandak bat-batean harrapatu gintuen. Abenduan sindikatuen greba deialdiak, piketeroen bide mozketak, banketxeen “corralitoa” (diru eskuragarritasuna kendu, dirurik zutenen artean behintzat), hiri handietako supermerkatuetako arpilatzeak, gobernuaren salbuespen-egoeraren dekretua, haserrea eta bat-bateko erantzunak, “kazerolazoak”, martxa masiboak, errepresioak utzitako 40 hildako eta ehunka zauritu, Fernando De La Rúa presidentearen errenuntzia eta eredia agortu zela eta aldaketa beharrezkoa eta posiblea zela sakoneko konbikzio orokortua.

Mobilizazioak areagotu eta espazio publiko berriak eta eraldatzaileak sortu ziren; eferbeszentzia, kooperazio eta elkartasun giroa nonahi sentitu zitekeen. Gizarte Zientzietatik prozesua aztertzeari ekin zioten eta ekarpen interesgarri ugari egin ere, aurreko urteetako ikerketa produkzio aberasgarriari gehituko zaiona, ene uste apalean. 2002 urtea urte latza eta oparoa izan zen, eta negu australak han harrapatu gintuen berriro ere. Nire bigarren osatuta izan zen Flores auzo lasaian ere, –judutar kolektibitatearen zentro garrantzitsua nonbait, Buenos Aires “kosmopolitaren” luzapena, apika– kaleko agitzioa eta plazetako asanbladak heldu ziren.

Geroztik Argentinara proiektu berri batekin bueltatzeko gogoak, identitatearen inguruko hausnarketa sakona egiteko interesa eta euskal diasporaren inguruan orduan planteatutako galderak tartean, ikerketa bideratzeko ideiak indarra hartu zuen. Lehen hurbilpen-urruntze, urruntasun-gertutasun horretatik abiatuz, proiektua definitzen joan nintzen, Doktore Tesiaren markoan. 2004. urtean lanari ekin nion.

Lehenik eta behin **euskal diasporaren ikerketak kontsultatu** nituen. 1990etik aurrera diasporako azterketek izan duten ikerketa eremuan kokatu dira euskal diasporaren inguruko lanak, baita Argentinako euskal diasporarenak ere. Laburrean: “Lehen Munduko populazio migratzaileen asimilazioaz edo asimilazio ezaz arduratzen ziren lehenengo, edo eta europarrek kolonizatutako gizarteez eta “Ama Lurra”rekin zituzten harremanen iraupenaz. Harrezkero, ostera, ikerketa diasporikoak “azterketa kulturalak” sailaren barruan ezarri zituzten: genero ikerketak, Hirugarren Mundu/Lehen Munduen arteko harremanak, kritika literarioaren ahalmenak (...) Egun, identitate-formazioaren eta gero eta mundu globalizatuagoko mestizaia kulturalaren

problematikaren alderdi bat besterik ez da edonoren diaspora” (Douglass et al., 1999, 17-18).

Aipatu hiru ikerketa eremu horietan eta diziplina ezberdinetatik Argentinako euskal diasporaren inguruan hamaika eta bat lan argitaratuak ziren. Salbuespenak salbuespen, aurrekari sendo horietan bi gabezia garrantzitsu detektatu nituen. Lehena, diaspora azterketa gehientsuenak zentro-periferia ardatzean kokatzen zirela, diasporaren identitate estatikoa azpimarratuz edo alderantziz, diasporak Euskal Herriari eskaini beharreko heterogenotasunean azentua jarritz. Bigarrena, diaspora komunitateen egungo testuinguruari ez erreparatzea, egungo egoeran erreparatu baino diaspora bera iragan galduan kokatuz eta euskal komunitatearen neurritz gaindiko apartekotasunak islatuz edo alderantziz, tokian tokiko euskal diasporaren berezitasunak gutxietsiz. Halaber, ez zegoen diasporako gazteen inguruko tratamendu espezifikorik; gure partetik ekarpen teoriko inportantea egiteaz gain, estrategikoki gazteengana hurbiltzeko erraztasun gehiago zirela iruditu zitzaigun, ikerlaria ere gaztea zen artean.

Horrela, bada, ez zen batere zaila izan **ikerketa eremua mugatzea**: identitatea, diaspora, Argentina, Euskal Etxeak eta gazteen inguruko tratamenduak hasieratik bideratu ziren. Aldiz, diaspora eta gazteen inguruan burua apenas jantzia nuela, hutsuneak identifikatu, euskal diasporak inguratzen duen mantu erromantiko, idiliko zaharkitutik erantztea (diaspora desmitifikatzea), eta identitate fenomenoaren gaineko zurrumbilo teorikoetatik aldentzea, ez zen erraza izan. Gerora ulertu nuen behar-beharrezkoa suertatzen zela perspektiba kritikoarekin aritzea, lan esparrua zabaltzea eta interes arloak integratzea, definizio eta birkontzeptualizazio ariketa jarraitua egitea. Bestalde, hasieratik argi izan nuen ikuspegi kualitatiboa beharrezkoa zitzaigula eta gurea ez zela azterketa konparatiboa, ez diaspora / Euskal Herria arteko baliozkotasuna edo baliozkotasun eza konprobatzeko, ez beste eremu esanguratsuetan kokatuta dagoen euskal diaspora komunitateekin alderatzeko.

Denborak aurrera egin ahala bide idorretan galtzeko arriskua handitu egin zen. Espektro teoriko zabalean galtzeko tendentzia –eta tentazioa– ekidin eta aurrera egiteko modu egokia izan zen elkarriketarako gidoi bat prestatu eta lehen elkarriketa-hurbilpen multzoa egitea. Euskal Etxeetan parte hartu eta Euskal Herrian bizi ziren

diasporako lau gazte lotu nituen. Gainera, talde-eztabaida bat antolatu nuen Necocheako Euskal Etxean Hator Hona programan irakasle izandako bost euskal herritar gazte euskaldunekin. Solasaldi formal horiek esploratzen hasteko, lana orientatzeko, gidoia birformulatzeko eta elkarrizketazaileran lanetan trebatzeko baliagarriak izan ziren. Hain justu, prestaketa fase honen amaieran (2005eko azaroan), Necochean ospatu zen Euskal Astera joan, Euskal Etxeetako gazteek antolatutako Gazteriaren Kongresuan parte hartu, zenbait diaspora kiderekin kontaktua egin eta erreferentziazko bibliografia gehiago biltzeko aukera izan nuen.

2006ko urria-2007ko apirila bitartean Argentinan nintzen laugarrenez, oraingoan Doktorego Tesiaren landa lana egiteko. Buenos Airesen kokatu nintzen, –behiala arabiar kolektibitatearen enplazamendu garrantzitsua izandako Villa Crespo auzoan–, ondo komunikatua egoteaz gain, gehien ezagutzen nuen hiria baitzen. Hiri bizia betiko lez, baina ez horren mobilizatua; turistez gainezka eta euskal herritarrak nonahi, euskaldun ikasle gazte eta bisitari mordoa euren artean. Diaspora nukleo txikiak osatu edo berrezarriko ziren; elkartrukeak eta harremanak handiak ziren, eta bertako notiziak, eskutitzak eta jaki paketeak esku batetik bestera trukatzeko genituen. Horietako gazte batzuk Euskal Etxeetara hurbildu eta parte hartuko zuten...

## **GELDIUNEAK, ETXEAK MARKO SOZIOLOGIKO ETA ESPAZIO ESANGURATSUAK**

Diaspora nukleo informaletik haratago diaspora komunitate antolatua edo Euskal Etxeak ziren. Eremu lokalean kokatutako zentro anitz horiek Argentinako euskal diaspora antolatua osatuko dute. Euskal Etxeen inguruko gogoeta zabala euskal diaspora ikerketa ororen parte inportantea izateaz gain, zentroak eremu analitiko-metodologiko pribilegiatu gisa agertuko dira. Migrazio fenomenoetan baino gehiago *diasporaren asoziazionismo fenomenoetan* hausnarketa sakona egiteko gonbiteak ziren.

Euskal Etxeak azterketa eremu konkretu bezala hartzeak bazituen zenbait abantaila: diasporako gazteak momentu oro eskura izatea eta, beraz, landa lanari

eskainitako denborak eta ahaleginak optimizatzea. Desabantailen artean, Euskal Etxeetatik kanpo diasporako gazteen identitatearen formazio-artikulazio prozesu edo dinamikak ezagutzeko zailtasunak. Hutsune teoriko-metodologikoa osatu nahian, Argentinako kolektibitateen inguruan zeuden azterketak begiratu, Euskal Etxetik alde egin izan zuten gazteak lokalizatu edota zentrorra sartu aurretiko esperientziak eta zentrotik ateratzeko egoera hipotetikoaren inguruan galdetu genuen.

Argentinako zabalera geografikoari erreparatuta, aldez aurretik Euskal Etxeen aukeraketa egitea behar-beharrezkoa zen. 2006ko martxoan Eusko Jaurlaritzak errekonozitutako Argentinako diasporako 73 instituzioen artean 15 Euskal Etxe aukeratu ziren, bi irizpide kontuan harturik: lehena, Euskal Etxearen bilakaera historikoa eta gaur egungo egoera; eta, bigarrena, kokapen sozio-geografikoa, eskualdeen arteko ezberdintasun ekonomiko, kultural zein sozialak hartzen dituen, eta euskal kolektibitatearen presentzia desberdinduaren lekuko dena. Gainera, Euskal Etxeetara heltzeko erraztasunak (autobus sareak baldintzatua) eta zentroan gazte ugari biltzea kontuan hartu ziren, Euskal Etxe guztietan ez baitago gazterik. Aurrenengo astetan FEVAko (Federación de Entidades Vasco-Argentinas elkarteko) idazkariak argibide batzuk eman zizkidan horren harira, irizpidetzat hartuta Euskal Etxean dantza talderik ba ote zen.

Pixkanaka Euskal Etxeen tipologia eraiki eta finkatzen joan ginen, testuen analisiak, gazteen komentarioak eta behaketa pertsonalen bitartez. Ikerketan zehar ezagututako hamabost Euskal Etxeak –hamahiru pertsonalki bisitatu eta beste biren berri zeharka jaso nuen– mota bakoitzaren adibide sendoak ziren.

Euskal Etxe historiko, erdibideko eta berrien sailkapena egiteari oso garrantzitsua deritzogu. Diaspora ikerketa gehientsuenetan Euskal Etxe aitzindarietan soilik egin izan da lanketa, berezko ezaugarriak dituzten zentro horien egoera eta dinamikak gainontzeko Euskal Etxeetara extrapolatuz, ikerketaren zorrotasun zientifikoaren eta diaspora komunitatearen heterogenotasunaren kaltetan. Diaspora barruan aitzindariak duten erreferentzialtasuna ukazina bada ere, ezin diasporaren gaineko irudikaria zentro historiko horien gainean eraiki. Euskal Etxeen tipologiaren egokitasuna eta garrantzia elkarrizketak egin ahala nabarmendu zen.

Aldez aurretik Euskal Etxeen inguruko ezagutza zabala izan arren, kontuan hartzea komeni da “edozein mundu sozialek bere sarrera ateari badituela; ate horiek bilatzeak badaukala interesik” (Bertaux, 2005, 61). Euskal Etxeak zentro sozial, sinboliko, instituzionalak dira, eta esparru askotan euren barne dinamikak eta funtzionamendu orokorra ulertzeko zailtasun bat edo beste ditu, ondoren esplikatuko dugunez.

Hasteko, elkarrizketarekin kontaktatzeko honako prozedura jarraitu nuela argitzea: 2001eko diasporako lagunekin eta 2005 urtean Necoechean ospatutako euskal asteen egindako kontaktuekin hitz egin; ikerketaren nondik norakoak eta elkarrizketatu posibleen soslaiak azaldu; aldez aurretik aukeratutako Euskal Etxeen artean gazte eta erreferenteen kontaktua lortu; tokian tokiko diaspora komunitateko kontaktu berriekin telefonoz hitz egin, hitzordua jarri eta behin han egonda, bertako Euskal Etxeko gazteekin harremanetan jarri eta beste zentroetara gerturatzeko kontaktu gehiago eskuratu. Prozedura honek argi eta garbi erakutsi zuen gazte eta zentroen arteko harreman-sarea. Hau da, diasporak osatutako zentroen arteko harremanek beste espazio esanguratsu batzuen berri ematen zuen, alegia, harreman eta interkonexio eremu esanguratsuak.

Aipatu “elur bola” kontrolatu genuen. Alde batetik, aukeratutako Euskal Etxeen gazte eta erreferenteen kontaktuak luzatzen zizkidaten (eta batzuetan bitartekari lanak egiten zituzten), eta ez kontaktuek egoki uste zuten edo harreman bereziki estua zuten beste Euskal Etxeetako kideekin. Beste alde batetik, behin Euskal Etxean egonda, elkarrizketatu posibleak zeintzuk ziren erabaki eta elkarrizketa egiteko formalki proposatzen zitzairen. Zentzu horretan, ikerketa ugari erreferenteak bakarrik elkarrizketatu ohi dituzten bitartean, antzekotasun eta diferentziak zituzten gazteak bilatu genituen, parte-hartze mota (aktiboa, pasiboa, erreferenteak eta Euskal Etxetik kanpo zeuden gazteak), ondorengotza, sexua eta adina kontutan hartuz.

Laster konprobatu ahal izan nuen prozeduraren apustu zuzena. Instituzioekiko gazte batzuen errezeloa agerikoa zen, zehazki, FEVArekiko, Euskal Etxeko komisio edo Zuzendaritza Batzordeekiko eta beste maila batean, Eusko Jaurlaritza edo

Unibertsitatearekiko. Hirugarren Euskal Etxean ikerketa burutzen ari nintzela gazte batek instituzioekiko konfiantza eza agertu eta horientzat ez zuela hitz egingo espresuki aitortu zuen. Jarrera honekin beste askotan egin nuen topo ikerketan zehar. Landa lanak bere amaiera jo behar zuenean, kontaktu pertsonalik egiteko aukerarik ez zegoenean eta Euskal Etxeen aurrean aurkezpen formala e-posta eta telefono deien bidez egin behar izan nuenean, instituzioek gazteekin harremanetan jartzeko trabak jarri zituzten. Are gehiago, bide honetatik bi Euskal Etxeetan kontakturik ez zen lortu eta kategoria bereko beste bi aukeratu behar izan nituen.

Euskal Etxe historikoetan mesfidantza nabariagoa zen eta egitura osatu eta formalago bat izateagatik, besteetan baino traba edo oztopo gehiago aurkitu nituen. Esan gabe doa formalismoak eta burokratismoak lanak denboran luzatu zituela ezinbestean. Nahiz eta Euskal Etxeko komisio batzuk zenbait ate zabaldu, gazteekin harremana zaintzea egokiago zela ebaluatu genuen eta beste bideari ekin. Edonola ere, aipatu oztopoak zentro instituzional horiek hobeto ulertzeko baliagarriak izan ziren.

### ***DIASPORAKO BIDELAGUN GAZTEAK ELKARRIZKETAK, TRUKEAK, HARTU-EMANAK***

**Lehen kontaktuan** gazte, erreferente zein elkarrizketatuei gure interesaren berri eman eta ikerketa lanaren helburu orokorrak esplikatzen zitzaieen modu argi, natural eta zehatz batean, esaterako, “Argentinako Euskal Etxeetako gazteen inguruan lan bat egiten ari naiz –diasporaren inguruko Doktore Tesia– eta zure esperientzia ezagutzea gustatuko litzaidake; zentroan duzun esperientziaren inguruan zurekin hitz egin nahi nuke”. Argibide hauek elkarrizketak orientatzen eta zentratzen zituzten arren, solasaldiak ez ziren euren esperientzia konkretura mugatzen. Gazteek ez zuten inolako erreparorik Euskal Etxetik kanpo egiten zituztenak plazaratzeko, goranzkoen istorioak kontatzeko, bitzta pribatuaren inguruan mintzatzeko, Argentinako edo Euskal Herriaren egoeraren inguruan gogoetak egiteko, eta abar.



Zentzu horretan, profil pertsonala intereseko komunitatearen parte eta aldi berean komunitate horrekiko arrotz izaten da (Valles, 1999), distantziamendua, egunerokoa kuestionatu eta problematizatzen lagundu dezakeen baldintza. Euskal Etxeetan gehientsuenek elkar ezagutzen dutelarik, lehenengo sentsazio hori izaten da, hain justu, norbera dela behatua. Laster zure identitatearen inguruan galderak egingo dituzte (noren izenean zoazen zer egitera eta zertarako, ikerketa norentzat izango den probetxuzkoa eta zeintzuk diren intentzioak, eta abar), eta erantzun sinesgarriak eman beharko dira. Horretarako **ikertzailearen identitatea eraiki** beharra dago (Bertaux, 2005, 58) eta zentzu horretan, ikerlariaren adina (ene 26 urteak), emakumezkoa, euskal herritar euskalduna eta lanbidea (soziologoa, unibertsitaria) elkarrizketak lotzeko, egiteko eta aztertzeko orduan zer-nolako eragina izan zuten azaldu beharrean gaude.

*Adina* eta *sexuari* dagokionez, harridura agertzen zuten “neska gaztea” nintzela ikustean. Elkarrizketak egiterako orduan biek lagundu zuten, neska gazteei hurbildu eta belaunaldien arteko komunikazioen mugak gainditzeko, belaunaldi artekotasunetik eratorritako enpatiak eta gertutasunak tartean, Euskal Etxetik kanpo edo barruan denbora eta espazioa konpartitzeko erraztasun gehiago zirela.

Elkarrizketatutako gazte gehienak Unibertsitatean ikasten zeuden, edo hara bideratuko ziren laster. Hau dela eta, elkarrizketa (“inkesta” beraien esanetan) egitea eta bestelako prozedurak erabiltzea (grabagailua, esaterako) ez zitzairen arraro egiten. Horren harira, klase ertain europarrarekin historikoki izan duten identifikazioak ere lagunduko zuen.

Zalantza izpirik gabe, baldintza guztien artetik gehien eragin zuena, euskaldun eta euskal herritarra izatea. Oro har, gazteak animatzen zituela esan daiteke eta, zentzu horretan, beste nazionalitate batzuekin tratua berdina izango ote den galde liteke. Ustez, praktika eta interes konkretu batzuk konpartitzen genituelakoan, konfiantzazko zein konplizitatezko giroa erraz sortzen zen. Elkarrizketak aurrera egin ahala, aldiz, ikerlariaren jatorri “atzerritarra” gailentzeko joera agertzen zen, atzerritar identitate hau hiru mailetan adierazi ohi zena: argentinarra, Euskal Etxeetako eta diasporako kidea ez izatea. Halaber, euskal errealitatearekiko distantzia eta ezjakintasuna agertzen zuten gazteek Euskal Herriaren inguruko galderak planteatzeko erabili zuten bisita. Esan gabe

doa, galdera hauek euren interesak jakiteko baliagarria izan zirela erabat. Beste batzuek euskaraz hitz egiteko edota euskaraz hitzen bat enplegatze baliatu ziren.

Ikerlariaren “jatorri arrotza” eraikuntza teoriko-interpretatiboari begira oso positiboa izan zen. Izan ere, Argentinako eta gertuko errealitatea zehaztasun osoz esplikatzen behartuta ikusten zuten beraien burua. Gain-esplikazio hauen bidez esperientziak detailez josi eta posizionamendu politiko-ideologikoa agerian uzten zuten. Argentinartasuna eta argentinismoak gailenduz, gazteak “gonbidatuari” Argentina ezagutzen nuen, nora joateko asmoa nuen, etengabe galdetu eta euren iritziak komentatzen zituzten. Hori guztiagatik, 2001eko esperientzia pertsonala gutxitan konpartitu nahi izan nuen eurekin.

Berriki aipatutako ezaugarriak direla-eta gazteek jakin-mina, interesa eta elkarrizketatuak izateko prestutasun osoa erakutsi zuten. Azpimarratzekoa da inork ez ziola uko egin elkarrizketa egiteko gonbiteari. Hitz egiteko gogoak eta entzunak izateko aukerak bat egin zuten.

Esperientziaren berreraiketa solasaldian negoziatuko zen. Elkarrizketak ahalbidetu duen gertutasuna eta zuzeneko presentziak ez dira nahikoa izaten. Beharrezkoa da **enpatiazko harremana** sortzea eta bultzatzea, galderak eta zalantzak modu ireki eta ausart batean planteatzea, berdintasuneko elkarrizketa ezartzean, gazteak bizi-esperientzietan ezartzen dituen zentzu-hierarkiak abiapuntu izanda, bide-laguna izatea, lagundu, orientatu.

Aurrez aurreko lehen kontaktuan interes pertsonala eta helburu orokorrak esplikatzeaz gain, elkarrizketa grabatua izango zela eta anonimotua mantenduko zela argitzen zitzairen. Elkarrizketarako hitzordua adosten genuen ondoren. Momentu oro gaztea eroso sentitzeak elkarrizketaren arrakasta ziurtatuko zuela jakinda, detaile guztiak zaindu genituen, formak zein erritmoak.

Elkarrizketa guztiak gazteei gehien komeni zitzairen ordutegietan egin ziren. Gazteek beraiek proposatuta, elkarrizketak Euskal Etxeetan edo gazteen bizilekuan burutu genituen, betiere eroso sentitzen ziren espazioetan. Espazio horiek ez ziren inolaz ere leku neutralak; eurak kontrolatzen zituzten espazio familiar ezagunak ziren eta, era berean, pribatutasuna gorde beharrekoak (bilkura aretoak, euskara ikasgelak,

egongelak...) eta elkarrizketarako baldintza egokiak zituztenak, hots, isiltasuna, argitasuna, intimitatea... Halaber, elkarren artetik gertu eseri eta inolako oztopo fisikorik gabe solasaldian aritzen saiatzen ginen.

Elkarrizketari hasiera emateko berriro ere ikerketaren helburu orokorrak aipatzen ziren (zergatik eta zertarako egiten den) eta grabagailua pizten genuen bestelako azalpenak ematen genituen bitartean edo ondoren. Gazte gaztetxoei bereziki grabagailuari arreta ez jartzea zaila zitzaien; grabagailua elkarrizketaren seriotasunaren ikur agertzen zela esan daiteke. Minutu batzuetara ordea, grabagailuaren presentzia ahaztu egiten zen arren, elkarrizketan zehar zenbaitek grabagailuari so egin eta espresuki eskatu zuten izen eta datu batzuk ez agertzea. Kasu hauetan anonimata mantenduko zela berresten zitzaien eta argibide hau nahikoa zen aurrera jarraitzeko.

Orokorrean, elkarrizketak gidaritza eskasarekin eta modu informalean burutu ziren. Tratu zuzena eta konfiantzazkoa izateko eta elkarrizketan zehar distentsio giroa lortu eta mantentzeko oso inportantea izan ziren **gidoi irekia eta gidoiaren maneia mentala** izatea. Galde-sortaren formatua eta eragindako erantzuna saiheste aldera, galdetegi egituratu eta itxia beharrean elkarrizketarako gida orokorra prestatu zen, gidoi erdi egituratua, zeina ez zen zorrozki jarraitu behar, elkarrizketa osatzeko argibideak baino ez ziren, hain zuzen ere, hari-muturrak lotzeko, esan gabe geratu dena plazaratu edo birgogoratzeko. Elkarrizketarako gida buruz ikasi nuen, gure artean inolako barrerarik gabe (ez paperik, ez apunterik hartu), elkarrizketa solasaldiarekin nahastuz.

Halaber, gehiegi hitz egitea, etengabe moztea edota deus ez esatea, akatsa izaten da. Horrela, bada, elkarrizketatzeko zenbait taktika kontuan hartu eta erabili genituen, besteak beste, etenak ekidin eta isiltasun uneak errespetatu egin ziren, azaldu nahi dena esplikatzeko denborei so eginez; espresio eta keinuen bidez (ah, mmm, ya, aja,...) batetik, eta atentzioa erakutsi kontakizunarekin jarraitzeko interesa adieraziz; euren hitz edo esaldi esanguratsuak errepikatu, esan nahi dena zehazteko edo argibide gehiago emateko; ideia nagusiak laburtu, argitu eta berriro ere mahai gainean jarri, esan gabe geratu ohi den horren inguruan informazio gehiago jasotzeko; gaiez aldatu gaia aldatu behar izan denean, baina narrazioarekin mantentzeko joerarekin. Gainera, beharrezkoa zenean Argentinan eta Argentinako gazteek erabili ohi zituzten gaztelaniako

esamoldeak erabiltzen nituen. Zentzu horretan, euskarazko erabilera eta kontzeptu berdintsuak ere erabiltzen ziren, nahasketarik egon ez zedin, adibidez, Euskal Herria/Euskadi, dantza/danza izendatzeko orduan. Bestalde, Euskal Etxeetako gazte euskaldunei elkarrizketa euskaraz egin nahi zuten galdetu zitzairen. Baiezkoen artean, euskaraz hitz egiteko urduritasuna edo ezintasuna bazen, gaztelania-euskara tartekatzen zuten.

Laburbilduz, elkarrizketa oso biziak eta gertukoak izan ziren. Distentsioa nagusi izan zen horretan, bai elkarrizketatua bai elkarrizketatzailea eroso sentitu zirela esan daiteke. Elkarrizketa modu naturalean agortu egiten zen, baina zer edo zer gaineratu nahi zuten aipatzen zitzairen amaieran, eta batzuk erdi-txantxatan “gehiago oraindik?” erantzun. Azpimarratzeko da gazte askok galde sorta itxia edo inkesta erako galdetegia espero zutela, eta ez solasaldia.

Normala denez, gazte-gaztetxoekin izandako elkarrizketak laburragoak ziren. Elkarrizketen iraupenari dagokionez, batz bestea, ordubete elkarrizketa pertsonalak eta ordu eta erdi pasatxo biko zein talde elkarrizketak. Gazte bera bigarren aldiz elkarrizketatzeko beharrik ez zen egon. Horrek ez du esan nahi urte batzuen buruan gazte berberak elkarrizketatzea interesgarria ez denik, nahiz eta momentu hartan horrelako lanik ez planteatu.

Elkarrizketa amaitutzat jo bezain pronto, datu pertsonalak biltzeari ekiten genion. Orduan bai, helbideen koaderno atera eta datuak jasotzean informazio inportante ugari jaso ahal izan genuen. Hori izaten zen zenbait aspektu argitzeko momentua ere, eta batzuetan informazio funtsezkoa eskuratzeko edo kontaktu gehiago eskatzeko. Hori guztia erregistratuta geratzen zen, mahaia utzi eta agurtzean, orduan amatatzen baikenuen grabagailua. Elkarrizketaren inguruko gainontzeko informazio, gogoeta, inpresio eta nondik norakoak beste koaderno batean apuntatzen nituen, behin bakarrik nengoenean.

Azkenik, binakako elkarrizketen inguruan bi hitz aipatzea merezi du. Bada, metodologia gida askok ez dituzte biko elkarrizketak planteatzen eta guk ere ez genuen hasiera batean aukera hori kontuan hartu. Burututako lehen biko elkarrizketa nahigabe sortu zen, elkarrizketatuaren lagun bat elkarrizketa hasi eta ordubetera ustekabean

etxean agertu zenean. Nahiz eta elkarrizketan zehar gaztea eroso sentitu, lagunaren presentziak indarra eman eta hiruren artean beste gai asko planteatzeko aukera izan genuen, bi lagunak Euskal Etxetik modu traumatikoan aldentzea adibidez. Elkarrizketaren arrakasta ikusita, landa lanean biko elkarrizketa gehiago egitea biziki interesgarria iruditu zitzaigun, betiere irizpide bat kontuan hartuta, hain zuzen ere, bi elkarrizketatuak lagunak izatea (lagun minak, anaiak, lehengusuak...), konfiantzazko harremana mantentzea, istorio bat eta esperientzia-bizipen batzuk konpartitzea edo konpartitu izana. Biko elkarrizketa guztietan elkarrizketatuen arteko enpatia nabaria zen eta elkarri laguntzen zioten, hitzarekin eta argudioekin.

Orotara hamabost Euskal Etxe diferenteetako 70 gazterekin elkartu nintzen. Euskal Etxean zuten partehartzea elkarrizketatuak aukeratzeko irizpide nagusia izan zen. Parte-hartze aktiboa, parte-hartze pasiboa eta Euskal Etxetik urrunduko egin diren gazteekin elkarrizketak izan genituen, gehien identifikatzen duen parte-hartze mota kontuan hartuz (dantzaria erreferenteen kasuan adibidez, azken honek definitu ohi zuen profila). Halaber, Euskal Etxe tipo bakoitzeko (historikoak, erdibidekoak eta berriak) hainbat gazte elkarrizketatu ziren, diaspora esperientzia ezberdinak islatu zitezkeen. Azkenik, ondorengotza, sexua eta adin oreka ere bilatu nuen elkarrizketatuak hautatzean.

Guztira 38 banakako elkarrizketa, binakako 5 elkarrizketa eta 5 talde elkarrizketa burutu nituen. Aldiz, Euskal Etxe diferenteetan egindako zortzi sakoneko elkarrizketa, biko elkarrizketa bat eta eztabaida talde bat, analitiko baztertu nituen elkarrizketan zehar ezarritako baldintzak betetzen ez zituztela konturatzean: urduri edo tematiegi batzuetan, zer esan behar zuten edo zer esan behar ez zuten kexu; inhibitiboak besteetan, informazioa ezkutatu eta auto-zentsuratzen zirenak; esperientzia eta bizipen sorta kontatzeko edo komunikatzeko kapazitate falta edo zehaztasun edo orokortasun falta zuten elkarrizketak.

Hori dela eta, azken txostena prestatzeko **35 sakoneko elkarrizketa** hautatu nituen. Profil bakoitzeko komunak eta desberdintasunak islatzeaz gain, esperientzia interesgarriak kontatzeko kapazak ziren gazteen elkarrizketak aukeratu nituen.

Ondorengo tauletan azken txostena prestatzeko aukeratutako elkarrizketatuen profil orokorra biltzen dugu, Euskal Etxean duten partaidetzaren arabera.

### 3. taula. Banakako eta biko elkarrizketak. Parte hartze aktiboa duten gazteek

<b>1. Sebastián Belaustegui,</b> 26, gazte erreferente, Rosario	Familia historikoa, txikitatik parte hartzen du. Azken urteetan kargurik ez badu ere, bada erreferentea diaspora mailan. Abokatua, lidergo nolakotasunak ditu: berritsua da eta eztabaidarako gaitasuna du. Euskaldun eta italiar ondorengotzak baditu ere, lehenengoa soilik garatuko du. Hirutan egon da Euskal Herrian.
<b>2. Dolores Belaustegui,</b> 22, dantza irakasle, Rosario	Familia aktiboa, txikitatik dago Euskal Etxean. Lagun taldea ere bertan osatu du. Euskal Etxea instituzioa lez, egiteko moduak eta tradizioak transmititzea funtsezkotzat jotzen ditu. Italiar eta euskaldunak (birraitona), ondorengotzari ez dio garrantzirik ematen. Behin egon da Euskal Herrian, Gaztemundu programan parte hartzeko.
<b>3. Iker eta Josu Alava,</b> 25-22, gazte erreferenteak, La Plata	Aita Euskal Herrian jaioa, endogamia altuko familia, bi anaiek zentroan parte-hartze aktiboa eta identitate politiko garatua adierazten dute. Ikerrek komunikazioa eta Josuk kirola ikasten du. Gazte talde bat osatu dute Euskal Etxean, “extra-dantza den guztia egiteko”. Gazte batzordean ere parte hartzen dute, Josuk Gazte kongresuan parte hartuz.
<b>4. Luz Barrena,</b> 26, euskara irakasle, Bahía Blanca	Gartsu eta apasionatua, jaiotzez Viedmakoa (Patagonia), 1999an Bahía Blancan Zuzenbidea ikastera joan eta bertako zentrori hurbiltzen da. Txikitik euskal nortasuna adierazteko modurik ez, harik eta gauza gehien ikasten eta irakasten saiatzen da, “nire onena ateratzen duelako”. Euskara eta gaztelania tartekatzen ditu elkarrizketan.
<b>5. Martín Irazuzta,</b> 21, dantza irakasle, Bahía Blanca	Aitonaren aitona gipuzkoarra, mende bat igarota familia berriz elkartuko da. 9 urterekin zentrori hurbilduko da hirugarren aldiz. 14 urterekin euskara ikasten hasiko da. 2005ean Euskal Herrira doa familia ezagutzera eta euskara barnetegira. Lana eta ahalegina baloratzen ditu. Elkarrizketa euskara hutsean da.
<b>6. Emmanuel Pérez,</b> 22, dantza irakasle, Bahía Blanca	10 urterekin hasi zen, lagun bat dantza saiora laguntzera joan zenean. Lagunak utzi eta berak tinko jarraitu zuen. Irekia eta broma- zalea, oso heldua ematen du: familiarekin landan lan egin eta nekazal- administrazioa ikasten du. Italiar, txiletar eta jugoslabiar jatorriak ditu.
<b>7. Gerardo Ramírez,</b> 25, gazte erreferente, Pergamino	16 urterekin hasi zen dantzan. Rosariora ingeniariatza ikastera joan eta 2004an hasiko da aktiboki parte hartzen. Lana dela-eta egun zeharka parte hartzen du. Aita italiarra bera txikia zelarik hil zen eta zentroaren bitartez amarekin loturak berriindatu izana goraiatzen du. Amak euskaldun (1800ekoak “edo”) eta italiar jatorriak ditu.
<b>8. Alejandra Almirón,</b> 27, idazkaria, Pergamino	Lehengusinarekin batera 4 urterekin hasi eta duela 10 Euskal Etxeko idazkaria dela. Bi esparrutik ezagutzen du zentroa: “kulturala, dantzari gisa, eta instituzionala, jardueren antolatzaile gisa”. Ingeniaritza agronomoa ikasi eta horretan lan egin nahiko luke. Bere senarra italiar jatorriko eta berarena, ustez, Aragoikoa.
<b>9. Malena Santisso,</b> 29, kultur erreferente, Macachín	Txikitik dantzari, kultur erreferentea egun, behetik instituzioa bultzatu behar dela deritzo, “beste iritzi bat emateko”. Literatura irakaslea, italiar eta gipuzkoar arbasoak (1880an helduak) ditu. Euskal Herrian familia du eta behin egon da han eta “Europan”.
<b>10. Rafaela Salfiti,</b> 20, gazte erreferente, Macachín	Macachinen bizi, Santa Rosan ikasi eta Bahía Blanca aita, mutil-laguna eta lagunak dituen, hiru herrien artean bizi eta hiru zentroak ezagutzen ditu. Amak txikitik transmititu zion “Euskadi zer zen”. Gazte Batzordearen kide alaiak Agronomia ikasten du. Behin egon da Euskal Herrian, Gazte Kongresuan parte hartzeko.
<b>11. Malena Arandia,</b> 29, euskara irakasle, CF	16 urte zituela hasi zen, amaren lagun bat medio, joan-etorriekin. Orain oso motibatuta dabil, dantzan eta Zuzendaritza Batzordean barne. 1994tik-2006ra lautan egon da Euskal Herrian, barnetegian eta lagunak eta familia bisitatzen. Arbaso italiarrak, espainolak eta turkoak ere izan ditzake. Euskaraz dakien arren, nahiago zuen elkarrizketa erdaraz egitea.
<b>12. Gerardo Pino,</b> 25, euskara irakasle, CF	Euskaraz abesti bat entzun, bilaketa hasi eta 2002 hasiko da zentroan euskara ikasten. Ondo moldatzen da euskaraz eta italiaraz eta ingelesez ere badaki. Amaren gurasoak italiarrak eta aitaren aitona-amonak, ustez, euskaldunak ziren. Irekia eta hiztuna, geografia ikasle honek idazkaritzan ere badabil.

<b>13. Nahuel Pereira,</b> 23, euskara irakasle, Mendoza	2003an hasi eta urtebetera euskara ikasten hasi zen, klaseak emateko asmoz. Amama alemana izanik alemanera ere badaki. Galego jatorriko txiletarra, sirio, germano, “nahasmen -aberats- hori dut jatorri”. Diseinu industrialak ikasi eta lanean dago.
<b>14. Miguel Salazar,</b> 23, gazte erreferente, Mendoza	1999an zentroa birsortzeko bilerara doa aitarekin, 16 urte zituela. Oso aktiboa, ingeniari-tza ikaslea denetan aritu da: dantzari eta dantza irakasle, komisiotan partaide, gazte komisioko kide... Aitaren aititea gipuzkoarra zen, baina berak garrantzi gehiago ematen dio egun berak egiten duenari. Euskal Herrian behin egon da.
<b>15. Jimena Gainza,</b> 21, txiki irakasle, Mendoza	15 urte zituela aitak zentrorra eraman zuen “erdi behartuta”. Sei hilabeteren buruan “oso engantxatuta” bueltatuko da. Turismoa ikaslea, berbatia eta apasionatua da; euskara ikasi eta Zuzendaritza Batzordean ere parte hartu du. Aitaren aitita-amana gipuzkoarrak ziren eta amaren aldetik euskaldun eta espainol jatorriak dituela uste du. 2006an Euskal Herrira doa Gaztemundu programarekin.

#### 4. taula. Banakako eta biko elkarrizketak. Parte hartze pasiboa duten gazteek

<b>16. Mauro Chaulet,</b> 28, dantzari, La Plata	Euskal Etxeko kidea zen emazte ohiarekin eta 6 urteko alabarekin zentrorra noizean behin joaten zen, baina 2005 modu formalean parte hartzen hasiko da, 27 urte zituela, Euskal Herrira bidaiatik bueltan. Higiezin etxe bateko langileak frantziar eta galego ondoregotzak ditu, baina horrek ez du kentzen “dena zentroaren mesedetan” jarduteko.
<b>17. Miren Esnaola,</b> 26, dantzari ohia, Rosario	Familia historikoa, aitite biak gipuzkoarrak eta amama biak euskaldun jatorrikoak zituela, txikitatik dago Euskal Etxean. Dantzan eta euskaran aritu den arkitektoa, zentroaren oraina eta etorkizunarekiko ezkor, gero eta parte-hartze eskasagoa du. Birritan egon da Euskal Herrian, Gaztemundun eta familia bisitatzen.
<b>18. Pilar Arrizabalaga,</b> 20, dantzari, CF	Dantzan, euskaran eta pilotan aritzen da. Familia historikoa zentroan, aita eta ama jatorri euskaldunak dituztela, txikitatik parte hartzen du. Euskal Herrian birritan egona, familia bisitatzen, Argentina barnealdean mediku gisa aritzea gustatuko litzaioke.
<b>19. Francisco Bengoa,</b> 30, euskara irakasle, CF	2005. urtean hasi zen euskara ikasten, euskal munduaren inguruan apenas ezer ez zekiela. Aitite euskalduna ez zuen ezagutu; familia jatorri italiarrak ere baditu. Matematika irakaslea da egun.
<b>20. Gloria Frondizi,</b> 18, dantzari, Pergamino	Alaia, irekia, berbatia, euskal munduan murgilduz bere burua ezagutzen joatea da gehien baloratzen duena. Oinordekotza anitzak ditu (alemana, italiarra...) eta Harreman internazionalak ikastera doa Rosariora.
<b>21. Isabel Trincado eta Sonia Mikelena,</b> 16-17, dantzariak, Pergamino	Txikitatik lagunak dira eta elkarrekin hasi ziren zentroan. Dantzari biek euskal eta italiar ondorengotza dute. Isabel Euskal Herrian egona da, bertan familia dauka. Datorren urtean Buenos Airesera joango dira ikastera eta jada lagun berriak egiteko premia ikusten dute, beste Euskal Etxeetan parte hartzen jarraitu ahal izateko.
<b>22. Ramón Alarcón,</b> 21, dantzari, Macachín	Landan egiten du lan eta etorkizunean hobeto gestionatzeko abeltzaintza ikasten du unibertsitatean. Familia guztia zentroan parte hartzen du. Bromazalea, “jatorri euskalduna, espainola eta arabiarra edo”, ez dauka bere oinordekotzaren berri baina ez dio axola.
<b>23. Miguel Echebare,</b> 22, euskara irakasle, CF	Isila eta lotsatia, Euskal Etxeak desegituratu duela aitortzen du. 2005 urtean hasi zen euskaran, eta egun dantzan ere aritzen da. Arbaso euskalduna 1810ko dela uste, nahiz eta familiak arrastoa galdu. Zuzenbidea ikasi nahi du.
<b>24. Mariana Martínez,</b> 19, dantzari, CF	Berbatia, apasionatua, erreflexiboa eta ikasle ontzat jo du bere burua. Musikaria ogibidez, dantza espresio modu bat da. Berraitona irunberrikoa zuela, garrantzi handia ematen dio jatorriari, familia osoan berak jarraipena eman dion bakarra izanik.
<b>25. Lisa Ergaray eta Federico Grau,</b> 16-21, dantzariak, Paraná	Lisa gazte azkarra eta heldua da; Nacho, alai eta bromazalea. Lehengusu biek “gogoratzen direnetik” daude euskal munduan murgilduta, aitonaren eskutik. Familia osoa dago inplikaturik egun. Dantza euren egiteko nagusia den arren, erreferentzialtasun handia dute zentroan. Fedek gaztemundu programan parte hartu izan zuen 2005. urtean.
<b>26. Carla Gómez,</b> 20, dantzari, Mendoza	2000. urtean hasi zen dantzan eta gehien goraipatzen duena dantzaren bitartez egin dituen lagunak dira. 2002an Euskal Herrira joan zen familiarekin. Alaia eta apasionatua, komunikazio soziala ikasten du egun.
<b>27. Daniela Larra,</b> 24, euskara irakasle, Mendoza	1999tik Mendozan bizi da, bertan integratzeko arazo bat edo beste izan dituelarik “oso eszentrikoa eta burugogorra naizelako”. 2006an Euskal Etxean hasi zen baina lana dela eta, nahi baino gutxiago parte hartzen du egun. Bere oinordekotza batzuk dira euskalduna, espainola, frantsesa eta sirioa.

<b>28. Maite Knor</b> , 20, dantzari, José C Paz	Aitaren aldetik alemaniarak, eta ama eta amama Bizkaian jaiok. Txikitatik Sociedad españolako bazkideak izan dira eta egun flamenkoa irakasten du bertan. Duela 6 urte Euskal Etxean parte hartzen hasi zen dantzan eta euskaran, zentroa sortu eta gutxira. Buenos Airesen Marketing ikasten du. Euskal Herrian familia dauka eta bitan egona da.
<b>29. Marcos Vázquez</b> , 17, dantzari, José C Paz	2003tik parte hartzen du. Dantza taldean egoteaz gain, euskara ikasi eta zentroaren mantenuan lan egiten du. Ez dauka euskal arbasorik. Institutuan informatika ikasi eta herriko parrokian dabil.

## 5. taula. Banakako eta biko elkarrizketak. Parte-hartzerik ez duten gazteek

<b>30. Iratze Arregui</b> , 28, dantzari ohia, Rosario	14 urte zituela aita hil eta Euskal Etxeko tabernan lanean hasiko da, ama eta lau nebarrebeekin batera, zentroko jardunetatik urrunduz. Sukaldaritza ikasketak bukatu eta Buenos Airesera joan nahi du. Familia euskalduna, Euskal Herrian hirutan egon da familia bisitatzen. Elkarrizketa hasiera euskaraz da baina erdarara salto egiten du berehala.
<b>31. Pedro Larra</b> , 20, dantzari ohia, CF	Familia historikoa zentroan, txikitatik parte hartu izan du. 15 urte zituela dantza taldea utzi zuen, ikasketak direla, beste interes eta ardurak gailenduz. Bazkidea izaten jarraitzen du egun, festetara hurbiltzen da, eta Gaztemundun parte hartzeko aukera izan du. Ingeniaritza ikaslea, aitite euskalduna eta amaren aldetik jatorri italiarrak ditu.
<b>32. Eugenia Vázquez eta Viviana Domenecq</b> , 30- 21, euskara irakasle eta dantzari ohiak, Paraná	Bakoitzak bere kabuz 1998an hasi eta denetarik egin dute zentroan: dantza, euskara, abesbatza, txikiei irakatsi, idazkaritzan aritu... bi lagunek parte-hartzeari utzi zioten Zentroaren funtzionamenduari desadostasunak direla. Eugeniak euskara klaseak ematen ditu Rosarioko Euskal Etxean eta Viviana Euskal Etxetik kanpo diaspora beste jardunetan parte hartzen saiatzen da egun. Arbaso euskaldunak urrutikoak dira eta etxean ez dute transmisiorik izan. Hasieran elkarrizketa Eugeniaren egin zen, eta biekin ondoren.
<b>33. Sebastián Echeگویena</b> , 27, dantzari ohia, Pergamino	Familia guztia zentrorra joateari utziko dio Buenos Airesera bizitzera doazenean. Halere, Euskal Etxearekin kontaktua mantendu eta euskal munduarekin loturak izaten ahaleginak egiten ditu. Guztietatik euskal astea da gehien motibatzen duena. Informatikoa da eta euskaldun eta katalan jatorriak ditu.
<b>34. Tamara Iturriaga</b> , 19, dantzari ohia, Macachín	7-14 urte bitartean dantza taldean egon zen. 15 urte zituela euskara barnetegira doa zer edo zer ikasi eta lagun berriak egiteko asmoz. Ondoren zentroa uzten du. Amama euskalduna da eta etxean erabateko transmisioa izan du. Euskalduntasuna galezina dela deritzo, baina Euskal Etxera bueltatzeko giroa sortu behar da. Farmazia ikasten du.
<b>35. Damián Solozabal</b> , 27, erreferente ohia, Rauch	Duela 6 urte komunikazio ikasketak bukatu eta herrira bueltatzerakoan Euskal Etxean parte hartzen hasiko da. Birraitite eta birramama euskaldunak 1890ean heldu ziren eta euskalduntasuna presente izan du berak. Urduria eta alaia, musikari honek Euskal Etxea utziko du bere interesak ase ezin eta zentroa elite ekonomiko batekin identifikatzean.

Beste alde batetik, **lau talde elkarrizketa** hautatu nituen eta zehazki, elkar ezagutzen zuten gazteekin hiru talde elkarrizketa eta elkar ezagutzen ez zuten gazteekin laugarren bat. Euskal Etxe tipoaren arabera aukeratu ziren taldeak, bakoitzean talde elkarrizketa bana burutuz, laugarren eztabaida taldean profil ezberdineko eta Euskal Etxe ezberdinetako gazteak elkartu genituen bitartean. Aldez aurretik sortuta dauden taldeak guztiz aproposak izaten dira Euskal Etxeetako gazteen errepresentazio ideologikoak eta baloreak antzemateko, parekoen arteko elkarrizketetan gogoetak taldeka egin eta analisi bateratuak burutzeko.



Taldeko barne osaketa eta laginaren hautaketari dagokionez, partehartzaile gehienak elkarren ezagunak ziren eta, gainera, klase soziala, hezkuntza maila eta adina ez ezik, tokian tokiko diaspora komunitatean parte hartzen zuten. Batzuetan ezinezkoa izan zen partehartzaileak aukeratzea, guztiak parte hartu nahi zuten eta; besteetan Euskal Etxeetako gazte guztiak parte hartu zuten, nahiz eta elkarrizketak aurrera egin ahala partehartzaileen kopurua murriztu. Partehartzaileen kopuru minimo eta maximoari dagokionez, 4-6 gaztek partehartzea egokitzat jo genuen, kopurua handia denean izaten diren akatsak eta desajusteak ekidin nahian. Bestalde, eszenatokiaren neutraltasun irizpidea ez genuen bete, elkarrizketa talde guztiak Euskal Etxeetan burutu baitziren. Azkenik, ikertzailea eztabaida pizten edo probokatzen saiatu zen, baita uste komunak laburbiltzen. Betiere, talde elkarrizketa bat formalizatzen saiatu ginen (partehartzaile bakoitzak elkarrizketatzailearekin duen elkarrizketa soila ekidin nahian), elkarrizketa kolektiboa bihurtzen zelarik taldea.

Talde elkarrizketak planteatzerako orduan teknikaren abantailak kontuan hartu ziren, esaterako, gaiak malgutasun osoz planteatzeko aukera. Diskurtso sozial esanguratsuenak biltzea interesatzen zitzaigun guri, eta talde osaketan eta dinamikan erreproduzitzen dira, hain zuzen ere, jarrera eta errepresentazio sozialen sorrera, espresioak eta konfrontazio ideologikoaren prozesuetan (Valles, 1999). Talde arteko interakzioari esker, taldekideen erantzunak edo interbentzioak beste gazteen erreakzioak sortuak ziren askotan, zentzuaren produkzioari eta ordenamendu kolektiboari eragingo ziona.

Teknikak planteatzen dituen zailtasunen artean, koordinazioa arazoak (parte hartzaileak espazio eta ordu berean elkartzeko arazoak) eta talde dinamika sortzeko arazoak (elkarrizketa kolektiboa sortzea, hitza errespetatzea, guztiak partehartzea...) ere aipatzekoak dira.

Azken horri aurre egiteko asmoz hainbat dinamika erabili genituen. Elkarrizketari hasiera emateko parte-hartzaile guztien aurkezpen laburra egiten genuen (izen abizenak, adina, zer egiten zuten, noiztik parte hartzen zuten...). Horrela, ikertzailea talde naturalean sartu, guztiak lehenengo aldiz eta modu ordenatu batean hitza hartu, eta grabazioan zenbait datu erregistratzea posible izan zen. Aurkezpena egin

ostean, gaiari heltzen genion: “Argentinako Euskal Etxeen inguruan eta gazteen inguruan hitz egingo dugu. Adibidez, zer deritzozue Euskal Etxeetan...”. Pixkanaka taldea modu autonomoan funtzionatzea helburu, talde naturala izanik errazagoa izan zen gazteek hitza hartzea eta konplexu barik euren iritziak mahai gaineratzea. Berriro ere, gazteenak lotsatu eta pixkanaka taldetik urrentzen zirenean, espresuki animatzen zitzairen iritzia eman eta hitza hartzera (“eta adibidez, zuk Javier zer uste duzu honen inguruan...”)

Ondorengo 4. Taulan azken txostena prestatzeko aukeratutako talde elkarrizketen datu orokorrak laburbiltzen ditugu:

## 6. taula. Elkarrizketa taldeak

<b>ET1-Paraná</b>	Berria den Euskal Etxearen lau gazte, bi mutil eta bi neska, adin ezberdinetakoak (17, 19, 23 eta 27 urte). Hauetako bi aktiboak dira (Zuzendaritza Batzordean parte hartzen dute) eta beste bien parte-hartzea pasiboak da (biak dantzariak). Batek ez du euskal oinordekotzarik.
<b>ET2-Arrecifes</b>	Erdibideko Euskal Etxean, parte-hartze pasiboak duten bi neska eta bi mutil (bi dantzari eta bi euskara ikasle), bi adin tartean (17 urtetako gazte bi eta 23 eta 24 urteko gazteak). Batek ez du euskal oinordekotzarik.
<b>ET3-Necochea</b>	Euskal Etxe historikoko lau gazte, hiru mutil eta neska bat, adin tarte ezberdinetakoak (19 urtetako gazte bi eta 20 eta 27 urtetako gazteak). Denek parte hartzen dute txikitatik, denak daude Necocheatik kanpo ikasten egun, denak dira dantzari ohiak.
<b>ET4-Mixtoa</b>	Elkar ezagutzen ez duten hiru neska eta bi mutil, adin tarte ezberdinetakoak (25 urtetako gazte bi eta 21, 22 eta 28 urtetako gazteak), Euskal Etxe diferenteetakoak (historikoak, berriak eta erdibidekoak), bi euren Euskal Etxeetako gazte aktiboak (erreferente eta euskara irakasle), bi pasiboak (dantzari eta euskara ikasle bat) eta urrundu egin den gazte bat (dantzari ohiak). Batek ez du euskal oinordekotzarik.

Azkenik, Euskal Etxeetako erreferente helduekin eta **diasporako informatzaile edo adituekin zortzi elkarrizketa** izan nituen landa lanaren epe diferenteetan. Orotara 13 erreferentek parte hartu zuten. Euskal Etxeen inguruan antolaturik dagoen diaspora instituzionalaren talde ideologiko guztiekin elkartzeari gure helburu, eta guztiekin diaspora, Euskal Etxe eta gazteen paperen inguruan solastea. Aipatzekoa da eurekin izandako elkarrizketa batzuk ez genituela grabatu, jakinik intereseko zenbait datu eta informazio esanguratsu ez zituztela aipatuko. Eta horrela izan zen neurri handi batean, berriz ere, Euskal Etxea historikoen kasuan. Grabatutako erregistro baten faltan, elkarrizketa ostean informazio eta ohar guztiak koadernoan biltzen genituen.

## 7. taula. Diasporako erreferenteekin elkarrizketak

1- 2006ko Azaroa, Buenos Aires	“ <i>Jóvenes Vinculados a las Instituciones Vascas en la Argentina</i> ” (Emakume Abertzale Batza, 2004) ikerketa lanaren bi ikerlariarekin elkarrizketa, ikerketaren aspektu teoriko metodologiko eta ondorio nagusien inguruan aritzeko.
2- 2006ko Azaroa, Rosario	Gazte erreferente bat, psikologoa eta adin txikikoetan aditua. Bere esperientziatik abiatuz, Euskal Etxeko gazteen perfila, rolak eta partaidetza arazo nagusien inguruan mintzatzeko.
3- 2006ko Azaroa, Buenos Aires	FEVAko presidentea (PNV-EAJ gertukoa) eta La Platako Euskal Etxeko kide bat. Diasporaren egoera eta gazteen presentziaren inguruan solasteko.
4-2007ko Otsaila, Buenos Aires	Euskal Etxe historiko baten bi gazte erreferente eta dantza irakasleak. Kontaktuak luzatzeko elkartu baginen ere, Euskal Etxeen eta bertako gazteen inguruan aritu ginen. Ez genuen elkarrizketa grabatu
5- 2007ko Martxoa, Buenos Aires	FEVAko idazkariarekin Euskal Etxeetako bigarren mailako datuak trukatu genituen eta diasporaren inguruan mintzo. Ez genuen elkarrizketa grabatu.
6- 2007ko Apirila, La Pampa	Ezker Abertzaleko erreferente bat. Diasporaren egoera eta gazteen presentzia; erronka nagusiak eta perspektiba berrien inguruan mintzatzeko.
7- 2007ko Apirila, Buenos Aires	EAKo erreferente bat, ikertzailea eta unibertsitateko irakasle batekin eta diaspora erreferente eta ikertzaile batekin, diasporaren egoera eta gazteen presentzia; erronka nagusiak eta perspektiba berrien inguruan mintzatzeko.
8- 2007ko Apirila, Buenos Aires	Euskara erreferente bat eta kultur erreferente bat, proiektu berri baten sustatzaileak eta Euskal Etxe berri bateko kideak. Diasporaren egoera eta bilakaera; gazteen presentzia eta euskara/kultura loturak; jarduerak antolatzeke zailtasunak eta erronka nagusien inguruan mintzatu ginen.

Ikerketa honetan erabilitako hirugarren teknika **behaketa parte-hartzailea** izan da. Informazioa jasotzeko ez ezik, jasotako informazioa interpretatzeko ere beharrezko teknika dugu. Diaspora komunitate txikietan gainera, kide guztiak elkarren ezagun direnean, modu batean zein bestean parte-hartzea saihestezina da. Behaketa ikerketa helburuetara egokitu genuen, hau da, alde aurretik planifikatua izan zen.

Arrotz ezagunaren/ezagun arrotzaren baldintzapean, diaspora kideekin bizipen batzuk konpartitzen genituen espazio zein momentu diferenteetan. Batzuetan, –ekitaldi garrantzitsuetan bereziki–, parte-hartze pasiboagoa zen nirea, gonbidatuari eskaintzen zaizkion arretak jasotzera mugatua eta behatzeko aukerak handituz. Besteetan partehartze aktiboagoa beharrezkoa zen, eurekin zenbait momentu konpartitzen nituenean eta elkarrekintza zuzenago zenean. Egoera guztietan ez nion galderak egiteari

uko egin eta argibideak behar nituenean, modu zuzen eta ireki batean planteatzen nituen zalantzak, nire inpresioak ere eurekin konpartituz, eurak ere intereseko galderak planteatzen zituztelarik.

Buenos Aires Hiritik kanpoko Euskal Etxe bakoitzean, batez beste bi, hiru edo lau egunetako egonaldia planifikatzen nuen. Euskal Etxeak bisitatzeko denborak joan aurretik neurtu eta Euskal Etxeek antolatutako ekimen politiko, sozial edo kulturalak parte hartzeko aukerak tartean bisita egunak lotzen ziren:

### 8. taula. Behaketa parte-hartzailea diaspora ekimenetan

Euskal Astea	Necochea, 2005eko azaroaren 10, 11, 12 eta 13a
Euskal Astea	Kordoban, 2006ko urriaren 27, 28 eta 29a
Kolektibitateen topaketa- <i>Encuentro de Colectividades</i>	Rosarion, 2006ko azaroaren 10, 11 eta 12a
Donostiako Abesbatzaren emanaldia	Paranan, 2006ko azaroaren 14a
Euskara Eguna	La Plata eta Buenos Airesen, 2006ko abenduaren 3a
Erromeria	Mendoza, 2007ko apirilaren 14a

Ekimen hauetan gazteak ez ziren diasporako beste kideekin solasaldi informal zein formalak izateko aukera paregabeak nituen eta, zentzu horretan, bazkariak beti izaten dira une aproposak distentsiorako.

Behaketa parte-hartzailearen euskarri gisa erabili genituen argazkiak, Euskal Etxearen inguruan jasotako materiala, koadernoan idatzitako gogoetak eta bestelako oharak, eta zuzeneko partaidetza, behaketa eta tartean sortzen diren solasaldien mamia jaso ziren. Ikusitakoak eta entzundakoak literalki jaso ziren, behar zenean esanak, espresioak, jergak, esaerak eta abar hitzez hitz transkribatuz, hizkuntza akademikoa alboratuz, eta inpresio pertsonalak deskribapen hutsetik bereiztuz.

Diasporako kideen egunerokoan murgildu ez ezik, aukeratutako Euskal Etxeak ere behatu nituen. Tokian tokiko Euskal Etxeko kontaktuarekin batera zentroak bisitatu nituen, eurekin azpiegituren inguruan mintzatu nintzelarik, espazioaren antolamenduari eta sinbologiari arreta jarritz. Bisitak heldu eta ordu gutxitara egitea

saiatzen ginen, neurri handi batean lehen kontaktuaren hoztasuna eta formaltasunak alboratzea lortuz, espazioa eurak kontrolatzen zuten-eta.

Gazteen eskutik hiritik paseatzen, euren etxeetan edo gustukoek dituzten tabernetan, espazio ezberdin eta esanguratsu horietan guztietan, modu informalean solasaldiak izan ditugu. Diasporako gazteen prestutasuna eta adin baldintzaren kointzidentziak, ibilbideak elkarrekin igarotzea erraztuko zuen behinik behin. Honekin batera, interpretazio eta gogoeta kondentsazioa, momentu oro adi egotearen beharrak, egonaldiaren amaieran leher eginda bukatzea eragiten duela, baina, oro har, egonaldi intentsu hauek oso esanguratsuak zirela eta ikerketari begira, behar-beharrezkoak.

Behaketa parte-hartzailearen teknikaren baitan, hiru errekurtsu hauek bide izanik, Euskal Etxe bakoitzeko txosten bana prestatu eta gazteen profil zehatzagoa lortuko nituen, elkarrizketen analisiaren mesedetan.

## ***NARRAZIOAREN SORRERAK INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA***

Ikerketan zehar hainbat lan burutu nituen aldi berean, besteak beste, material bibliografikoaren bilaketa eta azterketa, bigarren mailako datuen analisia, landa lana, eta txostenen erredakzioak. Zentzu zorrotzean ez zen ikerketa faserik egon, momentu konkretu batzuetan lan konkretu batzuk egin ziren arren, narratiben sorrerak pixkanaka produzituz, ondorengo lerroetan esplikatuko dugunez.

Lehenik eta behin, prestatutako txostenetan teorizazio partzialak plazaratuz joan ziren. Ikerketaren lehen fruituak baziren ere, hauen gaineko irakurketa, berrirakurketa, errebisioa eta berridazketa beharrezkoa zitzaigun. Eta, aldi berean, testu erreferentzialetara behin eta berriz bueltatu behar ginela laster konprobatu nuen. Halaber, gehienetan txosten konkretu baten erabateko uztartzea egitea ez zuela merezi ondorioztatu genuen (irakurri, berrirakurri, laburtu edo eskeman jartzearen ohiko prozesura); ikerketan aurrera egin ahala material berdintsuak interpretazio berriei irekitzen zitzaaien etengabe.

Joan-etorrietan interpretazioan afinatu, izendapen edo kontzeptu egokiagoak erabiliko ziren. Testuak pixkanaka eraiki eta forma hartzen zuen. Berrikuspenak eginez hasiera batean garrantzitsutzat jotzen ez zirenak birbaloratzen ziren; esaterako, narrazio nagusiak ere hasiera-bilakaera-bukaera trazatzearen ideia ikerketan zehar gorpuztu zen.

Erreferentzia bibliografiko nagusien laburpenen txostenak, elkarrizketen txostenak, behaketa parte-hartzailearen txostenak, Euskal Etxe bakoitzaren txostenak, txosten interpretatiboak... era askotako txostenak, momentu diferenteetan eginak, berrikusteko, ordenatzeko eta zentzua emateko ordua heldu zen.

Lehenik eta behin, elkarrizketak egin ahala osorik transkribatu zituzten UBA-Buenos Aireseko Unibertsitateko hamar ikasle eta unibertsitate kanpoko beste bi gazte argentinarrek, eta euskaldun gazte batek euskarazko elkarrizketak transkribatu zituen.

Transkripzioa grabazioaren ahalik eta fidagarrien izatea eskatu zitzaienten, alegia, ahozko komunikazioan egiten diren akats gramatikalak, errepikapenak, eten uneak eta modismoak hitzez hitz transkribatzen saiatzea. Lana erraztearren transkripziorako arau-gida eta euskara-glosategi laburra luzatu zitzaienten. Transkripzioak nik neuk zuzendu nituen (tonuak, erritmoak, barreak, espresioak, euskarazko hitzak eta adierak) grabazioak beste behin ere entzunda.

Elkarrizketak egin, transkribatu, zuzendu eta bi- hiru egunetara analisiak burutzen hasi eta elkarrizketa bakoitzetik txosten bana prestatzen zen. **Elkarrizketa-txostenak** bi parte zituen:

Lehen partea, gaztearen eta elkarrizketaren datuak biltzen zituen. Gaztearen datuei dagokionez, profila osatze aldera: izen-abizenak, adina eta sexua; jaioterria, bizitokia, familia testuingurua, hiritartasun bikoitza duenentz, lan-egoera, ikasketak; ama zein aita aldetik goranzkoen jaioterria, jatorrizko klase soziala eta gaztearen klase soziala, baldin eta bien artean ezberdintasunak baziren; Euskal Etxea, parte hartze mota eta urteak, noiztik den bazkide. Elkarrizketaren inguruko informaziori dagokionez: elkarrizketa lekua, eguna, ordua; topaketa zein elkarrizketa grabazioaren iraupena; beste partaiderik izan den; nor zen elkarrizketa bitartekaria; kontaktu telefonoa, posta elektronikoa, etxeko helbidea. Beste informazioen artean, topaketa aurretik, ondoren edo elkarrizketan zehar izandako inpresioak apuntatzeaz gain, elkarrizketa testuingurua

deskribatu, solasaldia termino egokietan gauzatu zen zehaztu, akatsak eta tentsio uneak, zerk gogaitu eta asalatu zituen, ildo eta aurkikuntza nagusiak, aipatzen ziren.

Bigarren partea, elkarrizketa bakoitzaren edukiaren analisi eta laburpena biltzen zuena. Oraingoan lan nagusia kontakizunaren ildo nagusiak identifikatzean zetzan. Horretarako datu edo informazio esanguratsuenenak aukeratu eta zegozkien zitak atera, horren gaineko interpretazioa egin eta eskema teoriko batean ordenatu beharra zegoen. Gai nagusiak banan-banan lantzen ziren honetan, ildo kronologikoa beharrezkoa zenean soilik mantendu genuen. Orokorrean, diasporako gazte argentinarren kontakizunak partzialki koherenteak ziren –bizi ibilbideak bezain partzialak alegia–, eta gainera, desordenatuak, kaotikoak batzuetan, pasadizoez gaindi, biziak eta oso espresiboak. Txostenetan hori guztia jasotzeko ahaleginak egin behar genituen, horretarako elkarrizketa informal edo behaketaren bidez jasotakoarekin osatuz joan ginela, eta ez bakarrik grabagailuak jasotakoaren bidez.

Landa lanaren erdialdean eten bat hartu nuen. Uda australean ginen, gazteak oporretan ziren eta Euskal Etxeetan mugimendu gutxi zegoen. Hilabete osoan egindako elkarrizketen banakako txosten guztiak berrirakurri eta interpretaziorako giltzak finkatzen dituen txostena prestatzeko hartu nuen.

Analisi konparatiboa burutzeko momentu aproposa zen. Ordura arte egindako banakako elkarrizketa txosten guztiak hartu eta hauetan errepikatzen ziren jarduerak, iritziak, egoera edo eszenatoki nagusiak, gertaera eta istorioak, protagonista nagusiak eta bigarren mailako agenteak identifikatu genituen. Horien bidez erregistro tematikoa landu eta horren inguruan esan dena kategorietan esleitu ez ezik, interpretazioaren hutsune nagusiak, esaten ez zutena, ulertzen ez genuena eta oro har, arreta deitzen zuen oro, mahai gaineratu genuen. Pista jarraitu beharra zegoen, serendipitate datu ustekabe, anomalo eta estrategiko hori, ikerketa enpirikoak teoriaran eragina izango duena (Merton, 1949), bat-batean agertu daitekeena eta bide berriak irekitzen ditzakeena. Kasu horretan, erabat deigarria egin zitzaidan elkarrizketen artean nolabaiteko errekkurrentzia emozional-espresiboa bazela ikusteak. Diasporako gazteen barre eta algarek esaterako, diaspora identitatearen kutsu traumatiko-agoniatsu horrekin zerikusirik ez zuela

nabarmenduko zuten, eta honek, diaspora identitatearen inguruko interpretazio orori buelta eman.

Elkarrizketatutako gazteen arteko esperientziak konparatuz eta antzekotasunak zein ezberdintasunak topatuz, indizio deskriptibo eta esplikatiboak agertuz joan ziren, hau da, diasporako gazteen bizi-ibilbide ezberdinen artetik agertutako errekurrentzia tematikoak edo esperientzia berdintasunak.

Lan horren fruitua **lehen txosten-eskema interpretatiboa** izan zen, jada hiru narratiba nagusi ikuskatzen ahalbideratzen zuena. Narrazioaren ordenazio bat arriskatu, aldagaiak birformulatzen eta zehaztuz joan ziren. Hasierako ikerketa planteamendutik kategoria ezberdinak agertu, kontzeptuak argitu, ikuspegi berriak ireki eta ildo berriak jarraitu ez ezik, hurrengo asteetan egin beharrekoak zehaztu eta galdera berriak ere formulatu genituen. Txosten honek ikerketa bera egokitzea eta osatzea ahalbideratu zuen, eta gerora egin beharreko analisi bateratua erraztu. Halaber, aldeztatik diseinatutako elkarrizketarako gidoi orokorra birformulatzeko guztiz lagungarria izan zen.

Txosten interpretatiboa buruan, landa lanari jarraipena eman nion prozedura berdina jarraituz: elkarrizketak transkribatu, aztertu eta banakako txostenak prestatu, pixkanaka txosten interpretatiboa bera osatzen nindoalarik.

Elkarrizketetan eta analisisietan aurrera egin ahala laster *saturazio teorikora* heldu ginen. Definitutako espazio sozial esanguratsuetan nahiz profil orokor diferenteetan esperientziak errepikatzen zirenean, elkarrizketa berriek datu eta informazio gehigarririk ekartzen ez zutenean, orduan eten nion elkarrizketak egiteari. Landa lanak bazituen gainera muga espazialak, ekonomikoak (desplazamendu gastuak kubritzea besteak beste) eta denborazkoak (2006ko azaroa-2007ko apirila). Saturazio teorikoarekin batera kontuan hartu behar da landa lanak suposatzen duen desgaste edo saturazio pertsonala, zeinak aurreko eta geroako lanak oztopatu ditzakeen.

Euskal Herrian bueltan landa lanaren fasean jasotako informazioaren azken irakurketa egin eta behin behineko ondorioak atera nituen. **Bigarren txosten-interpretatiboa edo eztabaidarako txostena**, diasporako gazteen esperientziaren esanahiak espresatzeko lehen saiakera handia izan zen. Proposamen konkretu batzuk



plazaratu nahi ziren ere. *“Informe a debate: jóvenes en las Euskal Etxeak de Argentina. Primeras conclusiones y propuestas”* izenburupean, 2008ko urrian Euskal Etxeetan elkarrizketatutako gazte guztiei eta informatzaile adituei igorri zitzaien txostena, haien iritzia eta iradokizunak jasotzeko.

Horren harira, narratibak baduela funtzio komunikatiborik argitzea. Bizi-ibilbideen berri ematean, jendarteko kolektibo, talde edo sektore sozial batek bizi dutena gainontzeko kideei gerturatzeko tresna izan daiteke, beste bide batetik hauen inguruko berri ez dutenak izango (Balán, 1974). Gehienetan klase sozialen arteko elkarrizketa izaten dena, ikerketa honetan belaunaldi eta nazio komunikazioa forma bat izan zitekeen narratiba.

Zentzu horretan, ikerketa martxan jarri zenetik hiru izan dira lanaren hartzaile posibleak. Alde batetik, Doktore Tesia bezala aurkeztuko zena, Unibertsitateko ikasle, irakasle eta ikerlariari zuzendutako lana da, ekarpen teoriko, kontzeptual eta analitikoa izan daitekeelakoan. Beste alde batetik, Euskal Herriko jendarte zabalarari zuzendutako lana, diasporaren inguruko ezagutza eta interesa zabaltzarren. Eta, noski, Euskal Etxeetako gazteak eta diasporako kideak. Izan ere, ikerketan zehar gazte askok lanarekiko interesa agertu zuten. Nahiz eta diasporak kolektibo ezaguna osatu, euren erreferentziazko Euskal Etxeko kideen esperientziak eta zentroko arazoak ezagutzen dituzte batik bat —edo behintzat hori ematen zuten aditzera.

Ikerketaren fruituak itzultzeko beharra ezinbestekotzat jo eta ikerketaren ondorioak nahiz Euskal Etxeak hobetze aldera sortutako proposamenak konpartitzeko eta elkarrekin lanean jarraitzeko hautua egin genuen. Horrek ikertze-prozesua moldatzea eskatzen zuen, metodologia zabala eta ebaluazio partehartzailea martxan jartzea. Diagnostika ebaluatzeko lehen txostena igorri zitzaien gazte guztiei posta elektronikoaren bidez, euren iritzia emateko espresuki eskatuz, duda guztiak argitu eta ekarpen guztiak kontuan hartuko genituela espresuki adierazi zitzaielarik. Zazpi erantzun besterik ez genituen jaso (beste horrenbeste ez ziren heldu eta bueltan etorri zitzaizkidan), gehientsuenak esker onak emateko eta animoak luzatzeko. Diaspora erreferente bakar batek bota zituen txostenaren gaineko zenbait iradokizun eta gogoeta. Hortaz, itzulera prozesua ez zen ondo bete eta traba nagusien artean kokatzen dugu muga espaziala, hau

da, txostena aurrez aurre komentatzeko ezintasuna. Bestera era, zorionekoa izan zen gazteekin berriro ere kontaktuan jartzea, hauetako batzuk beraien esperientzien azken berriak eman zutelarik. Adibidez, elkarrizketan horren apasionatuak ziren batzuk ordurako Euskal Etxea utzi zutela bide horretatik enteratu nintzen, hasierako magia eta aparteko esperientziaren mugak plazaratuz, nonbait.

Urte hauetan zehar landutako txostenak eta materialak eskuartean, azken hilabeteetan **azken txostenaren erredakzioari** ekin nion.

Perspektiban, esan liteke guztietatik horixe izan dela lanik neketsuena, nekeak, saturazioak eta bukatzeko gogoak gero eta handiagoak ziren gainera. Azken txostena prestatzeko orduan badago ekidin ezinezko beste arazo edo erronka berri bat: aurreko txosten guztietan “ikertzaileak berarentzako idazten du” eta oraingoan berriz, beste batzuentzat idatzi beharra dagoela, horretarako azalpenen progresioa eta argitasuna, proposatutako argudioen zorrotasuna, lanaren koherentzia (Bertaux, 2005) azaldu behar direlarik. Konplikatuena gehienetan sinplifikazioari heltzea izaten da, alegia, konplexutasuna ahalik eta modu sinpleenean komunikatzea, ordenazio esanguratsua zorrotasun eta apaltasunez narratzea, ikerketa eremu eta ikerketa esparrua gertukoa baino urrutiagokoa den kasuetan bereziki, Argentinako iragana, oraina eta etorkizunaz ari garenean espresuki. Batzuetan ez dago bi hitz elkartzetik; besteetan aldiz, ideien, pentsamenduen eta sentazioen burrunbada moduko ematen da. Zer esanik ez, ikerketa esperientziak berehalako transformazio kognitibo, emozional, harremanezkoak eta baita fisiologikoak dakartzala, –gaztaroan bizi diren transformazioak bailiran, ikerketa gaztarotik heldutasunerako igarobidea litzateke–, eta eraldaketa horiek guztiak txostenaren azken erredakzioan bizi izan nituen gehienbat.

Bidea lausotzeko, –edo kotsolatzeko–, gogoan izan ditudan hitzak izan dira, istorio bat kontatzeko modu ezberdinak ez ezik istorio bat kontatzeko modu egokiagoak ere badirela (Arfuch, 2005). Halaber, ikerketa lanaren azken erredakzioan ezin dela guzti-guztia kontatu; ez behintzat nahi beste jorratu. Hain interesgarriak iruditzen zaizkigun ideia edo gertaera horiek baztertu behar dira (esaterako, euskal astea eta kolektibitateen topaketen inguruko gogoetak); erreferentzia bibliografiko gehiago irakurtzeari uko egin; era guztietako mugak jarri.

Gazte narratibei dagokionez, hauen aurkezpena egiteko hiru aukera ebaluatu ziren (Pujadas, 1992). Lehena, banakako txostenak lantzea (narratibak pilatzea) eta ondoren orokortasun interpretatiboa burutu. Bigarrena, elkarrizketa guztien transkripzioak anexoetan jarri eta testuan zehar erreferentziak luzatzea. Hirugarrena, testuak eta transkripzioen zati esanguratsuenak batera agertzea (“sistema polifonikoa”). Hirugarren bidea egokiena iruditu zitzaidan, narratibaren espresioak eta testimonialtasunak gazteen esperientziak hobeki ulertzeko eta enpatiazko hurbilpena eman dezakeelakoan. Informatzaile hutsak baino, gazteak narratiben protagonista aktiboak izatea nahi genuen.

Gazteen elkarrizketen transkripzioen zita esanguratsuenak, bestalde, ez ziren ezagutu edo esplikatuta nahi dena islatzeko proba bat. Bizi kontakizunek badute funtzio espresiborik; narratibak espresiboak dira. Eta gainera, irakurterrazak eta ulerterrazak izaten dira, eta segituan arreta deitzen dutelakoan gaude. Horregatik, hasiera batean zita guztiak euskaratzeko nahia baneukan ere, –ikerketa-lana bere osotasunean euskaraz aurkezteko gogoak baldintzatua–, gazteen bizitasunak eta espresioak fidelki agertzeko beharra ikusi genuen, testuak hartzen duen bizitasunari begira, gazteen espresioak, modismo idiomatikoak –argentinismoak– testuan trasladatuz.

Gazteek beraiek hitza hartzeko modu bat ere bazen, –askotan ukatua zaien hitza, nagusiek edo instituzioek bahituta sarri askotan. Diasporako gazteen ahotz aniztasuna plazaratzea genuenez helburu, kontuan hartu ziren neska eta mutilen, adina, Euskal Etxe eta parte hartzeko mota eta jarduera diferenteen ahotsak plazaratzea, hots, erreferente nagusien edo Euskal Etxe historikoen gazteen esperientziak narratibak ez irenstea. Askotan seinale argiena erakutsi zutenen zitak aukeratu ziren, hauek hobekien espresatzen ohi zuten azken finean komunikatu nahi zena.

Azken txostenaren aurkezpena egiteko, ahozko komunikazioa eta idatzizko komunikazioa berdina ez direla jakitun, zitak moldatuak izan behar ziren. Soberan ziren errepikapenak, hitzen luzapenak (ejem, eee...) eta laguntza neurriak (ah, mmm, ya, aja,...) kendu ziren. Betiere, gazteak esan ez duen hitzik ez sartzea eta sartzekotan parentesi artean gaineratzea; moztu diren tarteak bereiztea (...); nire agerraldiak letra

larriz adieraztea... “forma aldaketa hauek inoiz ezin dutela zentzua aldatu” (Bertaux, 2005, 126) kontutan hartuz.

Doktore tesia bakardadean egitea, hori izan da guztietatik lanik zailena. Baita zailtasun, oztopo eta bide galduetan galtzearen iturburu nagusienetakoa. Guztiz kontrakoa suerta daiteke ikerketa-taldean arituz gero, ikerketa esperientzia ezberdinak bizi, taldearekin batera ikasi eta ekarpenak egin, beste interes-arloak zabaldu eta arnasa hartu. Ikerketa hau gauzatzen ari zen bitartean Koheslan-Kohesio Soziala Lantzen azterketa taldean parte hartzeko aukera izan nuen, ikerketa esperientzia-marko garrantzitsua izan zaidana.

Honekin batera, nola ez, ikerketa espazio-denboratik haratago joateko aukerarik ez da galdu; hamaika eta bat proiektuetan konpartitu eta konprometitzeko, kalean besterik egon edo esku-hartzeko, bidaiatzeko. Finean, identitate eraketan nahiz ikerketa narratibetan horren garrantzitsuak diren ezagutzak, jardunak eta afektuak garatzeko; norabide berriak trazatu, bideak egin eta ibiltzen jarraitzeko badirenak.

## **BIBLIOGRAFIA**

- ALDAY, ALBERTO (1999), “Vasco-navarros en el Nuevo Mundo: una identidad dual”, hemen: W.A. Douglass (ed.), *The Basque Diaspora/ La diáspora vasca*, Reno, University of Nevada, Basque Studies Program, 150- 173 orr.
- APALATEGI, JOKIN; BALLUERKA, NEKANE; ISASI, XABIER (2001), *La idea de la nación en los niños vascos. Adquisición y desarrollo del concepto de nación en la infancia*, Donostia, Utriusque Vasconia
- ARFUCH, LEONOR (1996), “Figuras del desplazamiento: migrantes, viajeros, turistas”, *Sociedad*, 9 zk, iraila, 153-162 orr.  
- (2002) (2005), *El espacio biográfico. Dilemas de la subjetividad contemporánea*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica
- ARIZAGA, CECILIA (2003), “Ciudad y usos del espacio en los jóvenes: el consumo juvenil desde dos escenarios urbanos”, hemen: A. Wortman (coord.), *Pensar las clases medias: consumos culturales y estilos de vida urbanos en la Argentina de los noventa*, Buenos Aires, La Crujía, 141-156 orr.
- ARRIAGA, MIKEL (1998), *La deconstrucción de la verdad grupal. Sociología generacional de una heterodoxia abertzale*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- AUGÉ, MARC (1992) (1995), *Los no lugares. Espacios del anonimato. Una antropología de la sobremodernidad*, Bartzelona, Gedisa  
- (1998), *Las formas del olvido*, Bartzelona, Gedisa
- AZCONA, JESÚS (2004), “La re-invenición de la nación de los estados nacionales y de las naciones sin estado. A propósito de la diáspora vasca y el País Vasco”, hemen: A. Gurrutxaga (ed.): *El presente del Estado-Nación*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 195-212 orr.
- AZCONA, JOSÉ MANUEL; GARCÍA, INÉS; MURU, FERNANDO (1992), *Historia de la emigración vasca a la Argentina en el siglo XX*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua Nagusia
- AZCONA, JOSÉ MANUEL (1992), *Los paraísos posibles. Historia de la emigración vasca a Argentina y Uruguay en el siglo XIX*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea

- BALÁN, JORGE, (comp.) (1974), *Las historias de vida en Ciencias Sociales. Teoría y técnica*, Buenos Aires, Nueva Visión.
- BARGMAN, DANIEL et al (1992), “Los grupos étnicos de origen extranjero como objeto de estudio de la antropología en la Argentina”, hemen: C. Hidalgo eta L. Tamagno (comp.), *Etnicidad e identidad*, Buenos Aires, Centro Editor de America Latina, 189- 198 orr.
- BASCH, LINDA GREEN; GLICK SCHILLER, NINA & SZANTON BLANC, CRISTINA (1994), “Transnational Projects: a New Perspective”, hemen: *Nations Unbound: Transnational Projects, Post-colonial Predicaments, and De-territorialized Nation-States*. Langhorne, PA: Gordon and Breach, 1-19 orr.
- BAUMAN, ZYGMUNT (1998) (2003), “De peregrino a turista, o una breve historia de la identidad”, hemen: S. Hall eta P. Du Gay (comps), *Cuestiones de identidad cultural*, Buenos Aires, Amorrortu, 40-68 orr.
- (2001) (2005b), *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Buenos Aires, SXXI
- BAUMEISTER, ROY F., HASTINGS, STEPHEN. (1998), “Distorsiones de la memoria colectiva: de cómo los grupos se adulan y engañan a sí mismos”, hemen: D. Paéz et al: *Memorias colectivas de procesos culturales y políticos*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 317-341 orr.
- BECK, ULRICH (1997) (1999), “Hijos de la libertad: contra las lamentaciones por el derrumbe de los valores”, hemen: *Hijos de la libertad*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica, 7-34 orr.
- BELTZA (López, Emilio) (1976), *Nacionalismo vasco y clases sociales*, Donostia, Txertoa
- BERGER, PETER (1996), *Introducción a la sociología*, Mexiko, Limusa-Noruega
- BERGER, PETER; LUCKMANN, THOMAS (1968) (2001), *La construcción social de la realidad*, Buenos Aires, Amorrortu
- BERTAUX, DANIEL (1997) (2005), *Los relatos de vida. Perspectiva etnosociológica*, Bartzelona, Bellaterra
- BLANCO, CRISTINA (2000), *Las migraciones contemporáneas*, Madril, Alianza
- BORON, ATILIO (2008), *Estado, capitalismo y democracia en América Latina*, Hondarribia, Hiru

- BOURDIEU, PIERRE (1979) (2006), *La distinción. Criterios y bases sociales del gusto*, Madril, Taurus
- (1984) (1990), “La juventud no es más que una palabra”, hemen: *Sociología y cultura*, Mexiko, Grijalbo, 163- 173 orr
- CEIC (Centro de Estudios sobre la Identidad Colectiva) (2005), *Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz. Euskal gazteen joerak*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- CLIFFORD, JAMES (1999), *Itinerarios transculturales. El viaje y la traducción a fines del siglo XX*, Bartzelona, Gedisa.
- COHEN, ROBIN (1997), “Diaspora, the Nation-State, and Globalization”, hemen: W. Gungwu (ed.), *Global History and Migration*, Oxford, Westview Press, 117-143 orr.
- DEVOTO, FERNANDO J. (1992), *Movimientos migratorios: historiografía y problemas*, Buenos Aires, Centro Editor de America Latina
- (2003), *Historia de la inmigración en la Argentina*, Buenos Aires, Editorial Sudamericana
- DEVOTO, FERNANDO; FERNANDEZ, ALEJANDRO (1990), “Mutualismo étnico, liderazgo y participación política”, hemen: D. Armus (comp.), *Mundo urbano y cultura popular. Estudios de Historia Social Argentina*, Buenos Aires, Sudamericana, 129-152 orr.
- DOUGLASS, WILLIAM A.; BILBAO, JON (1986) (1975), *Amerikanuak. Los vascos en el Nuevo Mundo*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- DOUGLASS, WILLIAM A.; URZA, CARMELO; WHITE, LINDA; ZULAIKA, JOSEBA (1999), “Hitzaurrea”, hemen: W.A. Douglass (ed.), *The Basque Diaspora/ La diáspora vasca*, Reno, University of Nevada, Basque Studies Program, 17- 24 orr.
- DOUGLASS, WILLIAM A. (1997), “Factores que intervienen en la formación de la diáspora vasca en Nuevo Mundo”, hemen: X. Medina (comp.), *Los otros vascos, las migraciones vascas en el siglo XX*, Madril, Fundamentos, 27-49 orr.
- ELBAUM, JORGE NORBERTO (1996) (2000), “¿Qué es ser joven?”, hemen: M. Margulis (ed.), *La juventud es más que una palabra*, Buenos Aires, Biblos, 157-171 orr.
- ELIAS, NORBERT; DUNNING, ERIC (1986) (1992), *Deporte y ocio en el proceso de la civilización*, Madril, Fondo de Cultura Económica



- EMAKUME ABERTZALE BATZA (2004), “Los Jóvenes Vinculados a las Instituciones Vascas en la Argentina. Estudio cuali-cuantitativo”, hemen: III *Congreso Mundial de Colectividades Vascas Aurrera Goaz*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zertztzu Nagusia, orr 189-219
- EUSKO JAURLARITZA (1994), *Maiatzaren 27ko 8/1994 legea, Euskal Autonomi Elkartez kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako/ Ley 8/1994, de 27 de mayo, de relaciones con las colectividades y centros vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma el País Vasco*, hemen: <http://www.ejgv.euskadi.net/bopv2/datos/1994/06/9402126a.pdf>
- (2003), *316/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena/ Decreto 316/2003, del 23 de diciembre, por el que se regula el programa Gaztemundu*, hemen: <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2004/01/0400159a.pdf>
- FAIST, THOMAS (2001), “Transnationalisation in International Migration. Implications for the study of Citizenship and Culture”, *Transnational Communities Programme, Working Paper Series- ESRC*, 8 zk, 1-41 orr.
- FERNANDEZ DE LARRINOA, KEP A (1991), “Mendebalde urrutiko euskal jaiak: Ospakizuna, Herri-Tradizioa eta Historiaren Ber-Egintza”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 57 zk, urtarrila- ekaina, 37-47 orr.
- GANS, HERBERT J. (1992), “Second Generation Decline: Scenarios for the Economic and Ethnic Futures of the Post-1965 America Immigrants”, *Ethnic and Racial Studies*, lib. 15, 2 zk, 173-192 orr.
- (1994), “Symbolic ethnicity and symbolic religiosity: towards a comparison of ethnic and religious acculturation”, *Ethnic and Racial Studies*, lib. 17, 4 zk, 173-192 orr.
- GARCÍA, IÑAKI (2003) “Los hijos de inmigrantes extranjeros como objeto de estudio de la sociología”, *Revista Andaluza de Ciencias Sociales*, 3 zk, 27-46 orr.
- GARZÓN, ADELA (1998), “Prólogo. Individualismo Psicológico y Memoria Colectiva”, hemen: D. Paéz et al, *Memorias colectivas de procesos culturales y políticos*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 17-27 orr.
- GATTI, GABRIEL (2007), *Las modalidades débiles de la identidad. Una propuesta teórica aplicada al estudio de la identidad en el País Vasco*, Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas
- GERMANI, GINO (1974), “La inmigración masiva y su papel en la modernización del país”, hemen: *Política y sociedad en una época de transición*, Buenos Aires, Paidós, 239- 299 orr.

- GILROY, PAUL (1987), “Diaspora and the detours of identity”, hemen: Kathryn Woodward (ed) *Identity and Difference*, Londres, The Open University, 301-347 orr.
- HALL, STUART (1990), “Cultural identity and Diaspora”, hemen: J. Rutherford (ed.): *Identity*, Londres, Lawrence & Wishart, 222-237 orr.
- HANNERZ, ULF (1996), *Conexiones transnacionales. Cultura, Gente, Lugares*, Madril, Cátedra.
- HANSEN, MARCUS LEE (1966), “The Third Generation”, hemen: O. Handlin (ed.), *The Children of the Unrooted*, New York, Braziller, 255-271 orr.
- IRAZUZTA, IGNACIO (2001), *Argentina: una construcción ritual. Nación, identidad y clasificación simbólica en las sociedades contemporáneas*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- IRIANI, MARCELINO (1999), “El futuro de la “cultura vasca” en Argentina”, hemen: W.A. Douglass (ed.), *The Basque Diaspora/ La diáspora vasca*, Reno, University of Nevada, Basque Studies Program, 44- 60 orr.
- IRIGOYEN ARTETXE, ALBERTO (1999), “Los centros vascos del Uruguay”, hemen: W.A. Douglass (ed.), *The Basque Diaspora/ La diáspora vasca*, Reno, University of Nevada, Basque Studies Program, 78- 93 orr.
- IZAGUIRRE, INÉS (1994), *Los desaparecidos: recuperación de una identidad expropiada*, Buenos Aires, Centro Editor de América Latina
- JIMENO, ROLDAN (2003), “Gerra zibilaren ondoko euskal diasporaren identitatea folkloreak bidez: Caracasko Eusko Etxea”, hemen: T. Peillen (koord.), *Euskaldun etorkinak Ameriketara*, Donostia, Utriusque Vasconia, 157-177 orr.
- KESSLER, GABRIEL (2000) (2003), “Redefinición del mundo social en tiempos del cambio. Una tipología para la experiencia del empobrecimiento”, hemen: M. Svampa, *Desde abajo. La transformación de las identidades sociales*, Buenos Aires, Biblos-Universidad Nacional de General Sarmiento, 25-50 orr.
- KOHESLAN (Kohesio Sozialerako Azterketa Taldea) (2005), *Euskal ijito eta etorkinak nerabezaroan (1). Komunikazio-ikerketarako proiektua/ Gitanos e inmigrantes vascos en su ciclo de vida adolescente: un proyecto de investigación comunicativa*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- (2006), *Euskal ijito eta etorkinak nerabezaroan (2). Diagnostiko esanguratsu bat/ Gitanos e inmigrantes vascos en su ciclo de vida adolescente (2). Un diagnostico de sentido*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

- (2008), *Euskal ijito eta etorkinak nerabezaroan (3). Inguruneko gizarte-hezkuntzazko plana baterantz/ Gitanos e inmigrantes vascos en su ciclo de vida adolescente (3). Hacia un plan socioeducativo en el entorno*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- KUASÑOSKI, SILVIA; SZULIK, DALIA (1997) (1994), “Los extraños de pelo largo. Vida cotidiana y consumos culturales”, hemen: M. Margulis (ed), *La cultura de la noche: la vida nocturna de los jóvenes en Buenos Aires*, Buenos Aires, Biblos, 263-291 orr.
- LASÉN, AMPARO (2000), *A contratiempo. Un estudio de las temporalidades juveniles*, Madrid, CIS
- LEVITT, PEGGY; GLICK SCHILLER, NINA (2004), “Perspectivas internacionales sobre migración: conceptualizar la simultaneidad”, *Migración y Desarrollo*, bigarren sei hilabetealdia, 60-91 orr.
- MANNHEIM, KARL (1993), “El problema de las generaciones”, *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 62 zk, 193-242 orr.
- MARGULIS, MARIO (1977), “Inmigración y desarrollo capitalista. La migración europea a la Argentina”, *Demografía y Economía*, XI: 3 zk, 273-306 orr.
- (1994) (1997), “La cultura de la noche”, hemen: *La cultura de la noche: la vida nocturna de los jóvenes en Buenos Aires*, Buenos Aires, Biblos, 11-30 orr.
- MARGULIS, MARIO; URRESTI, MARCELINO (1996) (2000), “La juventud es más que una palabra”, hemen: M. Margulis (ed.), *La juventud es más que una palabra*, Buenos Aires, Biblos, 13-30 orr.
- (1996b) (2000), “Moda y juventud”, hemen: M. Margulis (ed.), *La juventud es más que una palabra*, Buenos Aires, Biblos, 133-145 orr.
- MARTINEZ DE ALBENIZ, IÑAKI (2005), “Diáspora y sociedad del conocimiento: de una (chata) sociología de la diáspora a las diásporas sociológicas”, hemen: A. Ariño (ed.), *Las encrucijadas de la diversidad cultural*, Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas, 581-605 orr.
- MERTON, ROBERT K. (1949) (2002), *Teoría y estructura sociales*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.
- MORLEY, DAVID (2005), “Pertenencias. Lugar, espacio e identidad en un mundo mediatizado”, hemen: L. Arfuch (comp), *Pensar este tiempo. Espacios, afectos, pertenencias*, Buenos Aires, Paidós, 129-168

- MUGUERZA, FELIPE (1999), “¿Qué es la Federación de Entidades Vasco Argentinas?”, hemen: W.A. Douglass (ed.), *The Basque Diaspora/ La diáspora vasca*, Reno, University of Nevada, Basque Studies Program, 61- 77 orr.
- OIARZABAL DE CUADRA, AGUSTÍN M., OIARZABAL CUADRA, PEDRO J. (2005), *La identidad vasca en el mundo. Narrativas sobre identidad más allá de las fronteras*, European Union, Erroteta.
- OROPEZA, MARIANO (2003), “Un barrio a la carta. Un ensayo sobre estilos de vida y ciudad en un caso”, hemen: A. Wortman (coord.), *Pensar las clases medias: consumos culturales y estilos de vida urbanos en la Argentina de los noventa*, Buenos Aires, La Crujía, 157-180 orr.
- PENNEBAKER, JAMES W.; BASANICK, BECKY (1998), “Creación y mantenimiento de memorias colectivas”, hemen: D. Paéz et al, *Memorias colectivas de procesos culturales y políticos*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 31-48 orr.
- PÉREZ-AGOTE, ALFONSO; AZCONA, JESÚS; GURRUTXAGA, ANDER (1997), *Mantener la identidad. Los vascos del río Carabelas*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- PÉREZ-AGOTE, ALFONSO (1984) (1986), *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*, Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas  
- (1987), *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*, Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas
- PLUMMER, KEN (1983) (1989), *Los documentos personales. Introducción a los problemas y la bibliografía del método humanista*, Madril, Siglo XXI
- PORTES, ALEJANDRO (2005), “Convergencias teóricas y evidencias empíricas en el estudio del transnacionalismo de los inmigrantes”, *Migración y Desarrollo*, lehen sei hilabetealdia, 2-19 orr.
- PORTES, ALEJANDRO; ESCOBAR, CRISTINA; WALTON RADFORD, ALEXANDRIA (2006), “Organizaciones transnacionales de inmigrantes y desarrollo: un estudio comparativo”, *Migración y Desarrollo*, bigarren sei hilabetealdia, 3-44 orr.
- PUJADAS MUÑOZ, JUAN JOSÉ (1992), *El método biográfico: el uso de las historias de vida en las ciencias sociales*, Cuadernos metodológicos, 5 zk, Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas
- RAMIREZ GOICOECHEA, EUGENIA (1991), *De jóvenes y sus identidades. Socioantropología de la etnicidad en Euskadi*, Madrid, Centro de Investigaciones Sociológicas

- REGUILLO CRUZ, ROSSANA (2000) (2004), *Emergencia de culturas juveniles. Estrategias del desencanto*, Colombia, Norma
- ROMERO, LUIS ALBERTO (koord.) (2004), *La Argentina en la escuela. La idea de nación en los textos escolares*, Buenos Aires, Siglo XXI
- SAUTU, RUTH., BONIOLO, PAULA., DALLE, PABLO., ELBERT, RODOLFO (2006) (2005), *Manual de metodología. Construcción del marco teórico, formulación de los objetivos y elección de la metodología*, Buenos Aires, Consejo Latinoamérica de Ciencias Sociales-CLACSO
- SCHUTZ, ALFRED (1974) (2003), *Estudios sobre teoría social. Escritos II*, Buenos Aires, Amorrortu.
- SIMMEL, GEORG (1908) (1986), “El espacio y la sociedad” (9.atala), hemen: *Sociología. Estudios sobre las formas de socialización*, Madril, Alianza, 643-740 orr.
- SVAMPA, MARISTELLA (2000) (2003), “Introducción”, hemen: *Desde abajo. La transformación de las identidades sociales*, Buenos Aires, Biblos-Universidad Nacional de General Sarmiento, 9-24 orr.
- (2000b) (2003), “Identidades astilladas. De la patria metalúrgica al heavy metal”, hemen: *Desde abajo. La transformación de las identidades sociales*, Buenos Aires, Biblos-Universidad Nacional de General Sarmiento, 121-154 orr.
  - (2005), *La sociedad excluyente. La Argentina bajo el signo del neoliberalismo*, Buenos Aires, Taurus
- TERRÉN, EDUARDO (2007), “La identidad nacional de los adolescentes de familias inmigradas”, IX Congreso Español de Sociología, Bartzelona, Irailak 13, 14 eta 15a
- TOTORICAGÜENA, GLORIA (2003), *Diáspora vasca comparada. Etnicidad, cultura y política en las colectividades vascas*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- VALLES, MIGUEL S. (1999), *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*, Madril, Síntesis
- WHITE, HAYDEN (1987) (1992), “El valor de la narrativa en la representación de la realidad”, hemen: *El contenido de la forma. Narrativa, discurso y representación histórica*, Bartzelona, Paidós, 17-39 orr.

---

WIMMER, ANDREAS; GLICK SCHILLER, NINA (2003), “Methodological Nationalism, the Social Sciences, and the Study of Migration: An Essay in Historical Epistemology”, *International Migration Review* 37 (3), 576-610 orr.

WORTMAN, ANA (1991), *Jóvenes desde la periferia*, Buenos Aires, Centro Editor de América Latina

- (1996) (2000), “Televisión e imaginarios sociales”, hemen: M. Margulis (ed.), *La juventud es más que una palabra*, Buenos Aires, Biblos, 103-132 orr.

- (2003), “Identidades y consumos culturales” (lehen atala), hemen: *Pensar las clases medias: consumos culturales y estilos de vida urbanos en la Argentina de los noventa*, Buenos Aires, La Crujía, 23-128 orr

ZIBECHI, RAUL (2005), *Genealogía de la revuelta. Argentina: la sociedad en movimiento*, Bilbo, Likiniano Elkartea

ZITARROSA, ALFREDO (1967), “P’al que se va”, *Del Amor Herido* diskoa